

Nafarroako  
Hezkuntza- Sistemaren  
Txostena

2010-2011 ikasturtea



Gobierno  
de Navarra

**NAFARROAKO HEZKUNTZA SISTEMARI BURUZKO TXOSTENA, 2010/2011 ikasturtea**

**Argitaratzailea**

Nafarroako Eskola Kontseilua. Hezkuntza Departamentua. Nafarroako Gobernua

**Legezko gordailua**

NA-1821/2000

## Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko txostena, 2010/2011 ikasturtea

1. SARRERA .....	9
2.- HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA NAFARROAN.....	11
2.1. Alderdi demografikoak.....	11
2.1.1. Biztanleria eta biztanleriaren osaera .....	11
2.1.2. Eskolatzeko adinean dagoen biztanleria .....	12
2.1.3. Atzerritarrak .....	17
2.2. Alderdi sozioekonomikoak.....	18
2.2.1. Barne Produktu Gordina .....	18
2.2.2. Familia Errenta .....	20
2.2.3. Jarduera sektoreak .....	21
2.2.4. Lan merkatua: aktiboak, lanean ari direnak eta langabetuak .....	22
2.3. Gizarte eta hezkuntza alderdiak .....	28
2.3.1. Biztanleria helduaren ikasketa maila .....	28
2.3.2. Hezkuntzak duen garrantzia esparru sozial eta politikoan .....	31
2.3.2.1. Parlamentuaren jarduera .....	32
2.3.2.2. Nafarroako Arartekoaren jarduerak hezkuntza arloan.....	35
2.3.3. Komunikabideetan landutako hezkuntzako gai nagusiak .....	38
3.- BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK.....	41
3.1. Hezkuntza administrazioa. Egitura .....	41
3.2. Hezkuntzaren finantzaketa publikoa .....	43
3.2.1. Hezkuntza Departamentuaren aurrekontua .....	44
3.2.1.1. Hezkuntzako gastu komunak .....	47
3.2.1.2. Sare publikoko gastuen aurrekontua .....	49
3.2.1.3. Sare pribatuko gastuen aurrekontua.....	53
3.2.1.4. Sare publikoko eta pribatuko irakaskuntzaren gastuen aurrekontua .....	56
3.2.1.5. Hezkuntza Departamentuko aurrekontuetako bestelako gastuak.....	58
3.2.1.6. Gastuen laburpen orokorra eta ratio esanguratsu zenbait .....	59
3.2.2. Zenbait kontu-sail esanguratsutan gauzatutako gastuaren bilakaera .....	61
3.2.3. KPI ofizialak, txosten honetan sartzen diren urteetan .....	64
3.2.4. Konparatzeko datu orokorrak .....	65
3.3. Baliabide materialak .....	72

3.3.1. Ikastetxe publikoak. Araubide orokorreko ikasketak .....	72
3.3.1.1. Ikastetxe eta unitate kopuruaren oinarritzko datuak .....	72
3.3.1.2. Azpiegiturak hobetzeko programak .....	76
3.3.1.3. Ekipamenduak .....	83
3.3.2. Ikastetxe pribatu-itunduak. Araubide orokorreko ikasketak .....	85
3.3.2.1. Ikastetxe eta unitate kopuruaren oinarritzko datuak .....	85
3.3.2.2. Itun moduluak .....	87
3.3.3. Araubide bereziko ikasketak ematen dituzten ikastetxeak .....	92
3.3.3.1. Arte ikasketak .....	92
3.3.3.2. Hizkuntza ikastegiak .....	93
3.4. Giza baliabideak .....	94
3.4.1. Ikastetxe publikoetako irakasleak .....	94
3.4.1.1. Plantillaren bilakaera. Datu orokorrak .....	94
3.4.1.2. Ikastetxe publikoetako orientatzaileak .....	95
3.4.1.3. Hezkuntza Premia Bereziako irakasleak .....	97
3.4.1.4. Hizkuntza irakasleak .....	97
3.4.1.5. Helduen Hezkuntzako irakasleak .....	97
3.4.1.6. Lehen Hezkuntzako ikastetxeak laguntzeko berariazko programa, egoera soziokultural ahulean dauden ikasleei eta atzerritar jatorrikoikasleei hezkuntza erantzuna emateko .....	98
3.4.1.7. Irakasleen administrazio araubidepeko kontratazioak (aldi baterakoak) .....	98
3.4.1.8. Erlijio irakasleen kontratazioa .....	99
3.4.1.9. Funtzio publikoan sartzea, mugikortasuna eta espezialitate berriak eskuratzea, 2009/2010 ikasturtea .....	99
3.4.1.10. Irakasleen ordainsarien bilakaera .....	102
3.4.1.11. Erretiroak .....	103
3.4.1.12. Administrazio eta Zerbitzuetako langileak .....	103
3.4.1.13. Unibertsitatetik kanpoko irakasleen mahai sektoriala eta 2001eko maiatzaren 31ko itunaren jarraipen batzordea .....	104
3.4.1.14. Unibertsitatetik kanpoko irakasleen Segurtasun eta Osasun Batzordea .....	105
3.4.2. Ikastetxe itunduetako irakasleak .....	108
3.4.2.1. Irakasle plantillaren bilakaera itunpeko ikastetxeetan .....	108
3.4.2.2. Araubide bereziko irakasleen bilakaera .....	108
3.4.2.3. Ordainsarien taulak itunpeko irakaskuntzan .....	109
3.4.2.4. Enpresa eta sindikatuak, Nafarroako itunpeko irakaskuntzan .....	110
3.4.3. Ikasle/Taldeko ratioen bilakaera .....	112
3.5. Zerbitzu osagarriak .....	113

3.5.1. Eskola garraioa .....	113
3.5.2. Eskola jantokiak .....	114
3.5.3. Eskola egoitzak .....	115
3.5.4. Garraio eta jantokirako laguntzak hizkuntza eredua aukeratzeagatik .....	118
<b>4.- HEZKUNTZA PROZESUAK ETA POLITIKAK .....</b>	<b>119</b>
4.1. Irakaskuntzak antolatu eta ordenatzea .....	119
4.2. Aukera berdintasunerako politikak .....	123
4.2.1. Ikasleen aniztasunari erantzutea .....	123
4.2.2. Hezkuntza konpentsazioa .....	125
4.2.2.1. Atzerritar jatorriko ikasleei erantzutea .....	125
4.2.2.2. Aldi baterako hemen dauden ikasleak .....	131
4.2.2.3. Ospitalizaturiko ikasleak.....	132
4.2.2.4. Egoera ahulean dauden ikasleak dituzten ikastetxe publiko eta itunduetarako laguntza ekonomikoak .....	132
4.2.3. Gizon eta emakumeen arteko berdintasuna .....	133
4.2.4. Bekak eta ikasteko laguntzak .....	137
4.3. Hezkuntza kalitaterako politikak .....	143
4.3.1. Eskola zuzendaritza .....	143
4.3.2. Kalitatearen kudeaketa ikastetxeetan .....	143
4.3.2.1. Ikastetxe publikoak .....	143
4.3.2.2. Ikastetxe itunduak .....	148
4.3.3. Irakasleen etengabeko prestakuntza .....	149
4.3.4. Lanbide Heziketa .....	158
4.3.5. Hezkuntza erkidegoaren parte-hartzea .....	162
4.3.5.1. Nafarroako Eskola Kontseilua / Hezkuntzako Batzorde Nagusia .....	163
4.3.5.2. Ikastetxeko eskola kontseiluak .....	164
4.3.5.3. Parte-hartze sozialerako beste bide batzuk .....	166
4.3.6. 0-3 urteko zikloa ezartzea .....	171
4.3.7. Hizkuntzak ikastea.....	174
4.3.7.1. Atzerriko hizkuntzak .....	174
4.3.7.2. Euskara .....	179
4.3.8. Europar Batasuneko hezkuntza programak .....	181
4.3.9. Ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzea .....	183
4.3.9.1. Lehen Hezkuntzako ikasleen oinarrizko gaitasunen hobekuntza planaren diseinua (2007-2011) .....	183
4.3.9.2. Bigarren Hezkuntzako ikasleendako hobekuntza plana. Irakurketa plana .....	184
4.3.10. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak zabaltzea. ....	186

4.3.10.1. Teknologia Berriak eta Hezkuntza Programa (PNTE) .....	186
4.3.10.2. Konektagarritasuna .....	186
4.3.10.3. Ekipamendu informatikoa.....	187
4.3.10.4. IKTak curriculumean integratzea.....	189
4.3.10.5. Prestakuntza .....	189
4.3.10.6. Hezkuntza edukiak garatzea .....	191
4.3.10.7. Hezkuntza Departamentuko hezkuntza ataria garatzea ..	191
4.3.10.8. Integra IKT proiektua .....	192
4.3.10.9. Informazioa eta bestelako zerbitzuak kudeatzea, Hezkuntza Departamentuarendako .....	195
4.3.11. Eskola kirola eta eskolaz kanpoko jarduerak .....	202
4.3.11.1. Eskola kirola .....	202
4.3.11.2. Eskolaz kanpoko jarduerak .....	209
4.3.12. Bizikidetza eta balioetan heztea .....	210
4.3.12.1. Balioetan hezteko programak .....	210
4.3.12.2. Bizikidetzarako Aholkularitza .....	211
4.3.13 Ikastetxeei zuzendutako bestelako jarduerak, proiektuak, programak eta sariketak .....	212
4.3.13.1. Eskola liburutegien programa .....	212
4.3.13.2. Argitalpenak .....	214
4.3.13.3. Lurralde Lankidetzarako Programak .....	214
5.- ESKOLA SISTEMAREN EMAITZAK .....	219
5.1. Hezkuntza sistemara sarbidea .....	219
5.1.1. Eskolatze prozesuaren emaitzak .....	219
5.1.1.1. Eskolatze prozesuaren arauketa .....	220
5.1.2. Araubide orokorreko ikasketetan eskolaturiko ikasleak .....	222
5.1.2.1. Eskolatze emaitza orokorrak Nafarroako Foru Komunitatean .....	222
5.1.2.2. Ikasleak hizkuntza ereduen arabera .....	225
5.1.2.3. Haur Hezkuntzako lehen zikloa .....	228
5.1.2.4. Lanbide Heziketako ikasleak.....	231
5.1.2.5. Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak.....	235
5.1.2.6. Ikasle etorkinak .....	241
5.1.2.7. Helduen hezkuntzako ikasketetako ikasleak .....	242
5.1.3. Araubide bereziko ikasketetan eskolaturiko ikasleak .....	247
5.1.3.1. Hizkuntza ikasketetako ikasleak.....	247
5.1.3.2. Nafarroako Gobernuaren Euskararen Gaitasun Agiria (EGA).....	249
5.1.4. Arte ikasketetako ikasleak .....	250
5.1.4.1. Musika .....	250

5.1.4.2. Dantza .....	250
5.1.4.3. Arte Plastikoak eta Diseinua .....	250
5.2. Progresioa sistema arautuan .....	251
5.2.1. Lehen Hezkuntza .....	252
5.2.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntza .....	256
5.2.2.1. Ikastalde arruntak .....	256
5.2.2.2. Curriculum Egokituko Unitatea – Curriculum Aniztasuna ...	260
5.2.3. Batxilergoa .....	262
5.2.4. Selektibitateko emaitzak – Unibertsitateko sarbide probak .....	264
5.3. Ebaluazio diagnostikoen emaitzak .....	270
5.3.1 2010/2011 ikasturteko ebaluazio diagnostikoa Nafarroan .....	270
5.3.1.1 Lehen Hezkuntzako 4.eko ebaluazioa .....	270
5.3.1.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2.eko ebaluazioa ....	277
5.3.2 Espainiako ebaluazio diagnostikoak. Nafarroako Foru Komunitateko emaitzen analisia .....	292
5.3.2.1. 2010eko Ebaluazio Diagnostiko Orokorra. Bigarren Hezkuntzako 2. maila .....	292
5.3.2.1.1 Nafarroako egoera, beste autonomia erkidegoekin alderatuta .....	292
5.3.2.2. 2009ko Ebaluazio Diagnostiko Orokorreko emaitzak. Lehen Hezkuntzako 4. maila .....	302
5.3.3. Nazioarteko ebaluazio diagnostikoak. PISA 2009. Nafarroako Foru Komunitateko emaitzen analisia .....	306
5.3.4. Hezkuntza sistemaren emaitzak Estatuko testuinguruan .....	322
5.4. Sariak eta sari bereziak .....	325





---

Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko 2010/2011 ikasturteko txostena, Nafarroako Eskola Kontseiluak prestatua, 2011ko abenduaren 20an izandako osoko bilkuran onetsia izan zen, aldeko 18 boto eta abstentzio batekin.

Ondoko pertsonak hartu zuten parte saio hartan:

**Pedro González Felipe jn.**

Kontseiluburua

**Ignacio Iriarte Aristu jn.**

Idazkaria

**Santiago Álvarez Folgueras jn.**

Guraso elkarten federazioetako ordezkaria (HERRIKOA)

**Marcelino Azcoiti Alonso jn.**

Toki entitateetako ordezkaria

**Pedro María Baile Torrea jn.**

Guraso elkarten federazioetako ordezkaria (CONCAPA)

**Fernando Barainca Lagos jn.**

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FSIE-SEPNA)

**Aurora Bernal Martínez de Soria and.**

Unibertsitateen ordezkaria / Nafarroako Unibertsitatea

**Ernesto Delas Villanueva jn.**

Guraso elkarten federazioetako ordezkaria (SORTZEN)

**Juan Ramón Elorz Domezain jn.**

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

**Jesús M<sup>a</sup> Ezponda Iradier jn.**

Izen handiko pertsona

**Francisco José Flores Pérez jn.**

Enpresarien elkarteetako ordezkaria

**José Miguel Gastón Aguas jn.**

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (STEE-EILAS)

**Maximino Gómez Serrano jn.**

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

**Carmen M<sup>a</sup> González García and.**

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria

**David Herreros Sota jn.**

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

**Iñigo Huarte Huarte jn.**

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

**Ignacio M<sup>a</sup> Iraizoz Zubeldía jn.**

Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE)

**Eliseo Jiménez Carmona jn.**

Ikastetxe pribatuetako irakasleen ordezkaria (FETE-UGT)

**Lourdes Larunbe Arretxe and.**

Ikastetxeen administrazioeko eta zerbitzuetako langileen ordezkaria

**Francisco Javier Mangado Urdániz jn.**

Izen handiko pertsona

**José Agustín Ortiz Calzada jn.**

Nafarroako ikastetxe pribatuetako entitate titularren ordezkaria (ANEG-FERE)

**Jesús M<sup>a</sup> Pastor De Luis jn.**

Hezkuntza administrazioaren ordezkaria

**Aitziber Pérez Blanco and.**

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (LAB)

**Pedro Rascón Macías jn.**

Nafarroako Parlamentuaren ordezkaria

**Javier Train Yubero jn.**

Ikastetxe publikoetako irakasleen ordezkaria (CCOO)

**Paloma Virseda Chamorro and.**

Unibertsitateen ordezkaria / Nafarroako Unibertsitate Publikoa


## 1.- SARRERA

Nafarroako Eskola Kontseiluak, 2011ko abenduaren 20ko osoko bilkuran, Nafarroako unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemaren gaineko txostena aurkeztu zuen, 2010/2011 ikasturtekoa. Horrela, Nafarroako Eskola Kontseilua edo Hezkuntzako Batzorde Nagusia arautzen duen 12/1997 Foru Legean jasotako legezko aginduarekin bat egiten du, eta erakundearen helburu nagusia laguntzen du, hain zuzen ere, hezkuntzan inplikaturako gizarteko sektoreen parte-hartzea, Nafarroako gizarteari Foru Komunitateko hezkuntzaren errealitatearen deskribapen oso, sinesgarri eta ordenatua eskainiz.

Txostenaren edizio honetan datuak azaltzeko orduan ikuspegi sistemikoa hartu dugu. Uste dugu ikuspegi honek lagunduko digula hobeki ulertzen zein den gure hezkuntza sistemaren funtzionamendua, sistemari ekartzen zaizkion *input* edo sarrera multzo baten konbinazio gisa deskribatuz. Horiek, barneko *prozesu* jakin batzuen bidez, erdietsitako *emaitza* edo lorpen bihurtzen dira eta errealitate sozial eta ekonomikoan eragiten dute. Hori dena testuinguru batean gertatzen da eta input horietan eragiten du, prozesuetan ondorioak ditu eta *emaitzak* baldintzatzen ditu, era berean, *testuinguru* berri bat sortuz. Funtsean, hezkuntza sistema harreman zirkular baten gisan aztertu daiteke. Bertan, *inputak* eraginkortasunez kudeatzen badira hezkuntza prozesu eta politika egoki eta iraunkorren bidez, eginahal horren emaitzak hobetu egingen dira eta horrek era berean bere eragina izanen du testuinguruaren baldintzak hobetuz, gizarte garapena eta aurrerabidea sortuz.

Ikuspegi horrek badu abantaila bat, bat datorrela OCDE-k ondoz ondoko *Panorama de la Educación. Indicadores de la OCDE* txostenetan jasotako oinarritzko eskemarekin eta hezkuntzako adierazleen Estatu mailako zein nazioarteko sistema gehienekin. Horrela, erraztu egiten du Nafarroako Foru Komunitateko datuak Espainiako, Europar Batasuneko edo OCDEko gainontzeko estatuetaoekin erkatu ahal izatea.

Ondoko irudian modu eskematikoan azaltzen da hartutako egitura berria.



Txostenaren denborazkotasunak bat egiten du 2010/2011 ikasturtearen hasiera eta bukaera formalarekin, hots, 2010eko irailaren 1arekin eta 2011ko abuztuaren 31rekin. Nolanahi ere, zenbait kasutan, ikasturteari edo aipaturiko denbora mugei egindako erreferentzia gainditzen da.

Adibidez, 4.1 atalean, Nafarroako Aldizkari Ofizialean edo Estatukoan argitaratutako arauak jasotzen dira, eta horien artean egon daitezke 2011/2012 ikasturteari dagozkion arauak. Izan ere, ezinbestekoa da arauak dagokien ikasturtea formalki hasi baino lehen argitaratzea. Beste kasu batzuetan, informazioak lotura du informazio hori eman duen iturriak berak erabiltzen dituen

erreferentzia tenporalekin. Hori da, hain zuzen ere, Hezkuntza Departamentuak gauzatutako gastuei buruzko atalarekin gertatzen dena, datu horiek Nafarroako kontu orokorretatik hartuak baitira. Hala da baita ere Parlamentuaren eta Arartekoaren jardueri dagokien atalean, bi erakunde horietako memorietatik jaso baitira datuak.

Hezkuntza Ministerioaren estatistika eta adierazleetatik etorritako informazioaren egoera berezia da, eskuragarri dauden daturik berrienak 2008/2009 ikasturtekoak direlako; eta antzeko zerbait gertatzen da Nafarroako ikasleen promozioari buruzko informazioarekin, eskuragarri dauden azken datuak 2009/2010 ikasturtekoak baitira.

Txosteneko ataletako batean Nafarroako ikasleek ebaluazio diagnostikoko prozesuetan, dela Nafarroako hezkuntza sistemak egindakoetan dela Estatu mailakoetan eta nazioartekoetan, lortutako emaitzak azaltzen dira, modu deskribatzailean, eta aurtengoan atal horretan informazio zabalagoa ematen saiatu gara.

Maiz, aurreko urteetako erreferentziekin osatu da txostena. Horrela, sistemaren bilakaera ikusi ahal izateko datu segidak ematen zaizkie irakurleei.

Txosten hau egiteak datuen bilketan ahalegin irmoa egitea suposatzen du. Hori ez litzateke posible Hezkuntza Departamentuko zerbitzuen, atalen eta bulegoen laguntzarik eta Idazkaritza Teknikoaren koordinazio lanik gabe eta, zentzu horretan, aipamen berezia merezi du Ikuskapen Zerbitzuko Ebaluazio Atalak, handik baitatuz bilakaeraren inguruko datuak. Txostenean inoiz gertatu daiteke irakasleen, ikasleen edo unitateen gaineko datuak ez etortzea bat; hori gertatzen da datuak iturri desberdinetatik datozelako eta egun desberdinetan jaso direlako.

Bene-benetan, mila esker denei lan honen garrantzia ulertzeagatik eta zuen lankidetzagatik. Mila esker Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuari, Nafarroako Unibertsitate Publikoari, Nafarroako Ikastolen Elkarteari, CONCAPA; HERRIKOA eta SORTZEN guraso elkarten federazioei, Diario de Navarrari eta Diario de Noticiasi, eskatutako datuak emateagatik.

Nafarroako Eskola Kontseiluaren nahia eta desioa da txosten hau baliagarria izan dadila Nafarroako Hezkuntza Sistema hobeki ezagutu nahi duten pertsona eta instituzioendako, eta ezagutza horrek balio dezala hezkuntza sistema hobetuko duten ideiak eta ekimenak sustatzeko, parte-hartzea eta konpromisoa nagusi izanen diren testuinguru batean.

## 2.- HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA NAFARROAN

Hezkuntza sistemaren eta testuinguruaren arteko erlazioa zirkularra da. Testuinguru-aldagaiak, hezkuntzak norbanakoengan duen eragina sustatzen, mugatzen edo baldintzatzen dute, hezkuntzako azpiegiturei eta politikei erasaten diete eta hezkuntza emaitzetan eragiten dute. Era berean, eskualdeen garapena, hein handi batean, bertako biztanleen heziketa mailaren arabera da, ezagutzen oinarritutako gizarte eta ekonomien kasuan.

Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitatez kanpoko hezkuntza sistemak duen egoeraren gaineko txosten honetan aintzat hartzen da hezkuntza sistemarendako eta hezkuntza sistemaren ebaluaziorako garrantzitsuak diren testuinguru-faktoreen multzo esanguratsu baina ez sakon bat.

### 2.1. Alderdi demografikoak

Biztanleriarekin lotutako adierazleak funtsezkoak dira irakaskuntza planifikatzeko. Adin taldeen arabera biztanleriaren banaketa, banaketa geografikoa, osaera eta jatorria, edo datu horiek etorkizunean izanen duten bilakaeraren aurreikuspena hezkuntzaren zerbitzu publikoa planifikatzerakoan kontuan izan beharreko oinarritzko datuak dira eta, beraz, lurralde baten hezkuntza politika diseinatzeko elementu estrategikoak dira.

#### 2.1.1. Biztanleria eta biztanleriaren osaera

1975etik 2010era bitarteko denbora tartean (35 urte) Nafarroako biztanleriak izugarritzko aldaketa izan du, ez bakarrik biztanle kopuruari dagokionez, baita adin taldeen arabera banaketari dagokionez ere.


2010. urtearen bukaeran Nafarroan 641.293 biztanle zeuden, 1975ean baino %31,75 gehiago eta 1996an baino %23,1 gehiago. Nolanahi ere, hazkundea ez da adin tarteka homogenea. 75 urtetik gorako biztanleriaren hazkunde oso handia ikusten da. Eta baita 30 urtetik beherako biztanleria gutxituz doala ere, eta hori are nabarmenagoa da 0-14 adin tartean.

1. koadroa - Nafarroako biztanleriaren bilakaera				
	1975	1996	2011	1975/11 tarteko hazkundea, ehunekotan
0 - 14 urte	126.145	74.371	98.659	%-21,80
15 - 29 urte	113.275	121.058	104.348	%-7,90
30 - 44 urte	88.482	115.953	161.641	%82,00
45 - 59 urte	83.468	90.280	129.205	%54,80
60 - 74 urte	56.594	80.040	86.958	%57,10
75 - 89 urte	17.923	36.156	53.721	%300,00
90 urte edo gehiago	831	2.716	6.761	%813,50
Guztira	486.718	520.574	641.293	%31,75

Iturria: Eskola Kontseilua, Nafarroako Estatistika Institutuko datuetan oinarrituta

Berebiziko garrantzia du datu horrek hezkuntzaren ikuspegitik, batez ere adin tarte horretakoek jasotzen dituztelako "hezkuntza zerbitzuak". 1975etik 1996ra arteko 20 urteetan ia %60 jaitsi zen biztanle kopurua 0-14 urtekoen adin tartean jaiotza-tasaren beherakadagatik, eta eragin nabarmena izan zuen horrek hezkuntzako planifikazioan eta erabakiak hartzerakoan. Eta orain ere eragin nabarmena du alderantzizko efektuak, alegia, azken hamarkadan adin tarte horretan izandako %30eko gorakadak.

### Nafarroako biztanleriaren bilakaera



Iturria: Eskola Kontseilua, Nafarroako Estatistika Institutuko datuetan oinarrituta

Ondoko biztanleria piramideek azken hamarkadetan Nafarroako biztanleriak izandako bilakaera adierazten dute.



Iturria: Hezkuntza Kontseilua, Nafarroako Estatistika Institutuko datuetan oinarrituta

#### 2.1.2. Eskolatzeko adinean dagoen biztanleria

Hezkuntzako adierazleen estatu mailako sistemak ezarritako definizioarekin bat, eskolatzeko adinean dagoen biztanleriatzat jotzen da (C1 adierazlea), biztanleria osoko 100 pertsonen artean zenbat diren 0-29 urteko adin tartean daudenak. Adierazle honek adierazten du herri edo eskualde bateko hezkuntza sistema potentzialki zenbat herritarrengana iritsi beharko litzatekeen, eta informazio esanguratsua da hezkuntza planifikatzeko orduan.

Nolanahi ere, aipatzekoa da azken hamarkadetan hezkuntzaren eta norbanakoaren prestakuntzaren kontzeptio berri bat inposatu dela, "bizitzan zeharreko prestakuntza" gisa definitzen dena (*long life learning*). Ikuspegi berri honek prestakuntzako eredu tradizionala malgutzen du, eta aintzat hartzen ditu ezagutzaren gizartearen ezaugarri diren bestelako prestakuntza beharrezko garrantzitsuak, hala nola, pertsona guztien etengabeko prestakuntza, bereziki langileena, profesionalen eguneratze zientifiko eta

## HEZKUNTZAREN TESTUINGURUA NAFARROAN

teknikoa, hezkuntza sistema modu goiztiarrean utzi zutenei bigarren aukera ematea, edo modu informalean zein laneko esperientziaren bidez eskuraturiko kualifikazio profesionalak egiaztatzea. Zentzu horretan, eskolatzeko edo heziketa jasotzeko adinean dagoen biztanleria nabarmen zabalduko da.

Ildo horretan, helduen prestakuntzara dedikaturiko atalean, txosten honek, Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetan edo Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuaren mendeko ikastetxe edo programetan emandako lanerako prestakuntzaren eta prestakuntza jarraituaren datuak jasoko ditu.

Ondoko koadro eta grafikoetan ikus daitekeen bezala, Nafarroan eskolatzeko adinean dagoen biztanleriaren ehunekoa Espainiako batez bestekotik beheraxeago dago. Lehen tartean (0-17 urte) balioak batez bestekoan daude eta batez bestekotik behera ondoko tartean (18-29).

Adierazle honek behera egin du 1996. urtetik aurrera autonomia erkidego guztietan. Espainiako batez bestekoa %8,3-koa da eta Nafarroakoa %7,0-koa. Immigrazioaren ondorioz biztanleria hazi bada ere, adierazlean bi aldagai demografikoren eragina nabaritzen da. Batetik, bizi itxaropena luzatu egin da, eta ondorioz, biztanleria zahartu egin da (adierazlea biztanleria kopurua absolutuekiko ehuneko bat da), eta bestetik, azken hamarkadetan Espainian jaiotza-tasak behera egin du.


Fenomeno honek Europar Batasunari eta Japonia bezalako herrialdeei ere eragin die, "UE-25 eta OCDEko beste herri batzuetan eskolatzeko adinean dagoen biztanleria" izeneko grafikoan ikus daitekeen bezala. AEBn ordea, ez du hainbesteko eraginik.

<b>2. koadroa - Eskolatzeko adinean dagoen biztanleria (0-29 urte). Biztanleria osoarekiko ehunekoa, adin tarteka<sup>1</sup> eta autonomia erkidegoka</b>								
	0-2 urte	3-5 urte	6-11 urte	12-15 urte	16-17 urte	18-23 urte	24-29 urte	Guztira
Espainia mailan, guztira	%3,3	%3,1	%5,9	%3,7	%1,9	%6,4	%8,4	%32,6
Asturias	%2,2	%2,2	%4,2	%2,7	%1,4	%5,2	%7,4	%25,3
Galizia	%2,4	%2,4	%4,6	%3,0	%1,6	%5,8	%7,9	%27,7
Gaztela eta Leon	%2,5	%2,4	%4,7	%3,1	%1,7	%5,8	%7,5	%27,8
Euskal Autonomia Erkidegoa	%2,9	%2,8	%5,2	%3,1	%1,6	%5,2	%7,1	%27,9
Kantabria	%2,9	%2,7	%5,1	%3,1	%1,6	%5,7	%8,1	%29,2
Aragoi	%3,0	%2,8	%5,3	%3,4	%1,8	%5,9	%7,7	%29,8
Errioxa	%3,2	%2,9	%5,6	%3,5	%1,8	%6,0	%8,0	%30,9
Nafarroa	%3,3	%3,2	%6,0	%3,6	%1,8	%5,8	%7,7	%31,4
Katalunia	%3,5	%3,3	%6,1	%3,6	%1,8	%6,0	%8,1	%32,4
Valentziako Erkidegoa	%3,4	%3,2	%6,0	%3,7	%1,9	%6,3	%8,5	%32,9
Madril	%3,6	%3,4	%6,1	%3,6	%1,8	%6,2	%8,6	%33,4
Extremadura	%2,9	%3,0	%5,7	%4,0	%2,2	%7,4	%8,3	%33,5
Gaztela-Mantxa	%3,2	%3,0	%5,9	%4,0	%2,1	%7,0	%8,6	%33,8
Kanariak	%3,0	%3,2	%6,2	%3,9	%2,1	%7,0	%9,0	%34,4
Balear Uharteak	%3,4	%3,4	%6,3	%3,8	%2,0	%6,7	%9,0	%34,6
Andaluzia	%3,6	%3,4	%6,4	%4,1	%2,2	%7,3	%9,0	%36,0
Murtzia	%3,9	%3,8	%6,8	%4,2	%2,1	%7,1	%9,3	%37,2
Ceuta	%4,5	%4,1	%7,6	%4,7	%2,5	%8,5	%9,0	%40,9
Melilla	%4,7	%4,8	%8,4	%5,2	%2,7	%8,6	%9,1	%43,5

*Iturria: Eskola Kontseilua, Estatistika Institutu Nazionaleko datuetan oinarrituta. Gaur eguneko biztanleriaren estimazioa, 2010eko uztailaren 1eko datarekin.*

<sup>1</sup> Hautaturiko adin tartean kontuan izan dira hezkuntza sistemaren etapetan dauden eskolatzeko adinak (Haur Hezkuntzako 1. zikloa eta 2.a, Lehen Hezkuntza, DBH, Derrigorrezkoaren Ondoko Bigarren Hezkuntza, eta Goi mailako Hezkuntza edo Unibertsitatekoa).

**Grafikoa: Eskolatzeko adinean dagoen biztanleria (0-29 urte). Biztanleria osoarekiko ehunekoa, adin tarteka eta autonomia erkidegoka**



Iturria: Eskola Kontseilua, Estatistika Institutu Nazionaleko datuetan oinarrituta. Gaur eguneko biztanleriaren estimazioa, 2010eko uztailaren 1eko datarekin.




**3. koadroa- Eskolatzeko adinean dagoen biztanleriaren ehunekoa (0-29 urte), biztanleria osoarekiko, autonomia erkidegoa. 1996 - 2009 urteak**

	1996. urtea	2005. urtea	2007. urtea	2009. urtea	2009. eta 1996. urteen arteko bariazioa
Espainia mailan, guztira	40,9	34,8	33,9	32,6	-8,3
Andaluzia	45,7	38,7	37,5	36,0	-9,7
Aragoi	35,9	31,1	30,7	29,8	-6,1
Asturias	34,8	28,0	26,8	25,3	-9,5
Balearr Uharteak	41,5	36,4	35,7	34,6	-6,9
Kanariak	46,5	37,8	36,3	34,4	-12,1
Kantabria	38,1	31,7	30,6	29,2	-8,9
Gaztela eta Leon	36,2	30,0	29,1	27,8	-8,4
Gaztela-Mantxa	40,6	35,6	34,9	33,8	-6,8
Katalunia	39,1	33,9	33,3	32,4	-6,7
Valentziako Erkidegoa	41,1	35,5	34,4	32,9	-8,2
Extremadura	41,7	35,8	34,8	33,5	-8,2
Galizia	37,4	30,7	29,5	27,7	-9,7
Madril	41,7	35,3	34,5	33,4	-8,3
Murtzia	46,2	39,8	38,8	37,2	-9,0
Nafarroa	38,4	32,9	32,2	31,4	-7,0
Euskal Autonomia Erkidegoa	37,6	30,0	28,9	27,9	-9,7
Errioxa	36,9	32,7	32,0	30,9	-6,0
Ceuta	49,3	42,6	41,2	40,9	-8,4
Melilla	50,6	44,5	43,8	43,5	-7,1

*Iturria: Eskola Kontseilua, Estatistika Institutu Nazionaleko datuetan (2009. urtea) eta Madrilgo Eskola Kontseiluaren Hezkuntza Sistemaren Txosteneko datuetan (1996., 2005. eta 2007. urteak) oinarrituta*

**Grafikoa: Eskolatzeko adinean dagoen biztanleria (0-29 urte) EB 25eko herrialdeetan eta OCDEko beste herrialde batzuetan. 1998-2008 Bilakaera. Kopuruak ehunekotan, herrialde bakoitzeko biztanleria osoarekiko**



Iturria: Eskola Kontseilua, Eurostat-eko datuetan oinarrituta.

2.1.3. Atzerritarrak

Azken hamarkadan izandako hazkundera batez ere immigrazioaren eraginari zor zaio. Erroldako behin-behineko datuak Estatistika Institutu Nazionalak 2010eko urtarrilaren 1ean emandakoak dira. Bertan adierazten da Nafarroan bizi diren atzerritarrak 70.931 direla, biztanleriaren %11,2, osotara. Ehuneko hau Espainiakoaren antzekoa da: bertan 5.708.940 atzerritar daude, biztanleriaren %12,2, osotara. Nafarroan, immigranteen ehunekoak, osotara biztanleriak ematen duen datuari dagokionez, ez da berdin banatzen adin tarteka; handiagoa da 16-44 adin tartean (%18,3) eta 0-15 adin tartean (%12)<sup>2</sup>. Erakundeekiko Harremanetako Departamentuko Immigrazioaren Behatokiak emandako datuek adierazten dute gure erkidegoan bizi diren atzerritarren %17ak 15 urte baino gutxiago dituela. Aldiz, Nafarroan diren atzerritarren artean 65 urtetik gorakoak %1,5 baino gutxiago dira, eta atzerritarren ia %70a 16 eta 44 urte bitartekoa da.

4. koadroa - Atzerritarren ehunekoak, adin tarteka, 2010. urtea							
	Biztanleria, osotara	Atzerritarrak	Atzerritarren ehunekoak, kopuru osoarekiko (%)	0-15 adin tarteko atzerritarren ehunekoak (%)	16-44 adin tarteko atzerritarren ehunekoak (%)	45-65 adin tarteko atzerritarren ehunekoak (%)	65< adin tarteko atzerritarren ehunekoak (%)
Espainia, osotara	41.273.297	5.747.734	12,22	14,49	62,98	17,16	5,37
Balear Uharteak	863.793	242.256	21,9	13,10	57,80	20,87	8,23
Valentziako Erkidegoa	4.217.947	893.759	17,48	13,13	54,04	20,90	11,94
Madril	5.378.740	1.079.944	16,72	14,00	68,68	15,37	1,95
Murtzia	1.220.114	241.865	16,54	16,19	62,76	16,53	4,52
Katalunia	6.313.843	1.198.538	15,95	16,39	67,03	14,05	2,52
Kanariak	1.811.140	307.379	14,51	10,58	53,35	24,35	11,72
Errioxa	275.735	46.680	14,48	18,19	66,72	13,77	1,31
Aragoi	1.174.009	173.086	12,85	16,45	68,06	14,16	1,33
Melilla	67.161	8.873	11,67	17,37	56,52	19,52	6,59
Nafarroa	565.555	71.369	11,21	16,44	68,47	13,62	1,47
Gaztela- Mantxa	1.868.819	229.554	10,94	17,01	69,02	12,82	1,16
Andaluzia	7.666.919	704.056	8,41	13,61	48,62	28,82	8,95
Kantabria	553.049	39.201	6,62	14,32	67,86	15,55	2,28
Gaztela eta Leon	2.390.017	169.498	6,62	16,03	66,77	15,53	1,67
Euskal Autonomia Erkidegoa	2.038.970	139.369	6,4	14,11	70,18	13,94	1,76
Ceuta	76.584	3.995	4,96	11,29	61,20	21,20	6,31
Asturias	1.035.055	49.286	4,55	12,40	68,12	16,69	2,78
Galizia	2.687.983	109.670	3,92	12,44	65,27	18,13	4,16
Extremadura	1.067.864	39.356	3,55	16,41	63,66	16,78	3,15

Iturria: Estatistika Institutu Nazionala

<sup>2</sup> Datu hau interpretatzeko kontuan izan behar da, zenbait nazionalitateen kasuan, ez direla atzerritartzat jotzen Espainian guraso atzerritarrek izandako seme-alabak.

5. koadroa - Biztanleria osotara eta atzerritarren ehunekoa, autonomia erkidegoa							
	2010. urtea (behin-behineko datuak)		2005. urtea		2000. urtea		Biztanleriaren hazkundearen ehunekoa (%) 2000/2010
	Biztanleria, osotara	Atzerritarren ehunekoa, kopuru osoarekiko (%)	Biztanleria, osotara	Atzerritarren ehunekoa, kopuru osoarekiko (%)	Biztanleria, osotara	Atzerritarren ehunekoa, kopuru osoarekiko (%)	
Espania, osotara	41273297,0 0	12,2	44.108.530	8,5	40.499.791	2,3	1,9
Andaluzia	7666919,00	8,4	7.849.799	5,4	7.340.052	1,8	4,5
Aragoi	1174009,00	12,8	1.269.027	7,6	1.189.909	1,0	-1,3
Asturias	1035055,00	4,5	1.076.635	2,5	1.076.567	0,7	-3,9
Balear Uharteak	863793,00	21,9	983.131	15,9	845.630	6,5	2,1
Kanariak	1811140,00	14,5	1.968.280	11,3	1.716.276	4,5	5,5
Kantabria	553049,00	6,6	562.309	3,7	531.159	0,8	4,1
Gaztela eta Leon	2390017,00	6,6	2.510.849	3,6	2.479.118	0,7	-3,6
Gaztela- Mantxa	1868819,00	10,9	1.894.667	6,1	1.734.261	0,8	7,8
Katalunia	6313843,00	15,9	6.995.206	11,4	6.261.999	2,9	0,8
Valentziako Erkidegoa	4217947,00	17,3	4.692.449	12,4	4.120.729	3,8	2,4
Extremadura	1067864,00	3,5	1.083.879	2,3	1.069.420	0,8	-0,1
Galizia	2687983,00	3,9	2.762.198	2,5	2.731.900	0,9	-1,6
Madril	5378740,00	16,6	5.964.143	13,1	5.205.408	3,2	3,3
Murtzia	1220114,00	16,5	1.335.792	12,4	1.149.328	2,3	6,2
Nafarroa	565555,00	11,2	593.472	8,4	543.757	1,7	4,0
Euskal Autonomia Erkidegoa	2038970,00	6,4	2.124.846	3,4	2.098.596	1,0	-2,8
Errioxa	275735,00	14,4	301.084	10,3	264.178	1,7	4,4
Ceuta	76584,00	5,0	75.276	4,0	75.241	4,1	1,8
Melilla	67161,00	11,7	65.488	4,4	66.263	7,3	1,4

Iturria: Eskola Kontseilua, Estatistika Institutu Nazionalako datuetan oinarrituta

## 2.2. Alderdi sozioekonomikoak

Herrialde bateko hezkuntza testuingurua zehazteko funtsezkoak dira alderdi sozioekonomikoak. Ez dira garrantzitsuak soilik hezkuntzako gastuari aurre egiteko aukeretan eragina dutelako; aitzitik, gizartearen eta lan munduaren beharrak aldakorrak direnez jarduerak horien arabera definitzen eta lehenesten direlako dira hain garrantzitsuak.

### 2.2.1. Barne Produktu Gordina

Barne Produktu Gordina (BPG) herrialde edo eskualde bateko azken ondasunen eta zerbitzuen ekoizpenaren moneta balioa tarte batez (normalean urtebete) neurtzen duen makromagnitude nagusia da. BPG gizarte baten ongizate materialaren neurri gisa baliatzen da.


Barne Produktu Gordinaren bilakaera. Kateaturiko bolumen adierazleak

	NAFARROA	ESPAÑIA*	EB 27*
2001	2,9	3,6	2,0
2002	2,9	2,7	1,2
2003	3,1	3,1	1,3
2004	3,5	3,3	2,5
2005	3,2	3,6	2,0
2006	3,9	4,0	3,2
2007	3,8	3,6	3,0
2008	1,9	0,9	0,5
2009	-2,5	-3,7	-4,2
2010	1,2	-0,1	1,8


Iturria: Nafarroako Hiruhileko Kontabilitatea.  
Nafarroako Estatistika Institutua.  
Espainiako Kontabilitate Nazionala, Espainiako Estatistika Institutu Nazionala.

Kontabilitate Nazionala. Eurostat

\* Erreferentzia 2000=100




Iturria: Nafarroako Hiruhileko Kontabilitatea. Nafarroako Estatistika Institutua



### 2.2.2. Familia Errenta

Biztanleko eskuragarri dagoen familia errenta horrela definitzen da: herritar bakoitzak, batez beste, zergak ordaindu ondoren, bizitzeko, aurrezteko eta inbertitzeko jasotzen dituen urteko diru-sarrerak. Familien testuinguru ekonomikoa irudikatzeko adierazlerik esanguratsuenetakoa da. Enplegutik eta bestelako iturrietatik etorritako diru-sarrerak hartzen ditu kontuan. Ez du bat egiten biztanleko BPGrekin, izan ere, azken horrek ez baititu aintzat hartzen subsidioak edo laguntzak, eta aldiz, kontabilizatu egiten baititu enpresetan gelditzen diren irabaziak, ez direnak familiendako errenta eskuragarria.

Renta anual neta media por hogar. 2008 (Euros/año)



6. koadroa - Familia errenta eskuragarria (biztanleko), autonomia erkidegoka, 2008. urtea			
	Balioa (eurotan)	Indizea	2008/2007 bariazioa
Andaluzia	12.480	80,87	%4,77
Aragoi	17.083	110,69	%4,51
Asturiasko Printzerria	16.232	105,18	%3,86
Balear Uharteak	16.438	106,51	%3,31
Kanariak	13.368	86,62	%3,40
Kantabria	16.481	106,79	%5,34
Gaztela eta Leon	16.163	104,73	%4,78
Gaztela-Mantxa	12.608	81,70	%3,11
Katalunia	17.291	112,04	%4,20
Valentziako Erkidegoa	13.909	90,13	%4,41
Extremadura	12.436	80,58	%5,40
Galizia	14.435	93,53	%5,53
Madrilgo Erkidegoa	18.175	117,77	%3,17
Murtziako Eskualdea	12.463	80,76	%4,25
Nafarroako Foru Komunitatea	19.991	129,53	%4,58
Euskal Autonomia Erkidegoa	20.760	134,52	%6,65
Errioxa	16.518	107,03	%4,62
Ceuta (hiri autonomoa)	15.195	98,46	%5,10
Melilla (hiri autonomoa)	14.875	96,38	%4,20
Spainia	15.433	100,00	%4,33

Iturria: Estatistika Institutu Nazionala. Espainiako eskualdeetako kontabilitatea, 2000 oinarria. Etxebizitzetako errentaren kontuak. 2000-2008 seriea.

### 2.2.3. Jarduera sektoreak

**Lehen sektoreak** Nafarroan eragin txiki samarra du enpleguarekiko (%3,8). Nolanahi ere, balio soziologiko handia du, eta sektore agroindustrialari lehengaien balio erantsi bikaina ekartzen dio.

Ikuspegi fisiko eta geografikotik begiratuta, Nafarroako Iparralde lurralde menditsua da, abeltzaintzarako eta basogintzarako aberastasun handikoa, belardi, artasoro eta erremolatxa soro ugariarekin. Nafarroaren erdialdean zerealak eta belar-bazka eta fruta-arbolak dira nagusi, eta azken bolada honetan ekilorea eta koltza bezalako laboreak. Erriberan areagotuz doaz mahastia eta eskualdeko kontserbagintzako industria tradizional eta garrantzitsua hornitzeko goi mailako barazkiak.

Jatorri izendapen garrantzitsuen artean daude ondokoak: Idiazabalgo gazta, Erronkariko gazta, Nafarroako aratxea eta arkumea, Nafarroako orburuak eta zainzuriak, Lodosako pikillo piperrak, Nafarroako ardoa, Errioxako ardoa, cava, Nafarroako olioia eta Nafarroako patxarana.

**Sektore industrialean**, enpresa ertainen eta txikien sare batek bertako industria egitura osatzen du, Altsasu-Iruña-Tutera korridorean eta Ebroren Erriberaren ardatzean.

Enpresa multinazionalen instalazioek geroz eta garrantzi handiagoa dute enpleguari, balio erantsiari, eskualdeko ekoizpen atalaren modernizazioa sustatzeari eta, ondorioz, Foru Komunitateko garapen ekonomikoari dagokionez. Industria instalazio horietako askoren ezaugarri dira duten maila teknologiko handia eta esportaziorako duten gaitasun garrantzitsua, eta era berean, gainontzeko ekonomia herrestan eramateko duten gaitasuna. Era horretako industria gehienak Nafarroako industriako azpisektore


garrantzitsuenetan aritzen dira, alegia, automobilgintzan eta makineriaren eta ekipoen sektorean. Bi azpisektore hauek eta garrantzi ordenan hirugarren den nekazaritzako elikagaien industriak Nafarroako Balio Erantsi Gordinaren erdia baino gehiago eskuratzen dute. Sektore barruan jardueren dibertsifikazioa 90eko hamarkadan hasi zen, hazkunde potentzial handia ikusten zaion industria eolikoaren ezarpenari eta garapenari esker.

**Zerbitzuen sektoreak** garapen handia bizi izan du azken bi hamarkadetan. Nafarroako ekonomiaren tertziarizazioak, oraindik bukatu gabekoak, berarekin ekarri du sektoreak gaur egun enplegu guztien eta erkidegoko Balio Erantsi Gordinaren erdia baino gehiago izatea. Jarduera adarrei dagokienez, azpimarratzekoa da, batez ere azpisektore zenbaitek enplegua sortzeko duten gaitasuna, kasu, enpresendako zerbitzuen, merkataritzaren edo higiezin zerbitzuen azpisektoreak, nahiz eta zerbitzuen sektoreko jarduera guztiek izan dituzten hazkunde tasa handiak, bereziki osasunak, hezkuntzak, administrazio publikoak eta gizarte zerbitzuek.


### 7. koadroa - Lanean ari diren langileak sektoreka

OCUPADOS POR SECTORES (miles)			TOTAL		AGRICULTURA		INDUSTRIA		CONSTRUCCIÓN		SERVICIOS	
			Navarra	España	Navarra	España	Navarra	España	Navarra	España	Navarra	España
2007	I		289,0	20.069,2	14,6	990,0	70,6	3.265,3	35,0	2.664,7	168,7	13.149,3
	II		289,9	20.367,3	15,2	921,0	73,6	3.243,8	37,9	2.713,7	163,2	13.488,7
	III		289,8	20.510,6	12,4	885,3	72,0	3.258,9	36,9	2.717,5	168,5	13.648,8
	IV		290,6	20.476,9	9,5	905,8	71,8	3.279,1	36,8	2.693,5	172,5	13.598,5
2010	I		268,7	18.394,2	12,1	835,2	72,9	2.599,8	21,4	1.663	162,4	13.296,1
	II		277,3	18.476,9	10,9	778,2	68,7	2.618,9	23,4	1.699,7	174,3	13.380,1
	III		270,2	18.546,8	11,1	754,0	68,1	2.600,6	21,1	1.668,1	170,0	13.524,1
	IV		271,1	18.408,2	10,3	804,5	66,4	2.622,8	22,2	1.572,5	172,2	13.408,3

Distribución de la ocupación (%). ESPAÑA



Distribución de la ocupación (%). NAVARRA




Iturria: Nafarroako Langile Komisioak, Gizarte Segurantzaren Diruzaintza Orokorren datuetan oinarrituta.

#### 2.2.4. Lan merkatua: aktiboak, lanean ari direnak eta langabetuak

Biztanleriaren lan jarduera hezkuntzan argien eragiten duten testuinguruko elementuetako bat da, eta era berean, hezkuntzak lan jardueran ere eragiten du. Jardueraren, okupazioaren eta langabeziaren gaineko datuek Nafarroa posizio hobexegoan uzten dute, estatu mailako datuekin alderatuz, nahiz eta Europar Batasunean dauden mailetatik urruti izan oraino.



Evolución del desempleo en Navarra



Distribución porcentual de la población desempleada según grupos de edad y sexo


	%Vert.			%Horiz.		
	Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total
Menor de 20 años	3,33	2,03	2,66	60,54	39,46	100
Entre 20 y 24	9,94	8,28	9,08	52,90	47,10	100
Entre 25 y 29	12,45	11,86	12,14	49,53	50,47	100
Entre 30 y 34	14,60	13,90	14,24	49,56	50,44	100
Entre 35 y 39	14,14	14,26	14,20	48,13	51,87	100
Entre 40 y 44	13,01	12,57	12,79	49,20	50,80	100
Entre 45 y 49	10,57	10,60	10,59	48,26	51,74	100
Entre 50 y 54	8,67	10,38	9,55	43,85	56,15	100
Entre 55 y 59	7,86	10,49	9,22	41,22	58,78	100
Mayor de 59 años	5,43	5,63	5,53	47,44	52,56	100
<b>Total</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>48,33</b>	<b>51,67</b>	<b>100</b>

Distribución porcentual de la población desempleada según nivel de estudios y sexo


	%Vert.			%Horiz.		
	Hombres	Mujeres	Total	Hombres	Mujeres	Total
Sin estudios	0,20	0,17	0,18	52,38	47,62	100
Educación primaria	9,53	6,28	7,85	58,65	41,35	100
Prog.FP Sin titulación	0,14	0,08	0,11	63,27	36,73	100
1º Etapa de Secundaria	67,34	56,75	61,87	52,60	47,40	100
Ens. Form. E Inser. Prof	0,03	0,02	0,03	58,33	41,67	100
2º Etapa de Secundaria	11,51	15,35	13,50	41,23	58,77	100
Prog. FP Tit/2º Etapa	0,00	0,00	0,00	100,00	0,00	100
F.P. Especif Superior	4,90	7,85	6,43	36,88	63,12	100
Otras. Enseñanzas con B.S.	0,00	0,02	0,01	20,00	80,00	100
Ens. Univers. 1º y 2º ciclo	6,26	13,35	9,92	30,49	69,51	100
Especialización Prof.	0,00	0,04	0,02	9,09	90,91	100
Ens. Univer. 3er ciclo	0,07	0,09	0,08	40,54	59,46	100
<b>Total</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>100</b>	<b>48,33</b>	<b>51,67</b>	<b>100</b>

### Tasa de Paro

(España = 21.52 )




### Langabezia tasa, hiruhilekoka, Espainian




Iturria: Guk geuk prestatutako datuak. Diario de Navarraik hartutako datuak.

Langabezia sektoreka Espainian. EPA 2011ko III. hiruhilekoa




Iturria: Guk geuk prestatutako datuak. Diario de Navarratik hartutako datuak.


Langabezia sexuaren arabera, Espainian. EPA, 2011ko III. hiruhilekoa



Langabezia adinaren arabera, Espainian. EPA, 2011ko III. hiruhilekoa




### EPA Nafarroan, hiruhilekoka




Iturria: Guk geuk prestatutako datuak. Diario de Navarratik hartutako datuak.

### Langabezia tasaren bilakaera Nafarroan






Iturria: Guk geuk prestatutako datuak. Diario de Navarratik hartutako datuak.

Langabezia sektoreka. 2011ko III. hiruhilekoa



Iturria: Guk geuk prestatutako datuak. Diario de Navarratik hartutako datuak.



Iturria: Guk geuk prestatutako datuak. Diario de Navarratik hartutako datuak.

**8. koadroa – Enplegua aurkitzeko zailtasun handienak dituzten gizataldeak. Nafarroa: langabezia tasak, sexuaren, adinaren eta nazionalitatearen arabera.**

	ANTES DE LA CRISIS I V Trimestre 2007	DURANTE LA CRISIS I I Trimestre 2009	EN LA ACTUALIDAD I Trimestre 2010
HOMBRES	3,89	11,09	<b>13,40</b>
MUJERES	<b>4,78</b>	<b>13,72</b>	10,95
MENORES 25 AÑOS	<b>8,31</b>	<b>39,51</b>	<b>27,57</b>
MAYORES 25 AÑOS	3,89	9,67	11,09
ESPAÑOLA	3,89	9,40	10,07
EXTRANJERA	<b>6,78</b>	<b>27,88</b>	<b>24,52</b>
<b>TOTAL</b>	<b>4,27</b>	<b>12,23</b>	<b>12,32</b>

Iturria: Langile Komisioak, ondoko txostenetako datuetan oinarrituta: Biztanleria aktiboaren gaineko inkesta. Espainiako Estatistika Institutu Nazionala. Langabezia datuak, sexuaren eta adinaren arabera eta langabezia datuak, nazionalitatearen arabera.

### **2.3. Gizarte eta hezkuntza alderdiak**

Gizartearen hezkuntza maila eta hezkuntzarekiko eta prestakuntzarekiko itxaropenak testuinguruaren gizarte eta hezkuntza aldaerak dira eta erabat eragiten dute hezkuntza sistemaren prozesuetan, politiketan eta emaitzetan. Gainera, aurreko hezkuntza politiken emaitza pilatua dira.

#### **2.3.1. Biztanleria helduaren ikasketa maila**


Biztanleria helduak erdietsitako ikasketa mailak modu diferituan adierazten digu zein den hezkuntza sistemaren eragina errealitate sozialean. Adierazle honetarako bi kategoria bereizten dira, bat, orokorra, 25-64 adin tartekoa, lan egiteko adinean diren helduena, eta bestea 25-34 adin tartekoa, berriki produkzio-sisteman sartu direnena edo sartzear daudenena.

Datuak Hezkuntzarako Nazioarteko Sailkapen Normalizatuaren arabera (CINE /) eskaini dira.<sup>3</sup>


<sup>3</sup> CINE 0: Haur Hezkuntza. CINE 1: Lehen Hezkuntzako edo Oinarrizko Hezkuntzako lehen zikloa. CINE 2: Bigarren Hezkuntzako lehen zikloa edo Oinarrizko Hezkuntzako bigarren zikloa. CINE 3: Bigarren Hezkuntzako bigarren zikloa. CINE 4: Derrigorrezkoaren ondoko irakaskuntza, goi mailakoa ez dena. CINE 5: Goi mailako Hezkuntzako lehen zikloa. CINE 6: Goi mailako Hezkuntzako bigarren zikloa.

a) Nivel de estudios de la población adulta. Año 2008.

	Ambos sexos		Hombres		Mujeres	
	Navarra	España	Navarra	España	Navarra	España
E. primaria o inferior (CINE 0,1)	14,1	21,3	13,4	20,4	14,8	22,3
E. secundaria obligatoria (CINE 2)	26,8	27,5	28,2	28,9	25,4	26,0
E. secundaria post-obligatoria (CINE 3)	23,4	22,0	23,4	22,0	23,4	22,0
E. superior (CINE 4, 5, 6)	35,7	29,2	34,9	28,7	36,4	29,8




Grafikoa: 25-64 urte bitarteko biztanleriaren banaketa, ikasketa mailaren arabera eta autonomia erkidegoka. 2008. urtea



Iturria: Hezkuntza Ministerioaren "Las cifras de la educación en España" (Hezkuntzari buruzko zifrak Espainian), 2010eko argitalpena.

**Grafikoa: 25-34 urte bitarteko biztanleriaren banaketa, ikasketa mailaren arabera eta autonomia erkidegoka. 2008. urtea.**




Iturria: Hezkuntza Ministerioaren "Las cifras de la educación en España" (Hezkuntzari buruzko zifrak Espainian), 2010eko argitalpena.

**9. koadroa - Desberdintasunak, ehunekotan, 25-64 adin tarteko biztanle helduen eta 25-34 adin tarteko biztanle heldu gazteen ikasketa mailari dagokionez, Espainian, Nafarroan, EAEn eta Madril**

	GUZTIRA	Nafarroa	Euskal Autonomia Erkidegoa	Madril
CINE 0-2	-13,8	-18,3	-16,9	-11,9
CINE 3-4	4,3	6,1	1,4	2,6
CINE 5-6	9,5	12,3	15,6	9,3

Iturria: Hezkuntza Ministerioaren "Las cifras de la educación en España" (Hezkuntzari buruzko zifrak Espainian), 2010eko argitalpena.

**Grafikoa: Nafarroako 25-34 adin tarteko biztanleriaren banaketa, ikasketa mailaren eta sexuaren arabera. 2008. urtea**




Iturria: Hezkuntza Ministerioaren "Las cifras de la educación en España" (Hezkuntzari buruzko zifrak Espainian), 2010eko argitalpena.



Aurreko grafikoetan ikus daiteke, Nafarroa, autonomia erkidegoekin erkatuz, helduen ikasketa mailari dagokionez posizio aipagarrian dagoela, bai goi mailako ikasketei eta bai erdi mailakoei dagokienez. Aipatzekoa da Nafarroako biztanleria gaztearen (25-34 urte) ikasketa mailak gora egin duela biztanleria helduarekin (25-64 urte) erkatuz eta emakume eta gizon gazteen artean ikasketa mailari dagokionez dagoen diferentzia, goi mailako ikasketei dagokienez.

Ondoko grafikoan, Nafarroako, Espainiako eta OCDEko beste herrialde batzuetako 25-64 adin tarteko biztanle helduen ikasketa mailaren gaineko alderaketa azaltzen da. Nafarroak beste herrialde batzuen profilarikiko oso bestelakoa erakusten du: goi mailako ikasketak dituen biztanleria kopurua handia da, Espainiako batez bestekoa baino handiagoa eta Estatu Batuak edo Finlandia bezalako herrialdeen antzekoa. Hala ere, CINE 0-2 ikasketak dituzten biztanleen kopurua oso altua da eta CINE 0-3 ikasketak dituztenen kopurua oso baxua, herrialde horiekin erkatuta.



### 2.3.2. Hezkuntzak duen garrantzia esparru sozial eta politikoan

Atal honetan Nafarroako Parlamentuak eta Nafarroako Arartekoak, hots, Nafarroako bitzita politiko eta sozialean oso garrantzitsuak diren bi erakundek, hezkuntzari dagokionez izandako jardura jasotzen da; eta aipatzen dira erkidego mailako prentsa idatzian, tiradarik handieneko bi egunkarietan (Diario de Navarra eta Diario de Noticias) orriak izan dituzten eta intentsitate edo maiztasun handiagoz azaldu diren hezkuntzako gaiak. Horrekin hezkuntza bera zein testuinguru sozial eta politikotan ematen den azaldu nahi da.

### 2.3.2.1. Parlamentuaren jarduera

Atal honetan Nafarroako Parlamentuaren eremuan, unibertsitatekoa ez den hezkuntzari dagokionez dagoen jarduera azaltzen da. Ematen diren datuak Nafarroako Parlamentuko VII. Legegintzaldiko jardueren memorian, 2010eko maiatzaren 27tik 2011ko maiatzaren 27ra bitarteko aldiari jasotako en arteko laburpen bat dira.

#### Parlamentuko osoko bilkuran aztertutako gaiak

Jarduera mota	Kopurua
Foru legerako proposamenak	1*
Mozioak	7
Jabeldurak	-
Osoko Bilkuraren aurrean ahoz erantzuteko galderak	8-9
Idatziz erantzuteko galderak	8-9

\*tramitazio prozesuan

#### Foru legerako proposamenak: 1

- Hezkuntzaren oinarriak Nafarroan.

**Mozioak:** Honako hauen bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da:

- Testuliburuaren finantzaketari buruzko erregelamendua alda dezan.
- Ezgaitasun anitzeko ikasleen hezkuntza premia bereziei erantzuteko zentro baten sorrera azter dezan.
- Euskarari buruzko abenduaren 15eko 18/1986 Foru Legearen exekuzio erregelamendua idatzi dezan, lege horren funtsezko helburuei erantzun diezaien. 2010eko ekainaren 11ko Osoko Bilkura.
- Nafarroako Mendekotasun Agentziaren mendeko haurtzaindegiek izendapen horren ordez aurrerantzean haur eskola izendapena izan dezaten.
- Hezkuntzaren aldeko itun sozial eta politikoa erdiesteko aukera eta beharrari babesa erakutsi diezaion Nafarroako Parlamentuak.
- Arreta faltaren nahastea eta hiperaktibitatea eskola esparruan atzeman eta tratatze aldera, irakasleentzako Laguntza Zentroak irakasleak prestatzeaz arduratu daitezen.
- Ikastetxeetan zaintzaile lanak egiten dituzten langileen hezkuntzako alderdia kontuan izan eta C mailan sar ditzan.

**Ahoz erantzuteko galderak:** *Ondokoen gainean:*

- Zein asmo duen Hezkuntzako kontseilariak Donapea IIPko "Ibilgailuak Konpontzeko Laguntzailea" Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programa bermatze aldera.
- Atzerritar jatorriko ikasleen banaketa ikastetxe publikoen eta Hezkuntza Departamentuarekin itundutako ikastetxe pribatuen artean.
- Zein ekintza egin dituen Nafarroako Gobernuak 2010/2011 ikasturtean Nafarroako curriculum ofiziala zehatz-mehatz betetzen duten testuliburuak eta ikasmaterial osagarriak erabili daitezen Nafarroako ikastetxe guztietan.
- Zer esan nahi duen euskararen normalizazioak Nafarroako Gobernuarentzat.
- Aurrekontuetako zer zenbateko dagokien ikastetxe pribatuen itun berriei 117/2010 Foru Aginduaren arabera.
- Zein planifikazio egiten ari diren hezkuntza premiei erantzuteko Pedro de Ursúa BHIko toki faltaren aurrean.

- Zein izan den ondokoaren gainean egindako azterketaren emaitza: doaneko ikasketak emateagatik ikastetxe itunduak, formula edozein delarik ere, familiei diru-sarrerak exijitzen ari ote diren.
- Hezkuntza Departamentuak dituen kontrolak, rol sexistak zabaltzen zituen “Hezkuntza etorkizuna da” kanpainako iragarkia bezalako jazoerak saiheste aldera.
- Tafallak eta Lizarrak Hizkuntza Eskola Ofizialaren egoitzak izateko eskariaren aurrean hartutako jarrera.

### **Idatziz erantzuteko galderak:** *Ondokoen gainean:*

- Zenbateraino den komenigarria eta bideragarria hiru hizkuntzako eredu experimental bat ezartzea Burlatako udal haur eskolan.
- Leitzako Amazabal BHIko teilatua konpontzeko Nafarroako Gobernuak deitutako lau enpresak.
- Langileen eta baliabideen kudeaketarako Hezkuntza Departamentuko politika, administrazioak herritarrei eskaini beharreko zerbitzu publikoak emateari dagokionean.
- Ikuskapenaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusiak bere gain hartzea 117/2010 Foru Aginduaren arabera ikastetxeen itunak berritzeko edo itun berriak sinatzeko erantzukizuna.
- Nafarroako ikastetxe publikoetako irakasleen laneko bajak 2010-2011 ikasturtean eta zenbat ordezkatu diren.
- Irakasleentzako berariazkoak diren lan osasuneko prestakuntza ikastaroak.
- Mendillorriko Bigarren Hezkuntzako institutuari atxikitako ikasleak eskolatzeko aurreikuspenak.
- Erlijioa irakasleen laneko arazoak.
- Nafarroan Erlijioa irakasleen lan egoera arautzen duen 696/2007 Errege Dekretuaren aplikazioa.

### **Hezkuntza eta Kultura Batzordeak landutako gaiak:**

Ekimen mota	Kopurua
Mozioak	3
Agerraldiak	7
Idatziz erantzuteko galderak	8
Lansaiak	14
Informazioa	14

### **Mozioak: Batzordean eztabaida:** Honako hauen bidez Nafarroako Gobernuak premiatzen da:

- Eskolako materialak eskuratzeko beka sistema bat ezarri dadin.
- Ezgaitasun anitzeko ikasleen hezkuntza premia bereziei erantzuteko zentro baten sorrera azter dezan.
- Heldu den 2010-2011 ikasturtetik aurrera DBHko laugarren lerroa izate aldera San Fermin ikastolarekin ituna egin dezan.

### **Agerraldiak:**

#### *Hezkuntzako kontseilariak informazioa eman dezan ondokoen gainean:*

- Hezkuntza Departamentuan planteatutako langile murrizketa.
- Nafarroa 2012ko planean zehaztutako gauzatze egoera, inbertitutako zenbatekoak eta bukatzeko aurreikuspenak.
- Tuteran eskolatzeko prozesuan dauden desoreken ondoriozko arazoei erantzute aldera zein ekintza edo jarduerak egiten ari den Hezkuntza Departamentua.
- Azaldu dezala zein irizpide eta neurri jarriko dituen martxan, 2011-2012 ikasturtearen hasieran ez dadin murrizketarik izan hezkuntza plangintzan.

*Arartekoak azalpenak eman ditzan, atzerritar jatorriko ikasleen integrazioari buruz, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagokionez.*

*Nafarroako Unibertsitate Publikoko errektoreak azalpenak eman ditzan 2011 urteari begira aurrean izanen dituen finantzaketa arazoei buruz.*

**Lan saioak: Ondokorako:**

- Urrutiko Hezkuntzarako Unibertsitate Nazionalaren (UHUN) Tuterako Zentro Elkartuko zuzendaritzak zentro horren bilakaeraren berri eman dezan.
- AFAPNA, CESIF-CSI, CCOO, ELA, STEE-EILAS eta UGT sindikatuen ordezkariak batek Hezkuntzako plantilletan egon litezkeen murrizketei buruz duten iritzia azaldu dezan.
- San Fermin ikastolako ordezkariak ikastolaren egungo egoera azaldu dezaten.
- NUPeko errektoreak eta errektoreordeak azaldu dezaten *Campus del Compromiso* (Konpromisoaren Kanpua) egitasmoa, NUPek Nazioarteko Bikaintasun Kanpua programaren 2010eko deialdira aurkeztutakoa.
- Itundutako irakaskuntzaren sindikatuak (SEPNA, ELA eta UGT) ordezkariak soldata murrizketei buruz duten iritzia azaldu dezaten.
- Erriberako Enpresarien Elkarteko ordezkariak azaldu dezaten NUPen Tuterako kanpusean titulu berriak ezarri beharra.
- ELA, STEE-EILAS, CESIFCSI, CCOO, AFAPNA eta UGT sindikatuak azaldu dezaten zer iritzi duten irakasleen artean sortzen diren laneko gaixotasun edo arazoei buruz, eta bajak eta horien ordezkariak antolatzen moduari buruz.
- ADI, NIZE eta ADIPA elkarteak azaldu dezaten zer iritzi duten irakasleen artean sortzen diren laneko gaixotasun edo arazoei buruz, eta bajak eta horien ordezkariak antolatzen moduari buruz.
- Iruñeko Eunate institutuko guraso elkartearen ordezkariak azaldu dezaten nolako zailtasunak dituzten ikasleek Gorputz Hezkuntzako eskolak jasotzeko.
- IKA eta AEK-ko ordezkariak azaldu dezaten helduak euskaraz alfabetatzeko egiten duten lana eta lan horren egoera.
- Nafarroako Eskola Kontseiluko buruak Nafarroako hezkuntza sistemaren gaineko 2009-2010eko txosteneko datuak azaldu ditzan.
- CCOO, STEE-EILAS, AFAPNA, CSIF eta UGT sindikatuak ordezkariak unibertsitatez kanpoko hezkuntzako mailetan 2011-2012 ikasturtea martxan jartzearen inguruan dituzten kezken berri eman dezaten.
- ELA sindikatuaren ordezkariak batek Hezkuntza Publikoan, unibertsitatez kanpoko mailetan, 2011-2012 ikasturtea martxan jartzeari eta irizpideei buruz sindikatu horrek uste duena azaldu dezan.
- Lansaia, LAB sindikatuaren ordezkariak Hezkuntza Publikoan, unibertsitatez kanpoko mailetan, 2011-2012en ikasturtea martxan jartzeari eta irizpideei buruz sindikatu horrek uste duena azaldu dezaten.

**Informazio eskaerak: Ondokoen gainean:**

- Zizur Nagusiko Catalina de Foix ikastetxe publikoko jolastokiko obrak.
- Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan, ikastetxe publiko eta itunduetan erabiltzen diren testu eta ikasmaterialak.
- Lizarrako Bigarren Hezkuntzako institutu berriko obrak.
- Zaharberitzeko zein eraikuntza berrietarako obren egungo egoera Nafarroako ikastetxeetan (0-3 urteko zikloak, Haur Hezkuntzakoak, Lehen Hezkuntzakoak eta Bigarren Hezkuntzakoak).
- Sarrigurengo 0-3 urteko haur eskola.
- Sarrigurengo Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxea handitzeko obrak.
- Nafarroako ikastetxe publiko eta pribatuetan, Haur Hezkuntzako bigarren zikloko lehenengo mailan gaur egun matrikulaturik dauden ikasleen kopurua.
- Hezkuntza Departamentuak dituen txostenak Nafarroako 117/2010 Foru Aginduan jasotako ikastetxeen itunak berriaz jartzeari edo berriak egiteari buruz.

- Hezkuntza Departamentuaren eta Berako "Jesusen Bihotza" ikastetxearen arteko itunaren hitzarmena, 0-3 urteko ziklorako.
- Hezkuntza Departamentuaren 2010eko aurrekontuen barruan, urtarrilaren 1etik gaurko egunera, Euskarabideari dagozkion kontu-sailen gauzatze egoera.
- Hezkuntza Departamentuaren aurreikuspenak Txantreako Eunate Institutuan Gorputz Hezkuntzako eskolak emateko dauden zailtasunak konpontze aldera.
- Nafarroako ikastetxe pribatu zein publiko guztietako ikasgela bakoitzeko ikasle kopurua, 2010-2011 ikasturtean.
- Ikastetxe publikoetan erlijioa irakasten duten irakasleei buruzko hainbat gai.
- Donapea Lanbide Heziketako ikastetxearen salmenta operazioarekin loturik, Nafarroako Gobernua hirugarrenekin lotzen duten protokolo, hitzarmen edo kontratuzko ekintzetan agertzen diren agiri, ebazpen eta akordioak.

### **2.3.2.2. Nafarroako Arartekoaren jarduerak hezkuntza arloan**

#### **2010ean aurkezturiko kexak**

2010. urtean Arartekoak hezkuntzarekin zerikusia zuten 113 kexa jaso zituen, jasotako kexa guztien %12, hain zuzen ere. 2009an 68 izan ziren, urte hartako kexa guztien %7,5.

<b>2005</b>	<b>2006</b>	<b>2007</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>
%10,6	%5,68	%4,3	%5,2	%7,5	%12

Jasotako 113 kexak honela banatzen dira:

- 53 ikasleak ikastetxeetan onartzearekin lotuta zeuden;
- 13 eskolako garraio eta jantoki zerbitzu osagarriekin;
- 11 hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleentzako arretarekin;
- 10 hezkuntza kudeaketarekin;
- 6 ikasleen eskubide eta betebeharrekin;
- 6 bekak edo ikasketetarako bestelako laguntzak ematearekin edo ukatzearekin;
- 4 Haur Hezkuntzako lehen zikloarekin (0-3 urteko haurrak);
- 4 hezkuntza plangintzarekin;
- 4 tituluak eta baliozkotzeak luzatzearekin;
- 2 unibertsitateko ikasketekin.

#### **2010ean emandako eta onarturiko ebazpenak. Ondokoen gainean:**

- Desadostasuna ikasle bat ikastetxe itundu batean ez onartu izanarekin, horren gaineko arrazoitze ezarekin, eta kontra egiteko errekurtsioei buruzko azalpen ezarekin.
- Ikasle baten kalifikazioak jakinarazteko jarraitutako prozeduran egindako akatsak.
- Desadostasuna ikastetxe batek ikasle baten datu pertsonalak utzi izanarekin.
- Desadostasuna Foru Komunitateko haur eskoletan, 0 eta 3 urteko haurren zikloan, dauden haur/irakasle ratioekin.
- Berariazko laguntzarik eza dislexia duen ikasle batentzako.
- Desadostasuna anai-arreba biki batzuen kasuan ikastetxe batek bikietako bat onartu ez izanarekin.
- Erantzun eza Bernart Etxepare ikastetxe publikoko zenbait gurasok egindako eskariari; eskarian eskatzen zuten bazkaltzera gelditzen ez diren ikasleei jantokirako legokien diru-laguntza ordaindu diezaietela, garraiorako erabili dezaten.
- Akatsak Hezkuntza Departamentuaren euskarazko webgunean.

- Hezkuntza laguntzarik eza arreta gabeziako nahastea duen ikasle batentzako, eta ikasleak maila errepikatu dezan ikastetxeak hartutako erabakiarekin desadostasuna.
- Desadostasuna Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak klasera ez bertaratzeagatik ikasle bati jarritako zigorrarekin.

#### **Ofiziozko ikerketak.**

- Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialeko hizkuntza ikastaroen eskaintza. Departamentuak iradoki du plan bat prestatu dadila, helduek hizkuntzak ikasteko ikastaroen eskaintza nabarmen gehitze aldera, batez ere, ingeleseko ikaspostuak.

#### **Hezkuntzaren arloan 2010ean egindako gomendio eta iradokizun nagusiak:**

- Behar diren neurriak hartu ditzala dislexia duten ikasle guztiek laguntza berezia jaso dezaten edo behar diren egokitzapenak egin daitezzen hezkuntza garai osoan zehar. Eskola garraioa adimen ezgaitasuna duten ikasleen hezkuntza prozesuaren zatitza hartu dezala eta, hartara, osorik ordaindu dezala eta, halaber, eskola jantokia ere diruz lagundu dezala.
- Diru publikoz ari diren ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozesuetan behar diren mekanismoak ezarri daitezela ziurtatzeko ikastetxe berean eskolatuko direla anai-arreba bikiak, edo familia bereko seme-alabak, etapa eta ikasmaita berean aldi berean eskolatzea dagokienean.
- Prozesu bat bultzatu dezala enborreko irakasgaien testuliburuak hiru aletan banatzeko, hiruhileko bakoitzeko bat; horrela ikasleek dagokien liburua besterik ez dute eramanen eta, beraz, egunero pisu gutxiago eraman beharko dute.
- Eztabaida ireki dezala etxerako lanei eta horiek familia bizitzarekin bateratzeari buruz.
- Hezkuntza proiektu bat bultzatu dezala Zanduetako hezkuntza egoitza terapeutikoko adin txikikoek irakaskuntza arautua jaso dezaten.
- Ezarri ditzala bere ustean egokienak diren neurriak ikastetxeetan arreta faltaren nahastea duten haurrak goiz hauteman daitezzen, eta gurasoei behar bezala eta modu jarraituan eman dakien informazioa seme-alabek ikaskuntzan egiten duten aurrerapenari buruz.
- Bere ikuskapen eginkizuna bete dezala, ikastetxeek izaera pertsonaleko datuen babesari buruzko legeak betetzen dituztela zaintzeko.
- Beken hurrengo deialdi orokorretan, erdi mailetan eta unibertsitate mailetan, familia ugaria izateagatik matrikulak merkeago ateratzen badira, onura horiek ez daitezela deskontatu "ikasketetarako" emandako laguntzaren zenbatekotik.
- Eskola garraioaren finantzaketa hedatu dezala, barruan sartu daitezzen "British" hezkuntza programan ikasteko beren herritik kanpo joan behar duten ikasleak.
- Beken hurrengo deialdi orokorretan, erdi mailetan eta unibertsitate mailetan, irakasgai batean edo gehiagotan "ohorezko matrikula" eskuratzeagatik matrikulak merkeago ateratzen badira, onura horiek ez daitezela deskontatu "ikasketetarako" emandako laguntzaren zenbatekotik.
- Herriarteko garraiorako laguntzen deialdien oinarrietan agertzen ez den irizpide murriztailerik ez dezala sartu laguntzen eskatzaileen kalterako badira. Ez onartua.
- Diru publikoarekin ari diren ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozesuan berdinketak ebazteko zozketa egitea beharrezkoa den kasu guztietan, zozketa Hezkuntza Departamentuak egin dezala.
- Iruñeko Hizkuntza Eskola Ofizialak ondoko neurriak jarri ditzala martxan:
  - o Behar diren ekintzak bultzatu ditzatela, matrikulazio elektronikoan izandako akatsak zuzentze aldera.
  - o Denboraren lehentasun irizpidea aldatu dadila, eta horretarako epe bat eman dadila interesdunek izena aurretik eman dezaten eta, aurrerago, beharrezkoa bada interesdunak alde aurretik zehaztutako irizpide objektibo baten arabera aukeratu daitezela.
- Helduek hizkuntzak ikasteko eskaintza, bereziki ingelesarena eta eskari handiko beste hizkuntza batzuenak, nabarmen gehitze aldera, neurri eraginkorrek eta nahikoa baliabide zehazten dituen plan bat prestatu dezala. Eskarira egokitu behar dira ikastaroen eskaintza eta, hala behar izanez gero,

Europako Erreferentzia Esparru Bateratuan balio ofiziala duten tituluen eskaintza, maila eta txanda guztietan, herritarren eskaera ugariak erantzunik gabe geratu ez daitezten.

- Tuterako Udalari, Tuterako haur eskolek ematen duten zerbitzuaren tarifak egokitu ditzala, aurrez ezarritako ordutegi ezberdinei.
- Zizur Nagusiko Udalari, eskoletarako erabiltzen diren eraikinei buruzko erabakiak hartzerakoan, erabakiak erabiltzaileei eragin behar badie, interesdunei entzunak izateko aukera eman diezaiela eta horien irizpidea aztertu dezala.
- Behar diren gestioak egin ditzala, Hezkuntza Ministerioak araudi komun bat garatu dezan zehazteko zein titulurekin edo zein baldintzatan gaitu daitezkeen Lehen Hezkuntzarako beste espezialitate baten bitartez sartu ziren funtzionarioak, otsailaren 23ko 276/2007 Errege Dekretuko 53.1 eta 2. artikuluan xedatzen den bezala.
- Behar diren neurriak jarri ditzala, Nafarroako Mendekotasun Agentziak prestatutako bateragarritasun txostenean ezarritakoa betez, ezgaitasuna duen funtzionario batek lan egiteko eskubidea izan dezan.
- Langileen estatutua aplikatuz, onartu dezala lan-kontratudunek haurdunaldien ondoriozko aldi baterako ezintasunagatik hartu ez dituzten oporrak hartzeko duten eskubidea.
- Aldi baterako kontrataziorako izangai bati, deitua denean, lanpostu desberdinetarako kontratazio zerrenda batean baino gehiagotan balorazio onena duena bada, bete nahi duen lanpostu zehatza hautatzeko aukera eman diezaiotela.
- Aztertu dezala eta, hala behar bada, sustatu dezala arau baten onarpena, dagokion arau mailakoa, ezgaitasuna duten pertsonen lanpostua aukeratzekoan duten lehentasuna, behin betiko destinoa lortzeko funtzionarioen parte-hartzea nahitaezkoa duten mugimendu horizontaleko prozeduretara ere hedatu dadin.
- Hezkuntza Ministerioarekin eta gainerako hezkuntza administrazioekin dituen koordinazio bideak erabiliz, Estatu mailako araudiaren aldaketa proposatu dezala, unibertsitateko ikasketen errendimenduaren bikaintasunari emandako sari nazionalak baloratu ahal daitezten hezkuntzako kidego ezberdinetako irakasleentzako Estatu mailako lekualdatze lehiaketetan.

### **Herritarren proposamenak zerbitzu publikoak hobetzeko**

- Behar diren mekanismoak ezarri daitezela ziurtatzeko ikastetxe berean eskolatuko direla anai-arreba bikiak, edo familia bereko seme-alabak, etapa eta ikasmila berean aldi berean eskolatzea dagokienean.
- Diru publikoarekin ari diren ikastetxeetan ikasleak onartzeko prozesuan berdinketak ebazteko zozketa egitea beharrezkoa den kasu guztietan, zozketa Hezkuntza Departamentuak egin dezala.
- Zanduetan hezkuntza programa terapeutikoa egiten ari diren adin txikikoek irakaskuntza arautua jaso dezatela.
- Diru publikoarekin ari diren Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeetan ikasleak onartzeko araudia hobetu dadila.
- Haur Hezkuntzako lehen zikloan euskarazko ikaspostuen eskaintza handitu dadila.
- Eztabaida ireki dadila etxerako lanen eta horiek familia bizitzarekin bateratzearen inguruan.
- Behar diren neurriak hartu daitezela ikasleek egunero motxiletan daramaten gehiegizko pisua murrizte aldera eta, bereziki, enborreko irakasgaien testuliburuak hiru aletan banatu daitezela, hiruhileko bakoitzeko bat; horrela ikasleek dagokien liburua besterik ez dute eramanen eta, beraz, egunero pisu gutxiago eraman beharko dute.

### **Onartutako bitartekotzak**

Arartekoak emandako kontziliaziorako iradokizunak onartu ditu Hezkuntza Departamentuak atal honetan zerrendatuta azaltzen diren espediente eta kexetan:

- Baimen eta finantzaketa eskaera, ikastetxe pribatu itundu batean Haur Hezkuntzako ikasgela bat egiteko, heziketa mota jakin baterako gurasoek duten eskubideari erantzute aldera.

- Baimen eta finantzaketa eskaera, sare pribatu itunduko ikastola batean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako lerro bat jartzeko.
- Desadostasuna, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publiko batean eskola-ordutegi jarraitua ezartzearekin.

### **2.3.3. Komunikabideetan landutako hezkuntzako gai nagusiak**

- Izena aurretik emateko prozesua eta eskolatzea (informazioa bi sareei buruz eta gurasoek hautatutako hiru ikastetxeetako batean ere ikaspostua lortzen ez duten ikasleei buruz).
- Maisu-maistren oposizioak (gaiaren nondik norako osoa, probak kolokan zeudenekoak eta azkenean deitutako lanpostuak).
- Eredu eleanitzak (British, TIL eta atal elebidunak Bigarren Hezkuntzan). Eredu horiei buruzko informazioa eta erreportajeak.
- Nafarroako Eskola Kontseiluaren azterlana neskek eta mutilek lortzen dituzten emaitza akademiko desberdinei buruz.
- Hezkuntzako bekak Espainian eta atzerrian hizkuntzak ikasteko.
- Hizkuntza eredu aldutzen diren ikasleak (gehienak A eredutik G eredura pasatzen dira, eta euskara uzten dute).
- Hezkuntzako ebaluazio diagnostikoa (ikastetxeetan egindako erreportajeak eta zenbait galderaren berri ematea).
- Gaixorik daudelako etxean ikasten duten ikasleak.
- Bikaintasun Batxilergoa (Esperanza Aguirrek egindako proposamenaren balorazioa).
- Erdi mailako Lanbide Heziketatik Batxilergora igarotzeari (irakasgaien erdiak soilik eginda) eta Batxilergoko hiru ibilbide berriri buruzko proposamenak. Estatu mailako proposamenak.
- Euskarazko testuliburuak. Nafarroako errealitatea distorsionatzen duten liburuen aurkako epaia.
- Landa eskolak.
- Selektibitatea eta LHtik etorritako ikasleak (lehen urtea).
- Eskubideen eta betebeharren dekretua.
- Nafarroa Oinez Paz de Ziganda ikastolan.
- Irakaskeei soldata murriztearen inguruko eztabaida.
- Estresa eta jazarpena, irakasleen osasun arazo nagusiak.
- Ikasleak eta eskolaz kanpoko jarduerak (Eskola Kontseiluaren azterlana).
- Zuzendariak beren lanaren onarpen soziala eta ekonomikoa eskatzen dute.
- Maisu-maistren LHP (errekurtsoen eta lanpostu murrizketaren inguruko polemika).
- 2010-11 ikasturtean Lehen Hezkuntzako 5.eko eta 6.eko ikasle guztiek arbel digitalak lortu dituzte.
- AFNH duten ikasleen kopuruak gora egin du Nafarroako eskoletan.
- Etxerako lanei buruzko eztabaida.
- Ikastetxe publikoek eskatu dute berariazko premiak dituzten ikasleen matrikulen gehieneko kopurua finkatu dadila.
- Hezkuntza alternatibo alegala Gazolatzen.
- Hezkuntzako matrikulazio kanpainak berdintasun planak urratzen ditu.
- Nafarroa, LH atzerrian ikasten duten ikasle gehien dituen erkidegoa.
- Izangai gutxi zuzendari postuetarako.
- Arartekoak defendatzen du ikasle etorkinak sareen artean banatu beharra.
- 0-3 urtekoen tarifak igo dira.
- Iruñean eginen da Espainiako Matematika olinpiada.
- 900 langile inguruk laneko esperientzia LHko moduluen gisa baliozkotzeko aukera izanen dute.
- Ebaluazio diagnostikoa Lehen Hezkuntzako 4. mailan eta DBHko 2. mailan.
- Helduen Hezkuntzak %45 egin du gora bost urtean.
- Murrizketak Bigarren Hezkuntzako plantilletan.
- Aurretik izena emateko aldien irekiera.
- Hainbat polemika hezkuntza publikoan (murrizketak, mobilizazioak eta protestak: lan uzteak, grebak...).
- Hezkuntzako buru berriei egindako elkarrizketak (departamentuaren organigrama).




### 3.- BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK

Baliabide materialak eta giza baliabideak funtsezko input edo sarrerak dira. Hezkuntza sistemari ekarpenak egiten dizkiote, haren funtzionamenduaren euskarria dira eta emaitzetan hein handi batean eragiten dute. Kapitulu honetan Nafarroako hezkuntza sistemak dituen baliabide azpimarragarrienak deskribatzen dira. Horien artean daude hezkuntza administrazioaren egiturarekin, hezkuntzako gastuarekin edo inbertsioarekin, azpiegiturekin eta zerbitzuekin loturikoak, eta baita sistemaren funtzionamendurako lanean ari diren pertsonekin loturikoak.

#### 3.1. Hezkuntza administrazioa. Egitura

Joan den ikasturteko txostenean jasotako Hezkuntza Departamentuaren egitura mantendu da 2010/2011 ikasturtean:



	Atal kopurua	Bulego kopurua
Idazkaritza Teknikoa	5	4
Ikasketak Antolatzeko Zerbitzua	3	2
Aniztasunaren, Orientazioaren eta Kultura-aniztasunaren Zerbitzua	3	2
Prestakuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zerbitzua	3	10
Eskolako Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzua	3	5
Lanbide Heziketaren Zerbitzua	4	7
Unibertsitateko Irakaskuntza, Hedapen eta Ikerketa Zerbitzua	3	2
Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua	1	2
Giza Baliabideen Zerbitzua	3	6
Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzua	2	3
Obren eta Mantentze Lanen Zerbitzua	2	4
Nominen eta Aurrekontu-kontrolaren Zerbitzua	2	4
Euskararen Garapenerako Zerbitzua	1	
Euskararen gaineko Aholkularitza eta Prestakuntzarako Zerbitzua	3	

2011ko ekainean sortu zen Nafarroako Gobernu berria, maiatzean egindako udaletako eta autonomia erkidegoetako hauteskundeen ondorioz. Uztaila eta abuztua bitartean onetsi zen ondoko legeria:

Nafarroako Foru Komunitateko lehendakariaren 10/2011 Foru Dekretua, uztailaren 1ekoa, Nafarroako Foru Komunitateko Administrazioaren departamentuen egitura eta departamentu bakoitzaren eskumenen esparrua ezartzen duena.


81/2011 FORU DEKRETUA, uztailaren 18koa, Hezkuntza Departamentuaren oinarriko egitura ezartzen duena, lehenagoko hiru zuzendaritza nagusiak bakarrean bilduz.

132/2011 Foru Dekretua, abuztuaren 24koa, Hezkuntza Departamentuaren egitura organikoa ezartzen duena. Egitura berria Departamentuko zerbitzuen eta atalen mailan garatu da; zerbitzuak 2ra eta atalak 3ra murriztuz.

133/2011 Foru Dekretua, abuztuaren 24koa, Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua erakunde autonomoaren estatutuak onesten dituena. Foru Dekretu honek erakunde horren egitura berri du; orain zerbitzu bakarra eta 3 atal izanen ditu.

Hezkuntza Departamentuan aurreko legegintzalditik aurrera sortutako egitura berria jaso dugu:

## BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK



	Atal kopurua	Bulego kopurua
<b>Idazkaritza Tekniko Nagusia</b>	4	4
Hezkuntza Antolamenduaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua	5	5*
Aukera Berdintasunaren, Hezkuntzako Parte-hartzearen eta Irakasleentzako Arretaren Zerbitzua	3	4
Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua	0	2
Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzua	3	5

Lanbide Heziketaren Zerbitzua	3	5
Unibertsitateen eta Etengabeko Prestakuntzaren Zerbitzua	3	2
Giza Baliabideen Zerbitzua	3	3
Baliabide Ekonomikoen Zerbitzua	2	6
Hezkuntzako Azpiegituren Zerbitzua	3	5
Euskararen Prestakuntza eta Sustapenerako Zerbitzua	3	1

\* (0-3 urteko Haurren eta Landa Eskolen Atal berri bat ere badago. Zerbitzu baten mendeko izan beharrean, Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusiaren mendeko da).

Osozara, Departamentua 51 bulego izatetik 42 izatera pasako da.

Hezkuntza Departamentuaren egituraren bilakaera		
	2007/2011	2011/2015
Zuzendaritza Nagusiak	4	2
Zerbitzuak	13	10
Atalak	38	33
Bulegoak	51	42

### **Hezkuntzako ikuskapena**

Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren jarduna zehazten duten arauak honakoak dira: 416/2008 EBAZPENA, irailaren 24koa, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana, 2008-2012 aldirako Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Plan Estrategikoa onesten duena eta 538/2010 EBAZPENA, urriaren 1ekoa, Ikuskapenaren eta Zerbitzuen zuzendari nagusiak emana, Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzuaren Urteko Jarduketa Plana onesten duena, 2010-2011 ikasturterako.

Plantilla: Ikuskatzaile plantillaren bilakaera azpiko koadroan jasotzen da:

<b>10. koadroa - Ikuskatzaile plantillaren bilakaera, 2006/2007 ikasturtetik 2010/2011ra</b>					
<b>Ikasturtea</b>	<b>2006/07</b>	<b>2007/08</b>	<b>2008/09</b>	<b>2009/10</b>	<b>2010/2011</b>
Lanpostuak	25	25	28	28	28
Beteak	25	25	27	28	28

*Iturria: Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua*

### **3.2. Hezkuntzaren finantzaketa publikoa**

Epigrafe honek 2009an unibertsitatetik kanpoko Nafarroako hezkuntza sisteman inbertitutako baliabide ekonomikoen gaineko informazioa biltzen du. Informazio iturria, koadroen azpian adierazitako salbuespenetan izan ezik, Hezkuntza Departamentua izan da eta informazioa Nafarroako Parlamentuak onetsitako Nafarroako kontu orokorretan oinarrituta dago. Datuak, beraz, gauzatutako aurrekontuei dagozkie. Epigrafe honetan ez da bildu tokiko jardueretatik eratorritako hezkuntzako gastua, ezta familiena ere; kontu hau garrantzitsua da hezkuntzako gastua eta BPGaren arteko loturaren bat egin nahi bada.

3.2.2. atalean aurrekontua osatzen duten kapituluetakoko kontzepturik esanguratsuenen bilakaera jasotzen da.

Zenbait ataletan 1991n (Nafarroak hezkuntzan eskumen osoa baliatu zuen lehenengo urtea), 2000n eta 2005ean gauzatutako aurrekontuei buruzko datuak sartu dira tarteka. Horren helburua da 1999-2000. urteetan aztertutarekin (1990-2000ko Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko txostenean dago jasota) lotura egitea.

Zenbateko ekonomikoak eguneko milaka eurotan adierazi dira. Zifren azken zenbakia gorantz biribildu da aurrekoa bostetik gorakoa bazen. Irakurleak euro konstanteetara pasatu nahi baditu eguneko euroak, Nafarroako KPI ofizialak erabiltzen ahal ditu, 243. koadroan adierazitakoaren arabera.

Bukaeran, 3.2.4 atalean, konparatzeko datu orokorrak ematen dira. Horrela, Nafarroako hezkuntzako gastua Espainiako beste erkidegoetako gastuarekin erkatu daiteke, eta Espainiako OCDEko herrialdeetakoarekin.

### 3.2.1. Hezkuntza Departamentuaren aurrekontua

<b>11. koadroa - Hezkuntzako gastuaren aurrekontu gauzatuaren bilakaera, Hezkuntza Departamentuaren unibertsitatez kanpoko ikasketetan</b>								
<b>Kapitulua</b> 1	<b>I</b>	<b>II</b>	<b>IV</b>	<b>VI</b>	<b>VII</b>	<b>Guztira</b>	<b>Gobernukoa guztira</b>	<b>Hezk/Gob %a</b>
2000	193.921	22.477	78.855	13.818	2.909	<b>311.980</b>	<b>2.281.626</b>	<b>13,7</b>
2001	206.893	23.689	85.285	16.275	3.141	<b>335.283</b>	<b>2.368.068</b>	<b>14,2</b>
2002	219.550	25.293	92.543	13.490	5.895	<b>356.771</b>	<b>2.565.790</b>	<b>13,9</b>
2003	235.926	26.140	98.705	14.000	5.874	<b>380.645</b>	<b>2.688.511</b>	<b>14,2</b>
2004	253.860	29.076	101.748	14.499	2.899	<b>402.082</b>	<b>2.808.133</b>	<b>14,3</b>
2005	269.826	30.680	108.816	12.687	2.588	<b>424.597</b>	<b>3.148.222</b>	<b>13,5</b>
2006	285.614	32.555	115.703	12.997	8.133	<b>455.001</b>	<b>3.699.800</b>	<b>12,3</b>
2007	301.470	36.266	127.079	15.251	13.571	<b>493.638</b>	<b>4.294.301</b>	<b>11,5</b>
2008	340.487	38.513	140.400	13.560	16.663	<b>549.624</b>	<b>4.402.455</b>	<b>12,5</b>
2009	366.825	38.759	142.456	18.469	24.950	<b>591.459</b>	<b>4.372.680</b>	<b>13,5</b>
2010 <sup>2</sup>	364.439 <sup>3</sup>	37.834	140.970	33.479	18.914	<b>595.636</b>	<b>4.301.249<sup>4</sup></b>	<b>13,8</b>

Iturria: Aurrekontu eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

<b>12. koadroa - Hezkuntza Departamentuko aurrekontu osoaren kapitulu bakoitzeko bilakaera, aurrekontu osoarekiko</b>						
<b>Aurrekontua</b>	<b>2000</b>	<b>2006</b>	<b>2007</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>
Gob/Gob 00	1,000	1,622	1,882	1,930	1,92	1,88
Dep/Dep 00	1,000	1,458	1,582	1,762	1,90	1,91
Dep/Gob00	13,7%	12,3%	11,5%	12,5%	13,5%	13,8%


<sup>1</sup> I. kapitulua langileen gastuari dagokio; II.a administrazioaren funtzionamendu arruntari; IV.a gastu arruntetarako hirugarren pertsonen eginiko transferentziei; VI.a administrazioaren inbertsioei; VII.a inbertsio gastuetarako hirugarren pertsonen eginiko transferentziei.

<sup>2</sup> Gainerako kapituluetan ez da sartu: Unibertsitateko Irakaskuntza eta Hedapena izeneko 431. programa (70.774); Euskarabidea, gau-eskoletarako diru-laguntza izan ezik (910); Planetariora transferentzia (595); unibertsitateetako udako ikastaroak eta 430. programako beste batzuk (144).


<sup>3</sup> I. kapitulua osorik.

<sup>4</sup> "Gobernukoa, guztira" zutabeko datu honen barruan Nafarroako Parlamentua, Nafarroako Kontseilua eta Nafarroako Ikus-entzunezkoen Kontseilua daude sartuta.

Aurrekontuen bilakaera



Departamentuko/Gobernuko aurrekontuen bilakaera



13. koadroa - Hezkuntza Departamentuko urteko aurrekontuaren eta horren kapituluaren pisua, Gobernuko aurrekontu osoarekiko eta Hezkuntza Departamentuko aurrekontuarekiko, hurrenez hurren

Aurrekontua	2000	2006	2007	2008	2009	2010
Dep I/ Dep	0,622	0,628	0,611	0,619	0,620	0,612
Dep II/ Dep	0,072	0,072	0,073	0,070	0,066	0,063
Dep IV/ Dep	0,253	0,254	0,257	0,255	0,241	0,237
Dep VI/ Dep	0,044	0,029	0,031	0,025	0,031	0,056
Dep VII/ Dep	0,009	0,018	0,027	0,030	0,042	0,032
<b>Guztira</b>	<b>1,000</b>	<b>1,000</b>	<b>1,000</b>	<b>1,000</b>	<b>1,000</b>	<b>1,000</b>

<b>14. koadroa - Hezkuntzako gastuaren aurrekontu gauzatuaren bilakaera, Hezkuntza Departamentuaren unibertsitatez kanpoko ikasketetan 1991., 2001. eta 2006-2009. urteetan</b>						
<b>Aurrekontua</b>	<b>1991</b>	<b>2001</b>	<b>2007</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>
I Langile-gastuak	105.476	206.893	301.470	340.487	366.825	364.439
%a osoarekiko	%58,31	%61,71	%61,07	%61,95	%62,02	%61,18
1991rekiko gehikuntza	1,00	1,96	2,86	3,23	3,48	3,45
II Ondasun arruntak eta zerbitzuak	12.940	23.689	36.266	38.513	38.759	37.834
%a osoarekiko	%7,15	%7,07	%7,35	%7,01	%6,55	%6,35
1991rekiko gehikuntza	1,00	1,83	2,80	2,98	3,00	2,99
IV Transferentziak	50.630	85.285	127.079	140.400	142.456	140.970
%a osoarekiko	%27,99	%25,44	%25,74	%25,54	%24,09	23,67
1991rekiko gehikuntza	1,00	1,68	2,51	2,77	2,81	2,78
VI Kapital-inbertsioak	6.719	16.275	15.251	13.560	18.469	33.479
%a osoarekiko	%3,71%	%4,85	%3,09	%2,47	%3,12	%5,63
1991rekiko gehikuntza	1,00	2,42	2,27	2,02	2,75	4,98
VII Kapital-transferentziak	5.131	3.141	13.571	16.663	24.950	18.914
%a osoarekiko	%2,84	%0,94	%2,75	%3,03	%4,22	%3,17
1991rekiko gehikuntza	1,00	0,61	2,65	3,25	4,86	3,69
<b>Eskola ikasketak guztira</b>	<b>180.896</b>	<b>335.283</b>	<b>493.638</b>	<b>549.624</b>	<b>591.459</b>	<b>595.636</b>
1991rekiko gehikuntza	<b>1,00</b>	<b>1,85</b>	<b>2,73</b>	<b>3,04</b>	<b>3,27</b>	<b>3,29</b>



**3.2.1.1. Hezkuntzako gastu komunak**

Atal honetan jaso dira hezkuntza administrazioaren gastu komunak<sup>5</sup> sostengatzea helburu duten Departamentuaren gastu guztiak. Posible izanen litzateke gastua bi hezkuntza sareen artean (publikoa eta pribatua) banatzea, adostutako irizpide objektibo bat erabilita, hala nola, sare bakoitzean eskolatutako ikasle kopurua. Hala egitekotan, komenigarria izanen litzateke kontuan izatea itunpeko ikastetxeetako irakasle ez diren langileen gastuak itunen moduluko "bestelako gastuak" kontzeptuan sartuta daudela: horrek esan nahi du I. kapituluko kontzeptua (langileen gastuei dagokiena) behar bezala zehaztu beharko litzatekeela.

Kontzeptuen izena, orobat, aurrekontuaren lerroen izenekin bat dator, salbu eta langile funtzionarioen, lan-kontratudun finkoen eta aldi baterako lan-kontratudunen gastuak, kontzeptu horiek batera ematen baitira.

D'/D %ak adierazten du zein den letra beltzez nabarmendutako kontzeptuetako bakoitzaren erlazioa lehenengo zutabeko kopuruarekiko. Lehenengo zutabeko kopurua 2000. urtekoa da eta erreferentzia gisa hartu da.

<b>15. koadroa - Gastu komunen aurrekontu gauzatuaren bilakaera hezkuntza administrazioan (milaka eurotan)</b>					
<b>Kontzeptua</b>	<b>2000</b>	<b>2007</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>
<b>Langileak (I. kapitulua)</b>					
<b>Funtzionarioak</b>	6.020	8.661	9.511	10.471	11.775
D'/D (%a)	1,00	1,44	1,58	1,74	1,96
<b>Lan-kontratudun finkoak</b>	519	444	429	548	511
D'/D (%a)	1,00	0,86	0,83	1,06	0,98
<b>Aldi baterako lan-kontratudunak</b>	1.074	2.467	1.854	1.712	1.742
D'/D (%a)	1,00	2,30	1,73	1,59	1,62
<b>Irakasle ez diren langileak guztira</b>	<b>7.613</b>	<b>11.572</b>	<b>11.794</b>	<b>12.731</b>	<b>14.028</b>
D'/D (%a)	1,00	1,52	1,55	1,67	1,84
<b>Langileen bestelako gastuak</b>					
Goi-karguen ordainsariak	94	144	208	385	242
Aldi baterako langileen ordainsariak	86	129	139	114	61
Ordezkarri sindikalen dietak	39	-	0	0	0
Aparteko lanorduak	58	43	37	48	57
Beste ordainsari batzuk					208
<b>Langileen bestelako gastuak, guztira</b>	<b>277</b>	326	384	555	568
D'/D (%a)	1,00	1,18	1,38	2,00	2,05
<b>I. kapitulua, guztira</b>	<b>7.890</b>	<b>11.898</b>	<b>12.177</b>	<b>13.286</b>	<b>14.596</b>
D'/D (%a)	1,00	1,51	1,54	1,68	1,85
<b>Gastu arruntak (II. kapitulua)</b>					

<sup>5</sup> Gastu komunak dira: sare publikorako eta pribaturako, bietarako, diren zerbitzuei dagozkienak.

Kontseilariaren askotariko gastuak	12	15	15	14	8
Kontseilariaren eta bere kabinetearen bidaiak	15	3	6	5	3
Bulegoko materiala	65	110	108	111	79
Harpidetzak eta liburuak erostea	22	64	57	20	17
Komunikazioak	77	91	88	87	58
Lan-istripuen eta erantzukizun aseguruak	11	14	17	17	15
Publizitatea	166	271	86	87	37
Defentsa juridikoaren gastuak	6	0	0	0	0
Hitzaldiak, ikastaroak eta bilerak	22	6	6	1	1
Askotariko gastuak	180	57	111	86	43
Informazio sistemen plana	45	0	0	0	0
Jantziak	1	0	0	0	0
Langileen bidaietarako joan-etorri gastuak eta dietak	417	481	510	498	439
Langile funtzionarioen eta lan-kontratadunen dietak		36	68	37	30
Proiektu eta ikerketa planen argitalpena	1	0	0	0	15
Proiektuak eta ikerketak	0	28	66	0	0
Lan-osasun programak	30	7	19	13	87
Bestelako gastu erlatiboak	9	7	7	5	5
Epaiak betetzea	45	6	3	33	51
Prestakuntza ikastaroak	10	22	7	6	0
Hardwarearen mantentze-lanak	0	15	17	43	28
CAU zerbitzua 1. mailako mantentze-lanak	0	84	84	85	115
SAP sistemen zerbitzua					74
Istripuak ordaintzea	0	40	18	55	62
Departamentuaren eraikinen funtzionamendua. Alokairua	720	1.099	1.002	911	914
Tituluak luzatzea	27	37	36	86	38
Argitalpenak	107	38	237	23	0
Eskola Kontseiluaren funtzionamendurako laguntza	94	176	99	86	87
Lanbide Heziketaren Kontseiluaren funtzionamendu gastuak	0	0	5	0	2
Kultur Ibilbideak Nafarroan barna programa	114	156	161	150	85
Ekipoen konponketak eta mantentze-lanak	13	0	0	0	0
Eraberritze programak	157	130	70	0	0
Elkarbizitza programak	0	0	32	46	0
Datuak komunikatzeko sistemak	0	988	942	525	627

**BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK**

Dokumentazioa	0	1		0	0
<b>II. kapitulua, guztira</b>	<b>2.365</b>	<b>4.029</b>	<b>3.876</b>	<b>3.030</b>	<b>2.920</b>
D'/D (%a)	1,00	1,70	1,64	1,28	1,23
<b>Transferentziak (IV. kapitulua)</b>					
Erakundeen funtzionamendu-gastuak	49	47	47	47	47
Guraso elkarteei eta ikasle elkarteei diru-laguntzak	176	250	250	249	220
Amado Alonso hitzarmena	20	25	25	10	0
<b>IV. kapitulua, guztira</b>	<b>245</b>	<b>322</b>	<b>322</b>	<b>306</b>	<b>267</b>
D'/D (%a)	0,74	0,97	0,97	1,25	1,09
<b>Inbertsioak (VI. kapitulua)</b>					
Bestelako altzariak eta ekipoak	4	0		15	17
Bestelako inbertsioak	133	0		0	0
Departamentuaren informatika plana	173	0		0	0
Ekipo informatikoak	6	0		61	89
Departamentuaren webgunearen garapena					10
RH eta SAP programa informatikoa		46	27	115	77
Informazio sistemen plana	135	0		0	0
Informazioaren gizartea garatzea	0	1.200	955	448	449
Departamentuaren eraikinetan inbertsioak	31	88	100	100	0
<b>VI. kapitulua, guztira</b>	<b>482</b>	<b>1.288</b>	<b>1.082</b>	<b>739</b>	<b>642</b>
D'/D (%a)	1,24	3,30	2,78	1,53	1,33
<b>Prestakuntza</b>					
<b>Prestakuntza jarduerak, guztira</b>	<b>11</b>	<b>22</b>	<b>14</b>	<b>71</b>	<b>0</b>
D'/D (%a)	17,27	34,39	21,98	6,45	-
<b>Administrazio-gastuak, guztira</b>	<b>11.797</b>	<b>17.559</b>	<b>17.471</b>	<b>17.432</b>	<b>18.425</b>
D'/D (%a)	1,07	1,60	1,59	1,48	1,16

*Iturria: Aurrekontu eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

**3.2.1.2. Sare publikoko gastuen aurrekontua**

Hezkuntza publikoaren funtzionamenduari bakarrik dagozkion datuak jaso dira, gastuak izan daitezkeelarik langileen gastuak (I. kapitulua), funtzionamendu-gastuak (II. kapitulua), transferentzia arruntak (IV. kapitulua), inbertsioak (VI. kapitulua) zein kapital-transferentziak (VII. kapitulua).

<b>16. koadroa - Aurrekontu gauzatuen bilakaera hezkuntza publikoan (milaka eurotan)</b>					
<b>Kontzeptua</b>	<b>2000</b>	<b>2007</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>
<b>Irakasleak (I. kapitulua)</b>					
Funtzionarioak					
Funtzionarioen ordainsariak	126.291	181.671	201.776	227.187	230.383
Lanbide Heziketako irakasle funtzionarioen ordainsariak	0	8.471	9.410	0	2.080
Erretiroko kalte-ordainaren osagarria	0	1.576	2.070	2.322	2.697
<b>Funtzionarioak, guztira</b>	<b>126.291</b>	<b>191.718</b>	<b>213.256</b>	<b>229.509</b>	<b>235.160</b>
D'/D (%a)	1,00	1,52	1,69	1,82	1,86
Aldi baterako lan-kontratudunak					
Lanpostu hutsak betetzeko kontratatutako langileak	2.304	3.266	3.354	4.135	4.204
Langileak aldi baterako kontratatzea	30.835	46.988	55.979	60.821	52.534
Ordezkapenetarako lan-kontratadunen ordainsariak	7.336	11.565	15.070	14.196	14.672
Erljio irakasleen kontratuak	0	5.412	6.568	6.558	6.568
Lanbide Heziketako ikastetxeetako langileen kontratuak	0	3.471	4.687	0	1.533
Langile adituen kontratuak	0	103	74	148	142
<b>Aldi baterako lan-kontratudunak, guztira</b>	<b>40.476</b>	<b>70.804</b>	<b>85.873</b>	<b>85.941</b>	<b>79.653</b>
D'/D (%a)	1,00	1,75	2,11	2,12	1,97
<b>I. kapitulua, guztira</b>	<b>166.766</b>	<b>262.523</b>	<b>299.129</b>	<b>315.450</b>	<b>314.813</b>
D'/D (%a)	1,00	1,57	1,79	1,89	1,89
<b>Funtzionamendua (II. kapitulua)</b>					
Pirinioetan irakasleak egonkortzeko plana				100	0
Irakaskuntza publikoa modernizatzeko plana			42	159	148
Ikasgelen eta ekipoen funtzionamendua eta mantentze-lanak	93	198	183	195	181
Oposizio eta epaimahaien gastuak	316	455	485	625	880
Ikastetxe publikoen garbitze-lanak	0	3.628	3.959	4.123	4.305
Ikastetxeen funtzionamendurako diru-laguntzak	1.241	1.456	1.526	1.511	1.485
Unibertsitatekoak ez diren ikasketetako ikastetxe publikoen funtzionamendurako finantzaketa	8.322	8.131	8.917	8.810	8.595
Ikastetxeetako konponketen eta mantentze-lanen gastuak	546	1.039	415	789	506
INABADen ikastetxe laguntzaileei	18	0	0	0	0

**BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK**

diru-laguntza					
Etorkinak gizarteratzeko jardueren finantzaketa	0	65	83	88	92
Etorkinak direla-eta ikastetxe publikoei diru-hornidura	0	119	154	154	154
Premia berezidun gutxiengoentzat programak	0	45	7	0	0
Nafarroako Lanbide Heziketako plana garatzea				51	99
PROA (laguntza errefortzu) programa	-	101		0	0
<b>II. kapitulua, guztira</b>	<b>10.539</b>	<b>15.628</b>	<b>15.953</b>	<b>16.605</b>	<b>16.445</b>
D'/D (%a)	1,00	1,48	1,51	1,58	1,56
<b>Materiala</b>					
Informatika eta ikus-entzunezko ekipoak eta osagarriak eskuratzea	131	0	0	0	0
OHOko ikastetxeetarako ikasmateriala eskuratzea	1.434	1.815	1.798	1.498	2.280
Lanbide Heziketako ikastetxeetarako ikasmateriala eskuratzea	2.658	821	1.687	1.399	680
Lanbide Heziketako ikastetxeen ekipamendua					97
Lanbide Heziketaren plan teknologikoa	6			0	0
Leitzako "Maxurrenea" etxeko gastuak	0	18	18	19	20
Makina autopropulsatuak eskuratzea	0	19	26	0	0
Musika Kontserbatorioaren proiektua	0	424	12	0	0
<b>Materiala, guztira</b>	<b>4.229</b>	<b>3.098</b>	<b>3.541</b>	<b>2.916</b>	<b>3.077</b>
D'/D (%a)	1,00	0,73	0,84	0,69	0,73
<b>Obrak</b>					
Udal jabetzako ikastetxeetako obrak	660	1.400	3.277	7.329	5.028
Ikastetxeetako obrak				618	1.218
Lanbide Heziketako ikastetxeak sortzea					500
Gizarte ekimeneko ikastetxeetako obrentzako diru-laguntza				147	0
Nafarroa 2012 Plana. Egokitutako ikastetxe berriak eraikitzea	8.684	10.279	14.349	14.939	10.928
Nafarroa 2012 Plana. Ikastetxe berriak eraikitzea		7.049	5.627	10.382	13.047
Nafarroa 2012 Plana. Kontserbatorioa				494	11.471
<b>Obrak, guztira</b>	<b>9.344</b>	<b>18.727</b>	<b>23.253</b>	<b>33.909</b>	<b>42.192</b>
D'/D (%a)	1,00	2,00	2,49	3,63	4,52

<b>0-3 urte</b>					
Udalekin hitzarmena 0-3 urteko ziklorako	208	4.741	4.882	9.954	9.655
Udalei diru-laguntza 0-3 urteko ziklorako	82	7.185	6.943	0	0
Laguntza goiztiarra HHko 1. zikloan				5	6
<b>0-3 urteko zikloa, guztira</b>	<b>290</b>	<b>11.926</b>	<b>11.825</b>	<b>9.959</b>	<b>9.661</b>
D'/D (%a)	1,00	41,19	40,84	34,34	33,31
<b>Jantokiak</b>					
<b>Jantokiak, guztira</b>	<b>1.454</b>	<b>2.517</b>	<b>2.952</b>	<b>3.155</b>	<b>3.418</b>
D'/D (%a)	1,00	1,73	2,03	2,17	2,35
<b>Garraioa</b>					
Eskola garraioa	6.621	11.889	12.689	12.882	12.930
<b>Garraioa, guztira</b>	<b>6.621</b>	<b>11.889</b>	<b>12.689</b>	<b>12.882</b>	<b>12.930</b>
D'/D (%a)	1,00	1,80	1,92	1,95	1,95
<b>Eskolaz kanpoko jarduerak</b>					
<b>Eskolaz kanpoko jarduerak OHoko eta Irakaskuntza Ertainetako ikastetxeetan, guztira</b>	<b>325</b>	<b>209</b>	<b>229</b>	<b>45</b>	<b>0</b>
D'/D (%a)	1,00	0,64	0,70	0,14	-
<b>Hezkuntza publikoan, guztira</b>	<b>199.568</b>	<b>326.517</b>	<b>369.571</b>	<b>394.921</b>	<b>402.536</b>
D'/D (%a)	1,00	1,64	1,85	1,98	1,35
<b>Ikasketa bereziak</b>					
Pablo Sarasate orkestraren funtzionamendua	26	3	3	0	0
Nafarroako Musikako goi mailako kontserbatorioko orkestraren eta abesbatzaren funtzionamendua	0	3	3	0	0
Arte eta Musika ikasketak sustatzea			46	14	10
<b>Kontserbatorioak, guztira</b>	<b>26</b>	<b>5</b>	<b>52</b>	<b>14</b>	<b>10</b>
D'/D (%a)	1,00	0,20	1,97	0,54	0,38
<b>Transferentziak</b>					
Udal kontserbatorioendako diru-laguntzak	788	2.000		0	0
Udal musika eskolendako diru-laguntzak	483	0	2.550	2.450	2.250
Tuterako Udalarekin hitzarmena	111	213	232	211	205
Murchanteko Udalarekin hitzarmena				100	0
Musika irakasleak eta ikasleak trebatzeko laguntzak			0,8		0

**BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK**

<b>Transferentziak, guztira</b>	<b>1.382</b>	<b>2.213</b>	<b>3.582</b>	<b>2.761</b>	<b>2.455</b>
D'/D (%a)	1,00	1,60	2,59	2,00	1,78
<b>Ikasketa bereziak, guztira</b>	<b>1.408</b>	<b>2.219</b>	<b>3.634</b>	<b>2.775</b>	<b>2.465</b>
D'/D (%a)	1,00	1,58	2,58	1,97	1,75
<b>Bestelako ikasketak</b>					
Helduentzako ikastetxeak eta ikasgelak	<b>84</b>	<b>92</b>	<b>86</b>	<b>91</b>	<b>91</b>
D'/D (%a)	1,00	1,09	1,02	1,08	1,08
<b>Lanbide Lantegiak</b>					
Europako Gizarte Funtsaren 4. xedeko funtzionamendu gastuak	119	300	310	310	265
Europako Gizarte Funtsaren 4. xedeko ikastaroetan irakaskuntza taldeak	76	-		0	0
Lanbide Lantegien funtzionamendu-gastuak	281	50		0	0
Lanbide Lantegiak eraberritzea	74	-		0	0
Lanbide Lantegietan irakaskuntza taldeak	59	51	8	25	25
<b>Lanbide Lantegiak, guztira</b>	<b>608</b>	<b>401</b>	<b>318</b>	<b>335</b>	<b>290</b>
D'/D (%a)	1,00	0,66	0,52	0,55	0,48
<b>Bestelako ikasketak, guztira</b>	<b>692</b>	<b>493</b>	<b>404</b>	<b>426</b>	<b>381</b>
D'/D (%a)	1,00	0,71	0,58	0,62	0,55
<b>Hezkuntza publikoaren gastuak, guztira</b>	<b>201.669</b>	<b>329.228</b>	<b>374.065</b>	<b>398.122</b>	<b>405.386</b>
D'/D (%a)	1,00	1,63	1,85	1,97	2,01
<b>Ikasleak</b>	49.844	57.136	58.177	60.470	61.945
<b>Hezkuntza publikoko ikasleen gastuak</b>	4.004	5.715	6.360	6.531	6.498
D'/D (%a)	1,00	1,42	1,59	1,63	1,62

*Iturria: Aurrekontu eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

**3.2.1.3. Sare pribatuko gastuen aurrekontua.**

Atal honetan jasota daude diru-laguntzei eta itunei erantzuteko transferentzia arruntak, horiekin lotura duten langileen gastu zenbait, eta diru-laguntzen bidez burutu diren inbertsioetarako edo ekipamendurako kapital-transferentziak.

<b>17. koadroa - Aurrekontu gauzatuen bilakaera irakaskuntza pribatu-itunduan (milaka eurotan)</b>					
<b>Kontzeptua</b>	<b>2000</b>	<b>2007</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>
<b>Itunak eta diru-laguntzak</b>					
Haur Hezkuntzako 2. ziklorako diru-laguntza	8.605	16.419	17.941	18.582	19.379
OHO eta Lehen Hezkuntzarako diru-laguntza	25.592	34.107	37.459	39.367	40.597
DBHko 1. ziklorako diru-laguntza	9.194	14.922	16.192	16.618	16.270
BBBko eta DBHko 2. ziklorako diru-laguntza	11.163	16.944	18.084	18.348	18.643
Eskolatu gabeko haurrei laguntzeko zentroendako diru-laguntza	0	892	973	994	1.041
Batxilergoko ikasketetarako diru-laguntza	6.263	9.053	9.121	9.539	9.304
Hezkuntza Berezirako diru-laguntza	1.642	3.827	4.484	4.888	4.791
Lanbide Heziketako erdi mailarako diru-laguntza	2.342	4.035	4.326	4.642	4.941
Lanbide Heziketako goi mailarako diru-laguntza	2.441	2.508	2.826	3.017	2.892
Salesianos ikastetxeari diru-laguntza	219	150		0	0
Salesianos ikastetxearekin hitzarmena	109	46	43	21	17
Erlijio-elkarteen hitzarmena ordaintzea	284	183	141	83	81
Kamira lantegi-eskola			55	0	50
ADHI elkarteari diru-laguntza					25
Ilundain baserri-eskolari diru-laguntza	328	0		0	0
Hezkuntza premia bereziak direla-eta ikastetxe pribatuei laguntzak	23	58	59	59	60
Nafarroako Antzerki Eskola	0	154	158	155	50
Hezkuntza premia bereziak direla-eta ikastetxe itunduei laguntzak	0	3.157	3.558	3.638	3.233
Etorkinak direla-eta ikastetxe itunduei laguntzak	0	761	924	1.047	973
Legeztatu gabeko ikastolendako diru-laguntza	1.642	1.313	1.594	1.810	0
<b>Itunak, guztira</b>	<b>69.846</b>	<b>108.526</b>	<b>117.797</b>	<b>122.725</b>	<b>122.347</b>
D'/D (%a)	1,00	1,55	1,69	1,76	1,75
<b>Materialak</b>					
Salesianos ikastetxeari ekipamendurako diru-laguntza	150	0	0	0	0
Ikastetxe itunduentzako ekipo informatikoak	150	0	0	0	0
Ikastetxe itunduentzako ekipoak - gutxiengoak	120	0	0	0	0
<b>Materialak, guztira</b>	<b>421</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>	<b>0</b>



**BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK**

D'/D (%a)	1,00	0,00	0,00	0,00	0
<b>Obrak</b>					
Ikastetxe itunduak eraikitzea	1.320	117	489	0	0
Ikastoletako obrak	301	125		0	0
<b>Obrak, guztira</b>	<b>1.621</b>	<b>242</b>	<b>489</b>	<b>0</b>	<b>0</b>
D'/D (%a)	1,00	0,15	0,30	0,00	0
<b>Eskolaz kanpoko jarduerak</b>					
<b>Eskolaz kanpoko jarduerak , guztira</b>	<b>93</b>	<b>78</b>	<b>80</b>	<b>15</b>	<b>0</b>
D'/D (%a)	1,00	0,84	0,86	0,16	0
<b>Irakaskuntza pribatuan, guztira</b>	<b>71.981</b>	<b>108.846</b>	<b>118.366</b>	<b>122.740</b>	<b>122.347</b>
<b>Ikasleak, guztira</b>					
D'/D (%a)	1,00	1,51	1,64	1,71	1,75

*Iturria: Aurrekontu eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala*

<b>18. koadroa - Hezkuntzako itunetan gauzatuak gastuaren bilakaera (milaka eurotan)</b>					
	<b>1991</b>	<b>2001</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>
<b>Haur Hezkuntza</b>	6.070	9.394	17.941	18.582	19.379
1991rekiko gehikuntza	1,00	1,55	2,96	3,06	3,19
<b>Lehen Hezkuntza</b>	24.932	29.164	37.459	39.367	40.597
1991rekiko gehikuntza	1,00	1,17	1,50	1,58	1,63
<b>DBH, BBB eta Lanbide Heziketa</b>	9.532	33.475	50.549	52.164	47.108
1991rekiko gehikuntza	1,00	3,51	5,30	5,47	4,94
<b>Hezkuntza Berezia</b>	430	1.607	9.025	9.632	9.057
1991rekiko gehikuntza	1,00	3,74	20,99	22,4	21,06
<b>Kapital-transferentziak</b>	1048	462	489	0	0
1991rekiko gehikuntza	1,00	0,44	0,47	-	-
<b>OSOTARA</b>	42.013	74.113	115.463	119.745	116.141
1991rekiko gehikuntza	1,00	1,76	2,75	2,85	2,77
<b>Ikasleak<sup>6</sup></b>	43.876	31.183	33.657	35.076	35.080
<b>Ikasleko gastua, itunduan</b>	958	2.237	3.431	3.414	3.310,75
1991rekiko gehikuntza	1,00	2,48	3,58	3,56	3,46

<sup>6</sup> Ikasleei buruzko datuak, 1991tik 2008ra bitartekoak, *Aurrekontuen eta Kudeaketa Ekonomikoaren Ataletik* hartu dira eta 2009tik aurrera *Nafarroako Hezkuntza Estatistikatik*.

### 3.2.1.4. Sare publikoko eta pribatuko irakaskuntzaren gastuen aurrekontua.

Irakaskuntza zuzenarekin nolabaiteko lotura duten aurrekontuko esleipen oro jaso dira, ez daudenak soilik hezkuntza publikoari ala pribatuari atxikirik. Bi sareei dagozkien gastuak dira, izan, baina oso zaila da bakoitzaren ehunekoa zehaztea.

<b>19. koadroa - Aurrekontu gauzatuak, irakaskuntzako gastu komuna (milaka eurotan)</b>					
<b>Kontzeptua</b>	<b>2000</b>	<b>2007</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>
<b>Teknologia berriak</b>					
Teknologia berrien programa	142	31		101	126
Teknologia berrien programaren inbertsioa	237	80	48	78	64
Teknologia berrien programen inbertsioak	0	207		749	1.791
<b>Teknologia berriak, guztira</b>	<b>378</b>	<b>318</b>	<b>48</b>	<b>928</b>	<b>1.981</b>
D'/D (%)	1,00	0,84	0,69	3,01	5,24
<b>Gastu arruntak (II. kapitulua)</b>					
Eskola bidaiariei laguntzak	45	84	104	85	85
Leonardo da Vinci-ren funtzionamendu-gastuak	0	99	109	83	53
Mugikortasun proiektuaren funtzionamendu-gastuak					26
Lanbide Heziketako garapena eta jarraipena	167	214	223	307	327
Lanbide Heziketako ikastaroak	135	142	90	119	107
Lanbide Hastapeneko Programen funtzionamendu gastuak. Prog. operatiboa.	0	66	74	71	72
Kualifikazioen diseinua	0	12	26	58	63
Musika kontzertuak	14	0		0	0
Ospitaleko ikasgelaren funtzionamendu gastuak					67
Hezkuntza esperientziei buruzko ikerketen argitalpenak	150	267	237	30	28
Irakasleentzako Laguntza Zentroen funtzionamendu-gastuak	139	153	148	140	134
Irakasleentzako Laguntza Zentroak	105	83	46	10	0
Ikastetxeetan atzerriko hizkuntza ezartzea	115	0		0	0
Etorkinei buruzko materialak prestatzea	0	17		0	0
Ikastetxeen ebaluazioa	0	2	47	82	56
Programen ebaluazioa	0	14		0	0
Ikasleen ebaluazioa	0	40	39	41	38
"Mentor" ikasgelen gastuak	0	14	20	13	14

**BALIABIDE MATERIALAK ETA GIZA BALIABIDEAK**

<b>Gastu arruntak, guztira</b>	<b>870</b>	<b>1.208</b>	<b>1.163</b>	<b>1.039</b>	<b>1.070</b>
D'/D (%a)	1,00	1,39	1,34	1,19	1,23
<b>Laguntzak eta bekak (IV. kapitulua)</b>					
Beka eta diru-laguntza deialdien gastu orokorrak	11	14	18	20	11
Bekak goi eta erdi mailako ikasketetan	3.540	3.174	2.929	3.320	3.339
Leonardo da Vinci20 programa	0	437	515	472	514
Nazioarteko mugikortasunerako proiektua					168
Beka eta laguntzak Hezkuntza Berezian	107	269	245	91	209
Ordaina, praktiketan ikasleak hartzen dituzten enpresei	399	-		0	0
Bekak enpresetan praktikak egiten dituzten ikasleentzat	391	299	296	0	0
Hizkuntzetan trebatzeko laguntzak erdi mailako ikasketen ikasleentzat	272	272	783	668	198
Atzerriko hizkuntzetan trebatzeko ikastaroak			495	593	536
Ikasleentzako bekak, Musikako goi mailako graduan	0	7		0	0
Beka eta laguntzak Musika eta Dantza ikasketetan	54	0		0	0
Atzerrian hizkuntza ikasketak egiteko bekak	156	234	256	225	235
Testuliburuoen doakotasuna	277	740	2.425	1.060	549
Lanbide Heziketarako bekak eta laguntzak	0	0		71	28
<b>Bekak, guztira</b>	<b>5.208</b>	<b>5.448</b>	<b>7.962</b>	<b>6.520</b>	<b>5.787</b>
D'/D (%a)	1,00	1,05	1,53	1,25	1,11
<b>Testuliburuak doan jasotzeko programa</b>					
Testuliburuak doan jasotzeko plana			23	27	3
Publikoa			1.750	2.200	2.094
Pribatua			1.049	1.200	1.167
Doakotasuna, guztira			<b>2.822</b>	<b>3.427</b>	<b>3.264</b>
<b>Prestakuntza</b>					
Ibilbide literarioak	0	38	56	60	45
Ibilbide zientifikoak (1)				65	45
Hezkuntza berrikuntza, berdintasuna, kalitatea (1)				98	105
Irakasleen prestakuntza jarduerak	439	637	561	429	331
Irakasleen prestakuntzarako laguntzak (1)				15	0
Atzerriko hizkuntzak irakasten dituzten zentroak sustatzea	0	278	49	47	0

Irakasleen prestakuntza atzerriko hizkuntzetan	101	45	393	478	449
Prestakuntza jardueretarako materiala eskuratzea	69	6	9	1	22
Hizkuntzak ikasteko sozietate publikoa	0	230	230	150	95
Ingelesa ikasteko prestakuntza programari laguntza	0	102		0	0
Irakasleen urrutiko prestakuntza	0	218	228	212	210
<b>Prestakuntza, guztira</b>	<b>608</b>	<b>1.554</b>	<b>1.526</b>	<b>1.555</b>	<b>1.302</b>
D'/D (%a)	1,00	2,56	2,51	2,56	2,14
<b>Inbertsioak</b>					
Nafarroako Lanbide Heziketako plana garatzea	0	43		0	0
Hezkuntza Bereziko laguntza zentroetarako ikasmaterialak eskuratzea	0	5	21	12	30
Ikastetxeetarako aplikazioak garatzea	0	180	212	548	401
<b>Inbertsioak, guztira</b>	<b>0</b>	<b>228</b>	<b>233</b>	<b>560</b>	<b>431</b>
D'/D (%a)	-	-	-	-	-
<b>Irakaskuntzan gastu komunak, guztira</b>	<b>7.064</b>	<b>7.229</b>	<b>13.966</b>	<b>14.029</b>	<b>13.835</b>
D'/D (%a)	1,00	1,02	1,98	1,99	1,96

Iturria: Aurrekontu eta Kudeaketa Ekonomikoaren Atala

### 3.2.1.5. Hezkuntza Departamentuko aurrekontuetako bestelako gastuak.

Atal honetan jaso dira administrazioaren langile funtzionarioen edo lan-kontratudunen Gizarte Segurantzako gastuak, langile horien artean daudelarik sare publikoko irakasleak zein administrazio orokorreko langileak. Txosten honen zehaztasun mailarekin gastu horiek ezin dira banatuta eman, irakasleenak alde batetik eta administrazio orokorreko langileenak bestetik. Izan ere, irakasle funtzionario gehienak mutualitate sistema batera atxikita daude, eta horrek gastu mota honetan eragin handia du. Bestalde, euskararen programa osoa ere jaso da atal honetan.

<b>20. koadroa - Aurrekontu gauzatuak, bestelako gastuak (milaka eurotan)</b>					
Kontzeptua	2000	2007	2008	2009	2010
<b>Gizarte Segurantza</b>					
<b>Gizarte Segurantza, guztira</b>	<b>18.613</b>	<b>26.421</b>	<b>29.094</b>	<b>38.086</b>	<b>34.949</b>
D'/D (%a)	1,00	1,26	1,56	2,05	1,88
<b>Euskararen programa</b>					
Funtzionarioen ordainsari finko osoa	149	310		0	0
2009/2010	608	174.316	286,70
2010/2011	0	0	0

Iturria: Euskara Atala



## 4.- HEZKUNTZA PROZESUAK ETA POLITIKAK

### 4.1. Irakaskuntzak antolatu eta ordenatzea

2010eko irailaren 1etik 2011ko abuztuaren 31ra arte Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuarekin loturiko honako administrazio egintzak onetsi ditu:

<b>99. koadroa - 2010/2011 ikasturtean onetsitako administrazio egintzen laburpena</b>		
<b>Jatorria</b>	<b>Foru aginduak</b>	<b>Ebazpenak</b>
Idazkaritza Teknikoa	123	1
Ikuskapenaren eta Zerbitzuen Zuzendaritza Nagusia	6	12
Laneko Arriskuei Aurrea Hartzeko Atala	-	8
Ikastetxeen eta Ikasketetarako Laguntzen Zerbitzua	5	192
Hezkuntzako Ikuskapen Zerbitzua	7	75
Giza Baliabideen Zerbitzua	2	17
Obren eta Mantentze Lanen Zerbitzua	1	425
Nominen eta Aurrekontu-kontrolaren Zerbitzua	-	206
Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren Zuzendaritza Nagusia	3	4
Ikasketak Antolatzeko Zerbitzua	3	68
Aniztasunaren, Orientazioaren eta Kultura-aniztasunaren Zerbitzua	2	105
Prestakuntzaren eta Hezkuntza Berrikuntzaren Zerbitzua	8	182
Eskolako Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzua	7	178
Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen Zuzendaritza Nagusia	30	1
Arte Ikasketen Atala	7	31
Lanbide Heziketaren Zerbitzua	5	305
Unibertsitateko Irakaskuntza, Hedapen eta Ikerketa Zerbitzua	20	214
Euskarabidea-Euskararen Nafar Institutua	5	-
Euskararen Garapenerako Zerbitzua	1	40
Euskararen gaineko Aholkularitza eta Ikerketarako Zerbitzua	1	30
	<b>Kopurua</b>	
<b>Giza Baliabideen Zerbitzua (berek)</b>		2712
<b>Foru dekretuak</b>		28
<b>Nafarroako Gobernuaren erabakiak</b>		32

*Iturria: Hezkuntza Departamentuko Idazkaritza Tekniko Nagusia*

2010/2011 ikasturtean argitaratutako araurik garrantzitsuenak azaltzen dira jarraian:

#### Nafarroako Aldizkari Ofiziala

- 109/2010 FORU AGINDUA, uztailaren 1ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, musikako goi mailako ikasketak antolatzen dituen Nafarroako Foru Komunitatean, Europako Goi Mailako Hezkuntzaren Esparruari egokitzeko.
- 110/2010 FORU AGINDUA, uztailaren 1ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, musikako goi mailako ikasketen ikasketa plana ezartzen duena Nafarroako Foru Komunitatean Europako Goi

Mailako Hezkuntzaren Esparruari egokitzeko.210/2010 FORU AGINDUA, abenduaren 27koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Musika arloko Gradu goi mailako ikasketak egiten dituzten ikasleen ebaluazioa eta titulua arautzen dituena.

- 48/2011 FORU AGINDUA, martxoaren 29koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean musikako gradu goi mailako ikasketetan sartu, matrikulatu eta jarraitzeko arauak ematen dituena.
- 86/2011 FORU AGINDUA, maiatzaren 31koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean musikako gradu goi mailako ikasketetan sartu, matrikulatu eta jarraitzeko arauak ematen dituen Hezkuntzako kontseilariaren martxoaren 29ko 48/2011 Foru Agindua aldatzen duena.
- 32/2011 FORU AGINDUA, martxoaren 4koa, Nafarroako Foru Komunitatean musikako lanbide ikasketak egiten dituzten ikasleen ebaluazioa, sustapena eta titulazioa arautzen dituen Hezkuntzako kontseilariaren 91/2008 Foru Agindua aldatzen duena.
- 122/2010 FORU AGINDUA, uztailaren 19koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako hezkuntza sisteman on lineko urrutiko Lanbide Heziketaren ezarpena eta antolaketa arautzen dituena.
- 44/2010 FORU DEKRETUA, abuztuaren 9koa, Nafarroako Foru Komunitatearen esparruan arte plastikoen eta diseinuaren lanbide ikasketen antolaketa eta garapena arautzen dituena.
- 47/2010 FORU DEKRETUA, abuztuaren 23koa, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko eta pribatu itunduetako ikasleen eskubide eta eginbarrei eta ikastetxe horietako elkarbizitzari buruzkoa.
- 204/2010 FORU AGINDUA, abenduaren 16koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako eta pribatu itunduetako bizikidetzara arautzen duena.
- 399/2010 EBAZPENA, urriaren 13koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Bigarren Hezkuntzako institutuak eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako institutuak Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.
- 400/2010 EBAZPENA, urriaren 13koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Iruñeko eta Tuterako Hizkuntza Eskola Ofizialetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.
- 398/2010 EBAZPENA, urriaren 13koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Foru Komunitateko lurraldean dauden Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetako, Hezkuntza Bereziko ikastetxe publikoetako eta Helduen Oinarrizko Hezkuntzako ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.
- 401/2010 EBAZPENA, urriaren 13koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Arte Irakaskuntzen ikastetxe publikoetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituena.
- 402/2010 EBAZPENA, urriaren 13koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, ikastetxe itunduetako Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko eta zuzendaria izendatzeko jarraibideak onesten dituena.
- 66/2010 FORU DEKRETUA, urriaren 29koa, Nafarroako Foru Komunitateko ikastetxeetan Hezkuntza eta Lanbide Orientazioa arautzen dituena.
- 165/2010 FORU AGINDUA, azaroaren 2koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, ikur, logotipo eta idazkunen erabilera arautzen duena funts publikoak jasotzen dituzten unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan eta Hezkuntza Departamentuak diruz laguntzen dituen beste ikastetxe batzuetan.
- 75/2011 FORU AGINDUA, maiatzaren 12koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Hezkuntzako kontseilariaren azaroaren 2ko 165/2010 Foru Agindua aldatzen duena; agindu horrek ikur, logotipo eta idazkunen erabilera arautzen du, funts publikoak jasotzen dituzten unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetan eta Hezkuntza Departamentuak diruz laguntzen dituen beste ikastetxe batzuetan.

- 198/2010 FORU AGINDUA, abenduaren 1ekoa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe integratu publikoak izendatzen dituen eta Nafarroako ikastetxe integratu publikoen sarea sortzen duena.
- 202/2010 FORU AGINDUA, abenduaren 2koa, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu, ebaluatu eta haien izendapena berritzeko arauak ematen dituena.
- 503/2010 EBAZPENA, abenduaren 16koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, ikastetxe publikoetako zuzendariak ebaluatzen prozedura onesten duena, bai eta agintaldia 2011ko ekainaren 30ean bukatzen duten zuzendariak ebaluatzea ere.
- 504/2010 EBAZPENA, abenduaren 16koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko ikastetxe publikoetako zuzendariak hautatu eta izendatzeko merezimendu lehiaketarako deia egiten duena.
- 483/2010 EBAZPENA, abenduaren 16koa, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, kontserbatorioetako zuzendariak ebaluatzen prozedura onesten duena, bai eta agintaldia 2011ko ekainaren 30ean bukatzen duten zuzendariak ebaluatzea ere.
- 482/2010 EBAZPENA, abenduaren 16koa, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren menpeko kontserbatorioetako zuzendariak hautatu eta izendatzeko merezimendu lehiaketarako deia egiten duena.
- 19/2011 EBAZPENA, otsailaren 3koa, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, merezimendu lehiaketa bidez, Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuaren mendeko Lanbide Heziketako Ikastetxe Bateratuetako zuzendariak hautatzeko deialdia onesten duena.
- 40/2011 FORU DEKRETUA, maiatzaren 9koa, Nafarroako Eskolatzeko Batzorde Nagusia eta Tokiko Eskolatzeko Batzordeak sortu eta arautzen dituena.
- 1/2011 FORU AGINDUA, urtarrilaren 13koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Erdi eta Goi Mailako heziketa zikloetako ikasketak egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozeduraren oinarriak onesten dituena, 2011-2012 ikasturterako.
- 2/2011 FORU AGINDUA, urtarrilaren 13koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako bigarren zikloko eta Lehen Hezkuntzako ikasketak egin behar dituzten ikasleak ikastetxe publikoetan eta pribatu itunduetan onartzeko prozedura arautzen duten oinarriak onesten dituena, 2011-2012 ikasturterako.
- 30/2011 FORU AGINDUA, otsailaren 28koa, Hezkuntzako kontseilariarena, hizkuntzen jakite maila egiaztatzen duten titulazioak eta ziurtagiriak ezartzen dituena, Hizkuntzen Europako Erreferentzia Esparru Bateratuak ezartzen dituen maila erreferentzia eginez, Nafarroako Gobernuaren Hezkuntza Departamentuaren eskumeneko eremuan.
- 150/2011 EBAZPENA, apirilaren 14koa, Hezkuntza Departamentuko Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Nafarroako Urrutiko Hizkuntza Eskola Ofizialean 2011-2012 ikasturtean izanen den eskola egutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituena.
- 156/2011 EBAZPENA, apirilaren 7koa, Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2011-2012 ikasturtean, Nafarroako Foru Komunitatean, Lanbide Heziketako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko ikasketak ematen dituzten ikastetxeek izanen dituzten eskola-egutegia eta ordutegi orokorra prestatzeko jarraibideak onesten dituena.
- 137/2011 EBAZPENA, apirilaren 7koa, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, Iruñeko eta Tuterako hizkuntza eskola ofizialetan ematen diren hizkuntza ikasketek 2011-2012 ikasturtean izanen duten eskola egutegia prestatzeko jarraibideak onesten dituena.
- 146/2011 EBAZPENA, apirilaren 5koa, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak emana, 2011-2012 ikasturtean Nafarroako Foru Komunitateko musikako lanbide ikasketek eta dantzako ikasketak ez-arautuek izanen duten eskola egutegia prestatzeko

jarraibideak onesten dituena.

- 127/2011 EBAZPENA, apirilaren 1ekoa, Hezkuntza Departamentuko Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emana, jarraibideak ematen dituena 2011-2012 ikasturteko eskola egutegia eta ordutegi orokorra prestatzeko, Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako bigarren zikloan, Lehen Hezkuntzan, Hezkuntza Berezian, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan eta Batxilergoan ikasketa aratuak ematen dituzten ikastetxeetarako.
- 42/2011 FORU DEKRETUA, maiatzaren 16koa, Nafarroako Foru Komunitatean helduei euskara irakasteko curriculuma ezartzen duena.
- 110/2011 FORU AGINDUA, uztailaren 12koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Gobernuaren Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan ingelesez ikasteko programen oinarriko alderdiak arautzen dituena.
- 109/2011 FORU AGINDUA, uztailaren 12koa, Hezkuntzako kontseilariak emana, Nafarroako Foru Komunitateko Arte Plastikoetako eta Diseinuko lanbide ikasketetako ikasleen ebaluazioa, titulazioa eta ikasketen ziurtapena arautzen dituena.

### **Estatuko Aldizkari Ofiziala**

- 336/2010 Errege Dekretua, martxoaren 19koa, Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradunen eta Irakasleen Kidegoetako espezialitateak ezartzen dituena.
- Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan aipatzen diren Hizkuntza Eskola Ofizialetako Katedradunen eta Irakasleen Kidegoetako espezialitateak ezartzen dituen martxoaren 19ko 336/2010 Errege Dekretuaren akats zuzenketa.
- Ebazpena, 2010eko uztailaren 6koa, Unibertsitateetako Idazkaritza Nagusiak emana, maiatzaren 4ko EDU/1161/2010 Aginduko I. eta IV. eranskinak aldatzen dituena. Agindu horren bidez ezarri zen zer prozedura bete beharko zuten Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoko 38.5 artikulua aplikagarri zaizkion hezkuntza sistemetatik datozen ikasleek Espainiako unibertsitatean sartu nahi izanez gero.
- EDU/1247/2011 Agindua, maiatzaren 12koa, maiatzaren 29ko EDU/1434/2009 Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez Espainiako unibertsitate publikoetan sartzeko prozedurak eta graduiko ikasketa ofizialetara sartzeko baldintzak arautzen dituen azaroaren 14ko 1892/2008 Errege Dekretuko eranskinak eguneratu dira.
- 860/2010 Errege Dekretua, uztailaren 2koa, ikastetxe pribatuetakoa irakasleen hasierako prestakuntzaren baldintzak arautzen dituena derrigorrezko bigarren hezkuntzako edo batxilergoko ikasketak irakatsi ahal izateko.
- Derrigorrezko bigarren hezkuntzako edo batxilergoko ikasketak irakatsi ahal izateko, ikastetxe pribatuetakoa irakasleen hasierako prestakuntzaren baldintzak arautzen dituen uztailaren 2ko 860/2010 Errege Dekretuaren akats zuzenketa.
- EDU/520/2011 Agindua, martxoaren 7koa, ekainaren 10eko EDU/1603/2009 Agindua aldatzen duena. Agindu horren bidez Hezkuntzaren maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoan araututako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako Gradudun eta Batxilergoko tituluen baliokidetasunak ezartzen dira.
- Ebazpena, 2011ko maiatzaren 3koa, Hezkuntzako eta Lanbide Heziketako Estatuko Idazkaritzak emana, 2010eko apirilaren 29ko Ebazpena aldatzen duena. Ebazpen horren bidez atzerriko ikasketak eta tituluak Espainiako batxilergoarekin baliozkotu eta homologatzeko kredentzialetan agertu behar duen batez besteko nota kalkulatzeko jarraibideak ezarri ziren.
- 1146/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, abenduaren 29ko 1631/2006 Errege Dekretua aldatzen duena. Errege dekretu horren bidez Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzari dagozkion gutxieneko ikasketak ezarri ziren. Eta aldaketa horiek ukitu zituzten azaroaren 8ko 1834/2008 Errege Dekretua eta uztailaren 2ko 860/2010 Errege Dekretua.
- 1147/2011 Errege Dekretua, uztailaren 29koa, hezkuntza sistemako Lanbide Heziketaren antolamendu orokorra ezartzen duena.
- 1027/2011 Errege Dekretua, uztailaren 15ekoa, Goi Mailako Hezkuntzarako Kualifikazioen Espainiako Esparrua ezartzen duena.

## 4.2. Aukera berdintasunerako politikak

### 4.2.1. Ikasleen aniztasunari erantzutea

Aniztasunari erantzuteari buruzko Nafarroako araudi esparrua Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduan jasotzen da. Foru agindu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen du. II. kapituluaren Aniztasunari Erantzuteko Plana prestatzeko irizpideak zehazten dira:

Aniztasunaren, Orientazioaren eta Kultura-aniztasunaren Zerbitzuak kaleratutako "Aniztasunari Erantzuteko Plana" agirian ikastetxeetan plan hori prestatzeko orientabide orokorrak eta irizpideak ematen dira eta jarraitu beharreko prozedura azaltzen da: hezkuntza erkidegoa sentsibilizatzea, beharrak antzeman eta baloratzea, aniztasunari erantzuteko proposamenak, behar diren baliabideak, hartutako neurriak aplikatzea, ebaluazioa eta jarraipena. Halaber, helburuak, ekintzak, arduradunak, kudeaketarako baliabideak, prozedurak eta egutegia zehazten dira.

100. koadroa - Ikasle guztien eta hezkuntza premia bereziak dituztenen arteko erlazioa						
	2000	2006	2007	2008	2009	2010
Ikasle kopurua, guztira	80.098	89.257	92.235	94.879	97.022	99.053
Hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak, guztira	191	466	513	591	618	633
Ikasleen kopuru osoarekin alderaturik, zenbat ikaslek dituzten hezkuntza premia bereziak, ehunekotan	%0,24	%0,52	%0,56	%0,64	%0,63	%0,64

#### Zein ikasleri eragiten dien.

Aniztasunari Erantzuteko Planak (AEP) ikasle guzti-guztiei, beraien aniztasunean, eman beharreko erantzuna hartu behar du kontuan. Bereziak, kausa desberdinengatik irakatsi eta ikasteko prozesuetan behar bezala aurrera egiteko arazoak dituzten ikasleak hartu behar ditu kontuan, ikasle horiek ohiko jarduerak osatzeko baliabide eta laguntzak beharko dituzte eta.

Ikasle horien artean daude hezkuntza premia bereziak (iraunkorrak zein iragankorrak) dituztenak:

- Egoera sozioekonomiko edo soziokultural ahulean dauden ikasleak. (Ikasle kopuru osoa: 4.788)
- Adimen gaitasun handiko ikasleak. (Ikasle kopuru osoa: 148)
- Ezgaitasun fisiko, psikiko edo zentzumenekoari, edo nortasun edo jokabide arazo larriei loturiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak. (Ikasle kopuru osoa: 468).

#### Aniztasunari Erantzuteko Planaren xedek.

- Ikastetxearentzako tresna lagungarria izatea laguntzak planifikatu eta antolatzeko, baliabide pertsonalak lehentasunen arabera banatu ahal izateko eta laguntzak horrelako neurrien beharra duten ikasleen premietara egokitzeko (taldekoetara zein indibidualetara).
- Hezkuntzak aniztasunari ikasgelan eta ikasgelatik kanpo erantzun diezaion, lehentasunak ezartzeko irizpideen zehaztapena gidatzea; hezkuntza erantzun hori hainbat ekintza koordinatuz emanen da (orientazioa, tutoretza, irakasleen, tutoreen eta arloetako irakasleen jarduna, eta irakasle arrunten eta espezializatuen laguntza).
- Atzerritar jatorriko ikasleen eta egoera soziokultural ahulean dauden ikasleen harrerarako eta inklusiorako neurriak eta jarraibideak ezartzea, irakasle taldeak adostutako Harrera Planaren barruan.
- Ikasturtean zehar agertu daitezkeen premia berriei erantzuteko, aldaketak sartzeko ahalbidetzen duen planifikazioa aurrez ikustea, antolaketa neurri malguak sartuta, irakasle arrunten eta espezialisten esku-hartzeak unean uneko beharren arabera moldatu daitezkeen.

- Aniztasunari erantzutearen eraginkortasunaren barneko ebaluazioa gidatzea, eta hobetu beharreko alderdiak identifikatzea.

### **Ezgaitasunei loturiko hezkuntza premia bereziak dituzten ikasleak eskolatzea.**

Ikasle horiek nola eskolatu zehazteko erabakiak hartzeko prozesu jakin bat egin behar da, bermatu dadin ikasle bakoitzaren ezaugarrientzat egokiena den hezkuntza erantzuna emanen dela, betiere, testuinguru ahalik eta normalizatuenean.

Oro har, ikaslea ikastetxe arruntean eskolatzea proposatuko da ikaslearen hezkuntza premia bereziei (HPB) ikastetxeetako ohiko baliabideekin erantzuten ahal bazaie (eskolako orientzailea, Pedagogia Terapeutikoko irakasleak, Entzumeneko eta Hizkuntzako irakasleak eta, hala dagokionean, zaintzailea, fisioterapeuta eta NHBBZko kanpoko laguntzak).

Aldiz, ikaslearen HPBei erantzuteko etengabeko banakako laguntza baldintzak eta ikastetxe arrunt batek ezin eskaini dituen ekintza bereziak behar direnean, ikaslea Hezkuntza Bereziako ikastetxe batean eskolatzea proposatuko da. Hori gertatzen da ikasleak egokitzapen oso esanguratsuak behar dituztenean bere adinaren arabera dagokion curriculum ofizialeko arloetan eta, beraz, uste denean ikastetxe arrunt batean bere gizarte integrazioa eta ikasketetako lorpenak minimoak izanen direla.

### **Eskolatze modalitateak. Antolaketa motak.**

Bi modalitate daude. Modalitate horiek curriculumaren egokitze maila desberdinei dagozkie, ikasle bakoitzak behar dituen laguntza mota eta mailaren arabera:

#### 1.- Ikastetxe arruntean / Antolaketa motak:

- Lehentasunezko ikastetxea (Ikasle kopuru osoa: 30).
- Garapenaren nahaste orokorrak dituzten ikasleentzako berariazko ikasgelak (Ikasle kopuru osoa: 67).
- Haur eta gazteen eguneko ospitaleko terapia- eta hezkuntza-programa (Ikasle kopuru osoa: 26).
- Curriculum bereziako unitateak (CBU). (Ikasle kopuru osoa: 183).
- Lanbide Hastapen Bereziako Programak (LHBP) ikastetxe arruntean. (Ikasle kopuru osoa: 111).

#### 2.- Hezkuntza Bereziako ikastetxean / Antolaketa motak:

- Hezkuntza Bereziako ikasgela, landa eskualdeetan. (Ikasle kopuru osoa: 6).
- Eskolatze konbinatuko programa: Hezkuntza Bereziako ikastetxea/ikastetxe arrunta. (Ikasle kopuru osoa: 3).
- Lanbide Hastapen Bereziako Programak (LHPB) Hezkuntza Bereziako ikastetxean. (Ikasle kopuru osoa: 49).
- Helduarora Igarotzeko Prestakuntza Programak (HIPP). (Ikasle kopuru osoa: 30).

### **Eskolatze modalitatea zehazteko irizpideak.**

Ikastetxeetako orientatzaileek identifikatuko eta baloratuko dituzte HPBak, eta ikasle bakoitzaren premien arabera eskolatze modalitatea eta jarduera plan egokienak proposatuko dituzte.

Ebaluazio psikopedagogikoaren bidez erabakitzen ahalko dira egokitzapenen mota eta maila, eta ustez ikasleak beharko dituen baldintzak eta laguntzak (espezializatuak ala ez) eta, beraz, baldintza eta laguntza horiek ohikoagoak ala ezohikoagoak izanen diren. Balorazio hori erabakigarria izanen da eskolatze modalitate bat ala beste, eta modalitate horren barruan antolaketa mota bat ala beste, proposatzeko.

### **Aniztasunari erantzuteko baliabide arruntak Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzan.**

#### A) Haur eta Lehen Hezkuntza.

Ikasleek, orokorrean, denbora guztia ikasgela arruntetan egiten dute, murgiltze eta erantzun normalizatuko prozesu baten barruan. Hala, neurri osagarririk behar izatekotan, neurri hori

ikastaldearen barruan aplikatuko da eta aldi baterakoa izanen da.

Lehen Hezkuntzan, arau orokor gisa eta hasierako ebaluazioa ikusirik, ikasturte bateko atzerapen orokorra duten ikasle sartu berriak adinagatik dagokien mailan sartu ordez, urtebete gazteagoen mailan sartuko dira. Ziklo batetik gorako curriculum atzerapena dutenek, beheragoko mailan sartzeaz gainera, beren premien arabera laguntza jasoko dute. Ahal dela, laguntza hori jasotzen duten ikasleak beren gelan egonen dira, eta ikasgelako programazioa hartuko da erreferentzia bezala.

Bigarren eta hirugarren zikloetan irakasle arruntek, lehentasunez, aniztasunari erantzuteko orduetan, atzerritar jatorriko ikasleen errefortzuak eginen dituzte, harrera- eta irakas-hizkuntza irakasteko programak garatuz, eta curriculum atzerapena dutenentzako laguntza lanak ere eginen dituzte.

B) Bigarren Hezkuntza.

Ikastetxeek, lehenik eta behin, etapa horretan aniztasunari erantzuteko baliabide eta neurri orokor arruntak izanen dituzte, dagokion ordu gehikuntzarekin. Zuzendaritza taldeek zainduko dute horren premia duten atzerritar jatorriko ikasleei eta egoera ahulean dauden ikasleei erantzuteko programak ezarriko direla.

Hezkuntza erantzunaren neurrien artean dago aukerako irakasgaien eskaintza. Horri esker arlo instrumentaletan curriculumeko errefortzua egin daiteke eta, aldi berean, ikasleen interesen, motibazioen eta gaitasunen aniztasunari erantzun.

Horren premia duten ikasleak, etapako azken bi mailetan, Bigarren Hezkuntzako gradudun titulua eskuratzeko aurrez ikusita dauden berriazko neurrietan sartzen ahal dira (Hasierako Lanbide Kualifikazioko Programak, Curriculum Egokituko Programa eta Curriculum Aniztasuneko Programak).

Bereziki, hezkuntza sisteman DBHko etapan sartzen diren atzerritar jatorriko ikasleek irakas-hizkuntza ezagutzen ez dutenean, ikasle horiek irakas-hizkuntza eta harrerako kultura ikasi dezaten, konpentsazio neurriak osatuko dituzten Hizkuntzan Murgiltzeko Programak antolatuko dira, Departamentuaren irizpideen eta balorazioaren arabera.

### **4.2.2. Hezkuntza konpentsazioa**

#### **4.2.2.1. Atzerritar jatorriko ikasleei erantzutea.**

**Ikasleak gure hezkuntza sisteman sartzeko prozesua.**

##### **1. Ikasle etorkinentzako informazio gida.**

Agiri honen xedea da eskolatzeko adinean dauden hurrekin Nafarroara iristen diren familiei laguntzea, ezagutu ditzaten gure erkidegoak hezkuntzan eskaintzen dizkien aukera guztiak eta horri buruz erabaki ahal dezaten. Hezkuntza sistema eta haren ezaugarriak deskribatzen ditu, ikastetxeen antolaketari buruzko zenbait alderdi azaltzen ditu, ikasleentzako eta eginbeharrak azaltzen ditu, eta ikasleentzako eta familientzako interesekoak izan daitezkeen datuak ematen ditu.

Hainbat hizkuntzatan argitaratzen da (gaztelania, frantsesa, ingelesa, errusiera, errumaniera, bulgariera, arabiera, euskara) eta ikastetxeetan familiei aurreneko harrera egiten laguntzen du. Hezkuntza Departamentuko webgunean ere eskura dute ikastetxeek, tokiko batzordeek, eta zeinahi kontsulta egin beharra duen orok.

##### **2. Ikasle etorkinei harrera egiteko programa**

Ikasle etorkinek arazoak izaten dituzte, hauek adibidez:

- Ama-hizkuntza ez den hizkuntza bat ikasi eta erabili beharra eguneroko bizitzan eta ikasketa prozesu osoan.
- Erreferente kultural desberdinak: eskolak eskainitakoa eta etxean aurkitzen dutena, sarritan bizitzaren eta jarduteko moduaren gaineko bi ikusmolde desberdinetatik datozenak.
- Maila akademiko desberdinak. Ikasle batzuek kurtso bateko edo gehiagoko curriculumeko atzerapena dute, haien adinari dagokionez.
- Herrira edo auzora egokitzeko arazoak, sozializazioa oztopatzen dutenak: ikasle batzuek ez dute lagunik edo beti euren nazionalitate bereko ikasleekin ibiltzen dira.
- Beren erreferentzia sozialak eta afektiboak hein handi batean galtzen dituzte, horrek dakarren

desoreka emozionalarekin.

Prekarietate ekonomikoaren, langabeziaren, etxebizitza baldintzen eta abarren eragina.

Harrera Programaren lehentasunezko helburua ikasle guztien inklusioa lortzea da, ikastetxe bateko lanean esku hartzen duten guztien parte-hartzearen eta konpromisoaren bitartez. Hezkuntza sisteman lehenbizikoz sartzen diren ikasleei harrera egokia egitea da ikasle horiei garapen pertsonalerako, kulturalerako eta sozialerako espazio bat eskaintzea, ikastetxeek emandako balioen trukearen eta balioen bultzadaren bidez.

“Ikasle Etorkinei Harrera Egiteko Programa” (IEHEP) delakoaren xedea irakasleak orientatzea da, programa bera prestatu edo eguneratu, arduradunak eta zuzenean inplikaturako pertsonak zehaztu edo helburuak zehaztzeko orduan.

Proposamen hori Aniztasunari Erantzuteko Planean sartu behar da.

Programak ondoko alderdiak garatzen ditu:

- Hezkuntza erkidegoa kultura arteko hezkuntzan sentsibilizatzea.
- Ikastetxean familiari harrera egiteko orientabideak.
- Hasierako ebaluaziorako eta ikaslea talde bati atxikitzeko orientabideak.
- Ikasgelan ikasleari harrera egitea.
- Curriculumean sartzeari.
- Antolaketa eta funtzionamendua.
- Kulturen arteko gaitasunak garatzea.
- Estrategia metodologikoak.
- Harrera Programaren autoebaluazioa.

Harrera Programa, informazio gida bezala, webgunean zintzilikaturik dago ikastetxeek erabili dezaten, eta ikastetxeek aldatzen ahal dute programa hori prestatzeaz edo berrikustez arduratzen den irakasle taldearen irizpidearen arabera.

### **3. Hasierako ebaluazioa Lehen Hezkuntzan eta DBHn. Hizkuntza eta Matematika Ebaluatzeneko Protokoloak**

Aniztasunaren, Orientazioaren eta Kultura-aniztasunaren Zerbitzuak (gaur egun Aukera Berdintasunaren, Hezkuntzako Parte-hartzearen eta Irakasleentzako Arretaren Zerbitzua) **Hasierako Ebaluaziorako** Protokoloak eskaintzen ditu. Agiri horien xedea da Lehen Hezkuntzako edo DBHko edozein mailatan sartuko diren ikasleen gaitasunak eta ezagutzak ebaluatzeneko tresna bat ematea ikastetxeei, hezkuntza prozesuari bermearekin ekiteko, eta curriculum atzerapena aurrez ikusi eta gutxitzeko.

Osoz 16 ebaluazio koaderno dira, curriculumeko Matematika arloa edo Hizkuntza arloa Lehen Hezkuntzako 2., 3., 4., 5. eta 6. mailatan eta DBHko 1., 2. eta 3. mailatan ebaluatzeneko. Agiri hauekin irakasleei proben eredu bat ematea da asmoa, kontuan izanik emandako ereduak ikastetxe, ikasgela, ikastalde eta ikasle bakoitzarentzat egokitzen ahal dela.

Koaderno bakoitzaren edukia honakoa da: proben helburuak, edukiak, eduki blokeak, probak aplikatzeko jarraibideak eta curriculumeko Matematika arloa eta Hizkuntza arloa modu egokian ebaluatzeneko irizpideak, curriculumeko gaitasunen adierazleentzako koadroa, talde osoko erregistroa eta hasierako ebaluaziorako eskala.

Matematika Ebaluatzeneko Protokoloak gaztelaniaz zein euskaraz daude eskuragarri.

### **4. Lehen Hezkuntzako ikastetxeak laguntzeko berriarazo programa, egoera soziokultural ahulean dauden ikasleei eta atzeritar jatorriko ikasleei hezkuntza arloko erantzuna emateko**

Egoera soziokultural ahulean dauden ikasleentzako eta atzeritar jatorriko ikasleentzako laguntza neurriak aniztasunari erantzuteko neurri arrunten osagarriak dira, eta berriarazo premietan dute jatorria.

Neurri horiek Hezkuntzako kontseilariaren ekainaren 13ko 93/2008 Foru Aginduan jasotzen dira. Foru agindu horrek Nafarroako Foru Komunitateko Haur eta Lehen Hezkuntzako eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan aniztasunari nola erantzun arautzen du.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe jakin batzuek atzeritar jatorriko eta egoera ahuleko ikasleen kopuru esanguratsua dutenez, Hezkuntza Departamentuak ikastetxe horiek laguntzeko irakasleez



hornitu ditu. Laguntzako irakasleek irakasle arruntei laguntzen diete curriculumeko atzerapen handia duten ikasleei eta gaztelania ez dakiten ikasleei erantzun egokia ematen.

**5. Gaztelania bigarren hizkuntza gisa (G2H) irakastea Lehen Hezkuntzan**

Haur eta Lehen Hezkuntzako ia ikastetxe guztietan laguntzako irakasleak arduratzen dira gaztelania bigarren hizkuntza gisa irakasteaz.

Irakasle horiek prestakuntza berezia dute curriculumeko alderdi ezberdinak irakasteari dagokionez eta hizkuntzaren jarraipenari dagokionez. Ikastetxe gehienetan laguntzako irakasleek curriculumeko Hizkuntza arloan eta Matematika arloan (biak arlo instrumentalak dira) atzerapena duten ikasleei laguntzen diete, tutorearen lana osatuz.

**6. Eskola Laguntzako Programak eta errefortzua eta laguntza Lehen eta Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan**

**Eskola Laguntzako Programa Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan**

Deskribapena:

Egoera sozioedukatio ahulean dauden Lehen Hezkuntzako azken zikloko ikasleen eskola itxaropenak hobetzea, eskola ordutegitik kanpo antolatutako lanaren edo laguntzaren bidez oinarrizko trebetasunak eskuratuta.

Orokorrean, batez ere lan edo diru kontuengatik, ikasle horien familiak ezin dira seme-alabez arduratu arratsaldeetan eta ezin diete etxeko lanak egiten edo ikasten lagundu.

Datuak:

- Programa 44 ikastetxetan egiten da, 29 herritan.
- Irakasleek laguntzako 4 saio jasotzen dituzte astean, arruntez gain.
- Guztira 591 ikaslek jaso dute programa honetako laguntza, 51 taldetan banatuta.

Ikastetxe hauek ematen dute programa hori:

**Lehen Hezkuntza:**

<b>101. koadroa - Eskola Laguntzako Programa Lehen Hezkuntzako ikastetxeetan, 2010/2011 ikasturtea</b>			
	<b>IKASTETXEA</b>	<b>Ikastaldeak</b>	<b>Ikasleak</b>
Andosilla	Virgen de la Cerca IP	1	13
Agoitz	San Miguel IP	1	9
Arguedas	Sancho Ramírez IP	1	7
Azagra	Francisco Arbeloa IP	1	12
Barañain	Los Sauces IP	2	26
Bera	Sagrado Corazón IZP	1	10
Berriozar	Mendialdea IP	1	12
Burlata	Hilarión Eslava IP	2	27
	Regina Pacis IZP	1	6
Cadreita	Teresa Bertrán de Lis IP	1	12
Caparroso	Virgen del Soto IP	2	23
Cárcar	Virgen de Gracia IP	1	11
Zarrakaztelu	Virgen de la Oliva IP	1	10
Castejón	Dos de Mayo IP	0	0
Cintruénigo	Otero de Navascués IP	2	25
Corella	José Luis Arrese IP	1	13
Cortes	Cerro de la Cruz IP	1	12

Lizarra	Remontival IP	2	16
Fitero	Juan de Palafox IP	1	9
Funes	Elías Terés IP	1	11
Irurtzun	Atakondoa IP	2	20
Lodosa	Ángel Martínez Baigorri IP	1	10
Martzilla	San Bartolomé IP	1	10
Milagro	Ntra. Sra. del Patrocinio IP	1	12
Iruña	Rochapea IP	1	12
	Cardenal Ilundáin IP	1	12
	Doña Mayor de Navarra IP	1	12
	Ermitagaña IP	1	16
	García Galdeano IP	1	9
	José M <sup>a</sup> Huarte IP	1	12
	Nicasio de Landa IP	1	8
	San Francisco IP	2	30
	San Jorge IP	3	36
	Vázquez de Mella IP	1	12
	Víctor Pradera IP	2	23
	Santo Tomás IZP	1	8
Azkoién	Juan Bautista Irurzun IP	1	8
Ribaforada	San Bartolomé IP	0	0
San Adrian	Alfonso X el Sabio IP	1	10
Sartaguda	Nuestra Señora del Rosario IP	1	8
Sarriguren	Sarriguren IP	1	8
Tafalla	Marqués de la Real Defensa IP	1	11
Tutera	Elvira España IP	1	10
	Griseras IP	1	12
	Virgen de la Cabeza IP	2	24
Valtierra	Félix Zapatero IP	1	12
Alesbes	El Castellar IP	1	12
Atarrabia	Lorenzo Goikoa IP	1	12
<b>Gutzizkoak</b>		<b>57</b>	<b>633</b>

Iturria: Aukera Berdintasunaren, Hezkuntzako Parte-hartzearen eta Irakasleentzako Arretaren Zerbitza

## Bigarren Hezkuntza

102. koadroa - Eskola Laguntzako Programa Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetan, 2010/2011 ikasturtea			
Herria	Ikastetxea	Ikasle kopurua	Ikastaldeak
Berriozar	"Berriozar" DBHI	23	2
Burlata	"Ibaialde" BHI	22	2
Leitza	"Amazabal" BHI	9	1
Iruña	"Navarro Villoslada" BHI	24	2
Iruña	"Padre Moret" BHI	26	2
Iruña	"Plaza de la Cruz" BHI	14	1
Tafalla	"Sancho III el Mayor" BHI	11	1
Viana	"Del Camino" BHI	22	2

*Iturria: Aukera Berdintasunaren, Hezkuntzako Parte-hartzearen eta Irakasleentzako Arretaren Zerbitza*

103. koadroa - BHIentzako Errefortzu eta Laguntza Programa - PROA, 2010/2011			
Herria	Ikastetxea	Talde kopurua	Ikasle kopurua
Azagra	Azagrako DBHI	1	6
Barañain	Barañaingo BHI	1	7
Burlata	Ibaialde BHI	2	10
Corella	Alhama BHI	2	20
Lizarra	Tierra Estella BHI	2	14
Martzilla	Marqués de Villena BHI	2	10
Iruña	Basoko BHI	1	7
	Julio Caro Baroja BHI	2	10
	Padre Moret-Irubide BHI	1	9
	Plaza de la Cruz BHI	1	5
Azkoien	Ribera del Arga BHI	1	10
San Adrián	Ega BHI	1	11
Tafalla	Sancho III el Mayor BHI	1	10
Tutera	Tuterako Benjamín de Tudela BHI	1	10
	Valle del Ebro BHI	1	11
<b>15 ikastetxe</b>		<b>20</b>	<b>150</b>

*Iturria: Aukera Berdintasunaren, Hezkuntzako Parte-hartzearen eta Irakasleentzako Arretaren Zerbitza*

**7. Hizkuntzan Murgiltzeko Programa, DBHn eskolatutako atzerritar jatorriko ikasleei irakas-hizkuntza irakasteko.**

Programa eskualdeko baliabidea da.

<b>104. koadroa - Hizkuntzan Murgiltzeko Programak, 2010/2011 ikasturtea</b>			
<b>Eskualdea</b>	<b>Hizkuntzan Murgiltzeko Programa duten ikastetxeak</b>	<b>Irakasle kopurua</b>	<b>Ikasle kopurua</b>
<b>Sare publikoan</b>			
Iruña eta Iruñerria	Barañain: Barañaingo BHI	1	7
	Burlata: Ibaialde BHI	1	7
	Uharte: Uharteko BHI (14 urtetik gorakoentzako ikasgela)	1	7
	Iruña: Basoko BHI	1	10
	Iruña: Julio Caro Baroja BHI	1	7
	Iruña: Padre Moret-Irubide BHI	1	12
	Iruña: Plaza de la Cruz BHI		
	Nafarroako gainerako eskualdeak	Zarakastelu: Zarakasteluko DBHI	1
Lizarra: Tierra Estella BHI		1	8
Martzilla: Marqués de Villena BHI		1	10
Azkoien: Ribera del Arga BHI		1	2
San Adrián: Ega BHI		1	10
Tafalla: Sancho III el Mayor BHI		1	6
Tutera: Tuterako Benjamín de Tudela BHI		1	3
Tutera: Valle del Ebro BHI		1	6
Cortes: Bardenas Reales DBHI		1/2	4
<b>Sare itunduan</b>			
Iruña eta Iruñerria	Iruña: Hijas de Jesús IZP	1	3
	Iruña: Salesianos IZP	1	8
<b>16 ikastetxe publiko eta 2 itundu</b>		<b>1</b>	<b>120</b>

*Iturria: Aukera Berdintasunaren, Hezkuntzako Parte-hartzearen eta Irakasleentzako Arretaren Zerbitza*

<b>105. koadroa - Ikastetxeei laguntzeko programen laburpena, Lehen Hezkuntzan eta DBHn, egoera soziokultural ahulean dauden ikasleei eta atzerritar jatorriko ikasleei hezkuntza arloko erantzuna emateko.</b>			
	<b>Programa</b>		<b>2010/2011</b>
Lehen Hezkuntza	EAIL	Egoera Ahulean dauden Ikasleei Laguntzeko Programa duten ikastetxeak	20
	ELP	Eskola Laguntzako Programa Lehen Hezkuntzan	50
Bigarren Hezkuntza	HMPA	Hizkuntzan Murgiltzeko Programa atzerritar jatorriko ikasleentzako	18
	ELPB H	Errefortzu eta Laguntza Programa Bigarren Hezkuntzan	16
	ELPB H	Eskola Laguntzako Programa Bigarren Hezkuntzan	8

*Iturria: Aukera Berdintasunaren, Hezkuntzako Parte-hartzearen eta Irakasleentzako Arretaren Zerbitza*

### 8. Portugalgo Hizkuntza eta Kultura Programa.

Portugalgo Hizkuntza eta Kultura Programa Espainiaren eta Portugalen arteko hitzarmen baten bitartez ezarri zen (77/486/CEE europar zuzentaraua) eta Nafarroan hainbat ikastetxetan garatzen da: "Ave María" eta "Patxi Larrainzar" ikastetxe publikoetan eta "Nuestra Señora de la Compasión" ikastetxe itunduan (hirurak Iruñekoak); Azagrako "Francisco Arbeloa" ikastetxe publikoan eta institutuan eta Tuterako Griseras eta Monte San Julián ikastetxeetan. Ikasturte honetan, programak portugeseko bi irakasle ditu.

Aipatutako hitzarmenak helburu hauek ditu:

- Ikasle portugesak hezkuntza sisteman integratzen laguntzea.
- Portugalgo hizkuntza eta kultura ezagutzera eman eta horiekiko errespetua sustatzea.

Programa ikastetxe horietako ikasle guztientzat da ona, irakasle horiek tutoreei laguntzen dietelako bai jatorri portugeseko ikasleei bai gainerako ikasleei zuzendutako lanetan.

#### 4.2.2.2. Aldi baterako hemen dauden ikasleak

<b>106. koadroa - Aldi baterako hemen dauden ikasleak, 2010/2011 ikasturtea</b>				
<b>2010eko udazkeneko kanpaina (uzta)</b>				
<b>Herria</b>	<b>Ikasgelak</b>	<b>Ikasleak</b>	<b>Laguntzako irakasleak</b>	
Mendabia		1	19	1
<b>2011ko udaberriko kanpaina (zainzuria)</b>				
<b>Herria</b>	<b>Ikastetxea</b>	<b>Ikasleak</b>	<b>Jatorria</b>	<b>Laguntzako irakasleak</b>
Villatuerta	"San Veremundo" IP	6	Jaén	-
Lizarra	"Remontival" IP	10	Jaén	-

*Iturria: Aukera Berdintasunaren, Hezkuntzako Parte-hartzearen eta Irakasleentzako Arretaren Zerbitza*

Nafarroako nekazaritza kanpainetara (mahats biltzea eta zainzuria) datozen sasoikako langile familietako seme-alaben hezkuntza premiei erantzuten saiatzen da programa.

#### 4.2.2.3. Ospitalizaturiko ikasleak, 2010/2011 ikasturtea

107. koadroa - Ospitalizaturiko ikasleak, 2010/2011 ikasturtea				
	Haur Hezkuntza	Lehen Hezkuntza	DBH	Guztizkoak
Ospitaleko laguntzak	152	195	97	444

*Iturria: Aukera Berdintasunaren, Hezkuntzako Parte-hartzearen eta Irakasleentzako Arretaren Zerbitza*

#### 4.2.2.4. Egoera ahulean dauden ikasleak dituzten ikastetxe publiko eta itunduetarako laguntza ekonomikoak

108. koadroa - Egoera ahulean dauden ikasleei laguntzeko diru-laguntzak, 2010/2011 ikasturtea					
Xedapenaren epealdia Ebazpena	Ikastetxe onuradunak		Ikasle onuradunak		Guztira
	Haur eta Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	Haur eta Lehen Hezkuntza	Bigarren Hezkuntza	
310/2010 Ebazpena, uztailaren 19koa Ikastetxe publikoak	113	39	4.218	1.505	154.465
436/2010 Ebazpena, azaroaren 8koa Ikastetxe itunduak	50		1526		418.700
499/2010 Ebazpena, abenduaren 16koa Ikastetxe itunduak	4		11		2.100
118/2011 Ebazpena, martxoaren 25ekoa Ikastetxe itunduak	18		57		15.435
291/2010 Ebazpena, ekainaren 29koa, laguntzako irakasleentzako Ikastetxe itunduak	8		16		2.345
395/2010 Ebazpena, urriaren 13koa Hizkuntzan Murgiltzeko Programa	39 2				335 ordu 15 ordu
393/2010 Ebazpena, urriaren 13koa Sasoikako langileak	15				4.500
108/2010 Ebazpena, martxoaren 11koa PROA. Eskola Laguntza Programa	15				2.500
109/2010 Ebazpena, martxoaren 11koa PROA Errefortzua eta Laguntza	50				27.000

310/2010 Ebazpena, uztailaren 19koa Ikastetxe publikoak	15	4.500
<b>Laguntzak, guztira</b>	<b>368 ikastetxe eta 5.807 ikasle onuradun</b>	<b>631.545 €</b>

*Iturria: Aukera Berdintasunaren, Hezkuntzako Parte-hartzearen eta Irakasleentzako Arretaren Zerbitzua*

### **4.2.3. Genero berdintasuna**

#### **2009-2011 Berdintasun Planeko marko estrategikoa**

Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuak argi du politika publikoetatik jardutea zein garrantzitsua den emakumeen eta gizonen arteko berdintasun printzipioa errealitate bihurtu dadin. Hori dela eta, Hezkuntzarako 2009-2011 Berdintasun Plana prestatu zuen. Bertan, Hezkuntza Departamentuaren errealitateara egokiturik zehazten dira Nafarroako Gobernuak 2006an onetsitako Nafarroako Foru Komunitateko emakumeen eta gizonen aukera berdintasunerako I. Planean azaltzen diren helburuak.

Hezkuntzako 2009-2011 Berdintasun Planak Nafarroako hezkuntza sisteman esku-hartze globala egitea proposatzen du, poliki-poliki hezkidetzaren helburuak integratzen joateko. Izan ere, bitarteko egokia da emakumeen eta gizonen arteko benetako berdintasunerantz aurrera egiteko eta genero indarkeriari aurrea hartzeko.

Ondoko helburu estrategikoak ezartzen ditu:

- Berdintasuna zeharkakotasunez lantzea, hezkuntza sisteman hezkidetzaren helburuak integratzeko aukera gisa.
- Generoaren ikuspegia aintzat hartzea departamentuko langile, baliabide eta zerbitzuen kudeaketa politikak diseinatzean eta garatzean.

#### **1. helburua. Berdintasuna zeharkakotasunez lantzea, hezkidetzaren helburuak hezkuntza sisteman integratzeko aukera gisa.**

##### **Hezkidetzen programa**

Helburu honek ikastetxeekin du zerikusia eta berau garatzeko **Hezkidetzen Programaren** bigarren urtea gauzatu da. Programa honetan parte hartu dute aurreko bi ikasturtetan sortutako hezkidetzaren taldeek. Ikastetxe horiek iaz lehenengo fasea egin zuten (hausnarketa diagnostikoa egin zuten eta hobekuntza arloak definitu zituzten), urtebetez eta, orobat, segida emanen diote bigarren prestakuntzaldi batekin (hiru urtez), hezkidetzaren eskolako programazioaren zenbait alderditan txertatzearen.

Aztertze eta hausnartzeko prozesuari ekiteko programak irekita segitzen du eta, ondorioz, 2010-2011 ikasturte honetan beste ikastetxe batzuk sartu dira programan.

Hurrengo ikasturtean, ikastetxe horiek programan sartuko dira eta aurreko ikasturteetan programan sartu ziren ikastetxeekin partekatuko dute prestakuntza.

Programan laguntzeko, bi irakasle liberatu dira, lanaldi erdiz, eta, hartara, Irakasleentzako Arretaren, Bizikidetzaren eta Berdintasunaren Bulegoko hezkidetzaren taldeko kide egin dira. Ikastetxeetan sareen arteko koordinazio, informazio, aholkularitza, laguntza eta prestakuntza lanak egiten dituzte, hezkidetzako praktikan.

<b>109. koadroa - Ikastetxeetako Berdintasunerako Prestakuntza Programan parte hartzen duten ikastetxeak</b>						
<b>1. fasea: Hausnarketa diagnostikoa</b>						
	<b>2008/2009</b>		<b>2009/2010</b>		<b>2010/2011</b>	
	<b>Publikoak</b>	<b>Itunduak</b>	<b>Publikoak</b>	<b>Itunduak</b>	<b>Publikoak</b>	<b>Itunduak</b>
0-3		6	3			
Haur eta Lehen	37	1	13	2	2	

Hezkuntza						
Bigarren Hezkuntza	16		12	2	2	1
<b>Guztira</b>	<b>59</b>	<b>1</b>	<b>28</b>	<b>4</b>	<b>4</b>	<b>1</b>
<b>2. fasea: Hezkidetzen programa</b>						
	<b>2009/2010</b>			<b>2010/2011</b>		
	<b>Publikoak</b>	<b>Itunduak</b>		<b>Publikoak</b>	<b>Itunduak</b>	
0-3		5			2	
Haur eta Lehen Hezkuntza	33			19	3	
Bigarren Hezkuntza	15	2		15	2	
<b>Guztira</b>	<b>38</b>	<b>7</b>		<b>34</b>	<b>7</b>	
<b>Programaren bi faseetan parte hartu duten irakasleak</b>						
<b>2008/2009</b>		<b>2009/2010</b>		<b>2010/2011</b>		
139 pertsona		365 pertsona		76 pertsona		
105 emakume	34 gizon	291 emakume	74 gizon	63 emakume	12 gizon	
<b>Sortu diren Hezkidetzak sareak</b>						
<b>2008/2009</b>		<b>2009/2010</b>		<b>2010/2011</b>		
<b>6 sare</b>						
<b>Iruña: 2; Tafalla: 1; Tuteria: 1; Lizarra: 1; Lekaroz: 1</b>						

*Iturria: Aukera Berdintasunaren, Hezkuntzako Parte-hartzearen eta Irakasleentzako Arretaren Zerbitza*

Programaren hirugarren ikastaroa 2011/2012 ikasturtean egingen da. Hura abiapuntu harturik, ikastetxeek berek ezarriko dituzte sareko prestakuntza eta trukeko tresna berriak, berdintasuna eta hezkidetzak zeharkakotasunez hartzen dituzten ikastetxeetako proiektu integratuak garatzeko.

### Hezkidetzarako baliabide didaktikoak.

Hezkidetzen programa irakasleei zuzenduriko laguntzako baliabideez hornitzen joan da.

#### 1. Prestakuntzako materialak

Testuak, irakurketa fitxak eta ikasgelako lana, programa osatzen duten sei ikaskuntzarako bakoitzari dagozkion etapa bakoitzerako.

Haur, Lehen eta Bigarren Hezkuntzarako lan proposamen zehatzak biltzen dira Hezkidetzen programan. Programa horretako prestakuntza materialez gainera, aurten bi baliabide garrantzitsu sendotu dira programan: maleta ibiltariak eta hezkidetzen bloga.

#### 2. Maleta ibiltariak

Hezkidetzen programako prestakuntza mintegietan parte hartzen duten Nafarroako ikastetxeei eskaintzen zaie baliabide hau. Batetik bestera dabilen liburutegitoxa da, ikastetxe bakoitzerako hezkidetzako liburutegiko funts bat bezalakoa.

8 maleta desberdin dira. Haur eta Lehen Hezkuntzarako eta Bigarren Hezkuntzarako prestatu dira, euskaraz eta gaztelaniaz idatzitako materialez horniturik daude eta ikastetxean hilabete batez edo biz egoten dira.

Maleta bakoitzaren barnean bi kutxa daude: bata, "Hezkidetzarako ideiak" izenekoa, irakasleendako liburu eta material pedagogikoekin, eta bestea, "Hazteko liburuak" izenekoa, ikasleendako haur eta



gazte literaturarekin eta material digitalekin.  
Materialen funts osoa 700 ale ingurukoa da.

### Helburuak:

Hezkidetzen mintegietan parte hartzen duten ikastetxeak baliabideez hornitzea irakaslanerako ideia eta proposamen anitz izan dezaten eskura. Mintegietan landutako ikaskuntzen esparruan, beren programazioak zabal eta zehatz ditzakete eta, orobat, arian-arian hezkidetzaren berdintasunerako aurrerapena eta indarkeriaren prebentzioa integra ditzakete.

- Hezkidetzaren oinarrietan sakontzea.
- Irakaskuntzako praktika onak Nafarroan hedatu eta beste autonomia erkidegoetara zabaltzea.
- Genero estereotipoetatik urrun dauden edukiak, ereduak, irudiak, protagonistak eta istorioak ikasleen eskura jartzea.
- Desberdintasunaren eta indarkeriaren aurrean ikasleek eta irakasleek gaitasun kritikoa gara dezaten sustatzea.

### Kudeaketa eta ebaluazioa. 2010-2011

Maleten kudeaketan zuzenean engaiaturik daude: Hezkuntza Departamentuko Berdintasunaren Bulegoan hezkidetzaren programa koordinatzen duten bi pertsonak, irakasleentzako bost laguntza zentroak eta Hezkidetzen mintegietan parte hartzen duten ikastetxeak.

Edukiei, prozedurei, eskaerei, egutegiari eta abarri buruzko informazio guztia maleta bakoitzean eta Hezkidetzen blogean dago.

Haren kudeaketan engaiatutako pertsona guztiek hura ebaluatzen dute, fitxen bitartez, eta ikasleek irakurtzen duten liburu bakoitzari buruz.

2010/2011 ikasturtean, maletak 30 ikastetxetan baino gehiagotan ibili dira.

Haur eta Lehen Hezkuntzako 18 ikastetxetan eta Bigarren Hezkuntzako 11 ikastetxetan baino gehiagotan.

Ikastetxe batzuk bi maleta desberdin eskatu dituzte, dela euskaraz eta gaztelaniaz lan egiten dutelako, dela etapa bat baino gehiagotan lan egiten dutelako, dela beste maleta batzuetako materiala ezagutu nahi zutelako, dela hasierako entregetan denbora gutxi izan zutelako.

Ikastetxeek oso positiboki baloratu dute programa. Irakasleentzako zein ikasleentzako materialek harrera oso ona izan dute. Ez hala euskarazkoak, gaztelaniazkoa baino mugatuagoa baita gai horretan eskura dauden edizioak edo itzulpenak urriak baitira.

### Hobekuntza proposamenak

Ikastetxeen balorazioetatik hobekuntza proposamen hauek atera ditugu:

- Maleta kopurua eta haren gaztelaniazko, euskarazko, ingelesezko eta frantsesezko funtsa handitzea.
- Ikastetxeetako liburategietan hezkidetzako funts propioak arian-arian sor daitezen laguntzea.
- Webguneetan hizkuntza guztietan eskura dauden material eta baliabide kopuru handia dinamizatzea eta hartara iristeko modua erraztea eta Hezkidetzen blogean eskola liburategietatik hezkidetzaren irakurketa eta lanaren gunea dinamizatzea.
- Irakurketaren eta hezkidetzaren gaineko orientabide orokorrak ematea. Orientabide horiek hezkuntza erkidego osoaren eskura daude hezkidetzaren, eskola liburategien eta irakurketako orientabideen gaineko monografiko batean, Hezkuntza Departamentuko BLITZ argitalpen espezializatuan, alegia.
- 2011-2012 ikasturteko Irakasleentzako Prestakuntza Planean hezkidetzaren ikastetxeko eskola liburategian nola integratu erakusteko prestakuntza sartzeari.

### 3. Hezkidetzaren bloga

Saioretan egiten den esperientzien eta ikasmaterialen trukea Hezkidetzaren Blogarekin indartzen da. <http://dpto.educacion.navarra.es/coeducando/> blogean bada programan parte hartzen duten ikastetxe guztien artean trukeerako eta ikaskuntzarako gune birtuala. Bertan materialak, erreferentziak, loturak eta, bereziki, programan ikastetxeek garatzen dituzten jardunbide egokiak daude.

Urtero, jardunbiderik onenak hautatu ohi dira Hezkidetzako Jardunbide Onenen Sarietako hautagai

izateko; parte-hartzaileek berek bozkatzzen dituzte sariak.

Altsasuko Aralarko Mikel Donea II BHIk bere gain hartu du hurrengo urteetan ikasturte honetatik aurrera emanen diren sariak egiteko. Hezkidetzen programaren barnean zuen jardueretako bat "Haziaren itzala" izeneko eskultura bat egitea zen, hain zuzen ere mundua hobetzeko gizon eta emakumeen arteko ikaskuntza, hezkidetzeta eta lankidetzeta helburu dituena.

Esperientzia esanguratsua ikastetxeko irakasleek eta ikasleek hura egiteko izan duten konpromisoagatik eta inplikazioagatik.

Eskulturaren irudia, eskalan egina, sari hauen garaikurra izanen da hemendik aurrera.

Programa guztia, baliabideak, pertsonak eta taldeak Nafarroako hezkuntza ingurunean hezkidetzaren balioa berreskuratzearen ahaleginaren zati dira.

## **2. helburua: Generoaren ikuspegia aintzat hartzea departamentuko langile, baliabide eta zerbitzuen kudeaketa politikak diseinatzean eta garatzean.**

**2.1.5 jarduera ildo.** Generoaren ikuspegia txertatzea hezkuntza proiektuetara, ikerketara, berrikuntzara, diru-laguntzetara, laguntzetara, kontratuetara eta lizitazioetara bideratutako baliabideen kudeaketan.

Balorazio irizpideei dagokionez, **berrikuntza proiektuen** deialdian sartu dira berdintasuna eta hezkidetzeta ardatz dituzten proiektuak aurkezteko aukera ematen dutenak. Hartara, Erriberako Bigarren Hezkuntzako hiru ikastetxeen arteko proiektu bat onetsi da.

Aurten **ikasketak egiteko bi lizentzia** eman dira berdintasun proiektuen modalitatean eta Irakasleentzako Prestakuntza Planaren bitartez zabalduko dira hurrengo ikasturtean.

Lizentzien izenburuak ondokoak dira:

- "Hezkuntza ez-sexistarako gakoak esparru eleaniztun batean".
- "Berdintasuna kudeatzea eskola liburutegitik abiatutik".

**2.2.1 jarduera ildo.** Datuak sexuaren arabera bereiztea, generoari dagokionez sentikor agertutako diren adierazleak finkatzea eta eragiketa estatistikoak proposatzea.

Nafarroako ebaluazio diagnostikoen urteko txostenetan bereizirik ematen dira mutilen eta nesken emaitzak. Era berean, emaitza akademikoen urteko txostenetan bereizirik ematen dira mutilen eta nesken emaitzak. Orobat, "Nafarroako hezkuntzaren adierazle sistema"-ko emaitzen adierazleek bereizketa hori kontuan hartzen dute.

Herrialde garatuenak, Europar Batasunekoak zein Europar Batasunetik kanpokoak, aldaketa estrategikoak sartzen ari dira, lanerako kualifikazioa eta prestakuntza ekoizpen sektoreen eskarrietara eta langileen beharretara egokitzeko. Ildo honetan, Nafarroak uste du langileen lanbide kualifikazioak gure erkidegoaren garapen ekonomikorako garrantzi estrategikoa duela; eta, horregatik, ezinbestekoa dela Lanbide Heziketaren sistema behar bezala prestatzea, Kualifikazioen Esparru Europarretik etorritako erronkei erantzuteko eta Lanbide Heziketako titulu berriak ezarri eta hobetzeko.

Nafarroan, Lanbide Heziketako ikasketa berriak garatzeko prozesuak bi erreferente argi ditu. Lehenengo erreferentea Estatu mailakoa da. Alderdi desberdinetatik Estatuaren arau esparruari egindako ekarpenekin du zerikusia. Gisa horretakoak dira, hain zuzen ere, ondoko hauek: energiaren eta uraren sektoreko kualifikazioen diseinua, lanbide horren barruan planteatutako Lanbide Heziketako tituluak, gaitasunak egiaztatze prozedura arautzeari buruzko proposamenak prestatzen dituzten lantaldeetako elkarlana, lanbide orientazioa, kualifikazioak berrikusteko eta eguneratzeko metodologia egokien gainean ari diren lan batzordeetan parte hartzea, eta abar.

Bigarren erreferentea Nafarroako esparruan garatzen diren jarduerak eta proiektuak dira. Bigarren ardatz honek funtsezko protagonismoa hartu du azken ikasturteotan, gure erkidegoan Lanbide Heziketaren sistema garatzeari dagokionean. Zentzu horretan, azpimarratzekoa da Nafarroan Lanbide Heziketa garatzeko eta Kualifikazioen Sistema Nazionala ezartzeko jarraibideak ezartzen dituen 2005eko apirilaren 4ko Nafarroako Gobernuaren Erabakia. Erabakian, besteak beste,



Nafarroako Kualifikazioen Sistema ezartzeko eta garatzeko prozesuan elementu kritikoak zein diren esaten da: Nafarroan ikastetxe integratuen sorrera, Lanbide orientazioaren sare integratua eta lanbide gaitasunaren egiaztapenerako prozesuak. Halaber, ikasketak planifikatzeko politika irmoak aurrera eramaten ari dira, Lanbide Heziketako titulu ofizial berriak onetsita, eta berrikuntza teknologikoaren eta azpiegituren modernizazioaren bitartez.

2010/2011 ikasturtean, aurrerapen hauek eman dira gorago aipatutako alderdi edo elementu kritikoetan:

### **1. Ikastetxe integratuak.**

Nafarroako Gobernuak Nafarroako Foru Komunitateko Lanbide Heziketako ikastetxe integratuak arautzen dituen irailaren 4ko 63/2006 Foru Dekretua onetsi zuen eta, hartara, halako araudirik izaten lehenengo erkidegoa izan zen, Lanbide Heziketako ikastetxe integratuen oinarritzko baldintzak arautu zituen abenduaren 23ko 1558/2005 Errege Dekretua onetsi eta gero.

2010-2011 ikasturtean Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren martxoaren 4ko 64/2010 Ebazpena onetsi zen. Horren bidez ikastetxe integratuen pilotu-proiektu esperimentalak bukatutzat eman eta Nafarroako Gobernuak Hezkuntza Departamentuaren mendeko Lanbide Heziketako Ikastetxe Integratuetako zuzendariak merezimendu lehiaketa bidez hautatzeko deialdia onetsi zen. Geroago, Hezkuntzako kontseilariaren abenduaren 1eko 198/2010 Foru Agindua onetsi zen. Foru agindu horren bidez Hezkuntza Departamentuaren mendeko ikastetxe integratu publikoak izendatu ziren eta Nafarroako ikastetxe integratu publikoen sarea sortu zen. Honako hauek dira ikastetxe horiek:

Ikastetxe Integratu Politeknikoak:

- "Donapea" Ikastetxe Integratu Politeknikoa.
- "Virgen del Camino" Ikastetxe Integratu Politeknikoa.
- "ETI" Ikastetxe Integratu Politeknikoa.
- Lizarrako Ikastetxe Integratu Politeknikoa.
- Tafallako Ikastetxe Integratu Politeknikoa.
- Ikastetxe integratu sektorialak:
- Energia Berriztagarrien Goi Mailako Ikastetxe Integratua.
- "Agroforestal" Ikastetxe Integratua.
- "Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa-ESTNA" Ikastetxe Integratua.
- "María Ana Sanz" Administrazio, Merkataritza eta Informatika Ikastetxe Integratua.

2010-2011 ikasturtean ikastetxe horiei dagozkien jarduerak indartu dira: gazteentzako hasierako prestakuntzaren eta langile eta langabetuentzako prestakuntzaren eskaintza integratua eman da, ikastetxe hauek inplikaturik dauden nazioarteko proiektuak ugaritu dira eta Lanbide Heziketako ildo estrategikoak indartu dira.

### **2. Lanbide orientazioaren sare integratua.**

Nafarroako Enplegu Zerbitzua ari da sare hau garatzen, Hezkuntza Departamentuaren lankidetzarekin. Esan behar da Nafarroako Lanbide Heziketaren Kontseiluak bultzatu duela sarea eta berezko Interneteko ataria era baduela. Sarearen lehentasunezko helburua da herritarrei euren lanbide eta prestakuntza ibilbideen gaineko erabakiak hartu ahal izateko kalitatezko informazio eta orientaziorako zerbitzua eskaintzea eta, halaber, lan merkatuaren, lanbide integrazioaren eta konpetitibitatearen arteko oreka egokia bermatzea.

2010-2011 ikasturtean ezarri da Lanbide Informazioaren eta Orientazioaren Sare Integratua. Enplegu Departamentuaren, Hezkuntza Departamentuaren eta eragile ekonomikoen eta gizarte eragileen laguntzaz antolatu zen Iruñean Jardunaldi bat eta bertan parte hartu zuten Hezkuntza eta Lan ministerioetako aditu eta arduradunek eta Nafarroan orientazio arloan lan egiten duten profesional eta arduradun guztiei zuzendu zitzaion.

Hezkuntza Departamentuaren Lanbide Heziketako ikastetxeen hasierako prestakuntzako, etengabeko prestakuntzako eta prestakuntza okupazionalerako eskaintza orientazioaren atarian ikusten ahal da: <http://www.navarra.es/appsExt/riiopn/home/default.aspx>.

### **3. Gaitasunaren egiaztapena.**

Sistemaren giltzarrietako bat, besteak beste, ikasketa ez-formalen ondoriozko lanbide gaitasunak onartzea eta baliozkotzea da. Estatuak 1224/2009 Errege Dekretuaren bitartez arautu du prozedura hau.

2010-2011 ikasturtean azpimarratzekoa da Hezkuntza Departamentuak eta Berrikuntza, Enpresa eta Enplegu Departamentuak batera egin duten deialdia, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiak azaroaren 10ean emandako 397/2010 Ebazpenaren bidez arautua. Ebazpen horren bidez 2011rako deialdia egiten da, Nafarroako Foru Komunitatean, Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalako zenbait kualifikaziori lotuta dauden lanbide gaitasunak ebaluatu eta egiaztatzeko.

Deialdi honetan sartutako LHko titulazioak ondoko hauek dira:

- Osasun Larrialdietako teknikari titulua
- Soldadura eta Galdaragintzako teknikari titulua
- Sukaldaritza eta Gastronomiako teknikari titulua
- Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria
- Gizarte eta Osasun Laguntzako teknikaria

#### 4. Lanbide Heziketako titulu berrien diseinua.

Lanbide Kualifikazioen Katalogo Nazionalak (LKKN) Lanbide Heziketako tituluak diseinatzeko Estatuak erabiltzen duen oinarritzko erreferentzia ematen du. Estatu osoan da aplikagarria LKKN, eta ekoizpen sisteman identifikatutako kualifikazioek eta horiei lotutako prestakuntzak osatzen dute. Horrek Lanbide Heziketa ekoizpen sistemari egokitzea ahalbidetzen du.

Nafarroako LHko tituluaren egituraren eta curriculumaren garapenaren egoera, ikasturtez ikasturte antolatua, ondokoa da:

Lanbide Heziketako tituluak, 2011ko abuztura bitartean onetsitakoak:

#### **2008. urtea** (5 titulu, 2 erdi mailakoak eta 3 goi mailakoak)

- 92/2008 FD. Sukaldaritza eta Gastronomiako teknikaria
- 94/2008 FD. Mekanizazioko teknikaria
- 93/2008 FD. Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria
- 95/2008 FD. Analisisien eta Kalitate Kontrolaren Laborategiko goi mailako teknikaria
- 118/2008 FD. Energia Eraginkortasuneko eta Eguzki Energia Termikoko goi mailako teknikaria

#### **2009. urtea** (8 titulu, 5 erdi mailakoak eta 3 goi mailakoak)

- 42/2009 FD. Karrozeriako teknikaria
- 43/2009 FD. Osasun Larrialdietako teknikaria
- 44/2009 FD. Instalazio Elektriko eta Automatikoetako teknikaria
- 45/2009 FD. Kimika Lantegiko teknikaria
- 46/2009 FD. Soldadura eta Galdaragintzako teknikaria
- 47/2009 FD. Metalezko Eraikuntzetako goi mailako teknikaria
- 48/2009 FD. Fabrikazio Mekanikoaren Arloko Produzioaren Programazioko goi mailako teknikaria
- 73/2009 FD. Autozozioko goi mailako teknikaria

#### **2010. urtea** (6 titulu, 4 erdi mailakoak eta 2 goi mailakoak)

- 48/2010 FD. Fabrikazio Mekanikoko Diseinuko goi mailako teknikaria
- 49/2010 FD. Sistema Mikroinformatikoetako eta Sareetako teknikaria
- 50/2010 FD. Sareko Sistema Informatikoen Administrazioetako goi mailako teknikaria
- 51/2010 FD. Telekomunikazioetako Instalazioetako teknikaria
- 52/2010 FD. Administrazio Kudeaketako teknikaria
- 58/2010 FD. Farmazia eta Parafarmaziako teknikaria

#### **2011. urtea** (onetsiak baina abuztuaren 31n oraindik argitaratu gabeak) (14 titulu, 6 erdi mailakoak eta 8 goi mailakoak):

Elikagaien Prestakuntzako teknikaria  
 Ibilgailu Automobilen Elektromekanikako teknikaria  
 Web Aplikazioen Garapeneko goi mailako teknikaria  
 Plataforma Anitzeko Aplikazioen Garapeneko goi mailako teknikaria  
 Eraikuntza Proiektuetako goi mailako teknikaria  
 Lorezaintzako eta Lore-lanetako teknikaria  
 Nekazaritza Ekologikoko Ekoizpeneko teknikaria  
 Nekazaritza eta Abeltzaintzako Ekoizpeneko teknikaria  
 Jatetxeko Zerbitzuetako teknikaria  
 Elikagaien Kalitateko goi mailako teknikaria  
 Bero eta Fluido Instalazioetako goi mailako teknikaria  
 Sistema Elektroteknikoetako goi mailako teknikaria  
 Energia Berriztagarrietako goi mailako teknikaria  
 Sukaldeko Zuzendaritzako goi mailako teknikaria

Titulu horien guztien egitura eta curriculuma prestatzeko abiapuntu bezala hartu dira irakasle taldeek egindako proposamenak eta gure erkidegoko, Estatu mailako, eta Europa mailako ikerketa sektorial eguneratuak.

Aipatutako titulu guztiak ondoko arauen esparruaren barruan daude: Lanbide Kualifikazioei eta Lanbide Heziketari buruzko 5/2002 Lege Organikoa; Hezkuntzari buruzko 2/2006 Lege Organikoa; Estatu mailan titulu horietako bakoitza onesten duten errege dekretuak; eta 54/2008 Foru Dekretua, maiatzaren 26koa, Lanbide Heziketaren antolamendua eta garapena arautzen dituen Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sisteman.

Berriki onetsi diren lanbide kualifikazioak, enpresei egokituak daudenak, izan dira titulu berrien oinarria. Estatu mailako enpresa eta erakundeetako adituz osatutako taldeek lanbide gaitasun nagusiak definitu dituzte, betiere, etorkizunari begira.

Ondoren, antzeko lana egin da Nafarroan, tituluak gure lan-, gizarte- eta ekonomia-egoerara, Hezkuntza Departamentuak planteatu duen ikuspegi didaktikoari eta antolaketari, eta aukera estrategiko komenigarrienari egokitzeko. Gainera, tituluen xedea benetako profesionalak prestatzea denez, eta ez bakarrik teknikari onak, tituluetako bakoitzaren egituran hainbat lanbide kualifikazio eta oinarritzko prestakuntza osagarri sartu dira, enplegu aukera zabalagoak eta prestakuntza pertsonal sendoagoa lortzeko.

<b>137. koadroa - Lanbide Heziketako ikastetxe integratuetako ikasleak, 2010/2011 ikasturtea</b>	
<b>Ikastetxea</b>	<b>Ikasleak</b>
"ETI" Ikastetxe Integratu Politeknikoa. Tuteria	808
"Donapea" Ikastetxe Integratu Politeknikoa. Iruña	799
"Virgen del Camino" Ikastetxe Integratu Politeknikoa. Iruña	714
"María Ana Sanz" Administrazio, Merkataritza eta Informatika Ikastetxe Integratua. Iruña	571
"Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa-ESTNA" Ikastetxe Integratua. Iruña	485
Ikastetxe Integratu Politeknikoa. Lizarra	359
"Tafalla" Ikastetxe Integratu Politeknikoa. Tafalla	331
"Agroforestal" Ikastetxe Integratua. Iruña	233
Energia Berriztagarrien Goi Mailako Ikastetxe Integratua. Imarkoain	145

Lanbide Heziketako ikasketak ikastetxe integratuetan ikasten dutenak, guztira	<b>4.445</b>
---	--------------

*Iturria: Lanbide Heziketaren Zerbitzua. Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala*

## Hezkuntza sistemako Lanbide Heziketako titulazioak / heziketa zikloak

138. koadroa - Eskainitako Lanbide Heziketako titulu eta ziklo kopurua, 2006/2007 ikasturtetik 2010/2011ra						
Ikasturtea	Erdi maila (teknikaria)		Goi maila (goi mailako teknikaria)		Guztira	
	Desberdinak <sup>1</sup>	Ziklo kopurua <sup>2</sup>	Desberdinak	Ziklo kopurua	Desberdinak	Ziklo kopurua
2006/2007	30	86	45	88	75	174
2007/2008	31	86	44	86	75	172
2008/2009	31	77	46	80	77	157
2009/2010	32	78	46	86	78	164
2010/2011	34	87	48	92	82	179

*Iturria: Lanbide Heziketaren Zerbitzua. Lanbide Heziketaren Plangintza, Antolamendu eta Garapenerako Atala*

<sup>1</sup> Lanbide Heziketako titulazio desberdinak.

<sup>2</sup> Nafarroako ikastetxeetan eskainitako ziklo kopurua (ziklo bera ikastetxe batean baino gehiagotan ikasten ahal da).

## 5. Berrikuntza teknologikoa Lanbide Heziketan

Azken urteotan, Hezkuntza Departamentuko Lanbide Heziketaren Zerbitzuak berrikuntza teknologikoaren ildo estrategikoa hartu du eta berrikuntzarako sare baten bidez Lanbide Heziketako ikastetxe guztiak koordinatzen ditu. Horrela, azkar eta sistematikoki eguneratzen da teknologia sortuberrien eta berritzaileen sarrera Lanbide Heziketako ikastetxeetan. Horrek guztiak teknikari gaituak prestatzea du helburu, Nafarroako enpresen garapenean eta berrikuntzan parte hartu dezaten.

Bi ekintza nagusi eramaten dira aurrera:

A) Lanbide Heziketako ikastetxeen ekipamenduen gaineko ekintza:

- Nafarroarentzat estrategikoak diren teknologia sortuberriak sartzea Lanbide Heziketako ikastetxe publikoetan.
- Ikastetxeak Lanbide Heziketako titulu berrien edukietara teknologikoki egokitzea.

B) Berrikuntza proiektuen deialdiak, enpresen eta Lanbide Heziketako ikastetxeen arteko itun estrategikoaren ardatz izaki:

2009/2010 ikasturtean, Lanbide Heziketako Berrikuntza Proiektuen laugarren deialdia argitaratu da.

2010/2011 ikasturtean berrikuntza teknologikoko edo didaktikoko 7 proiektu gauzatu dira, esparru sortuberrietako enprekin lankidetzan (esparru sortuberriak dira, besteak beste: teknologia bioklimatikoa, punta-puntako industria komunikazioak, zuntz optikoko sareak, automoziorako erregai alternatiboak, fabrikazio mekanikoko kontrola 3 dimentsiotan, simulatzaile didaktikoak eta ultrasoinuen eta ikusmen artifizialaren bidezko kalitate kontrola).

Aholkua ematea eta parte hartzea "Remote Workshops of Communications" nazioarteko proiektuan. Proiektu hori Tuterako "ETI" Ikastetxe Integratu Politeknikoak aurkeztu eta Europako Hezkuntza Programen Erakunde Autonomoak diruz lagundu du. Europako 6 herrialdeetako bazkidek parte hartzen dute bertan.

### 4.3.5. Hezkuntza erkidegoaren parte-hartzea

**4.3.5.1. Nafarroako Eskola Kontseilua / Hezkuntzako Batzorde Nagusia**

Azaroaren 4ko 12/1997 Foru Legearen bidez sortutako Nafarroako Eskola Kontseilua hezkuntza erkidegoaren parte-hartze organo gorena da unibertsitatez kanpoko ikasketen planifikatzeari dagokionez. Bertan, hezkuntzarekin zerikusia duten sektore nagusiak daude ordezkatuta.

Eskola Kontseiluaren eginkizunik garrantzitsuenak da Nafarroako Foru Komunitatean unibertsitatez kanpoko hezkuntza arautuko duten arauen egitasmoak aztertzea eta horien gainean eztabaidatzea, eta adostutako zuzenketak Hezkuntza Departamentuari jakinaraztea. Gainera, hezkuntzaren alderdi esanguratsuei buruzko ikerketak eta txostenak prestatzen ditu, eta Estatuko Eskola Kontseiluan parte hartzen du.

Eginkizunak:

- Hezkuntza Departamentuak igortzen dituen arauen egitasmoak aztertzea eta horiei buruz eztabaidatzea, irakaskuntzaren programazio orokorreko alderdi ezberdinen gainean legez ezinbestekoak diren irizpenak prestatzeko. Hauen inguruko egitasmoak dira:
  - Hezkuntzarekin loturiko gaiei dagokienez, Nafarroako Gobernuak onetsi beharreko erregelamendu exekutibo orokorren egitasmoak edo foru legeentzako aurreproiektuak.
  - Planifikazio orokorrerako printzipioak, oinarriak eta irizpideak, ikastetxeen sorrera, aldaketa, kentzea eta lurralde banaketari dagokienez.
  - Ikastetxeen eta ikastetxeetako langile eta ekipamenduen ezaugarriei buruzko araudi orokorra.
  - Ikastetxe publikoen eta ikastetxe pribatu itunduen eta diruz lagunduen finantzaketari buruzko irizpide orokorrak.
  - Hezkuntza ereduen ezaugarriei eta ezarpenari buruzko xedapen orokorrak.
  - Bekei eta ikasketetarako laguntzei buruzko printzipio orokorrak.
  - Eskolaz kanpoko jardueri eta zerbitzu osagarriei buruzko araudi orokorra.
  - Hezkuntza gaietan Estatuarekin edo beste erkidego autonomo batzuekin lankidetzak hitzarmenak edo akordioak egiteko egitasmoak.
  - Hezkuntzaren kalitatea hobetzea edo desberdintasun sozial eta indibidualak konpentsatzea helburu duten xedapenak.
- Txostenak egitea Hezkuntza Departamentuak eskatutako gaien gainean.
- Bere ekimenez ikerketak eta proposamenak egitea, irakaskuntzaren programazio orokorrarekin lotutako bestelako gaiei buruz, eta goragokoei igortzea.
- Urtero hau bezalako txosten bat prestatzea Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemaren egoerari buruz.
- Urtero Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueren memoria prestatzea.
- IDEA aldizkaria prestatzea eta kaleratzea.
- Eskola kontseiluen topaketen jardunaldiak antolatzea.
- Parte hartzea Estatuko Eskola Kontseiluaren osoko bilkuraren eta erkidegoetako eskola kontseiluen parte-hartze batzordearen saioetan.

**2010/2011 ikasturtean egindako jardueren garrantzitsuenak**

Osoko bilkuraren saioak	7
Batzorde iraunkorraren saioak	5
Emandako irizpenak	30
Emandako txostenak	- "Genero desberdintasunak Espainiako hezkuntza

	<p>sistemaren emaitzetan" txostena (Estatuko Eskola Kontseiluko Parte-hartze Batzordean aurkeztua)</p> <p>- "Eskolako lanak" txostena, Nafarroako Arartekoaren ekimenez.</p>
Argitaratutako aldizkariak	<p>35. zk. Kirol ikasketak</p> <p>36. zk. Inor prestakuntzarik gabe. Lanbide kualifikaziorako aukera berriak</p>
Jardunaldiak	<p>- "Ebaluazioa, autonomia eta lidergoa ikastetxeetan", Hezkuntza Departamentuarekin lankidetzan. Jardunaldia 2010eko irailaren 28, 29 eta 30ean egin zen, Iruñeko Planetarioan.</p> <p>- Nola ikasten dute gure seme-alabek? Teknologia berrietan oinarrituriko didaktika berriak. 2011ko maiatzaren 7an egin zen, Iruñeko "San Francisco" IPn.</p>
Estatuko eta erkidegoetako eskola kontseiluen Parte-hartze Batzordea eta Estatu mailako topaketak	Zenbait egunetako 4 bileretara joatea.

#### 4.3.5.2. Ikastetxeko eskola kontseiluak

##### Eskola Kontseiluetarako hauteskundeak

Eskola erkidegoko sektore desberdinen ordezkariak hautatzeko hauteskundeak izan ziren, azaroaren 24tik abenduaren 16ra (biak barne), zati batean berritzeko, gehiengoz, ikastetxe bakoitzeko eskola kontseiluaren lehen erdia. Emaitzak ondoko koadroan adierazten dira:

**HEZKUNTZA PROZESUAK ETA POLITIKAK**

<b>139. koadroa - Eskola kontseiluetarako hauteskundeak ikastetxe publikoetan, 2010/2011 ikasturtea</b>																	
<b>Lehenengoz hautatu dute</b>																	
Hezkuntza maila	Irakasleak			Gurasoak			Ikasleak			Administrazioko eta zerbitzuetako langileak (AZL)			Hezkuntza-arreta osagarriko langileak (HAOL)			Kopurua Ikastetxea k	
	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%		
DBHI (1995)				273	108	40										1	
Arte Ikasketak																1	
Guztira				273	208	40										2	
<b>1. erdia berritu dute (sektoreak osatuz, hala behar denean)</b>																	
Hezkuntza maila	Irakasleak			Gurasoak			Ikasleak			Administrazioko eta zerbitzuetako langileak (AZL)			Hezkuntza-arreta osagarriko langileak (HAOL)			Ikastetxea k	
	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Ber	Osa t
Haur eta Lehen Hezkuntza + DBHI 96 + Helduak	1.917	1.728	90	17.875	3.401	19	336	279	83	5	5	100				129	44
Hezkuntza Berezia	21	18	86	138	10	7							13	6	46	2	1
BHI	667	616	92	5.410	454	8	6.775	4.307	64							18	14
Hizkuntza ikasketak	67	61	91				3.706	694	19								2
Arte Ikasketak																1	1
Guztira	2.672	2.423	91	23.423	3.865	17	10.817	5.280	49	5	5	100	13	6	46	152	60
<b>2. erdia berritu dute (sektoreak osatuz, hala behar denean)</b>																	
Hezkuntza maila	Irakasleak			Gurasoak			Ikasleak			Administrazioko eta zerbitzuetako langileak (AZL)			Hezkuntza-arreta osagarriko langileak (HAOL)			Ikastetxea k	
	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Ber	Osa t
Haur eta Lehen Hezkuntza + DBHI 96 + Helduak	168	148	88	2.001	170	8				4	3	75				10	2
BHI	33	30	91				220	175	80	0	0	0				2	2
Guztira	201	178	89	2.001	170	8	220	175	80	4	3	75				12	4
<b>Sektoreak osatu dituzte</b>																	
Hezkuntza maila	Irakasleak			Gurasoak			Ikasleak			Administrazioko eta zerbitzuetako langileak (AZL)			Hezkuntza-arreta osagarriko langileak (HAOL)			Kopurua Ikastetxea k	
	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%		

	dute			dute			dute			dute			dute			
Haur eta Lehen Hezkuntza + DBHI 96 + Helduak	48	48	100													8
DBHI (1995)																2
BHI																6
Guztira	48	48	100													16

Iturria: Hezkuntza Antolamenduaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua.

#### 140. koadroa - Eskola kontseiluetarako hauteskundeak ikastetxe itunduetan, 2010/2011 ikasturtea

##### 1. erdia berritu dute (sektoreak osatuz, hala behar denean)

Hezkuntza maila	Irakasleak			Gurasoak			Ikasleak			Administrazioko eta zerbitzuetako langileak (AZL)			Hezkuntza-arreta osagarriko langileak (HAOL)			Ikastetxeak	
	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Ber	Osatu
Haur Hezkuntza-Lehen Hezkuntza	329	110	33	3.203	323	10										17	6
DBH-BH	72	57	79	2.006	94	5	2.491	1.497	60							13	10
HH-LH-BH	230	198	86	8.734	787	9	4.454	3.404	76							15	2
Hezkuntza Berezia	38	33	87													2	1
Guztira	669	398	59	13.943	1.204	9	6.945	4.901	71							47	19

##### 2. erdia berritu dute (sektoreak osatuz, hala behar denean)

Hezkuntza maila	Irakasleak			Gurasoak			Ikasleak			Administrazioko eta zerbitzuetako langileak (AZL)			Hezkuntza-arreta osagarriko langileak (HAOL)			Ikastetxeak	
	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Errolda	Bozkatu dute	%	Ber	Osatu
Haur Hezkuntza-Lehen Hezkuntza	56	52	93	837	175	21				16	12	75				3	
DBH - BH	26	26		175	107	61	197	103	52	16	16	100				1	1
HH-LH-BH	67	33	49				900	858	95							4	1
Guztira	149	111	74	1.012	282	28	1.097	961	88	32	28	88				8	2

Iturria: Hezkuntza Antolamenduaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua.

Oharra: 399/2010 Ebazpenak, urriaren 13koak, Antolamenduaren, Kalitatearen eta Berrikuntzaren zuzendari nagusiak emanak, Eskola Kontseiluak hautatu, eratu eta haien zati bat berritzeko jarraibideak onesten dituenak, V.7 atalean esaten du "Sektore batean aurkeztutako hautagai kopurua berritu beharreko ordezkarien kopuruarekin alderatuz gero berbera edo txikiagoa bada, Hauteskunde Batzordeak besterik gabe aldarrikatuko ditu aurkeztu diren hautagaiak".

#### 4.3.5.3. Parte-hartze sozialerako beste bide batzuk

##### - Gurasoen Mahaia

Nafarroako Foru Komunitateko Ikasleen Gurasoen Mahaia Hezkuntzako kontseilariak maiatzaren 28an emandako 79/2008 Foru Aginduaren bidez sortu zen. Aurrerago, foru agindu hura otsailaren 4ko 14/2010 Foru Aginduaren bidez aldatu zen, ikasleen gurasoen elkarteak biltzen dituzten



federazioen bitartez guraso elkarteen parte-hartzea hezkuntzaren esparruan indartzeko xedez.

Kide anitzeko organo bat da, Nafarroako Foru Komunitateko hezkuntza sistemari dagozkion gaien gainean informatzea, aztertzea, eztabaidatzea eta jarraipena egiteaz arduratzen dena. Hautazko izaera du, hots, ez du erabakiak hartzeko eginkizunik, eta bere ondorioak eta proposamenak ez dira lotesleak Hezkuntza Departamentuarentzat.

Ikasleen Gurasoen Mahaiaren helburua da Nafarroako Foru Komunitatean hezkuntza sisteman interes sozial berezikotzat harturiko gaietan ikasleen aita, ama edo legezko tutoreen lankidetzeta eta parte-hartzea horiek parte diren federazioen bitartez.

Ondoko kideek osatzen dute:

- Hezkuntzako kontseilaria, mahaiburu.
- Hezkuntzako Departamentuko zuzendari nagusiak; horietako bat, Hezkuntzako kontseilariak izendatua, buruorde ariko da mahaiburuaren eginkizunak betetz hura falta denean.
- Hezkuntza Departamentuaren bi ordezkari, Hezkuntzako kontseilariak izendatuak landu beharreko gaien arabera.
- Nafarroako Foru Komunitatean familia gehien bazkidegurik dituzten ikasleen gurasoen elkartearen federazioetako ordezkari bana, seira iritsi arte, betiere federazio horiek Hezkuntza Departamentuko Elkartearen eta Federazioen Zentsuan egon behar dutelarik. Ordezkari hauek dagozkie:
  - HERRIKOA: 2 ordezkari
  - CONCAPA: ordezkari 1
  - FAPACENA: ordezkari 1
  - SORTZEN: ordezkari 1
  - Facbritish-TIL-A: ordezkari 1
- Hezkuntzaren munduan ospe handia duten pertsonalitateak edo hezkuntzari lotutako entitate edo erakundeetako ordezkariak, Hezkuntzako kontseilariak izendatuak landu beharreko gaien arabera.
- Idazkaria. Hezkuntza Departamentuko funtzionario bat, hizpidea izanik baina botorik gabe ariko dena.

Ikasleen Gurasoen Mahaia urtean hirutan biltzen da saio arruntetan, eta ohiz kanpoko izaeraz mahaiburuak beharrezkotzat jotzen duenean edo ordezkari sozialen bi herenek hala eskatzen dutenean.

2010/2011 ikasturteko bilerak eta landutako gaiak:

- 2010eko urriaren 7an

Federazioen ordezkaria izendatzea laguntza eskaerak baloratzeko batzordean.

Ordezkariak hautatzea Hezkuntza Sariak aukeratzeko epaimahaian.

Familia eskolak

2010-2011 ikasturtea

- 2010eko abenduaren 14an

Ikasleen eskubide eta betebeharren eta bizikidetzaren dekretua aurkeztea ikastetxeetan guraso elkartei

- 2011ko apirilaren 12an: Nafarroako Eskola Kontseiluak prestatutako "Gizonezkoen hezkuntza emaitzak" txostena aurkeztea.

### **-Irakasle elkarteak eta sindikatuak**

- CCOO :Comisiones Obreras
- FETE- UGT: Unión General de Trabajadores
- ANPE: Asociación Nacional de Profesionales de la Enseñaza.
- CSI-CSIF: Confederación de Sindicatos Independientes y Sindical de Funcionarios.

- FSIE-SEPNA: Federación de Sindicatos Independientes de Enseñanza.
- STEE-EILAS: Euskal Herriko Irakaskuntzako Langileen Sindikatua
- AFAPNA: Nafarroako Administrazio Publikoetako Funtzionarioen Elkarte
- LAB: Langile Abertzaleen Batzordea
- ELA / STV: Eusko Langileen Alkartasuna
- APS: Bigarren Hezkuntzako Irakasleen Elkarte
- USO: Unión Sindical Obrera

**- Ikasleen gurasoen federazioak eta konfederazioak**

2010/2011 ikasturteko jarduera nagusiak

<b>141. koadroa - Nafarroako CONCAPA egindako jarduera nagusiak, 2010/2011 ikasturtea</b>	
<b>Jardueraren izenburua</b>	<b>Hartzaileak</b>
"CIBERBULLYING" izeneko 2000 eskuorri argitaratzea. Cómo evitar que Internet se convierta en un infierno para sus hij@s (Nola saihestu Internet zuen seme-alabendako infernu bihur ez dadin)	Lehen Hezkuntzako 6. mailatik DBHko 2. mailara bitarteko ikasleen gurasoak
"Gurasoak: hezkuntzaren giltzarri" biltzarra. Logroño, urriaren 21etik 24ra	Ikasleen gurasoak eta irakasleak
Parte-hartzerako Espainiako I. Jardunaldiak. Madril, martxoaren 12a	Guraso elkarteak eta hezkuntza administrazioak
Eskolaren eta Familiaren arteko XII. Topaketak. Iruña, azaroaren 26a	Gurasoak eta irakasleak
"Sexuaz hitz egin dezagun gure seme-alabekin" hezkuntza afektibo-sexuala (Natalia Brice dokt.)	Lehen Hezkuntzatik Batxilergora bitarteko ikasleen gurasoak
Familiaren XIX. Festa. Iruña, ekainaren 5a	Familiak eta entzuleak, oro har
Droga-mendekotasunei aurre egitea. Prestatzaileen prestakuntza. Urritik azarora	Prestatzaileak
Guraso elkartearen funtzionamendu eta antolaketarako ikastaroa. Urtarriletik otsailera	Guraso elkartearen batzordeak
Nerabezaroaurreari eta nerabezaroari buruzko ikastaroa. Urtarriletik maiatzera	Ikasleen gurasoak
"Kristau ezkontza"-ri buruzko ikastaroa. Iruña, otsailetik apirilera	Senar-emazteak

*Iturria: CONCAPA-Nafarroa.*

**HEZKUNTZA PROZESUAK ETA POLITIKAK**

<b>142. koadroa - HERRIKOAK egindako jarduera nagusiak, 2010/2011 ikasturtea</b>	
<b>Jardueraren izenburua</b>	<b>Hartzaileak</b>
Jardunaldiak, hitzaldiak, ikastaroak eta lantegiak: Hezteka asertibotasunean; Sexu hezkuntza; Nerabe bat etxean; Bullying-a; Eskola arrakasta sustatzea; Familiako borroka bati nola egin aurre; Eskola kontseiluak; Hezteka diruaren erabileran; Familia IKTen aurrean; Estresaren kudeaketa; Anai-arreben arteko gatazkak; Eskubideen eta betebeharren dekretua; Bizikidetzak, komunikazioa; 0-5 urte bitarteko haurren gaiak; Batzordeen funtzionamendua; Batzordeen funtzionamendua eta zuzendaritza batzordeen denbora egoki kudeatzea; Gatazkak gobernatzea; Eskola eguna; Estrategiak haurrei mintzatzeko; Emozio hezkuntza; Oinarriko gaitasunak; Ikasketa teknikak; Komunikazioa eta autoestimua; Nola antolatu ikastea; Lantegi praktikoa nerabeekin komunikatzeko; Parte-hartzea; Nola ezarri arauak eta mugak; Drogei aurre hartzea; Jolasa eta jostailuak.	Guraso elkarteak eta familien prestakuntza
Prentsa oharrak eta prentsaurrekoak	Komunikabideak
CEAPAREN jardueretan parte hartzea	HERRIKOAKO zuzendaritzako kideak
Nafarroako Eskola Kontseiluaren jardueretan parte hartzea	HERRIKOAKO zuzendaritzako 2 kide
0-3 urteko plataforma	HERRIKOAKO zuzendaritzako kideak
Gurasoen Mahaia	HERRIKOAKO zuzendaritzako 2 kide
Zuzendaritzaren bilerak	HERRIKOAKO zuzendaritza batzordea
HERRIKOAKO kideen batzarra	Guraso elkarteak
Liburuen batzordea, testuliburuen doakotasuna	HERRIKOAKO zuzendaritza batzordea
Iruñeko Udaleko prestakuntza programan parte hartzea	HERRIKOAKO zuzendaritza eta guraso elkarteak
CAN Fundazioa, "Zeuk aukeratzen duzu: zeuk erabakitzen duzu" ekimena, 16999 zk.	Guraso elkarteak eta gizartea oro har
Gurasoen eta irakasleen arteko kanpoko bitartekaritza.	
Zenbat ikastetxetan eman den prestakuntza: 71 Zenbat saio eman diren: 185 Prestakuntzan parte hartu dutenak: 2.853 Guraso elkartei emandako prestakuntza ordu presentzialak: 275	

*Iturria: HERRIKOAK*

<b>143. koadroa - SORTZENek egindako jarduera nagusiak, 2010/2011 ikasturtea</b>	
<b>Jardueraren izenburua</b>	<b>Hartzaileak</b>
Ikastaro-mintegia: Jolas eta jostailu ez-sexistak. Gurasoendako irizpideak.	Gurasoak
Ikastaroak: Informatika. Word, Excel eta Acceseko oinarrizko kontzeptuak.	Gurasoak
Aurrematrikula kanpaina	Nafarroako gizartea
Ikastaroak: Euskaraz mintza	Gurasoak (Etxarri, Olatzagutia, Iruñeko San Francisco IP, Zizur)
Programa: Euskaraz mintza	Nafarroako D ereduko ikastetxeak
Euskararen aldeko festa Mendigorrian	Nafarroako gizartea
Euskararen aldeko festa Taconeran	Nafarroako gizartea
Sakanako ikastetxeen arteko topaketa Etxarri-Aranatzen	Sakandarrak
Material pedagogikoa sortzea: - Unitate didaktikoak -Ipuinak -Proiektuak	D ereduko ikastetxeak, ikasleak eta gurasoak
D ereduko guraso elkarten koordinazioa	D ereduko guraso elkarteak

Iturria: SORTZEN

**Ikasleen gurasoen elkarteentzako eta federazioentzako diru-laguntzak.**

<b>144. koadroa - Ikasleen gurasoen elkarteentzako eta federazioentzako diru-laguntzak, 2006. urtetik 2010era</b>						
Urtea	Guztira	Elkarteak				Federazioak
		Publikoak		Itunduak		
		Kopurua	Zenbatekoa	Kopurua	Zenbatekoa	
2006	146.625				113.220	33.405
2007	244.375				188.700	55.675
2008	244.375				188.700	55.675
2009	244.500	169	140.607	45	47.393	56.500
2010	218.000	157	114.534	33	29.966	73.500

Iturria: Hezkuntza Antolamenduaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua

**HEZKUNTZA PROZESUAK ETA POLITIKAK**

**145. koadroa - Ikasleen gurasoen elkarteak, 2006. urtetik 2010era**

Federazioa	HERRIKOA			CONCAPA			SORTZEN			FACBRITHIS TIL-A		
	Elkart e kop.	Kideak, osotara	Esleitutako zenbatekoak (eurotan)	Elkart e kop.	Kideak, osotara	Esleitutako zenbatekoak (eurotan)	Elkart e kop.	Kideak, osotara	Esleitutako zenbatekoak (eurotan)	Elkart e kop.	Kideak, osotara	Esleitutako zenbatekoak (eurotan)
2006	146	29.000	18.227	40	16.500	9.340	35	6.400	5.838	-	-	-
2007	144	29.000	30.144	40	16.500	15.780	36	6.450	9.751	-	-	-
2008	148	29.000	30.377	40	16.700	15.613	36	6.530	9.684	-	-	-
2009	148	29.000	27.735	43	20.500	15.690	37	7.120	8.896	7	1.444	4.177
2010	150	29.500	23.000	44	22.300	26.531,85	36	8.572	17.451,98	8	1.597	6.516,17

*Iturria: Hezkuntza Antolamenduaren eta Berrikuntzaren Zerbitzua*

**Ikasle elkarteak.**

**146. koadroa - Ikasle elkarteei eta federazioei emandako laguntzak, 2006tik 2010era**

Elkartea	Ikastetxea	2006		2007		2008		2009		2010	
		Zenbatekoa	Kide kop.	Zenbatekoa	Kide kop.	Zenbatekoa	Kide kop.	Zenbatekoa	Kide kop.	Zenbatekoa	Kide kop.
Santiago 93	C. N <sup>a</sup> S <sup>a</sup> del Puy ikastetxea	329	48	763	79	771	86	947	114	-	-
Luis Amigó	Luis Amigó ikastetxea	562	306	1.287	398	983	390	1.139	429	-	-
Salesianos	Salesianos IP	959	870	1.662	702	1.428	718	-	-	1.377,00	718
Los Fueros	San Adriango BHI	598	285	-	-	-	-	-	-	-	-
Alusfron	Azagrako DBHI	480	195	1.043	195	1.038	177	1.022	165	658,40	178
Sta. Luisa	Santa Luisa de Marillac ikastetxea	-	-	629	200	724	200	1.542	700	-	-
Alibas	Basoko BHI	446	475	761	356	936	356	-	-	-	-

*Iturria: Eskola Antolamendu eta Berriztapenerako Zerbitzua*

**4.3.6. 0-3 urteko zikloa ezartzea**

1983an Gizarte Zerbitzuei buruzko martxoaren 30eko 14/1983 Foru Legea onetsi zen. Foru lege hartan Nafarroako Gobernuak ezarritako lan ildoan artean haurtzaroa ageri da eta lehentasunezko jardueren artean, besteak beste, haur txikiendako ikastetxe eta laguntza zentroak sortzea. Foru legeak zehazten du, halaber, lege horren aplikazioa bermatzeko neurri juridikoak eta administratiboak hartzea, funtsean, Nafarroako Gobernuari eta Nafarroako toki entitateei dagokiela.

Handik zazpi urtera, 1990ean, Hezkuntza Sistemaren Antolamendu Orokorrari buruzko Lege Organikoa (HSAOLO) onartu zen. Espainian lehenengo aldia zen hezkuntzari buruzko lege orokor batek hezkuntza izaera aitortzen ziona haurtzaroko etapari (sei urtera artekoari, alegia). HSAOLOan

Haur Hezkuntza bi ziklotan banatu eta nabarmentzen da biek dutela hezkuntza izaera. Borondatezko izaera ematen zaion arren, legeak administrazio publikoak premiatzen ditu ikaspostu kopuru nahikoa bermatu dezaten eta, horretarako, ezartzen du hitzarmenak sinatu ahalko dituztela udalekin, beste administrazio publikoekin eta irabazi asmorik gabeko erakunde pribatuekin.

Halaber, 2000. urtetik aurrera, Nafarroako Gobernuak hiru urtetik beherako haurrak atenditzeko zerbitzuak sortzeko politikak abian jarri zituen, orduko indarreko araudiaren arabera. Aipatutako politikak, batetik, Europar Batasunak hezkuntzarako ezarritako helburuekiko konpromisoan oinarritzen dira eta, bestetik, Nafarroako Gobernuaren eta toki entitateen arteko lankidetzan. Hala, politika horiei esker, 0-3 urteko haurrentzako udal titulartasuneko hainbat zentro sortu dira.

2000/2001 ikasturtean, Haur Hezkuntzako lehen zikloa lehenetsitako toki entitateetan ezarri zen, betiere toki entitate horiek eskatuta, eta baita lehenetsitako tokiak izan ez arren gauza bera eskatu zuten toki entitateetan ere. Horretarako, 0-3 urteko zikloaren ezarpen prozesuan nolabaiteko berdintasuna bermatzearen, Haur Hezkuntzako ziklo hori arautuko duen foru dekretuak indarra hartu arte, abuztuaren 2ko 3086/2011 Ebazpena onetsi zen. Ebazpen horren bidez Nafarroako Gizarte Ongizatearen Institutuaren eta aipatu zikloa udalerrian ezarri nahi duten toki entitateen artean hitzarmenak sinatzeko oinarriak ezartzen dira, hitzarmen horiek Haur Hezkuntzako ikastetxeen funtzionamendurako eta ekipamendurako izanen direlarik.

2005eko urtarrilaren 1ean Hezkuntzako Departamentua ikastetxeen finantzaketa orokorra kudeatzen hasi zen, 18/2004 Foru Legearen 28. artikularekin bat (18/2004 Foru Legea, abenduaren 29koa, 2005eko ekitaldirako Nafarroako Aurrekontu Orokorrei buruzkoa). Horretarako, zeuden ikastetxeak eta sortzen ahal zirenak finantzatzeko oinarriak ezartzeko, harik eta Otik 3 urtera bitarteko haurrak hartzeari buruzko foru dekretua eman arte, 41/2005 Foru Agindua eman zen (41/2005 Foru Agindua, otsailaren 28koa, Otik 3 urtera bitarteko haurrentzako udal titulartasuneko ikastetxeen kudeaketa eta ekipamendua finantzatzeko Hezkuntza Departamentuaren eta toki entitateen artean eginen diren hitzarmenen oinarriak ezartzen dituena).

Foru agindu horretan esaten da toki entitateen eta Hezkuntza Departamentuaren arteko lankidetzaren hitzarmenetan sartutako ikastetxeak 0-3 urteko tarteari dagokion araudi orokorraren arabera egokitu beharko direla, eta Hezkuntza Departamentuaren jarraibide pedagogikoak bete eta haren gainbegiradapean aritu beharko dutela.

Foru aginduaren eranskinetan kudeaketa eta ekipamendua finantzatzeko moduluak zehazten dira Haur Hezkuntzako lehen zikloko udal titulartasuneko ikastetxeentzat.

2006ko maiatzaren 3an Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa onetsi zen. Lege horren I. tituluan ikasketak eta ikasketen etapak arautzen dira. Haur Hezkuntza izaera berezia duen etapa bakar bezala ulertzen da: haurrak jaiotzen direnetik sei urtera bitartean atenditzen ditu; bi ziklotan banatzen da, biak ala biak hezkuntza dutela xede; ez du zertan eskolakoa izan; eta zentroek lehen ziklotik berariazko erantzun pedagogikoa eman behar dute. Haur Hezkuntza borondatezkoa da eta bere xedea da haurren garapen fisikoan, afektiboan, sozialean eta intelektualean laguntzea.

Lege horrek administrazio publikoak premiatzen ditu poliki-poliki lehen zikloko ikaspostuen eskaintza handitzera, ziklo honetako eskaintza bermatzeko lankidetzaren politikak koordinatzera administrazioen artean eta beste entitate batzuekin, eta ezartzera zein baldintzatan egin daitezkeen hitzarmenak toki entitateekin, beste administrazioekin eta irabazi asmorik gabeko entitate pribatuekin. Halaber, hezkuntza administrazioek Haur Hezkuntzako lehen zikloko hezkuntza edukiak zehaztu behar dituzte eta ziklo hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak arautu, irakasleko ikasle kopuruari, instalazioei eta ikaspostu kopuruari dagokienez.

Ekainaren 30eko 806/2006 Errege Dekretuak egutegi bat zehazten du, maiatzaren 3ko 2/2006 Lege Organikoa xedatutako hezkuntza sistemaren antolamendu berria ezartzeko. Errege dekretuko 4. artikuluan esaten zenari jarraituz, Haur Hezkuntzako lehen zikloa ezarri aurretik eta, betiere, 2007ko abenduaren 31 baino lehen, Haur Hezkuntzako lehen zikloa ematen duten zentroek bete beharreko baldintzak ezarri behar zituzten hezkuntza administrazioek.

Horrenbestez, Nafarroako Foru Komunitatean honako foru dekretua onetsi zen: 28/2007 Foru Dekretua, martxoaren 26koa, Nafarroako Foru Komunitatean Haur Hezkuntzako lehen zikloa arautzen duena eta hori ematen duten ikastetxeek bete beharreko baldintzak eta ziklo horren hezkuntza edukiak ezartzen dituena.

Foru dekretu horren hitzaurreak hauxe dio:

“Nafarroako Gobernuak foru dekretu honen bidez lortu nahi du Nafarroako Foru Komunitateko Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxeak kalitatezko hezkuntza guneak izatea, desberdintasun pertsonal, kultural eta sozialen konpentsazio gune; era berean, ongi antolatu nahi dira, haurrei, familiekin batean, beren nortasuna eta gaitasunak garatzeko prozesu ezin hobea eskaintzeko, ongizate eta segurtasuneko esparru batean.

Horrekin batera, Nafarroako Gobernuaren nahia da ikastetxeak Foru Komunitateko aniztasun geografiko eta kulturalari egokitutako zerbitzua izatea, antolaketa malgua izanen duena, familiei erantzuteko gai izanen dena, guraso eta langile gisa duten lana bateratzeko erraztasunak emanez”.

Foru dekretuko artikulua lau titulutan daude bilduta:

- I. titulua. Zikloaren antolamendua: ezaugarriak, proposamen pedagogikoa, helburuak, printzipio pedagogikoak, ebaluazio printzipioak eta familiekin elkarlanean aritzea.
- II. titulua. Ekitatea hezkuntzan. Zikloaren prebentziozko eta konpentsaziozko izaera nabarmentzen da eta neurriak zehazten dira hezkuntza laguntzako premia bereziak dituzten ikasleak eskolatu eta ikasle horiei behar bezala erantzuteko.
- III. titulua. Ikastetxeak. Ikastetxeen ordutegia, egutegia, betebeharrak fisikoak eta langileen ezaugarriak zehazten dira eta ikastetxeen parte-hartzea eta autonomia aipatzen dira.
- IV. titulua. Ikastetxeak sortu eta baimentzea. Haur Eskola publikoak sortzeko tramiteak eta prozedura ezartzen dira, eta Haur Hezkuntzako lehen zikloko ikastetxe pribatuak baimentzeko tramiteak eta prozedura.

Xedapen iragankorretan lehenak xedatzen du ikastetxeek, foru dekretuak indarra hartzean 3 urtetik beherako haurrak hartzen badituzte, irakaskuntza hori ezarri (2008/2009 ikasturtea) eta hiru urteko epea izanen dutela eskatzen diren baldintzetara egokitzeko eta ikastetxearen eraketa (udal titulartasuneko ikastetxeen kasuan) edo baimena (ikastetxe pribatuen kasuan) eskatzeko, foru dekretuko IV. tituluan ezarritakoari jarraikiz.

### 4.3.7. Hizkuntzak ikastea

#### 4.3.7.1. Atzerriko hizkuntzak

##### Hezkuntza Departamentuak sustatuko ikaskuntza programak atzerriko hizkuntzetan.

Ikaskuntzako programa eleaniztunetan indarreko curriculumak bi hizkuntzatan edo gehiagotan koordinaturik ematen da. Programa horiek Haur Hezkuntzako bigarren zikloan hasten dira eta Lehen Hezkuntzan eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzan ematen zaie jarraipena.

Horien artean, MEC-BC, TIL eta ingelesezko eta frantseseko atal elebidunak daude.

A ereduak ikasleek, gainera, euskara ikasten dute.

Oro har, ingelesez curriculumeko %35 ematen da (10 saio) A/G ereduak. D ereduak, berriz, %18 (5 saio) Haur Hezkuntzan eta %21 eta %28 artean Lehen Hezkuntzan.

Bigarren Hezkuntzan atzerriko hizkuntza ikasteko programetan, MEC-BC-n eta ingelesezko eta frantseseko atal elebidunetan hizkuntzazkoak ez diren irakasgaiak ematen dira ingelesez edo frantsesez. Ikasleak ikasketa mota hauetan sar daitezke DBHko 1. kurtsoan, behar den hizkuntzan jakite-maila zein den gutxi gorabehera neurtu ondoren.

Frantseseko ataletan, atzerriko bigarren hizkuntza baita, programan frantsesa irakasgaiak sendotzen da DBHko 1. eta 2. kurtsoetan, ordu gehiagorekin. DBHko 3. eta 4. kurtsoetan irakasgai bat edo batzuk ematen dira frantsesez.

147. koadroa - Haur eta Lehen Hezkuntzan eta Bigarren Hezkuntzan programa eleaniztunak ematen dituzten ikastetxeak, 2010/2011 ikasturtea <sup>7</sup>		
Lehen Hezkuntzako ikastetxea	Programan ari diren ikasleak	Zein kurtsoetara arte ematen den
Ermitagaña	89	4 urte
Huertas Mayores IP, Tuter	120	4 urte
Buztintxuri	38	4 urte
Sarriguren	185	4 urte
S Fco Javier (Elizondo)	53	5 urte
Elvira España	479	Osoa
Cardenal Ilundáin	647	Osoa
Azpilagaña	271	Lehen Hezkuntzako 4. kurtsoa
José M <sup>a</sup> de Huarte	109	Lehen Hezkuntzako 1. kurtsoa
Lorenzo Goicoa	183	Lehen Hezkuntzako 1. kurtsoa
Añorbe	42	Lehen Hezkuntzako 3. kurtsoa
Catalina de Foix	260	Lehen Hezkuntzako 1. kurtsoa
Camino Santiago	169	Lehen Hezkuntzako 1. kurtsoa
Doña Mayor	255	Lehen Hezkuntzako 1. kurtsoa
Hilarión Eslava	136	5 urte
Beriain	132	5 urte
S. Miguel, Noain	181	5 urte
Otero Navascués	287	5 urte

<sup>7</sup> Eredua ezin da ikastetxe pribatu-itunduetan aplikatu.



## HEZKUNTZA PROZESUAK ETA POLITIKAK

Remontival	121	4 urte
Rochapea	45	3 urte
<b>Guztira</b>	<b>3.802</b>	
<b>Bigarren Hezkuntza, ingelesa</b>		
Benjamín de Tudela BHI (Tutera)	150	DBHko 4.a
Valle del Ebro BHI (Tutera)	120	DBHko 4.a
Plaza de la Cruz BHI (Iruña)	118	
Toki Ona BHI (Bera)	95	DBHko 4.a
Río Ega BHI (San Adrián)	98	DBHko 2.a
Ibailde BHI (Burlata)	74	DBHko 4.a
Eunate BHI (Iruña)	75	DBHko 4.a
Pablo Sarasate BHI (Lodosa)	54	DBHko 4.a
M. de Villena BHI (Martzilla)	64	DBHko 3.a
Basoko BHI (Iruña)	60	DBHko 3.a
Padre Moret-Irubide BHI (Iruña)	48	DBHko 3.a
Zizurko BHI	100	DBHko 2.a
Navarro-Villoslada BHI (Iruña)	100	DBHko 2.a
Ribera del Arga BHI (Azkoien)	44	DBHko 2.a
Alhama BHI (Corella)	40	DBHko 2.a
<b>Guztira</b>	<b>1.240</b>	
<b>Bigarren Hezkuntza, frantsesa</b>		
Valle del Ebro BHI (Tutera)	56	DBHko 4.a
Mendaur DBHI (Doneztebe)	49	DBHko 4.a
Benjamín de Tudela BHI (Tutera)	50	DBHko 4.a
Eunate BHI (Iruña)	45	DBHko 3.a
Toki Ona BHI (Bera)	21	DBHko 3.a
Zizurko BHI	144	DBHko 3.a
<b>Guztira</b>	<b>365</b>	

*Iturria: Eskolako Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzua*

### Eskolaz kanpoko jarduerak atzerriko hizkuntzan

2010/2011 ikasturtean zehar ondoko jarduerak egin ziren:

<b>148. koadroa - Hizkuntza modernoan jarduerak ikastetxeetan, 2010/2011 ikasturtea<sup>8</sup></b>		
	<b>Saio kopurua</b>	<b>Parte hartu duten ikastetxeak</b>
Lantegiak ingelesez	168 saio (24 lantegi)	24
Ipuin kontalariak ingelesez, Lehen Hezkuntza	72	36
Ipuin kontalariak ingelesez, DBH	69	26

Iturria: Eskolako Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzua

### Programa akademikoa atzerriko ikastetxe batean ikasturteko lehenengo hiruhilekoan DBHko 4.eko ikasleendako

<b>149. koadroa - Programa akademikoa atzerriko ikastetxe batean ikasturteko lehenengo hiruhilekoan DBHko 4.eko ikasleendako, 2006/2007 ikasturtetik 2010/2011ra</b>			
<b>Urtea</b>	<b>Deialdiko postuak</b>	<b>Norakoa</b>	<b>Gauzatutako gastua</b>
2006/2007	30	5 AEB 25 Kanada	85.000
2007/2008	160	9 Irlanda 5 AEB 146 Kanada	345.830
2008/2009	159	7 Irlanda 7 AEB 145 Kanada	376.840
2009/2010	64	Kanada	98.450
2010/2011	110	Kanada	130.000

Iturria: Eskolako Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzua

### Uda atzerrian emateko programa

<b>150. koadroa - Uda atzerrian emateko programa, 2006/2007 ikasturtetik 2010/2011ra</b>			
<b>Urtea</b>	<b>Postuak</b>	<b>Norakoa</b>	<b>Gauzatutako gastua</b>
2006/2007	130	60 AEB 70 Kanada	150.000
2007/2008 (DBHko 4.a eta Batxilergoko 1.a)	288	100 AEB 180 Kanada 4 Frantzia 4 Alemania	345.830
2008/2009 (Batxilergoko 1.a)	341	88 AEB 7 Irlanda 239 Kanada	285.565
2009/2010 (Batxilergoko 1.a)	60	AEB	100.000
2010/2011	72	AEB	93.600

Iturria: Eskolako Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzua

<sup>8</sup> Jarduera hauek ezin dira ikastetxe pribatu-itunduetan garatu.

**Barnetegi ikastaroak, Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleendako:**

**Egunekoak:**

- Lehen Hezkuntzako 3., 4. eta 5.a (ingelesa-): Iruña, Tuter, Lekaroz, San Adrian, Azkoien, Corella, Tafalla, Lizarra eta Zangozan.

**Barnetegiak:**

- Lehen Hezkuntzako 4. eta 5.a (Irunberri -ingelesa-) eta
- DBHko 1., 2. eta 3.a (Irunberri -ingelesa-) eta DBHko 1.etik 4.era (Donibane Lohitzune -frantsesa-)
- 

<b>151. koadroa - Barnetegi ikastaroetako ikasle parte-hartzaileen kopuruaren eta aurrekontu orokorraren bilakaera, 2007. urtetik 2011ra</b>					
	<b>2007</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>	<b>2011</b>
Ikasle parte-hartzaileak	1.176	1.846	2.252	2.526	2.602
Eskabideak, guztira	3.841	4.123	5.042	8.955	5.316
Gauzatutako gastua	151.000	343.917	349.000	292.472	286.496
Hizkuntza	Ingelesa	Ingelesa eta frantsesa	Ingelesa eta frantsesa	Ingelesa eta frantsesa	Ingelesa eta frantsesa

*Iturria: Eskolako Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzua*

**Ikasturtearen barruan ingelesean murgiltzeko English Week programa Lehen Hezkuntzako 4. eta 5.eko ikasle taldeendako.**

<b>152. koadroa - Hizkuntzan murgiltzeko English Week programako ikasle parte-hartzaileen kopuruaren eta aurrekontu orokorraren bilakaera, 2006/2007 ikasturtetik 2010/2011ra</b>					
	<b>2006/2007 (Lehen Hezkuntzako 5.a eta 6.a)</b>	<b>2007/2008 (Lehen Hezkuntzako 5.a eta 6.a eta DBHko 1.a)</b>	<b>2008/2009 (Lehen Hezkuntzako 5.a eta 6.a)</b>	<b>2009/2010 (Lehen Hezkuntzako 4.a eta 5.a)</b>	<b>2010/2011</b>
Ikasle parte-hartzaileak	392	825	1300	1.450	2.175
Eskabideak, guztira	435	1054	2100	2.300	2.697
Esleitutako gastua	53.000	136.125	217.500	216.000	337.125

*Iturria: Eskolako Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzua*

**Mintzapraktikako laguntzaileak ikastetxe publikoetarako**

<b>153. koadroa - Mintzapraktikako laguntzaileen kopuruaren bilakaera, 2006/2007 ikasturtetik 2010/2011ra</b>					
<b>Izangaiak</b>					
<b>Hizkuntza</b>	<b>2006/2007</b>	<b>2007/2008</b>	<b>2008/2009</b>	<b>2009/2010</b>	<b>2010/2011</b>
Ingelesa	37	43	40	37	42
Frantsesa	4	5	3	3	7
<b>Guztira</b>	<b>41</b>	<b>48</b>	<b>43</b>	<b>40</b>	<b>49</b>
<b>Ikastetxeak</b>					
HLHIPak	49	52	36	39	41
DBHI eta BHIak	24	30	17	39	31
<b>Guztira</b>	<b>73</b>	<b>82</b>	<b>53</b>	<b>78</b>	<b>72</b>

*Iturria: Eskolako Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzua*

**Atzerriko hizkuntzetako irakasleendako laguntzak udan egoitza-ikastaroak egiteko**

<b>154. koadroa - Atzerriko hizkuntzetako irakasleendako laguntzak, 2007tik 2011ra</b>					
<b>Irakasleak</b>	<b>2007</b>	<b>2008</b>	<b>2009</b>	<b>2010</b>	<b>2011</b>
Sare publikoa, Lehen Hezkuntza	18	62	38	57	84
Sare itundua, Lehen Hezkuntza	4	7	9	15	20
Sare publikoa, Bigarren Hezkuntza	17	32	46	31	36
Sare itundua, Bigarren Hezkuntza	0	5	2	9	5
<b>Guztira</b>	<b>39</b>	<b>106</b>	<b>95</b>	<b>112</b>	<b>145</b>

*Guztira 94 emakume (%83,9)*

*Gizonezkoak, osotara: 18 (%16)*

*Iturria: Eskolako Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzua*

#### **4.3.7.2. Euskara**

##### **Eskolatzeko hizkuntza ereduak:**

Nafarroako irakaskuntza ez-unibertsitarioan euskararen sartzea eta erabiltzea arautzen duen maiatzaren 19ko 159/1988 Foru Dekretuak, Euskarari buruzko Foru Legea garatuz, A, B eta D hizkuntza ereduak definitzen ditu.

A hizkuntza ereduari gaztelaniaz ematen da irakaskuntza eta euskara irakasgai bezala izaten da, maila, etapa eta modalitate guztietan.

B hizkuntza ereduari zati batean euskaraz ematen da irakaskuntza, gaztelania irakasgai bezala izaten da eta irakasgai batean edo gehiagotan ere irakas-hizkuntza gaztelania da, ikasketen, zikloaren edo etaparen arabera.

D hizkuntza ereduari irakaskuntza osorik euskaraz ematen da, gaztelaniako irakasgaia izan ezik.

Aurrekoek gain, hizkuntza eremuaren arabera, bada G izeneko beste eredu bat, non ez dagoen ez euskarazko ez euskararen irakaskuntzarik.

Aipatutako foru dekretuan eremu euskaldunerako A, B eta D ereduak baimentzen dira eta, beraz, nahitaezkoa da euskararen irakaskuntza; eremu mistorako A, B, D eta G ereduak baimentzen dira eta eremu ez-euskaldunerako A eta G ereduak.

Edonola ere, hezkuntza sisteman sartzean hizkuntza eredu jakin bat aukeratzeko duten ikasleek, eredu horretan berean jarraitu beharko dute eskolatzeko garai osoan. Aldaketarik egin nahi bada behar den ikastetxearen baimena behar da, Departamentuaren aurrean gora jotzeko errekurtsioa sartzeko aukera galarazi gabe. Egoera ez da bera etaparen bukaeran edo etaparen barnean egin nahi bada.

##### **Hizkuntzaren errefortzurako programak eta jarduerak osagarriak eta eskolaz kanpokoak euskaraz**

Irakaskuntza euskaraz edo euskara irakasgai modura ematen duten D, B eta A ereduak ikastetxeei zuzendua.

##### **Euskararen irakaskuntzaren arloko berrikuntza proiektuetarako sariak**

Deialdi honen helburua da berrikuntza proiektuak saritzea. Proiektu horietan antolatu eta planifikatuko dira ikastetxeetan euskararen ahozko erabilera sustatzeko eta plangintza tresnetan ezarritako helburuak erdiesteko egiten diren jarduerak, ikasleek erabilitako erregistro linguistikoaren kalitatea hobetzearen.

- Buztintxuri IP..... 616,20 euro
- Sarrigurengo IP..... 616,20 euro
- Leitzako Erleta IP..... 535,20 euro
- Elizondoko San Francisco IP..... 616,20 euro
- Iruñeko Pedro de Ursua Institutua..... 616,20 euro.

##### **Solaskide programa**

A eta D ereduak DBHko 4.eko eta Batxilergoko 1.eko ikasleei zuzendua.

Euskarazko mintzapraktikako laguntzaileak jartzen dira Euskal Hizkuntza eta Literatura irakasgaiaren barruan, ordu bete astean, 20 astez, ikasleen mintzamen jarduerak indartzeko eta komunikazio gaitasunak hobetzeko.

- Ikastalde kopurua: 56
- Parte-hartzaile kopurua: 1.113
- Kostu ekonomikoa: 45.360 euro

##### **Bertsolaritza irakaskuntzan**

Zuzeneko 30 eskola orduko programa, Lehen Hezkuntzako goi mailako ikasleendako. Helburua ahoz komunikatzeko gaitasuna hobetzea da.

- Ikastaldeak, guztira: 45
- Parte-hartzaileen kopurua: 845
- Kostu ekonomikoa: 28.000 euro.

### **Lagunarteko hizkera erabiltzeko programa**

Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2.eko ikasleei zuzendua. Lagunarteko hizkeran espezializatutako begirale bat 10 orduz aritzen da zuzenean ikasleekin.

- Ikastaldeak, guztira: 11
- Ikastetxeak: 5
- Parte-hartzaileen kopurua: 270
- Kostu ekonomikoa: 11.000 euro.

### **Idazleak eskoletan**

Euskal idazleekin topaketak egiten dituzte ikastetxe publikoetako Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleek.

- Ikastetxe parte-hartzaileak: 16
- Topaketa kopurua: 22
- Kostu ekonomikoa: 4.400.

### **Antzerki topaketak euskaraz**

Eskola antzerkiko topaketak, Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei zuzenduak.

- Gazte Antzerkiaren Topaketak: 3 taldek parte hartu zuten, 38 ikaslek osotara.

### **Zientzia eta teknologia hitzaldiak**

Unitate didaktikoak dira, euskaraz, Bigarren Hezkuntzan ematen diren gai zientifiko eta teknikoegi egokitutako erregistroa dutenak.

- Hitzaldi kopurua: 15
- Ikastetxeak: 15
- Parte-hartzaileen kopurua: 710
- Kostu ekonomikoa: 7.552 euro.

### **Lehiaketak euskaraz**

Sormena eta adierazpena sustatzeko ikastaroak.

**Literatura lehiaketa:** Narrazio eta poesia modalitateak. Lehen Hezkuntzako goi mailako zikloko eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleei dago zuzenduta.

- Parte-hartzaileak, guztira: 461
- Narratiba sariak: 6
- Poesia sariak: 6
- Sariak, guztira: 12

**José María Satrustegi etnografia lehiaketa,** Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako eta Batxilergoko ikasleei zuzendua. Lan bat aurkeztu eta hura saritu da.

**Pedro Diez de Ulzurrun deklamazio eta irrati-gidoi lehiaketa,** Lehen Hezkuntzako bigarren eta hirugarren zikloko eta Bigarren Hezkuntzako lehen zikloko ikasleei zuzendua.

- Grabazioak, guztira: 15
- Sariak, guztira: 2 eta 2 accesit.

**Bertsopaper lehiaketa.** 9 eta 16 urte bitarteko Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikasleendako.

- Parte-hartzaileen kopurua: 1.015
- Ikastetxe kopurua: 32
- Sarituak, guztira: 12

### **Kontu Kontari ipuin kontalariak**

Landa eskoletako Haur Hezkuntzako eta Lehen Hezkuntzako lehen zikloko ikasleei zuzenduta.

- Ikastetxe parte-hartzaileen kopurua: 26

- Kostu ekonomikoa: 4.758

**4.3.8. Europar Batasuneko hezkuntza programak**

Europar Batasuneko hezkuntza programa batzuk zentralizatuak dira eta beste batzuk deszentralizatuak. Zentralizatuak zuzenean Europako Hezkuntza Programen Erakunde Autonomotik (EHPEA) kudeatzen dira eta besteak, deszentralizatuak alegia, Europako Hezkuntza Programen Erakunde Autonomoaren (EHPEA) bidez kudeatzen dira autonomia erkidegoekin lankidetzan. Azken horien artean dago EIP (Etengabeko Ikaskuntzarako Programa).

EIPren helburua da programan parte hartzen duten Europako herrialdeen artean trukea, lankidetzeta eta mugikortasuna erraztea, mundu mailan kalitatearen erreferentzia bihurtu daitezen.

EIP zehazki azpiprograma hauen bidez garatzen da:

- Hizkuntzen eta Arte Ikasketen Zerbitzuak kudeatuak:
  - COMENIUS (Eskolako hezkuntza, Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara)
  - GRUNDTVIG (Helduen Hezkuntza)
  - IKASKETA XEDE DUTEN EGONALDIK (Hezkuntzako kudeatzaileak).
  - Online senidetzeen eTwinning programa Europako ikastetxeen artean, Haur Hezkuntzatik Bigarren Hezkuntzara.
- Hezkuntza Departamentuko beste zerbitzu batzuek kudeatuak:
  - ERASMUS (Unibertsitateak eta Lanbide Heziketa)
  - LEONARDO DA VINCI (Lanbide Heziketa)

<b>155. koadroa - Comenius eta Grundtvig Europako hezkuntza proiektuak, 2010/2011 ikasturtea</b>		
	<b>Onartutako eskaerak</b>	<b>Zenbatekoa</b>
<b>COMENIUS</b>		
Mugikortasunerako laguntzak	39	60.501
Prestatzeko bisitaldiak	2	2.600
Eskola elkarteak	4	65.000
Hizkuntza-laguntzaileak, Comenius	4	18.758
Hizkuntza-laguntzaileak ikastetxeetan hartzea, Comenius	1	4.915
Ikasleen mugikortasuna, Comenius (IMC)	4	3.200
<b>GRUNDTVIG</b>		
Mugikortasunerako laguntzak	5	9.000
Ikaskuntza elkarteak	2	68.000
Laguntzaileak, Grundtvig	2	7.149
Prestatzeko bisitaldiak	0	0,00
Bisitaldiak eta trukeak	3	2.340
Ikasketa xede duten egonaldiak	1	1.300
eTwinning SENIDETZEAK		Ez zaio gasturik lotu, ez baita bisitaldirik, trukearik eta bidaiarik. Proiektu osoa online dagoen plataforma batean egiten da. Ez da aurrez ikusi proiektuan zehar sortutako jarduera edo materialik finantzatzea.

*Iturria: Eskolako Hizkuntza Plangintzaren Zerbitzua Europako Parlamentuko eta Kontseiluko Erabakia, 2006ko azaroaren 15ekoa (1720/2006/CE Erabakia), Europar Batzordeak 2009ko urriaren 15ean Aldizkari Ofizialean argitaratua:*

**Beste ekimen batzuk**

- Atzerriko hizkuntzen irakaskuntzan eta ikaskuntzan berritzaileak diren esperientziei Europako Zigilua sariak.
- Hizkuntzen Europar Portfolioa.
- Komunikazio gaitasuna hobetzeko proiektu pilotua.
- Europass
- European Shared Treasure (EST): Europako datu-basea, helburu duena Comenius, Leonardo eta Grundtvig elkarten artean egindako jardunbide egokiak eta esperientziak biltzea.
- Europako Kontseiluak hezkuntzako profesionalen artean Etengabeko Prestakuntzarako emandako beka programa.
- Trukea postuz postu eta lanbide egonaldiak.
- Prestakuntzako nazioarteko ikastaroak.

<b>156. koadroa - Europako programak Lanbide Heziketan: "Leonardo Da Vinci" eta "Erasmus"</b>					
<b>Leonardo da Vinci programa</b>					
<b>Ikasturteak</b>	<b>2006/2007</b>	<b>2007/2008</b>	<b>2008/2009</b>	<b>2009/2010</b>	<b>2010/2011</b>
Ikasleak	174	136	117	98	149
Irakasleak	6	7	5	6	6
Bestelako proiektuak (kop.)	1	2	2	2	3
<b>Erasmus programa</b>					
<b>Ikasturteak</b>	<b>2007/2008</b>	<b>2008/2009</b>	<b>2009/2010</b>	<b>2010/2011</b>	
Ikasleak	62	46	56	70	

*Iturria: Lanbide Heziketaren Zerbitzua. Berrikuntzaren, Enpresaren eta Lanbide Heziketa Nazioartekotzearen Atala*



### **4.3.9. Ikasleen oinarrizko gaitasunak hobetzea**

#### **4.3.9.1. Ikasleen oinarrizko gaitasunen hobekuntza planaren diseinua (2007-2011) .**

2010-2011 ikasturtean zehar ikastetxeek *Ikasleen oinarrizko gaitasunen hobekuntza planak* diseinatzen jarraitu zuten, egindako ebaluazioen emaitzetatik abiatuta. Planetan ondoko esparruen gaineko ekintzak sartu behar ziren:

- Irakasle guztientzako baterako neurriak hartzea eta koordinatzea.
- Arlo guztien ikuspuntua aberastea ikaskuntzak aplikatzeko jarduerak bilatuz.
- Edukiak aplikatzeko jarduerak ebaluazioetan sartzea.
- Arlo guztientzako komunak diren gaitasunak lantzea (irakurketa, ikasten ikastea, azturak eta balioak, etab.).
- Ikasle guztien hezkuntza arrakasta bilatzea tutoretza lana eta familien eta irakasleen inplikazioa indartuta.

Ikastetxe bakoitzak bere hobekuntza plana prestatzen du bere beharrei eta kanpoko zein barneko ebaluazioetan lortutako emaitzei egokitua.

#### **Lehen Hezkuntzako hobekuntza planak ezartzearen emaitzak.**

Lehen Hezkuntzako ikastetxeak

##### **1.- Ikastetxeen inplikazioa ebaluazio diagnostikoan**

Lehen Hezkuntzako ikastetxe gehienak inplikatu dira ebaluazio diagnostikoaren analisisan, hobekuntza plana ezartzeko. Gutxi gorabehera, ikastetxeetatik %71n zuzendaritza, KPBa eta zikloak inplikatu dira nolabait. Gainera, ikastetxeetatik %18,34an irakasle batzuk inplikatu dira, baina ikastetxeko antolaketa egituratik kanpo.

##### **2.- Porrot egoeran dauden ikasleen azterketa**

Ikastetxeetatik %58an gutxienekoak lortzen ez dituzten ikasleen egoera aztertzen da eta esku hartzeko proposamenak egiten dira. Ikastetxeetatik %22,5ean azterketa egiten bada ere, ez da gero esku hartzen.

##### **3.- Ikasleen prestakuntza beharren diagnostikoa**

Ikastetxeetatik %46,43an ikasleek beren prestakuntzaldian dituzten arazoak eta beharren diagnostikoa egin eta agiri batean islatzen da. Ikastetxeetatik %40an diagnostiko hori modu informalean eta ez oso zehatzean egiten da. Ikastetxeetatik %10,7an ez da diagnostiko hori egiten.

##### **3.- Hobekuntza planak**

Oro har, Lehen Hezkuntzako ikastetxeek (ikastetxeetatik %83,4ak) aurrekoen jarraipena diren hobekuntza planak prestatu dituzte, eta autonomiaz baliatu dira plan horietan sartzen diren alderdi kopurua eta gaitasunak aukeratzeko. Antza denez, ikastetxeetan ohiko gauza bihurtu da urtero hobekuntza planak prestatzea. Halaber, esan daiteke ikastetxeek dagoeneko gainditu dutela lehenengo fasea, alegia, zehaztapenik egin gabe printzipio orokorrak zerrendatzean zetzana. Oso ikastetxe gutxi daude oraindik maila horretan (%7,10). Oro har, ikastetxeek ekintzen zehaztapenak eta xehetasunak ematen dituzte hobekuntza planetan, baina erdiek baino gutxiagok ez dituzte adierazleak sartzen (%40,8k): helburuak betetzen diren eta aurrez ikusitako ekintzak garatu diren ikusteko balio dute adierazle horiek. Planak gehiago bideraturik daude prozesuetara eta ez horrenbeste emaitzetara. Planetako %21,89 soilik daude bideraturik emaitza akademikoak hobetzera.

##### **4.- Ondorioak**

- Lehen Hezkuntzako ikastetxeek errealitatea ezagutzeko eta hobekuntza planak prestatzeko elementu bat gehiago bezala hartu dituzte ebaluazio diagnostikoak. Hala ere, kasu batzuetan, ez da ulertzen ebaluazio diagnostikoak etapa osoan eragina izatea eta uste da bakarrik 4. mailako irakasleei dagokiela.
- Irakasleek badakite zein den ikastetxearen errealitatea eta hobekuntza planak egiteko abiapuntu

- diren beharrak, nahiz eta ikastetxeen erdietan ez den modu zorrotzean diagnostikorik egiten.
- Urteko planen bitartez etengabeko hobekuntzaren kultura ezarri da, nahiz eta urte anitzeko ikuspeirik edo ikuspegi estrategikorik ez dagoen.
  - Ikastetxeetako planetan ekintza zehatz eta errealistak sartzen dira.
  - Hala ere, ia bi ikastetxetik batean ez da prozedura eraginkorrik sartzen planean aurrez ikusitakoa betetzen den jakiteko.
  - Planak gehiago bideraturik daude prozesuetara eta ez horrenbeste emaitzak hobetzera.

#### Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak

##### 1.- Ikastetxeen inplikazioa ebaluazio diagnostikoan

Bigarren Hezkuntzako ikastetxe asko inplikatu dira ebaluazio diagnostikoaren analisisian, hobekuntza plana ezartzeko. Gutxi gorabehera, ikastetxeetatik %78,13an zuzendaritza, KPBa eta departamentuak inplikatu dira nolabait. Gainera, ikastetxeetatik %14an irakasle batzuk inplikatu dira, baina ikastetxeko antolaketa egituratik kanpo.

##### 2.- Porrot egoeran dauden ikasleen azterketa

Ikastetxeetatik %57,81ean gutxienekoak lortzen ez dituzten ikasleen egoera aztertzen da eta esku hartzeko proposamenak egiten dira. Ikastetxeetatik %34,38an azterketa egiten bada ere, ez da gero esku hartzen.

##### 3.- Ikasleen prestakuntza beharren diagnostikoa

Ikastetxeetatik %54,69an ikasleek beren prestakuntzaldian dituzten arazoak eta beharren diagnostikoa egin eta agiri batean islatzen da. Ikastetxeetatik %31,25ean diagnostiko hori modu informalean eta ez oso zehatzean egiten da. Ikastetxeetatik %12,51ean ez da diagnostiko hori egiten.

##### 3.- Hobekuntza planak

Oro har, Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek (ikastetxeetatik %85,94ak) aurrekoen jarraipena diren hobekuntza planak prestatu dituzte, eta autonomiaz baliatu dira plan horietan sartzen diren alderdi kopurua eta gaitasunak aukeratzeko. Antza denez, ikastetxeetan ohiko gauza bihurtu da urtero hobekuntza planak prestatzea. Halaber, esan daiteke ikastetxeek dagoeneko gainditu dutela lehenengo fasea, alegia, zehaztapenik egin gabe printzipio orokorrak zerrendatzean zetzana. Oso ikastetxe gutxi daude oraindik maila horretan (%12,5). Oro har, ikastetxeek ekintzen zehaztapenak eta xehetasunak ematen dituzte hobekuntza planetan, baina erdiek baino zertxobait gutxiagok ez dituzte adierazleak sartzen (%46,87k): helburuak betetzen diren eta aurrez ikusitako ekintzak garatu diren ikusteko balio dute adierazle horiek. Planak gehiago bideraturik daude prozesuetara eta ez horrenbeste emaitzetara. Planetako %21,88 soilik daude bideraturik emaitza akademikoak hobetzera.

##### 4.- Ondorioak

- Bigarren Hezkuntzako ikastetxeek errealitatea ezagutzeko eta hobekuntza planak prestatzeko elementu bat gehiago bezala hartu dituzte ebaluazio diagnostikoak. Hala ere, kasu askotan, ez da ulertzen ebaluazio diagnostikoak etapa osoan duela eragina eta uste da bakarrik DBHko 2. mailako irakasleei dagokiela.
- Irakasleek badakite zein den ikastetxearen errealitatea eta hobekuntza planak egiteko abiapuntu diren beharrak, nahiz eta ikastetxeen erdietan ez den modu zorrotzean diagnostikorik egiten.
- Urteko planen bitartez etengabeko hobekuntzaren kultura ezarri da, nahiz eta urte anitzeko ikuspeirik edo ikuspegi estrategikorik ez dagoen.
- Ikastetxeetako planetan ekintza zehatz eta errealistak sartzen dira.
- Hala ere, ia bi ikastetxetik batean ez da prozedura eraginkorrik sartzen planean aurrez ikusitakoa betetzen den jakiteko.
- Planak gehiago bideraturik daude prozesuetara eta ez horrenbeste emaitzak hobetzera.

#### **4.3.9.2. Bigarren Hezkuntzako ikasleendako hobekuntza plana. Irakurketa plana**

2010-2011 ikasturtean, "Irakurketa hobetzeko plan instituzionala" garatzen segitu da eta ikasturte honetan jarduerak Lehen Hezkuntzako hirugarren ziklora hedatu dira.

Koordinazio eta baimenerako arduradun sareak, bigarren hezkuntzako 8 irakaslek osatuak, funtsean 3 mintegi hauetan egin du lan:

- Irakurriaren ulermenaren garapena Lehen Hezkuntzan: 44 ikastetxetako 87 irakaslek hartu dute parte;
- Irakurriaren ulermenaren garapena Bigarren Hezkuntzan; 30 ikastetxetako 43 irakaslek hartu dute parte;
- Ikastetxe bakoitzean irakurketa plana abiatzea, berrikustea eta eguneratzea; 32 ikastetxetako 282 irakaslek hartu dute parte.

27 modulu eman dira; bertaratu beharreko prestakuntza 72 ordukoa izan da, Iruñean, Tuteran eta Lizarran: 2 orduko 9 modulu, atazak on line egiteko aukera ematen duen Moodle informatika tresna ezagutzera emateko; 3 orduko 10 modulu, irakurketa estrategien gainean; eta 3 orduko 10 modulu, irakurketa prozesuen gainean.

Bertaratu beharreko prestakuntza bukatu ondoren, ikastetxeetan lantaldeak eratu dira eta haiei aholkua eman diete irakurketako tutore taldekoek. Faseak ondokoak izan dira:

1.- Beharren diagnostikoa. Ikastetxeetako lantaldeek lehenik beren ikastetxeko irakurketaren tratamenduaren egoera aztertu zuten adierazle taula batetik abiatuak. Taula horretan, besteak beste, aztertzen dira irakurmena, irakurketa eta IKTak, irakurketaren dinamizazioa, ikastetxeko liburutegia eta ikastetxeko irakurketa planaren kudeaketarekin zerikusia duten alderdi orokorrak.

2. Hobekuntza planaren garapena. Aurreko diagnostikotik abiatuak eta tutorearen laguntzarekin, ikastetxe bakoitzak ikasturte osoko jarduerak plan bat garatu du eta hartan sartu dira irakurmena hobetzeko jarduerak eta irakurketa dinamizatu eta sustatzekoak.

3.- Sistematizazioa eta ebaluazioa. Mintegia bukatzeko, ikastetxeek balantze orokor modura amaierako txosten edo memoria prestatzen dute eta hurrengo ikasturteetako bidezkoetat jotako hobekuntzak proposatzen dituzte.

Laguntza tresna gisa Moodle plataforma erabiltzen jarraitu da, eta horretarako prestakuntza jaso dute parte hartu duten irakasle guztiek.

Egindako ebaluazioak ikusirik, tutore taldeak ondoko oharrak egin ditu:

- 1.- Ikastetxe batean irakurketa plana ezartzea ez da oro har ikasturte batekoa soilik.
- 2.- Ikastetxe bakoitzeko irakurketa plana etengabe eguneratu behar da eta ikasturtez ikasturte helburuak eta jarduerak berriz planteatu behar dira eraginkortasun handiagoa lortzeko.
- 3.- Ikastetxeko planak abiatzeko emandako prestakuntza maiz luzatu behar izaten da ikasturte batean baino gehiagotan, plana ongi sendotzeko eta haren funtzionamendua autonomoa izan dadin.
- 4.- Plan koherente bat garatu ahal izateko, beharrezkoa da ikastetxeko irakasle batzuek prestakuntza osagarria jasotzea, bereziki "Irakurriaren ulermenaren oinarrietan".
- 5.- Azkenik, plana irakurketa hobetzeko tresna eraginkorra izan dadin, nahitaezkoa da Hezkuntza Administrazioaren eta ikastetxeetako zuzendaritzen aldeko laguntza etengabekoa eta suharra izatea.

#### **4.3.10. Informazioaren eta komunikazioaren teknologiak zabaltzea.**

##### **4.3.10.1. Teknologia Berriak eta Hezkuntza Programa (PNTE)**

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalaren ardurapean dago, duela hamar urte baino gehiagotik, PNTE bezala ezagutzen den Teknologia Berriak eta Hezkuntza Programaren kudeaketa. Bertan biltzen dira Nafarroako Gobernuko Hezkuntza Departamentuak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien (IKT) esparruan garatzen dituen hainbat helburu, jarduera, baliabide eta zerbitzu.

PNTE Nafarroako Gobernuaren ekimen berezia da, izan ere, Nafarroako Gobernuaren sare, ekipamendu eta baliabide informatikoen kudeaketa korporatiboan integraturik ez dauden hainbat baliabide sartzen dira PNTEren jarduera esparruaren barruan. PNTEren ezaugarri bereizgarriak hauek dira:

- Bere ardurapeko esparruetan planifikatzeko eta kudeatzeko autonomia.
- Berriazko prestakuntza duten langileak (irakasleak eta irakasle ez direnak) ari dira atalaren ardurapeko esparruetan: zerbitzarien administrazioa eta kudeaketa, sareen kudeaketa, aplikazioen garapena, hezkuntza zerbitzuak instalatzea eta kudeatzea, ikastetxe eta irakasleendako laguntza, sareen eta ekipamendu informatikoen mantentze-lanak, eta abar.
- Ikastetxeetako komunikazio sarearen planifikazioa, kudeaketa eta mantentze-lanak, Nafarroako Gobernuko sare korporatibotik kanpo, eta baita hainbat zerbitzurenak ere: DNS, posta elektronikoaren zerbitzaria, web zerbitzariak, aplikazioen eta datu-baseen zerbitzariak eta abar.
- 2 DLZ (datu lanketarako zentro) berezitu:
  - EDUCA, Nafarroako Gobernuaren sare korporatiboarekin partekatua.
  - PNTE, soilik Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Ataleko langileek kudeatua.
- Irakaskuntzan IKTak curriculumean txertatzeko berriazko ildoen eta programen diseinua eta garapena: urrutiko prestakuntza programa, IKTeetan eta IKTeekin (urrutiko prestakuntza); Teknologia Berrietako Proiektuak, Integra IKT-Eskola 2.0, etab.
- Hezkuntza Departamentuaren ordezkaritza IKTeen eta Hezkuntzaren artean eta abarretan hezkuntza administrazio publiko eta pribatuaren artean antolatzen diren proiektuetan, batzordeetan eta foroetan.
- Software librearen eta teknologia irekien lehentasunezko erabilera bere ardurapeko esparru guztietan. Horrekin kostuak asko aurrezten dira eta Departamentuaren interesen eta beharren arabera hornitzaileak aukeratzeko askatasun teknologikoa dago.

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalaren jarduerako lan esparru edo ildo nagusiak. Haietako bakoitza labur azaldu edo definituko da eta kasu bakoitzean datu eta zifrarik adierazgarrienak emanen dira.

##### **4.3.10.2. Konektagarritasuna**

Konektagarritasuna berebiziko garrantzia duen faktorea da ikastetxeak, irakasleak, ikasleak eta hezkuntza erkidegoko gainerako kideak Informazioaren Gizartean sartzeko, eta bereziki Interneten sartzeko eta sarean lan egiteko. Konektagarritasun egokirako ezinbestekoa da behar bezala diseinatzea sareen azpiegitura eta topologia, banda zabalera ongi kalkulatzeko, konexio lineen mantentze eraginkorra, eta esparru honetan gertatu daitezkeen arazoaren gainean azkar eta eraginkortasunez esku-hartzeko aukera ematen duen sistema. Horregatik ematen dio hain garrantzi handia PNTEk lan ildo horri, jarraian azalduko diren ekimenen eta jardueraren bitartez.

Ikastetxeen egoera konektagarritasunari dagokionez

Txosten hau idazteko garaian, ia ikastetxe publiko guztiek dute Interneteko banda zabala, teknologia desberdinetako konexio berezietekin:

- 227 konexio ADSL, FrameRelay edo irrati (WiMax) bidez.
- 35 konexio zuntz optikoaren bidez, 2011ko bukaeran.

## HEZKUNTZA PROZESUAK ETA POLITIKAK

Tipologia	Banda zabalera	Instalazio kopurua
EDU-1 (ikastetxe handiak, trafiko eskari handikoak)	16 Mb	27
	12 Mb	1
EDU-2 (ikastetxe ertainak)	8 Mb	78
	6 Mb	11
EDU-3 (ikastetxe txikiak, 100 ikaslelik beherakoak)	4 Mb	91
	3 Mb	5
	2 Mb	12
	2 Mb baino gutxiago.	2
Zuntz optikoa (2011/12/31rako aurrez ikusia)		34
Instalaturako linea kopurua		261

Halaber, instalazio hori teknikoki bideragarria den egoitzetan zuntz optiko bidezko konexioak zabaltzen joan dira 2008. ikasturtean zehar. Gorago esan den bezala, 2011ko abenduaren 31n, zuntz bidezko konexioa izanen duten ikastetxeak hogeita hamalau izanen dira, gehienak Iruñerrian eta inguruko herrietan.

2008	2009	2010	2011
ZO-3 ikastetxe	ZO-11 ikastetxe	10 ikastetxe	10 ikastetxe

### Trenza Proiektua

PNTEk epe luzerako hartu duen helburua konektagarritasun unibertsala da, hau da, irakaskuntzarako edo kudeaketarako edozein espaziok izan dezala sareko eta Interneteko konexioa. Helburu hori lortzeko tresna nagusia kableatu egituratuko Trenza Proiektua izeneko da. Proiektu horren bidez ikastetxeei sare kableatuaren azpiegitura zentralizatua ematen zaio: komunikazio armairua, urrunetik kudeatu daitekeen elektronika, segmentazioa azpisareetan (kudeaketa, irakasleak eta ikasleak), proxy-suebaki zerbitzaria eta, zenbait kasutan, zerbitzari bereziak (aplikazioetarako, fitxategietarako, segurtasun kopietarako, etab.).

Kableatu egituratuko Trenza Proiektua zabaltzearen ondorioz, 2011ko abenduaren 31rako ia guztiz osaturik geldituko da instalazio mota hori gomendagarria den ikastetxeen katalogoa (100 ikaslelik gorako ikastetxeak). Ondorioz, Foru Komunitateko unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoetako datu sareen profila ondoko taulan zehazten dena da:

Sare mota	Instalazio kopurua
Kableatu egituratuko Trenza proiektua (edo antzeko instalazioak) komunikazio armairuarekin, elektronika kudeagarriarekin, sare segmentazioarekin eta suebakiarekin	191 instalazio (*)
Sareko kableatu ez-egituratua	63 instalazio (*)
(*) Kasurik gehienetan sareko instalazio bat ikastetxe bati bakarrik badagokio ere, zenbaitetan instalazio batek bi ikastetxeri ematen die zerbitzu. Hau bereziki gertatzen da egoitza berean baldin badaude ikastetxe publiko bat eta DBHI bat eta bietan kableatu egituratu komuna badago. Era berean, badira elkarren artean konektatu gabeko bi egoitza dituzten ikastetxeak eta, horrenbestez, bi instalazio berezitu dituzte.	

Gainera, gero eta handiagoa da konektagarritasunaren eskaria, bai ikastetxeen bai irakasleen aldetik, eta horrek bultzatuta WiFi konexioa instalatu da ikastetxeetako kableatu egituratuko proiektuetan integraturik, base kontrolatzaileen bidez kudeatzen diren haririk gabeko sarbide puntu-multzoen bitartez. Instalazioak egiteaz gainera jadanik daudenak handitu eta hobetu egin dira; ia ehun

ikastetxetan Wifi konexioa dute irakasleek eta ikasleek.

### Sarearen gaineko jarduerak

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalaren lanik handiena ikastetxeek egindako eskaerei erantzutea da, ikastetxeen konektagarritasuna hobetzearekin eta sareak handitzearekin eta modernizatzearekin loturik. Lagin modura, 2010-2011 ikasturtean zehar, Atalak esparru honetan 300 jarduera baino gehiago egin ditu, honela banaturik:

Jarduera mota	Jarduera kopurua
Ikastetxe sortu berrietan kableatu egituratu integrala zerbitzuan jartzea (Trenza proiektua)	5
Sortu berriak ez diren ikastetxeetan kableatu egituratu integrala zerbitzuan jartzea (Trenza Proiektua)	5
Sare handitzeak, WIFI instalazioen handitzeak edo hobekuntzak barne.	30
Zuntz optiko bidezko konexioa instalatzea	10
WiFi instalazio berriak	4
Bestelako jarduerak: sareko harguneak aktibatzea, sareko harguneen atxikipena aldatzea, sareko elektronika konpontzea edo aldatzea, proxy-suebakia instalatzea edo aldatzea, askotariko konponketak, etab.	Gainerako jarduerak

### PNTE sarean egindako hobekuntza keta zerbitzu berriak

Azken bi urtetan oso aldaketa garrantzitsuak egin dira PNTE sarearen egituran eta topologian. Sare horren barruan daude Hezkuntza Departamentuaren mende dauden unibertsitatez kanpoko ikastetxe publikoak. Egindako aldaketa nagusiak hauek izan dira:

- PNTEren sare osoko segurtasuna sendotu da. Horretarako, haren arkitektura aldatu da eta zona desberdinak, suebaki berriak eta aktibo/pasibo zerbitzuarekin hornitutako sistema ezarri da.
- "QOS" izeneko zerbitzaria instalatu da; bertatik pasatzen da ikastetxe guztiek eragindako Interneteko trafikoa. Zerbitzari honek trafiko osoa aztertzen du eta destinoko zerbitzuaren arabera sailkatzen du. Jarraian, banda zabalera desberdinak esleitzen ditu, trafiko zuzenari lehentasuna ematen dio eta portu ezezagunen trafikoa zigortzen du, hala nola, nahi ez den trafikorako, birusak hedatzeko, P2Prako eta abarrerako erabiliak.
- Alderantzizko proxy bat instalatu da eta horrekin ikastetxeen arlo lokalean instalaturiko zerbitzariak ikusgarri geratuko dira Interneten eta hezkuntza erkidegoek sartzeko izanen dute instalaturiko zerbitzuetan eta haiendako garatuko diren edukietan.
- Posta elektronikoa saneatzeko sistema berria gehitu da, Iron Port deitutakoa; PNTEren sarearendako eta/edo erabiltzaileendako kaltegarriak gerta daitezkeen posta guztiak iragazten ditu.
- Ikastetxeek Internetera ateratzeko duten banda zabalera handitu da hamar komunikazio linea berri biltzen dituen paketearen bitartez.

Aurreko jardueretan oinarrituriko hainbat proiektu garapen prozesuan daude, ikastetxe publikoen eskura dauden zerbitzuak hobetzeko:

- Ikastetxeek proxy-suebaki zerbitzaria kudeatzeko aukera mugatua izan dezaten aplikazio baten diseinua.
- Ikastetxeetako zerbitzariendako backup sistemaren garapena. Zerbitzari horien daturik garrantzitsuenak PNTEko datuen prozesu zentroan kopiatuko dira.

#### 4.3.10.3. Ekipamendu informatikoa

Ikastetxeen ekipamendu informatikoari buruzko eskumena Erosketa Bulegoarena da; bulego hori

lehenago Obren eta Mantentze Lanen Zerbitzukoa zen eta orain Hezkuntza Azpiegituren Zerbitzukoa. Hori hala izanik ere, komeni da dotazio arloko lehentasunezko ildo hauek anotatzea (IKT Integra programari dagokiona sartu gabe):

- Mahai gaineko ordenagailuz hornitzea ikastetxe sortu berriak. Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeek hezkuntza etapa horietako ikasgela bakoitzeko ordenagailu bat jaso dute.
- Ikasgela berezietarako (informatika, musika, plastika, lantegia) proiektagailuz eta arbel digitalez hornitu dira ikastetxe sortu berriak edo asko handitu direnak.
- Ikastetxeak ordenagailu eramangarriak eramateko gurdiez progresiboki hornitzea, ekipamendu hori gomendagarria gertatzen denean arrazoi hauek tarteko: berariazko geletarako toki eza, ekipoak ordezkatu beharra, lapurtutako ekipoak berriro jartzea, etab.

#### **4.3.10.4. IKTak curriculumean integratzea**

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Ataleko lan ildo nagusietako batek hezkuntzako prozesuetan eta ikasgeletako egunerokotasunean IKTak erabiltzearekin du zerikusia. Atalak jarraian deskribatzen diren ekimenak eta jarduerak bultzatzen ditu.

##### **Teknologia berrien proiektuak**

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalak ikastetxe publikoetara bideraturiko proiektuak bultzatu ditu. Haien xede nagusia da IKTen erabilera hezkuntza ikerketa egitea eta IKT baliabideak berarekin dituzten hezkuntza materialak sortzea. Proiektu hauen garapenean oso garrantzitsua da ILZetako teknologia berrietako aholkulariek egindako errebisioa eta, hala behar denean, emandako laguntza eta prestakuntza; aholkulari horiek aipatutako ataleko irizpideekin elkarlan estuan aritzen dira.

2009/2010 ikasturtea		2010/2011 ikasturtea		2011/2012 ikasturtea		Guztizkoak	
Ikastetxeak	Irakasleak	Ikastetxeak	Irakasleak	Ikastetxeak	Irakasleak	Ikastetxeak	Irakasleak
12	105	12	94	13	114	37	313

##### **Beste hezkuntza administrazio batzuekin koordinatzea**

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalak abiatu dituen ekintzarik garrantzitsuenak ondokoak dira:

- HZMtik eta autonomia erkidegoetatik sortutako proiektu eta programetan parte hartzea: Eskola 2.0 programako batzorde teknikoa, edukien, prestakuntzaren eta Agrega proiektuaren batzordeak.
- Madrilgo Eskola 2.0 I. Biltzarrean parte hartzea txosten batekin eta 12 irakaslerekin.
- Zaragozako Eskola 2.0 II. Biltzarrean parte hartzea 2 txostenekin eta 16 irakaslerekin.
- Granadako Eskola 2.0 III. Biltzarrean parte hartzea 3 txostenekin eta 2 irakaslerekin.

##### **Curriculumeko gaitasunak eskuratzearekin lotutako jarduerak**

Hezkuntza Departamentuak curriculum gaitasunen garapenarekin zerikusia duten zenbait ekimen egin ditu eta horiek lortzeko Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalak laguntza eta zerbitzuak eman dizkio. Horren adibiderik aipagarriena Irakurketa Gaitasuna Hobetzeko Plana da. Plan horren antolaketa eta garapena PNTEk kudeatutako Moodle online tresnari esker egiterik izan da.

#### **4.3.10.5. Prestakuntza**

Irakasleen prestakuntza beste elementu gako bat da, konektagarritasunarekin eta ekipamendu informatikoaren hornidurarekin batera, hezkuntzaren esparruan IKTak sartzeko eta erabiltzeko prozesu guztietan. Horrexegatik dira garrantzitsuak Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalak irakasleendako prestatutako ekimenak eta jarduerak, hots, ondoko epigrafean zehazten

direnak.

PNTeren urrutiko prestakuntza programa

PNTeren urrutiko prestakuntza programa 25 jardueraz osatu da 2010-2011 ikasturtean. Jarduera horiek, guztiak ere online, bost prestakuntza ibilbidetakoak izan dira:

- Informatikako ibilbidea: ikastaro 1.
- Telematikako ibilbidea: 4 ikastaro.
- Ofimatikako ibilbidea: 3 ikastaro.
- Irudiko eta Multimediaiako ibilbidea: 3 ikastaro.
- IKTak curriculumean integrazteko ibilbidea: 9 ikastaro.

Agertu ditugun datuetan ageri den bezala, PNTEk irakaslanari aplikatutako IKTei buruzko prestakuntzaren aldeko apustu argia egin du, horrek duelako irakasleen hezkuntza jardueraren gainean eraginik argiena eta positiboena. Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalaren asmoa da hurrengo urteetan lan ildo hau sendotu eta zabaltzea.

PNTeren asmo sendoa da online ematen den prestakuntza handitu eta dibertsifikatzea, azkeneko urte hauetan aurrekontuko murrizketek ikastaroetan mugak ezarri badituzte ere, esate baterako, pertsona berak ikasturtean zehar egin ditzakeen ikastaro kopuruan eta prestakuntza jarduera bakoitzari dagozkion postu kopuruan.

Online prestakuntzari buruzko datu estatistikoei dagokienean aipatzekoak dira zenbait zifra esanguratsu (2010/2011 ikasturtera arte):

- Osotara 2.812 irakaslek eman dute izena prestakuntza jardueretan 2010-2011 ikasturtean.
- Aldi horri dagokion parte-hartze tasa (hau da, matrikulatu den online ikastaroa hasten duten irakasleen ehuneko) %85etik gorakoa da. Bestalde, ziurtatze tasa %73 ingurukoa da, irakaskuntza mota hauen batez bestekoak oso gainditzen dituzten ehunekoak.
- PNTeren online prestakuntza programa 1998-1999 ikasturtean hasi zenetik gaurdaino, osotara, 41.138 prestakuntza jarduera egin dira.

Online prestakuntzarekin zerikusirik duten PNTeren etorkizuneko proiektuen artean ondoko hauek daude:

- PNTeren online ikasgela berri eta hobetzea. Ikasgela erabat aldatzeko asmoa dago zerbitzu eta funtzionaltasun berriekin eta seguruenik oso-osorik Moodle plataforman txertatuko da.
- PNTeren online ikasgela berri eta hobetzea Moodlen. Ikasgela birtual berri bat instalatu da, aplikazio horren 2.1.1 bertsioarekin. Txosten hau idatzi bitartean ikasgela berriaren aukerak aztertzen, garatzen eta ebaluatzen ari dira, ikasgelan aurreko bertsioan dauden ikastaroak hartara migratzeko asmoa dago eta, orobat, irakasleei zerbitzu berri eta hobetuak eskaintzekoa.
- Blog zerbitzu berri bat irakasleen eskura jartzea, hain zuzen ere webgune mota hori erabili beharreko PNTeren prestakuntza jardueretan parte hartzen dutenen eskura. Zerbitzu berri hori 2010eko abuztuaren erdialdetik hona erabil daiteke funtzionaltasun osoarekin.

### **Prestakuntza ILZetan**

2010-2011 ikasturteko Irakasleen Prestakuntza Planaren barruan, Irakasleentzako Laguntza Zentroek (ILZ) hainbat prestakuntza jarduera jarri dituzte martxan IKTei eta IKTak curriculumean txertatzeari buruz. Esparru horri buruzko datuen artean hauek dira azpimagarrienak:

	<b>2009/2010 ikasturtea</b>	<b>2010/2011 ikasturtea</b>
Prestakuntza jarduerak	56	107
Izen-emateak	812	1431
Ziurtagiriak	644	1056

### **Prestakuntza Integra IKT-n.**

Integra IKT proiektuko parte diren irakasleen prestakuntzako jarduerekin zerikusia duten kontuetarako, ikus txosten honetako 4.3.10.8 epigrafea.



### 4.3.10.6. Hezkuntza edukiak garatzea

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalaren lanaren zati handiak hezkuntza edukien garapenarekin du zerikusia. Garapen hori Hezkuntza Departamentuak eta bere administrazio unitateek, eta ikastetxeek edo irakasleek aurrera eramaten dute eta, orobat, egiten da beste hezkuntza administrazio batzuen ekimenekin (HZM, autonomia erkidegoak) edo enpresa pribatuarekin elkarlanean. Jarraian labur azaltzen dira jarduerarik azpimarragarrienak.

- Aurtengo ikasturterako "AGREGA 2" izeneko bertsio berria garatzen ari da; bertsio berriak hobekuntza handiak ditu funtzionaltasun orokorrean eta interfazeetan.
- Webguneak sortzea ikastetxeentzako eta Hezkuntza Departamentuaren mendeko administrazio unitateentzako. PNTEk estrategia bat garatu du, zeinaren bitartez web dinamiko bat eskatzen duten ikastetxe eta administrazio unitate guztiek "gakoa eskuan" lortzerik duten, hau da, instalaturik, behar bezala konfiguraturik eta funtzionaltasun guztiak zerbitzuan, baldin eta eskatutako aplikazio guztiak ezagunak badira PNTEren teknikarientzako eta beren zerbitzarietan erabilitako teknologiek bateragarriak badira. Estrategia honi esker hezkuntza edukiak dituzten web anitz garatu ahal izan dira ikastetxeetan (horien guztien artean azpimarratzekoak dira ia 60 ikasgela birtual, denak Moodle-rekin eginak edo ikastetxeetako atariak egiteko erabiltzen den Joomla! aplikazioaren 60 instalaziotik gora) eta hezkuntza erkidegorako ekimen interesgarriak.
- Ikastetxeetako sare lokalen zerbitzarietan instalaturik dauden aplikazio, zerbitzu eta edukiak Interneten argitaratzeko aukera emanen duen sistema baten garapena. Sistema 2009-2010 ikasturtearen azken hilabeteetan garatu da eta 2010-2011 ikasturtearen hasieran indarrean sartu zen IKT Integra proiektuko lehen bi faseetan parte hartu duten 41 ikastetxeetan. Geroago, sistemak aukera emanen du ikastetxe interesdun guztiek funtzionaltasun hori eskura izan dezaten.
- Arbel digital elkarreragilerako (ADE) 10 unitate didaktiko sartzea Lehen Hezkuntzako Edukien Atarian Gaztelania, Matematika eta Ingurunearen Ezaguera arloetan.
- AGREGA 3 unitate didaktiko sartzea Bigarren Hezkuntzako lehen ziklorako; unitate horiek Nafarroako sistema geografikoarekin (SITNA) zerikusia izanen dute.
- Online erako prestakuntza programarako edukiak garatzea. Jarduera honen garrantzia ikusita, txosten honen 4.3.10.5 epigrafean xeheki azaldu da.

### 4.3.10.7. Hezkuntza Departamentuko hezkuntza ataria garatzea

PNTEk bere langile eta zerbitzuekin Hezkuntza Departamentuaren ataria eta hango aplikazioak garatzen, eguneratzen, kudeatzen eta mantentzen laguntzen du. Esparru honetan, azkenaldian egin diren jarduerarik adierazgarrienak ondokoak dira:

- Zerbitzarien azpiegitura berrira migratu da ataria prestatzeko erabiltzen den edukiak kudeatzeko aplikazioa. Jarduera honekin bat eginez, datuak eta aplikazioak ahal denean isolatzeko irizpidea abiatu da, sareko zona babestuan burutzen eta biltegitratzen diren aplikazio eta datuetarako kanpoko argitaratzaileen bidez. Horrez gainera, edukiak kudeatzeko sistemaren softwarea (Infoglué) eguneratu da –programa horrekin egiten da Hezkuntzako ataria–, Departamentuko eta PNTEko atarietan berri kanalak (RSS) gaitu dira eta atari horretan informazioa argitaratzen duten administrazio unitateei esleitutako editore berriei prestakuntza eman zaie.
- [educacion.navarra.es](http://educacion.navarra.es) domeinua zerbitzuan jartzea, erabiltzaileentzat lehengoa ([pnte.cfn Navarra.es](http://pnte.cfn Navarra.es)) baino argiagoa delako. Domeinua aldatzearekin batera web zerbitzarien izenak ere eguneratu dira eta webguneetako URLak aldatu dira.
- Zerbitzu eta aplikazio berrien garapena. Horien artean aipatzekoak dira praktikak egiten ari diren funtzionarioen nahitaezko prestakuntzarako eskaerak jasotzen dituen web formularioa, Teknologia Berrien proiektuak kudeatzeko eta jarraipena egiteko aplikazioa eta Irakasleentzako Prestakuntza Plana kudeatu eta jendaurrean jartzeko beste aplikazio baten garapena.
- Hezkuntzako atarian eta Nafarroakoan argitaratutako informazio mota zenbait koordinatzea, bikoizketak eta funsgabetasunak saihesteko.

Webguneak eta web aplikazioak ekoizpen inguru bakarrean integratzeko prozesu baten lehen urrats modura, PNTEren webgunea tresna berri batera (**Liferay**) migratzen hasi da eta espero da hark oraingo CMS (Infogluue) eta beste aplikazio batzuk osorik ordezkatzeko.

Liferay hizkuntza anitzeko atarien kudeatzailea da eta, horretaz gainera, aukera ematen du web edukien elkarlanerako eta kudeaketarako tresnak antolatzeke eta, besteak beste, beste aplikazio batzuk integratzeko edo haietan integratzeko.

Lehen jarduera ondokoa da:

- PNTEren webgunea web publiko batez eta erkidego pribatu batez ordezkatzeko; erkidego pribatu horretan sartzetik izanen dute PNTEren zerbitzuren bat erabiltzen duten Educa-ko jarduneko irakasleek.
- Ikastetxe publikoei aurretik zehaztutako egitura izanen duen webgune publiko bat izateko aukera eskaintzea. Testu bakar batzuk sartzeko aski izanen da Interneten agertzeko.
- Atarien kudeatzailea kautotze sistema zentralizatuan (LDAP) integratzeko.

Epe laburrera edo epe erdira ingurune bakar bat eskura izan daiteke eta hartan kudeatu:

- Webgune publikoak: Departamentukoak, ikastetxeetakoak, irakasleenak (pertsonalak edo erkidegoak)
- Webgune pribatuak: PNTEren kudeaketa aplikazioen eta ikastetxeetako intraneten integrazioa...

LDAP Educan txertatuz gero, aukera izanen da, batetik, gune eta edukietara nola sartzeko den kontrolatzeko, bisitariaren profilaren (dela anonimoa, dela irakaslea, dela ikaslea, dela zuzendaritzako kidea) edo ikastetxe batean edo bestean duen destinoaren arabera eta, bestetik, gune eta erkidegoak kudeatzeko.

#### 4.3.10.8. Integra IKT proiektua

Integra IKT proiektua Hezkuntza Departamentuaren apustua da (HZMren Eskola 2.0 proiektuaren analogoa sorrerari, diseinuari eta funtsezko ezaugarriei dagokienez) ikasgeletan, irakasleen eguneroko lanean, IKTak metodologian eta curriculumean integratzeko. Proiektuaren funtsezko xedea da ikastetxe publikoetako eta itunduetako Lehen Hezkuntzako 3. zikloko (5. eta 6. mailak) ikasleen gaitasun digitalaren garapenari bultzada ematea. Azken urteetan IKTak curriculumean txertatzeko Nafarroako Foru Komunitatean egin diren ekimenetan handiena da hau. Horrexegatik du txosten honetan tarte berezia.

Gaur den egunean eta aurrekontuko diru-esleipenen ondorioz, lau fase burutu dira.

##### **Proiektuaren ezaugarriak.**

Integra IKT proiektuaren ildo nagusiak ondoko helburu eta xedeetan laburbiltzen dira:

1. Ikasgela digital bihurtzea ikastetxe publikoetako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. kurtsoetako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2.eko ikasgela guztiak.
2. Ordenagailuz hornitzea diru publikoarekin ari diren ikastetxeak, haietan arestian aipatutako kurtsoetan matrikulaturik dauden ikasle guztiek bakarka erabiltzeko.
3. Lehen Hezkuntzako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako ikastetxeetako irakasleentzako eta IKTen koordinatzaileentzako prestakuntza jarduerak eskaintzea eta garatzea, horrela, programaren barruko hezkuntza baliabideak modu zabal eta eraginkorrean erabiliko direla bermatzeko.
4. Hezkuntza eduki digitalak garatzea, irakasleen eskura uzteko.

Integra IKT proiektuaren hasierako planteamenduak ezartzen zuen IKTen banakako erabilerak eskola orduen %25 baino goragokoa izan behar zuela, gutxienez curriculumeko arlo hauetako hirutan: Gaztelania eta Literatura eta, hala badagokio, Euskal Hizkuntza eta Literatura; Matematika; Natur, Gizarte eta Kultur Ingurunearen Ezagutza; Arte Hezkuntza; eta Atzerriko Hizkuntza.

Halaber, proiektuaren hasierako planteamendu hartan "ikasgela digitalen" sorrera ezartzen zen, eta dotazio ezberdinak zehazten aukera ekonomikoaren eta proiektuaren bilakaeraren arabera. Ikasgela horien profila ondoko dotazioari dagokio:

- Tablet PC bat edo minieramangarri bat ikasleko (lehenengo fasea).

- Irakasleentzako tablet PC bat ikasgelako, portu erreplikatzailea, kanpoko DVD irakurgailu/grabagailua eta eskanerra dituen (lehenengo fasea). Proiektuaren bigarren fasean abiaturik konfigurazio hau aldatu da eta haren ordez mahaigaineko PC bat dagokio ikasgela bakoitzari.
- Bideo-proiektagailu finkoa, pantaila eta bozgorailuekin, 5.eko edo 6.eko ikasgela bakoitzeko. Ekipamendu horren ordez arbel digital elkarreragilea (ADE) paratu zen 2010. urtea bukatu baino lehen.
- Dokumentuen irakurgailu digital bat ikasgelako.
- Tabletak gordetzeko eta bateriak kargatzeko orga-armairuak, tablet kopuruagatik hala behar denean (lehenengo fasea).
- Sareko konexioa paratzea eta elektrizitate instalazioa hobetzea halakorik behar den ikasgeletan.
- Esperientzia hau garatzeko zerbitzari bat ikastetxeko, sarean lan egiteko aukera ematen duten aplikazioekin (lehenengo eta bigarren faseak).

Integra IKT programan sartzen diren ikastetxeen proiektuak eta esperientziak beren hezkuntza esparruetan garatzen badira ere, Hezkuntza Departamentuak IKT Integra proiektu berekitzat hartzen du eta horrek guztientzako komunak diren jarduera ildo batzuk bultzatzen ditu:

- Berriazko prestakuntza plana, bai irakasleentzako bai proiektuen koordinatzaileentzako.
- Baliabide didaktiko digitalak eta orientabide metodologikoak.
- IKTen koordinatzailearen figura sortzea parte hartzen duen ikastetxe orotan.
- Jardunaldi presentzialak koordinatzea, ikasgeletako esperientziak, hobekuntza proposamenak eta abar batera jartzeko.
- Proiektuetako bakoitzari Lehen Hezkuntzako eta teknologia berrien aholkulariak esleitzea.
- Web aplikazioak eta ikasgeletan baliabide didaktikoak erabiltzeko aplikazioak garatzea eta egokitzea.
- Lankidetzarako eta elkarlanerako online toki birtual bat jartzea parte hartzen duten irakasleen eskura. Toki hori irakasleentzako erreferente bat da bertan web baliabide mota oro aurki daitekeelako, arloka banaturik, ADEekin eta tabletekin lan egin ahal izateko.

### **Integra IKT proiektuaren ezarpen faseak.**

2008-2009 eta 2009-2010 ikasturteetan Integra IKT proiektua modu esperimentalean jarri da martxan, hurrenez hurreneko bi faseetan, eta osotara alde aurretik ezarpen proiektua aurkeztu zuten 41 ikastetxetan eragin du (10 ikastetxetan lehenengo fasean eta beste 31 gehiagotan bigarrean). Bigarren faseko dotazioak ikasgelak proiektuan ezarritako "ikasgela digitalaren" eredua egokitzea ekarri zuen.

2010eko ekainean, aurrekontua berriz handitu zen programa ikastetxe publiko eta itunduetan zabaltzeko. Horrek berarekin ekarri zuen hirugarren ezarpen fase bat, 5. mailako ikasgela guztiak "ikasgela digitalaren" eredura nagusiki egokitzeko. Azkenik, 2011ko aurrekontu esleipenarekin, laugarren fase bati ekin zaio Nafarroako ikastetxe publiko eta itundu guztietako Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako ikasgela guztiak digitalizatzeko.

Ahalegin handia egin behar izan da horniduran, antolaketan eta prestakuntzan.

### **Irakasle parte-hartzaileen prestakuntza.**

2008-2009, 2009-2010 eta 2010-2011 ikasturteetan eta 2011-2012 ikasturterako programatutakoetan, berriazko prestakuntza plana burutzen ari da. Plan hori batera diseinatu dute Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalak (IKT) eta Irakasleentzako Laguntza Zentroek (ILZ) IKT koordinatzaileendako eta IKT Integra proiektuan parte hartzen ari diren irakasleendako. Prestakuntza hori kaskadan egin da: lehenengoz, aholkulariek eta koordinatzaileek prestakuntza Iruñeko ILZn jasotzen dute, bertaratuz, eta gero haiek arduratzen dira ikasitakoa beren ikastetxeetako irakasle taldeei egokitzen eta transmititzen.

Prestakuntza plan hau osorik IKTen Ataleko eta ILZetako langileek eman dute eta, halaber, unitate horietako langileek jarraipen presentziala egin dute programa ikasgeletan martxan nola jarri den begiratzeko. Prestakuntzaren edukiak lau bloketan banatuta daude:

- Zuzenean Integra IKT proiektuarekin loturiko ekipo eta aplikazioak.
- Ikasgeletan erabilera didaktikoa eman dakien proposatutako programa eta aplikazioak.
- Web 2.0.
- Metodologia eta praktikak ikasgelan.

Proiektuan parte hartzen dutenen esperientziak alderatu eta trukatzeko xedez, 2010eko eta 2011ko maiatzean IKTren erabilerarekin zerikusia duten jardunbide egokien jardunaldiak egin ziren. Jardunaldi horietan parte hartu zuten Integra IKT proiektuko lehen bi faseetan parte hartu zuten koordinatzaileek eta irakasleek eta ILZetako arloko eta teknologia berrietako aholkulariek. Lehen jardunaldian hizlari modura parte hartu zuten lehen faseko 10 ikastetxek. Bigarrean 12 ikastetxek beren esperientziak kontatu zituzten eta 100 irakasle inguru bertaratu ziren.

Prestakuntza plan horretan proposatutako prestakuntza jardueraz gain, irakasle guztiek dute Irakasleen Prestakuntza Planeko jardueren bidez prestatzeko aukera. Izan ere, IPPan sartuta dauden hainbat prestakuntza jarduera, bai bertaratu beharrekoak bai online direnak, guztiz bateragarriak dira Integra IKT proiektuaren planteamenduekin; horien artean hauek dira aipagarrienak:

- Piki: Interneteko atariari erabilera didaktikoa ematea.
- Jcllic.
- Web 2.0, aplikazio didaktikoak.
- Webquest: Internetekin ikertzeko estrategia.
- ADEaren funtzionamendua eta mantentzea.
- Agrega, hezkuntza objektu digitalen plataforma.
- Teknologia berriak, idazteko zaletasuna zabaltzeko.
- Teknologia berriak, Ingelesa irakasteko.
- Prentsa hezkuntza baliabide gisa.
- Teknologia berriak, irakurtzeko zaletasuna zabaltzeko.
- IKTak curriculumeko arloetan txertatzeko metodologiak irakasten dituzten beste ikastaro presentzial batzuk.

Hirugarren eta laugarren faseetan, arbel digitalari buruzko prestakuntzari dagokionez, lehiaketa irabazi duen enpresak ikastaroak programatu ditu; ikastaro horiek tutore batek bideratuko ditu online, Moodle plataforma erabiliz horretarako.

Hirugarren fasearen barnean, urtariletik maiatzera bitartean ikastaro bat egin da, online; 35 ordu ziurtatu dira eta ikastaro horretan ADEren alderdi tekniko eta metodologikoei buruzko edukiak landu dira. 450 irakaslek hartu dute parte eta horietatik 300ek ziurtagiri positiboa eskuratu dute.

Laugarren faserako prestakuntza III. faserakoaren antzekoa izanen da eta 2011-2012 ikasturteko lehen hiruhilekoan egingen da.

INTEGRA IKT Eskola 2.0 BILAKAERA  
Lehen Hezkuntzako 5. eta 6. mailako datuak

Ikastetxe publikoen kopurua	159
Ikastetxe publikoetako ikasgela kopurua	473
Ikastetxe publikoetako ikasle kopurua	7.898
Ikastetxe publikoetako irakasle kopurua, gutxi gorabehera	1.200
Ikastetxe itunduen kopurua	50
Ikastetxe itunduetako ikasgela kopurua	187
Ikastetxe itunduetako ikasle kopurua	4.604
Ikastetxe itunduetako irakasle kopurua, gutxi gorabehera	900

## HEZKUNTZA PROZESUAK ETA POLITIKAK

2009-2010 / 2010-2011 ikasturteak	I. FASEA	II. FASEA (*)	III-IV. FASEA (**)		%	FASEAK, guztira
<b>Ikastetxe publikoak</b>						
Ikastetxe kopurua	10	31	118		%100,00	159
Ikasgela kopurua	37	126	310		%100,00	473
Ikasle kopurua	364	1.964	5.570		%100,00	7.898
Irakasle kopurua	75	229	896		%100,00	1.200
<b>Ikastetxe itunduak</b>						
Ikastetxe kopurua	9		50		%100,00	50
Ikasgela kopurua	20		167		%100,00	187
Ikasle kopurua	424		4.180		%100,00	4.604
Irakasle kopurua	46		854		%100,00	900
<b>GUZTIZKOAK (NAFARROA)</b>						
Ikastetxe kopurua	19	31	168		%100,00	209
Ikasgela kopurua	57	126	477		%100,00	660
Ikasle kopurua	788	1.964	9.750		%100,00	12.502
Irakasle kopurua	121	229	1.750		%100,00	2.100

(\*) (\*\*) II., III. eta IV. FASEETAN ez dira ikasleak ordenagailu eramangarri txikiez hornituko. Hala ere, ikasgelan aurrez ikusitako hornidurarekin, ikasgela horietako ikasleek aktiboki parte hartzeko aukera izanen dute Internet eta hezkuntza eduki digitalak erabili beharreko jardueretan.

### 4.3.10.9. Informazioa eta bestelako zerbitzuak kudeatzea, Hezkuntza Departamentuarendako.

PNTEK, bere ezaugarriak direla medio –berezko langile teknikoak, zerbitzariak eta datu lanketarako zentroa ditu–, Hezkuntza Departamentuari eta Departamentuko ikastetxe eta irakasleei hainbat zerbitzu ematen dizkie. Jarraian zerbitzu horien esparruak azaltzen dira.

#### EDUCA

Educa hezkuntza kudeaketarako web aplikazio zentralizatu da. Hezkuntza Departamentuak 2002-2003 ikasturtetik erabiltzen du. Aplikazio horren bidez eskolatzearekin lotutako datuak kudeatzen dira eta unibertsitatez kanpoko ikastetxe publiko eta itundu guztien hezkuntza kudeaketako ataza ohikoenak egiten dira. 2002-2003 ikasturtean Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxe publikoetan ezarri zen, 2007-2008 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoetan eta 2011-2012 ikasturtean Musika Kontserbatorioetan eta Urrutiko HEOn. Pixkana-pixkanaka ezartzen joan da ikastetxe itunduetan (onarpena, hezkuntza premiak, egutegia, etab.) departamentuaren oinarritzko prozesuak kudeatzeko ikastetxe itundu guztiak EDUCAn sartuz (25/2011 FORU AGINDUA, otsailaren 10ekoa).

EDUCA-ren EZARPENA		
2003/2004 ikasturtea	2007/2008 ikasturtea	2010/2012 ikasturtea
Haur eta Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	Bigarren Hezkuntzako ikastetxe publikoak	Kontserbatorioak, NUHEO, ikastetxe itunduak

PNTE arduratzen da aplikazioaren programazioaz eta mantentzeaz, aplikazioaren kokaleku diren zerbitzariak eta, bestetik, aplikazioa eta aplikazio barruko datuak kudeatzeaz. Ekintza horiez gainera, Educa-ren garapenean beste jarduera batzuk sartzen dira, hala nola, erabiltzaileei prestakuntza ematea, aplikazioa egoki mantentzea eta ikastetxeei eta erabiltzaileei laguntza ematea.

#### **Hezkuntzako informazioaren kudeaketa: Estatistika.**

Berari dagozkion eskumenetan, Ikastetxeetako Informazioa Kudeatzeko Bulegoak, besteak beste, ondokoak egiten ditu:

Hezkuntzaren estatistika prestatzea HZMarentzako eta Nafarroako Estatistika Institutuarentzako. Beken estatistika prestatzea.

- Informazio triptikoa prestatzea.
- Ikuskapen Zerbitzuarentzako emaitza akademikoen estatistika prestatzea.
- Nafarroako Eskola Kontseiluarentzako datuak lortzea.
- Hainbatengandik jasotako datu eskariei erantzutea: Nafarroako Parlamentua, Arartekoa, sindikatuak, irakasleak, argitaletxeak, etab.
- Datuak lortzea Hezkuntza Departamentuaren antolaketa beharretarako.
- Gobernuko webean datu estatistikoak eguneratzea.

#### **Sistemen administrazioa.**

Legegintzaldi honetan zehar eta sistemen administrazioaren esparruan, zerbitzariak eta haiei lotutako zerbitzuak modernizatzeko anbizio handiko programa osatu da. Programa horren ezaugarri nagusiak ondokoak dira:

- EDUCArako erabiltzeko dagoen ekipamenduaren hardwarea eta softwarea mantentzeko lanak egitea (ekipamendu hori Orkoien kalean dago, Nafarroako Gobernuak datuak prozesatzeko han duen zentroan).
- Ekipamendua mantentzea PNTEren datuak prozesatzeko zentroan, "blades" erako sistema moderno bat eskuratuz eta kudeatuz.
- Zerbitzariak berritzea, birtualizazio sistema indartsu bat zerbitzuan jarrita.
- EDUCA hezkuntza kudeaketarako aplikazioaren azpiegitura modernizatzea, ondoko jarduera hauen bitartez: azpiegitura osoa birtualizatzea, datu-basea barne; aplikazio zerbitzari eraginkor batera aldatzea; dokumentu biltegi bat gehitzea eta datu-basearen bertsioa eguneratzea.
- PNTEren zerbitzari guztiak (DNS, posta elektronikoa, web zerbitzariak, monitorizazioa, datu-baseak, aplikazioak, etab.) azpiegitura berrira migratzea: horrek aukera eman du PNTEk Hezkuntza Departamentuari, ikastetxeei eta irakasleei ematen dizkien zerbitzuak arrazionalizatzeko eta ordenatzeko.
- Irakasleen eta ikastetxeen web kontuei zenbait segurtasun neurri aplikatzea, hala nola, erabiltzaile kontuak kaiolatzea, SFTP zifratu bidez sartzeko kontrol-zerrendak edo ACLak.
- Instalazioen dokumentazioa.

#### **Ikastetxeentzako eta irakasleentzako zerbitzuak.**

Gaur egun, PNTEk Hezkuntza Departamentuari, ikastetxeei eta irakasleei zerbitzua ematen die. Hona hemen 2010-2011 ikasturtean zehar egindakoa biltzen duten datu adierazgarriak:

1. 2010-2011 ikasturtearen bukaeran, PNTEren posta elektronikoen zerbitzariak posta elektronikoko 6.183 kontu kudeatzen zituen, horietako 4.953 beste hainbeste irakaslerenak zirelarik. Ikasturte horretan, osotara, posta elektronikoko 211 kontu sortu edo berriz aktibatu dira eta erabiltzaile kopurua garbitu da, hala, benetan aktiboak zirenak soilik geratu direlarik. Bestalde, posta

elektronikoaren funtzionamendua eta kudeaketa hobetzeko zenbait ekimen mantentzen dira: lehenik, zerbitzua egoki erabiltzeko kuota sistema praktikan jarri da; bigarrenik, 2010eko uztailetik aurrera handitu da posta elektronikoaren segurtasuna, Iron Port izeneko saneamendu sistema abiatuz.

- PNTEren zerbitzarien barnean kokaturik daude Hezkuntza Departamentuaren eta PNTEren webguneak. Departamentuko atariaren gaineko datu gehiago nahi izanez gero, jo ezazue txosten honetako 4.3.10.7 epigrafera.
- 2011ko ekainean, PNTEren zerbitzariak ikastetxeetarako eta hezkuntza zerbitzuetarako 200 web orri baino gehiago ostatatzen dituzte. Hortik 140 online aplikazioak erabiltzen dituzten webgune dinamikoak dira; zerbitzu horretan gehien erabilitako aplikazioak hauek dira: Joomla! hezkuntza atarietarako, Moodle ikasgela birtualetarako eta WordPress eta b2evolution blogetarako.
- PNTEren zerbitzariak Hezkuntza Departamentuaren eta haren erakunde autonomoaren mendeko 12 administrazio unitateentzako eta ekimenetarako 17 webgune hauek ostatatzen dituzte: Orientazio Atalaren ikasgela birtuala; Lanbide Heziketako Zerbitzuaren irakaskuntzarako online erako ikasgela birtuala; Berdintasunaren Bulegoaren bloga; Berrikuntza Programen Bulegoaren Eskola Bidaiarien bloga; Berrikuntza Programen Bulegoaren ikasgela birtuala; Eskola Kontseiluaren weba; Euskarabidearen ikasgela birtuala; NHBBZaren weba eta ikasgela birtuala; Kalitate Bulegorako Kadinet aplikazioa; Irakasleen Prestakuntza Bulegorako ikasgela birtuala; ILZetako ataria eta aholkularitzetarako blogak, etab.

2. PNTEren web zerbitzarien barruan kokaturik daude 110 irakasle baino gehiagoren beste hainbeste webgune. 2010eko martxotik aurrera, aktibatutako dago web dinamikoaren zerbitzu berri bat (datu-base batera loturik). Zerbitzu horretan harpideturik dagoen edozein irakasle hezkuntzarako aplikazioak instalatu eta kudeatu ditzake. Funtzionaltasun hau aktibatutako dago hogen web pertsonal baino gehiagotan.

3. 2010-2011 ikasturtean zehar irakasleentzako 40 hezkuntza blog inguru prestatu dira PNTEren *Multiblog* plataforman. 2008ko azaroan funtzionamenduan jarri zenetik plataforma horrek hezkuntzako 150 blogetik gora hartzen ditu, eta horietan 190 irakasle inguruk hartzen dute parte.

4. 2010-2011 ikasturtean ia 90 sarrera argitaratu dira *ParaPNTE* web aplikazioaren plataforman, hezkuntza erkidegoari berriak eta informazioa emateko IKTak hezkuntzan erabiltzearekin loturiko askotariko gaien inguruan.

5. Hiru blog argitaratu dira: "Web 2.0", "Nabigazio segurua Interneten: proposamen didaktikoak" eta "Internet segurua". Blog horietan materialak, baliabideak eta argitaratzeko tokia ematen da "Web 2.0, aplikazio didaktikoak" eta "Nabigazio segurua Interneten" izeneko PNTEren prestakuntza programako online ikastaroetarako.

### Laguntza eta mantzentzea

PNTEk laguntza eta mantentze-lanetako zerbitzuak ematen dizkie ikastetxeei esparru hauetan:

1. Arlo lokaleko sareen eta Interneteko konexioaren konfigurazioa eta funtzionamendua.
2. Ekipo informatikoen mantentze-lanak. Horri dagokionez, ikus orrialde bereko 2. epigrafea, informatika ekipoen mantentze-lanetarako kontratuari buruzkoa.
3. PNTEk ematen dituen zerbitzuen funtzionamendua: posta elektronikoa, webguneak ostatzea, etab.
4. PNTEren mendeko beste aplikazio, programa eta sistema informatikoen funtzionamendua.

2011ko otsailetik aurrera, PNTEk jazoerak kudeatzeko berriazko aplikazioa antolatu du (GLPI) eta horri esker jazoerak komunikatzeko protokoloak berrantolatu dira. Esan berri diren esparruetako edozeinekin zerikusia duen jazoera baten aurrean, Teknologia Berrien arduradunak edo, ez balego, ikastetxeko zuzendariak baliabide hauetako edozein erabil dezake jazoera horren berri emateko:

a) Jazoerak kudeatzeko online aplikazioa. GLPI deitutako aplikazio honi esker ikastetxe bakoitzak ireki dituen gorabeheren jarraipena egin dezake. GLPI-a eskuragarri dago <https://inventario.educacion.navarra.es/glpi> helbidean eta PNTEk horretarako prestatu duen eskuliburuan ezarritakoaren arabera erabil daiteke.

Jazoerak kudeatzeko online aplikazioa loturik dago ikastetxe bakoitzak egin behar duen ekipo informatikoen inbentarioarekin. Inbentarioa egiteko, beharrezkoa da agente bat ordenagailu guztietan

instalatzea; agente hori automatikoki inbentarioko zerbitzariarekin harremanetan jarriko da eta ekipoa identifikatzeko datu adierazgarri guztiak bidaliko dizkio eta, hala behar bada, matxuren azterketa ere.

b) Laguntza sistemaren posta elektronikoa. Helbideak ondokoak dira: [ayuda@educacion.navarra.es](mailto:ayuda@educacion.navarra.es) eta [ayuda2@educacion.navarra.es](mailto:ayuda2@educacion.navarra.es).

c) Laguntza eta mantentze-lanetarako telefono bidezko komunikazioa. Jazoerak telefonoz transmitituko dira soilik ezin denean online aplikazioan edo posta elektronikoa sartu (esate baterako, Interneteko loturarik ez dagoenean).

- Laguntza eta mantentze-lanetan zuzenean ari diren Ataleko langileek 5.000 kontsulta, jazoera eta gai inguru tramitatu dituzte posta elektronikoa eta bestelako prozedura telematikoen eta online bidez.
- Guztira 242 ikastetxeko 2.000 jazoerari erantzun zien ikastetxe publikoetako ekipo informatikoen mantentze-lanetarako kontratuaren emakidadun enpresak. Jazoera hauetan zuzenean parte hartzen dute teknikariek ikastetxean berean.
- 250 jazoera ingururi erantzun zien sareko ekipamenduaren mantentze-lanetarako kontratuaren emakidadun enpresak eta OPNATElek. Jazoera hauetan zuzenean parte hartzen dute teknikariek ikastetxean berean.

### **Garatzen ari diren proiektuak**

Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atala zenbait proiektu garatzen hasi da Departamentuari, ikastetxeei eta irakasleei eskainitako zerbitzuak hobetzearren. Garrantzitsuenen artean ondokoak daude:

- IKTen Kudeaketarako Liburu Zuria prestatzea. Dokumentu horretan Nafarroako Gobernuaren mendeko ikastetxe ez-unibertsitarioetako IKT baliabideen kudeaketaren egoera zein den aztertzen da eta haiek hobetu eta eboluzionatzeko neurri sorta proposatzen da.
- PNTEren erabiltzaileentzako egiazkotze sistema bakar eta zentralizatua (LDAP) garatzea. Sistema hau EDUCA eskola kudeaketarako aplikazioan txertatuko da eta etorkizun hurbilean irakasleei aukera emanen die Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologien Atalaren mendeko aplikazio eta zerbitzu guztietan egiazkotze bakar batekin sartu ahal izateko.
- MS Windows domeinu zentralizatua, sistema eragile bezeroen egiazkotze zentralizatua egiteko aukera ematen duena. Sinkronizazio automatikoa LDAPekin.
- Errendimendu handiko idazmahaien birtualizazio ingurunea. Azpiegitura bat sortzea lanpostu informatikoen sorrera eta urruneko kudeaketa egin ahal izateko. Zuzenean aplikatu daitezke zuntz bidez loturiko ikastetxeetan, aukera emanen baitu ikastetxe horiek osorik urrunetik kudeatu ahal izateko. Eredu horren optimizazioa goren da ikastetxea urrunetik kudeatzen diren thin clients- ez hornituz gero.
- PNTEren laguntza eta mantentze-lanetarako sistemaren kudeaketa aplikatzea (GLPI). Sistema hori 2011ko hasieratik abian eta lanean ari da eta ikastetxeetako ekipamendu informatikoa inbentarioa egiteko prozedura berri bati loturik dago (eta etorkizunean gorago aipatu den egiazkotze sistema bakar horri). Horrek guztiak aukera emanen die Informazioaren eta Komunikazioaren Teknologiararen Atalari eta ikastetxeei beren ekipamendu informatikoa eta/edo sarea ukitzen dituzten jazoeren egoera zehatzari jarraipena egiteko.
- PNTEren kontuak kudeatzeko aplikazioa garatzea (erabiltzaile kontuak, posta elektronikoko kontuak, FTP kontuak, datu-baseen kontuak zerbitzarian, eta abar), kontuen alta, baja eta aldaketetarako prozesu mekanikoen kudeaketa bizkortzeko diseinatua.
- Sistema bat martxan jartzea Internet bidez sartu ahal izateko ikastetxeetako sare lokaletan instalatutako zerbitzueta eta aplikazioetara. Jarduera honen lehen etapa jadanik abian da eta haren helburua da Integra IKT proiektuko lehen eta bigarren faseetako 41 ikastetxeetako zerbitzarietan instalaturiko Intranet eta Pupitre aplikazioak ikusgarri jartzea. Jarraian, zerbitzu hau zerbitzariak izan eta beren aplikazioak Interneten ikusgarri jarri nahi dituzten ikastetxe guztietara hedatuko da.



**HEZKUNTZA PROZESUAK ETA POLITIKAK**

<b>157. koadroa - Batez besteko ikasle kopurua ordenagailu bakoitzeko, 2008/2009 ikasturtea</b>					
	Guztira	Ikastetxe publikoak			Ikastetxe pribatuak
		Guztira	Lehen Hezkuntzako ikastetxeak	Bigarren Hezkuntzako ikastetxeak	
<b>Batez besteko ikasle kopurua, irakaskuntza eta ikasketa jardueretarako erabiltzen den ordenagailu bakoitzeko<sup>9</sup></b>					
<b>Guztira</b>	<b>5,3</b>	<b>4,5</b>	<b>5,2</b>	<b>4,0</b>	<b>8,4</b>
Andaluzia	4,2	3,6	4,8	3,0	9,4
Aragoi	4,3	3,6	2,8	5,0	6,7
Asturias	4,8	3,9	3,8	4,0	9,1
Balear Uharteak	8,3	7,4	8,5	6,5	10,5
Kanariak	6,7	6,0	7,7	5,0	11,1
Kantabria	5,4	4,6	4,9	4,4	8,2
Gaztela eta Leon	5,1	4,4	4,4	4,3	7,7
Gaztela-Mantxa	4,0	3,6	3,7	3,4	10,2
Katalunia	5,1	4,3	4,3	4,3	7,3
Valentziako Erkidegoa	7,3	6,5	6,6	6,4	9,9
Extremadura	2,2	1,8	3,9	1,3	12,1
Galizia	5,6	4,9	5,5	4,5	8,8
Madril	8,1	7,2	8,2	6,5	9,5
Murtzia	6,6	5,7	6,8	4,9	12,6
<b>Nafarroa</b>	<b>6,5</b>	<b>6,0</b>	<b>7,6</b>	<b>4,9</b>	<b>7,8</b>
Euskal Autonomia Erkidegoa	4,6	4,1	5,6	3,3	5,2
Errioxa	4,8	4,2	4,3	4,2	6,4
Ceuta	5,6	4,7	4,1	5,4	14,9
Melilla	6,8	6,4	5,4	7,7	10,5

*Iturria: Hezkuntza Ministerioaren "Las cifras de la educación en España" (Hezkuntzari buruzko zifrak Espainian), 2011ko argitalpena.*

<sup>9</sup> Batez ere irakasleentzako eta ikasleen irakaskuntzarako erabiltzen diren ordenagailuak hartu dira kontuan.

<b>158. koadroa - Internet-konexioa duten ikastetxeen batez besteko kopurua eta konexio mota, 2008/2009 ikasturtea</b>					
	Internet-konexioa	Konexio mota <sup>10</sup>			
		Telefono-linea arrunta	RDSI	ADSL	Beste konexio mota bat
<b>Guztira</b>	<b>99,7</b>	<b>5,9</b>	<b>6,5</b>	<b>88,2</b>	<b>10,2</b>
Andaluzia	99,8	2,5	2,5	81,6	13,2
Aragoi	99,4	2,5	4,5	94,3	11,1
Asturias	100,0	6,3	4,3	87,9	14,7
Balear Uharteak	100,0	5,9	4,5	96,0	3,5
Kanariak	100,0	26,0	3,8	92,0	9,3
Kantabria	99,6	2,5	2,5	96,3	3,7
Gaztela eta Leon	99,7	8,7	7,2	90,8	12,2
Gaztela-Mantxa	99,8	9,5	9,7	94,5	5,9
Katalunia	99,7	1,1	1,6	93,1	6,7
Valentziako Erkidegoa	99,1	2,8	4,4	95,8	1,8
Extremadura	100,0	16,0	6,2	67,7	24,4
Valentziako Erkidegoa	99,0	1,6	9,6	79,8	8,0
Madril	99,8	9,1	17,3	95,4	5,1
Murtzia	100,0	1,3	14,9	82,3	2,5
<b>Nafarroa</b>	<b>100,0</b>	<b>3,1</b>	<b>8,3</b>	<b>81,7</b>	<b>10,4</b>
Euskal Autonomia Erkidegoa	100,0	0,8	3,9	62,4	48,5
Errioxa	100,0	19,1	6,4	94,5	9,1
Ceuta	100,0	3,6	10,7	96,4	21,4
Melilla	100,0	17,4	4,3	95,7	17,4

Iturria: Hezkuntza Ministerioaren "Las cifras de la educación en España" (Hezkuntzari buruzko zifrak Espainian), 2011ko argitalpena.

<sup>10</sup> Ikastetxe batek konexio mota bat baino gehiago izaten ahal du.

**HEZKUNTZA PROZESUAK ETA POLITIKAK**

<b>159. koadroa - Interneten eta ordenagailuen erabilera 10 urtetik 15era bitarteko haurren artean, 2009. urtea</b>							
	<b>Internet darabilten haurrak, guztira</b>	<b>Interneten erabilera (%tan, Interneten erabiltzaile kopuru osoarekiko)</b>					
		<b>Non erabiltzen den</b>			<b>Zertarako erabiltzen den</b>		
		<b>Ikastetxean</b>	<b>Etxean</b>	<b>Beste leku batzuetan<sup>11</sup></b>	<b>Eskola lanetarako</b>	<b>Aisialdirako, musika entzuteko, jolasteko ...</b>	<b>Beste erabilera batzuetarako<sup>12</sup></b>
<b>Guztira</b>	85,1	58,9	80,4	55,7	93,9	86,5	29,3
Andaluzia	80,7	51,8	72,9	49,3	95,6	82,3	36,0
Aragoi	92,1	61,1	86,4	58,1	92,4	89,4	20,3
Asturias	84,8	57,4	83,1	32,5	94,5	80,5	14,8
Balear Uharteak	95,4	49,2	89,4	62,2	91,7	88,1	33,6
Kanariak	88,6	50,8	80,7	40,3	96,6	76,6	34,5
Kantabria	92,2	62,0	87,8	46,2	95,0	83,5	15,3
Gaztela eta Leon	89,2	67,4	76,1	58,5	97,1	86,1	27,5
Valentziako Erkidegoa	79,9	53,5	69,7	75,3	97,0	78,7	26,3
Katalunia	93,0	78,2	85,9	57,6	96,0	95,3	34,6
Valentziako Erkidegoa	83,7	54,6	76,8	65,8	91,8	90,1	20,2
Extremadura	83,1	63,6	63,7	73,7	87,3	81,3	14,0
Galizia	77,3	53,0	70,0	55,8	92,2	83,2	20,6
Madril	82,9	48,3	91,2	52,3	90,7	87,2	36,0
Murtzia	80,8	56,7	79,0	54,5	92,0	88,4	18,8
<b>Nafarroa</b>	91,2	66,4	82,7	64,1	97,1	85,7	23,2
Euskal Autonomia Erkidegoa	87,4	70,5	94,1	46,2	89,3	86,1	22,7
Errioxa	76,6	69,2	75,1	71,6	97,8	84,3	25,4
Ceuta	78,1	41,9	90,5	80,1	91,5	84,7	0,0
Melilla	75,1	44,3	71,6	81,9	92,8	79,4	11,9

*Iturria: Hezkuntza Ministerioaren "Las cifras de la educación en España" (Hezkuntzari buruzko zifrak Espainian), 2011ko argitalpena.*

<sup>11</sup> Ondoko erabilera tokiak sartzen dira: senitartekoen eta lagunen etxebizitza, zentro publikoak, ziberkafe eta antzekoak, bestelako tokiak, ez daki/ez du erantzuten.

<sup>12</sup> Honen barruan sartuta daude beste erabilera batzuk eta ez daki/ez du erantzuten.

### **4.3.11. Eskola kirola eta eskolaz kanpoko jarduerak.**

#### **4.3.11.1. Kirola eskola garaian**

##### **Araudiarekin lotutako alderdiak**

Eskola garaiko kirol jarduerak Nafarroako Kirolari buruzko 15/2001 Foru Legeak arautzen ditu. Bigarren kapituluan “eskola adineko kirola” eta “eskola kirola” kontzeptuen definizioa ematen da:

- Eskola adineko kirol jardueratzat hartuko da antolaturiko kirol ekintza, eskola umeek eta gazteek eskola orduz kanpo egina baldin bada.
- Eskola kiroltzat hartuko da haur eta gazteek ikastetxe guztietan, publiko nahiz pribatuetan, Haur Hezkuntzako, Lehen Hezkuntzako, Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako, Batxilergoko eta Lanbide Heziketako maila guztietan, eskola orduz kanpo egiten duten kirol ariketa fisiko antolatua.

Halaber, legearen barruan “Eskola adineko kirola bultzatzeko programak” delakoak sartzen dira, horien helburua izanen delarik eskola hezkuntza integralaren, nortasunaren garapen orekatuaren, baldintza fisikoen eta osasun ohitura prebentiboen osagarri izatea.

Legeak esaten du Foru Komunitateko kirol administrazioari dagokiola eskola adineko hurrei zuzendutako kirol jarduerak bultzatzea eta antolatzea, hezkuntza administrazioarekin, toki entitateekin, kirol entitateekin, ikastetxeekin, guraso elkarteekin eta esparru horretan inplikaturiko beste erakunde publiko edo pribatuekin lankidetzan.

##### **Erreferentzia Esparru Autonomikoa**

Nafarroako Kirol Institutuak, maiatzean, adingabeak kirola egiteko Erreferentzia Esparru Autonomikoa onetsi zuen. Agiri horren bidez eskolako ikasleentzako gorputz eta kirol jarduerarako programak sustatzen dituzten guztientzako lantresna bat eratu nahi da eta haren helburua da proiektu horiek izan behar dituzten funtsezko ezaugarriak eta proiektu horiek prestatu eta garatzeko beharrezkoak diren oinarrizko ildoak ezartzea.

Bestalde, lehen helburu honekin batera, Foru Komunitatean gorputz eta kirol programa eta jardueretan parte hartzen duten adingabe guztiak babesteko balio behar du.

Funtsean, dokumentu ireki bat da, arloarekin zerikusia duten araudietan (Europa, nazioa, autonomiak eta federazioak) aldez aurretik kontsultatu ondoren prestatutakoa eta Foru Komunitateko eskolako kideentzako gorputz eta kirol ekimenen antolaketa eta bilakaera hobetzera bideraturiko ideia guztiak bateratu nahi dituen.

Dokumentu hori prestatzeko kontuan izan da Nafarroako kirolaren errealitatea, hots, eskolan daudenei zuzendutako jardueren eskaintza zabal eta askotarikoa. Ondokoak azpimarratzeko modukoak dira:

- Kirol Administrazioak sustaturiko jarduerak.
- Udaletako Kirol Eskolak, toki entitateek antolaturikoak.
- Lehiaketa ofizialak, kirol federazioek antolaturikoak.
- Irakakuntzako lehiaketak eta jarduerak, kirol entitateek antolaturikoak.
- Kirol modalitate jakin batzuetako irakaskuntza jarduerak, entitate pribatuek antolaturikoak.

Dokumentua [http://www.navarra.es/home\\_eu/Temas/Deporte/](http://www.navarra.es/home_eu/Temas/Deporte/) helbidean kontsulta daiteke eta eskolako kideentzako gorputz eta kirol jardueraren sustatzaileak diren kirol agenteek hobetzeko egin dituzten ekarpenei irekita dago.

##### **Eskola adineko kirol jarduerak Nafarroan**

Nafarroako eskola hurrek jasotzen duten eskola jardueren eskaintza, gaur egun, oso zabala dela esan daiteke bai kopuruari bai aniztasunari begiratuta.

Ikastetxeek, kirol elkarteek eta kirol etxeek, kirol federazioek eta administrazioak berak, Nafarroako Kirolaren eta Ariketa Fisikoaren Institutuaren bidez, aisialdiko zein lehiaketazko kirol eskaintza

interesgarri askoa aurrera daramate. Era berean, udalek eta kirol mankomunitateek irakaskuntza eskaintza egiten dute, txikienei zuzenduta, kirol eskolen eta aisialdiko lehiaketan bidez.

Lehen Hezkuntzako eta DBHko ikasleen %75ek diote ohikotasunez kirolen bat egiten dutela. Hala ere, parte-hartze horretan aldeak daude. Askoz sarriago eta gehiago egiten dute kirola mutilek eta, bi sexuetan, 12 urtetik aurrera poliki-poliki behera egiten du ehunekoak. Herri handietan hiriguneetatik urrun dauden herri txikietan baino handiagoa da parte-hartzea. Baina herri txikietako parte-hartze eskasa ez da, pentsa litekeen bezala, parte-hartzaile edo instalazioen faltagatik, jarduerak antolatzeko inplikaturako helduen faltagatik baizik.

Jarraian eskola kiroleko programa nagusiak azaltzen dira:

### 1. Nafarroako Kirol Jokoak

Programa hau 9 eta 18 urte bitarteko ikasleei zuzenduta dago. Urte osoan zehar egiten da, asteburuetakoko lehiaketan bidez.

Administrazioak eskolan sustaturiko kirol programen artean programa hau da bolumenik handiena duena parte-hartzeari, kirol modalitateei, instalazioen erabilerari eta antolaketan parte hartzen duten langile eta eragileei dagokienez. Bertan Nafarroako toki entitateek eta kirol federazioek (29 federaziok eta ordezkariak batek) parte hartzen dute eta, horri esker, 20.000 parte-hartzaile baino gehiago ditu programak. Programaren helburu nagusiak ondokoak dira:

Nafarroako herritar guztiei deialdiko kategorietan eta modalitateetan kirola egiteko bide ematea, eta kirolaren prestakuntza eta hezkuntza arloak bultzatzea.

Parte-hartzaileen ezaugarriari egokitzen zaien kirol jarduera eskaintzea, integrazioa ahalbidetzea eta kirolaren balioak sustatzea.

Adin horietan ezarpen eskasa duten edo izaera ludikoa duten kirol modalitateak sustatzea.

Etorkizuneko proiektzioa duten kirol talentuak antzematea.

Teknikariak prestatzeko plan bat ezartzea, zentzuzko epe batean, klub eta talde parte-hartzaileen arduradunek beren lanak hobeki egiteko prestakuntza hobea izan dezaten.

Gaur egun izan bada jardueraren arduradun diren teknikarien prestakuntzarako plan berezi bat, teknikari horiek eskola taldeak zuzentzeko eta dinamizatzeko eta gaitzeko.

Programaren eskaintzan sartzen diren kirol **modalitate/espezialitateak** ondokoak dira: Urpeko jarduerak (igeriketa hegatsekin); xakea; atletismoa (krosa eta pista); badmintona; saskibaloia; eskubaloia; beisbola; txirrindularitza (lur orotako bizikleta, errepideko bizikleta, pistako bizikleta); kirol egokituak; neguko kirolak (iraupeneko eskia); mendi eta eskalada kirolak (orientazioa, ibilaldi neurtuak eta eskalada); futbola (zelaiko futbola, areto futbola eta nesken futbol 7-a); gimnasia; golfa; herri kirolak; hipika; judoa eta judoarekin lotutako kirolak; karatea; igeriketa (igeriketa eta waterpolo); padela; irristaketa (abiadura eta hockey-a); pilota (esku-pilota, zesta-punta, erremontea, goma-paleta, larru-paleta, pala motza eta laxoa); errugbia; taekwondo; tenisa; mahai-tenisa; triatloia (triatloia eta duatloia); bela eta boleibola.

Parte-hartzea edizioz edizio handitzen joan da eta azkenekoan 20.661 lagunek parte hartu dute.

160. koadroa - Parte-hartzea Nafarroako Kirol Jokoetan					
Urtea	2006-2007	2007-2008	2008-2009	2009-2010	2010-2011
Edizioa	XX	XXI	XXII	XXIII	XXIV
Parte-hartzea	16.228	17.013	18.190	19.877	20.661

Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Ariketa Fisikoraren Institutua.

## **2. Eskoletako kirol kanpainak**

Ingurune naturalean egiten dira, ikasturtean zehar, eskola egunetan eta gutxi gorabehera astebete irauten dute. 10.000 ikasle inguruk parte hartzen dute. Kanpaina hauen helburua da jende gutxi egiten dituen kirolak egiten hastea. Kirola egiteaz gainera, kanpaina hauen helburua ere bada ikasleek Nafarroako txoko berriak aurkitzea eta erkidegoko beste eskualde batzuetatik datozen gazteekin elkarrekin egotea. Hori guztia ingurumen arloko gaien sustapena eta sentsibilizazioa ahaztu gabe.

### *Iraupeneko eskiaren eskola kanpaina.*

Belaguan eta Zaraitzun egiten da eta Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleei eta eskola adinean dauden ezindu fisiko, psikiko eta sentsorialeiei dago zuzenduta. 2011. urtean XXVII. edizioa egin zen eta 5.188 ikaslek hartu zuten parte. Kanpainetan aitzindariena da eta 27 urte hauetan 96.560 irakaslek eta ikaslek hartu dute parte; "aste zuriaz" ari gara.

### *Naturan egindako jardueren eskola kanpaina.*

Baztanen egiten da eta bertan DBHko 3. eta 4. mailako ikasleek parte hartzen dute. Urarekin eta natura ingurunearekin zerikusia duten jarduera hauek egiten dituzte: raftinga, piragua, hidrospeeda, kanoi-jaitsiera eta harizti batean zintzilik jarritako plataformen zirkuitua, Abentura Parke izenarekin ezagutua. Martxoan, apirilean eta maiatzean egiten da, hiru egunez.

2011. urtean XV. edizioa egin zen eta 2.298 ikaslek hartu zuten parte. 27 urte hauetan 15.386 irakaslek eta ikaslek hartu dute parte "aste berdea" izenarekin ezagutzen den kanpaina honetan.

### *Belako eskola kanpaina.*

Allozko urtegian egiten da martxoaren bukaeratik uztail hasiera arte. Optimist eta Vaurient modalitateekin, kanpaina honetan parte hartzen dute Lehen Hezkuntzako 6. mailako eta Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 1. eta 2. mailako ikasleek eta urritu fisiko, psikiko eta sentsorialeek.

Belaontzi bat ibiltzen ikasten da, oinarrian bada ere. Horrez gainera, natura errespetatzearekin, materiala zaintzearekin eta bizikidetzarekin zerikusia duten jarduera osagarriak egiten dira irakasleekin eta beste ikastetxe batzuetako parte-hartzaileekin.

2011. urtean XVIII. edizioa egin zen eta 1.585 ikaslek hartu zuten parte. 18 urte hauetan 14.981 irakaslek eta ikaslek hartu dute parte "aste urdina" izenarekin ezagutzen den kanpaina honetan.

### *Izotz gaineko irristaketako eskola kanpaina.*

Uharteko Izotz jauregian egiten da eta bertan biltzen dira Nafarroako eskoletako Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako eta eskola adinean dauden urritu fisiko, psikiko eta sentsorialak. Urtarriletik apirilera bitartean 2 eskola egunez goizez (elkarren jarraian dauden asteetan) egiten dira eta haietan irristaketaren oinarrizko teknikak ikasten dira izotzaren gaineko trebetasun, joko eta jardueren zirkuituen bitartez. Klaseak langile gaitu eta esperientziadunek ematen dituzte eta ikasleak mailaren arabeko taldeetan banatzen dira.

2011. urtean V. edizioa egin zen eta 1.024 ikaslek hartu zuten parte. 5 urte hauetan 3.546 irakasle eta ikaslek hartu dute parte kanpaina honetan.

161. koadroa - Eskola kanpainen bilakaera					
Urtea	2007	2008	2009	2010	2011
Eskia	5.021	4.813	5.127	5.339	5.188
Natura	1.333	1.627	2.065	2.205	2.298
Bela	1.102	1.448	1.471	1.509	1.585
Irristaketa	315	639	831	739	1.024
<b>GUZTIRA</b>	<b>7.771</b>	<b>8.527</b>	<b>9.494</b>	<b>9.792</b>	<b>10.095</b>

Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Ariketa Fisikoraren Institutua.

### 3. Eskola kiroleko programa

Kirol jarduera bultzatu, koordinatu eta sustatzeko helburuarekin eta Foru Komunitateko ikasle guztien kirol ibilbidean bide berri bat eratzeko xedez sortu da ekimen hau. Ekimen hau Nafarroako Kirolaren eta Ariketa Fisikoaren Institutuak sustaturiko esperientzia pilotuan oinarritzen da eta 2008-2009 ikasturtean zehar garatu da.

Aurrekoen programa osagarria da eta kirol ekintzan hezkuntzaren balioak sustatzeko xedea du. Programaren helburu nagusia aisialdiko jarduera fisikoak sustatzea da, nolana ere, jarduera horiek hezkuntzaren eta aisialdiaren alderdiak uztartu behar dituztelarik. Hala, aztura fisiko bat sortuko da eta adinean aurrera egin ahala haurrek kirola modu jarraituan egitea bultzatuko da eta, ondorioz, bizimodu osasungarria sustatuko da eta haurren obesitatea eta sedentarismoa bezalako fenomenoak saihestuko dira.

Ikastetxea, eta zehatzago esanez Gorputz Hezkuntzaren Departamentua, da programa oinarritzen den ardatza. Ikastetxeak prestatu eta praktikan jartzen duen gorputz eta kirol jardueren proiektua departamentu horrek diseinatu, koordinatu eta gainbegiratuko du eta ikastetxeko hezkuntza eta kirol proiektuan txertaturik egon beharko du. Horretan guztian ezinbestekoa da ikastetxeko kirol koordinatzailea.

Programaren babesean egiten den gorputz jarduera gizartean txertatzeko, osasunerako, ongizaterako eta jolaserako tresna izanen da eta, hartara, pertsonaren prestakuntza eta hezkuntza integralerako eta haren nortasunaren garapenerako lagungarria izanen da. Sustatuko ditu, besteak beste, norberaren ahalegina, lana taldean egitea, lankidetzeta, solidaritatea, tolerantzia, etsaiari errespetua izatea, joko garbia eta genero berdintasuna.

Gaur egun, 2011-2012 ikasturterako, Programaren III. ediziorako deia egin da eta bertan parte hartuko dute unibertsitatekoak ez diren ikasketara arautuetako ikastetxe publiko eta pribatuek.

Egin diren hiru edizioetan 7.232 ikaslek hartu dute parte Programan; azpimarratzekoa da nesken parte-hartze handia, hirurogeita hamar gorputz eta kirol jarduera baino gehiago egin baitituzte.

162. koadroa - Eskola kiroleko Programaren bilakaera		
Ikasturtea	Ikastetxeak	Parte-hartzaileak
2008-2009	10	1.520
2009-2010	14	2.444
2010-2011	24	3.268
<b>Guztira</b>	<b>48</b>	<b>7.232</b>


Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Ariketa Fisikoraren Institutua.

### 4. Haur obesitateari aurrea hartzeko kanpaina

“Jolastu, jan eta jokatu Trankirekin” obesitateari aurrea hartzeko kanpaina 2005-2006 ikasturtetik hona egiten ari da Nafarroan. Iruñeko eta Iruñerriko lau ikastetxetan proiektu pilotu moduan hasi zen



eta orain arte 26 ikastetxek eta 1.360 ikaslek baino gehiagok parte hartu dute.

Bukatu berri den ikasturtean orain dela sei urte kanpaina hau hasi zuten ikasleen amaierako datu antropometrikoak bildu dira. Datu horiek aztertu ondoren, esan daiteke, osotara, hasierako gehiegizko pisuaren indizea %21ekoa eta obesitatea %7,2koa zirela. Bost urteren buruan gehiegizko pisua %14,8ra eta obesitatea %1,5era jaitsi direla eta pisu arrunta %83,6koa dela. (1. taula)



Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Ariketa Fisikoraren Institutua.



Datu horiek esku hartutako ikastetxeetan eta esku hartu gabeko ikastetxeetan eta sexuaren arabera zahaztu dira. **Esku hartutako ikastetxeetako mutilen artean** hasieran gehiegizko pisua %27,7koa zen eta obesitatea %6,4koa. Azterlanaren bukaeran, gehiegizko pisua %21,3koa zen eta mutil bakar bat ere ez zegoen obesitate mailaren barnean (3. taula). Era berean, azterlanaren hasieran, **nesken artean** gehiegizko pisua %22,9koa zen eta obesitatea %12,5koa eta azterlanaren bukaeran, berriz, gehiegizko pisuaren eta obesitatearen indizeak %6,3 eta %4,2 izan ziren, hurrenez hurren. (3. taula)



Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Ariketa Fisikoraren Institutua.

Esku hartu gabeko ikastetxeetako datuak aztertuz gero, esan daiteke mutilen gehiegizko pisuaren indizea berbera izan zela hasieran eta bukaeran (%23,3). Obesitateari dagokionez, indize horrek gora egin zuen (%4,7tik %7ra) eta, beraz, pisu arrunta zuten mutilak %72,1 izatetik %69,8 izatera pasatu ziren. Nesken taldean, berriz, behera egin dute gehiegizko pisuak (%14tik %10,5era) eta obesitateak (hasierako %7tik Ora jaitsi da azken urtean). (4. eta 5. taulak)





Iturria: Nafarroako Kirolaren eta Ariketa Fisikoraren Institutua.

Bukatzeko, esan dezakegu “Jolastu, jan eta jokatu Trankirekin” kanpaina Lehen Hezkuntzako sei urteetan aplikatu zaiela Nafarroako 195 haurri eta horrek gehiegizko pisuaren eta obesitatearen indizeetan jaitsiera nabarmena ekarri duela.

Hala ere, esku hartu gabeko ikastaldeko haurrei dagokienez, gehiegizko pisuaren balioak mantendu dira eta obesitatearenak, berriz, handitu. Nesketan, aldiz, gehiegizko pisuaren eta obesitatearen indizeak hobetu dira, esku hartutako ikastaldeetan baino gutxiago bada ere.

Hasierako emaitza hauek ikusirik, esan daiteke kanpaina honek eragin positiboa izan duela urteetan zehar eta programaren hasieran planteatutako helburua bete dela, hau da, esku-hartze "integrala" egitea eta hartan inplikatzeko irakasleak, gurasoak, ingurua eta haurrak eta, orobat, **PREBENTZIOA** bultzatzea obesitateari aurka egiteko metodarik onen bezala. Horretarako zenbait material erabiltzen da (irakasleen gida didaktikoa eta Lehen Hezkuntzako ziklo bakoitzerako haur ipuinak) eta horietan elikadura osasungarriarekin zerikusia duten gomendioak ematen dira eta eguneroko bizitzan jardura fisiko gehiago egin behar dela esaten da.

Nahi izanez gero, material horiek ondoko loturan ikus daitezke:

[http://www.navarra.es/home\\_es/Temas/Deporte/Publicaciones/Campana+de+obesidad+infantil/](http://www.navarra.es/home_es/Temas/Deporte/Publicaciones/Campana+de+obesidad+infantil/)

Horretaz gainera, ikastetxean beste jardura batzuk egiten dira, ikasleak, gurasoak eta ikastetxea oro har eta zuzenean inplikatzeko dituztenak:

- Lehen Hezkuntzako 1. mailan ikasten ari diren 6 urteko haurrei ikasturtearen hasieran eta bukaeran antropometriak egitea.
- Eskola jantokiko menuak aztertu eta hobetzeko proposatzea.
- Gurasoei hitzaldiak ematea bizimodu osasungarrien gainean, beren seme-alabek ikasgelan landutako edukiak sendotzearen.

Urtero kanpainan egindako lanari jarraipena ematearren, 2009-2010 ikasturtean jardura osagarri bat abiatu zen, aurreko urtean landutako edukiak sendotzeko helburuarekin. Jardura hori "**Aste osasungarria**" deitzen da eta Lehen Hezkuntzako 2. mailan ikasten ari direnendako prestatu da, horiek izan baitziren aurreko ikasturtean programan parte hartu zutenak. Proposamen honetan haurrei, irakasleei, jantokiko langileei eta familiei zuzendutako zenbait jardura sartu dira.

2010-2011 ikasturtean, kanpainaren aurreko urteetan parte hartu zuten ikastetxeetako 5etan egin da jardura osagarri hau: José M<sup>a</sup> Huarte IP, Escolapios Calasanz ikastetxea, Zizurko Camino de Santiago IP, Orkoingo San Miguel IP eta Luis Amigó ikastetxea. 260 ikaslek hartu zuten parte, gutxi gorabehera.

2011-2012 ikasturtean nahi da ikastetxeak 6 izan beharrean 9 izatea: Beriaingo IP; Agoizko IP; Etxarri Aranazko San Donato IP; San Fermin Ikastola; San Cernin ikastetxea; Azpilagañako IP; Tuterako Huertas Mayores IP; Pitillasko IP eta Amaiurko IP.

5. Kirolaren Balioak

“Kirolaren Balioak” kanpaina Nafarroako Kirolaren eta Ariketa Fisikoaren Institutuak antolatzen du, kirolarekin lotutako balioak bultzatu eta sustatzeko, uste baita funtsezko elementuak direla pertsonaren garapen integralerako eta bereziki edozein kirol jardueraren praktikarako.

Balio pertsonalak: ahalegina, hobetzea, autoestimua, autokontrola, diziplina, portaera etikoa, ardura.

Balio sozialak: talde lana, inklusioa, elkartasuna, laguntasuna, kooperazioa, komunikazioa, tolerantzia, berdintasuna, joko garbia, aurkariei errespetua, ezarritako arauetako errespetua.

Kirolaren balioak lantzen dituzten ikastetxeetako proiektuek Nafarroako Kirol Institutuaren aintzatespena jasotzen dute.

11.000 ikasle inguruk parte hartzen dute programa honetan.

## **6. Bestelako programak**

Aurretik aipatutako programez gainera, ondoko federazioak: automobilismoa, espeleologia, golfa, halterofilia, kick boxing-a, motoziklismoa, piraguismoa, arrauna eta arku-tirokoa. Horiek guztiek adin txikikoendako jarduerak antolatzen dituzte eta horietan eskola adineko 400 bat kirolari aritzen dira.

Nafarroako Igeriketa Federazioak, zenbait udalekin lankidetzan (batez ere Iruña eta Iruñerrikoak), Eskolako Igeriketa Kanpaina antolatzen du, Lehen Hezkuntzako 2.eko eta 3.eko ikasleei zuzendua. Kanpaina horren helburua da ikasleak ur ingurunean molda daitezela (oinarritzko maila batean) eta igeriketaren kirol modalitate ezberdinetan (igeriketa, waterpolo, igeriketa sinkronizatua) hastapena ematea. Azken kanpaina 3.000 ikasle inguruk parte hartu dute.

Halaber, Nafarroako Futbol Federazioak futbol txapelketak antolatzen ditu: benjaminetako aretoko futbol txapelketan 66 talde parte hartzen dute eta 10-11 urteko mutilen futbol txapelketan 68 talde.

Futbito Txiki txapelketa 6 eta 11 urte bitarteko haurrei zuzenduta dago eta arau bereziak ditu, lehiaren eta konpetitibitatearen gainetik parte-hartzea eta jolasa indartzeko. 257 talde inguruk parte hartzen dute.

Osasuna Fundazioak Aste Santutako eta udako campusak eta Futbol Eskola, 6 eta 12 urte arteko haurrentzako.

Lehiaketa mailan, Eskola Arteko Futbol Txapelketak arrakasta handia du. Nafarroa osoan banatutako ikastetxeetako 62 talde parte hartzen dute.

## **7. Eskola adineko kirolari buruzko gomendioak**

Nafarroako Eskola Kontseiluak 2009/2010 ikasturtean txosten bat prestatu zuen, bere ekimenez, Kirol Ikasketei buruz, eta txosten hartan eskola adineko kirolari buruzko atal bat agertzen zen. Honako gomendioak eman ziren esparru horrentzat:

1. Jarduera fisikorako eta kirolerako prestakuntza goiz hasi behar da, derrigorrezko eskolatze etapan. Halaber, pertsonaren hezkuntza integralaren zati gisa ulertu behar da, aldi berean aztura osasungarriak eta kirol jarduera ere sustatzen dituen.

2. Kirolak hezkuntza esparru egokia ematen du pertsonen prestakuntzan oso garrantzitsuak diren balio indibidualak eta sozialak eskuratzeko: ahalegina, hobetzea, autoestimua, autokontrola, diziplina, portaera etikoa, ardura, talde lana, inklusioa, elkartasuna, laguntasuna, kooperazioa, tolerantzia, errespetua, berdintasuna... Ondorioz, irakaskuntzak eta eskola adineko kirol ekintzak, eskolan eta eskolaz kanpo, balio horiek eskuratzeko sustatu behar dute eta lehentasuna eman kirolaren hezkuntzako eta aisaldiko alderdiei lehiarekin lotutako alderdien gainetik. Eskolak ez ezik, familiariek eta kirol jarduerak antolatzen dituzten erakundeek eskola adineko kirol ekintzari buruzko ikuspegi horretan inplikatu beharra dute.

3. Ikasleei zuzendutako jarduera fisikoen eta kirol jardueren eskaintza zabala dago. Hala ere, hainbat arrazoiengatik, Nafarroako ikasle guztiek ez dituzte aukera berak. Programa horiek antolatzen diharduten erakunde publiko eta pribatuek hori kontuan izan behar dute eta kirola egiteko aukerak mugatzen dituzten egoerak konpentsatzen saiatu. Bereziki, gomendagarria dirudi neurriak hartzea ondoko egoerak konpentsatu ahal izateko: ezgaitasuna, baliabide ekonomikoen falta, dinamizazioan inplikaturako pertsonen falta eta kirol instalazioak erabiltzeko aukera falta.

4. Aztertu egin behar da Nafarroako ikasleek zergatik uzten dioten kirola egiteari 12 urtetik aurrera eta emakumezkoek zergatik duten interes gutxiago kirolean. Sektore horietan jarduera fisikoak eta

kirola egitearen onurak bultzatzeko ekimenei ekitea komeni da.

5. Ikastetxeak eskola kirolaren programen oinarritzko ardatz izan behar du, bere hezkuntza proiektu propioarekin.

6. Eskola adineko kirolean hainbat lagunek parte hartzen dute entrenatzaile edo begirale gisa, eta pertsona horiek askotariko prestakuntza profilak eta kirol esperientzia dituzte. Eskola kirola prestakuntza planetan sartu beharra dago pertsona horien gaitasuna hobetzeko egiten dituzten lanetarako, bai entrenamenduarekin loturikoetarako bai ikasle taldeak animatzearekin eta zuzentzearekin loturikoetarako. Prestakuntza hori bereziki beharrezkoa da begirale nerabeen kasuan.

7. Ikasleei zuzendutako jarduera fisikoko eta kirol jarduerako programetako alderdi zenbaiten gaineko araudia garatu beharko litzateke; zehaztu egin beharko lirateke zenbait kontu, adibidez, zein baldintza bete behar dituzten, jardueren tipologia, mediku zaintza, segurtasuna edo teknikarien prestakuntza.

#### 4.3.11.2. Eskolaz kanpoko jarduerak

<b>163. koadroa - Eskolaz kanpoko jardueretarako diru-laguntzak, 2006. urtetik 2010era</b>								
<b>Urte a</b>	<b>Ikastetxe publikoak</b>		<b>Ikastetxe itunduak</b>		<b>Ikastetxe onuradunak</b>		<b>Ikasle onuradunak</b>	
	<b>Aurrekontuan</b>	<b>Esleitua</b>	<b>Aurrekontuan</b>	<b>Esleitua</b>	<b>Publikoak</b>	<b>Itunduak</b>	<b>Publikoak</b>	<b>Itunduak</b>
2006	99.850	99.850	49.393	49.393	225	63	58.153	30.595
2007	209.040	209.040	77.900	77.900	212	66	57.039	31.966
2008	216.357	216.357	79.848	79.848	210	60	55.721	30.956
2009	45.000	45.000	15.000	15.000	190	62	48.583	30.368

*Iturria: Antolamendu eta Berrikuntza Zerbitzua.*

### **4.3.12. Bizikidetzeta eta balioetan hezte**

#### **4.3.12.1. Balioetan hezteko programak**

##### **Osasunaren sustapena / Osasunerako hezkuntza**

Osasunaren sustapeneko / Osasunerako hezkuntzako jarduerak Osasun Departamentuarekin elkarlanean egiten dira, horretarako sortutako batzordeen bidez. Hezkuntza Ministerioko IFFIEn koordinaziopeko Osasuna Sustatzen duten Eskolen Europako Sarearekin (SHE Sarea) loturik daude batzorde horiek. Batzorde horietan, Hezkuntza Departamentuaz gain, Osasun Publikorako Institutuko ordezkariak, Droga-mendekotasunaren aurkako Foru Planekoak eta Emakumeari Laguntzeko Zentroetakoak daude.

OSEESan sartuta dauden ikastetxeak: 17

Jarduera nagusiak: Ikastetxeei prestakuntza eskaintzen zaie lehentasunezko lan arloen gainean: drogomendekotasunei aurrea hartzea; elikadura, ariketa fisikoa eta bizimodu osasungarriak, eta hezkuntza sexual eta afektiboa. Osasuna Sustatzen duten Eskolen urtean behingo Topaketa egin da. Bertan, Osasuna Sustatzen duten Eskolen ziurtagiria eman zaie ikastetxe hauei: Martzillako Marqués de Villena BHI, Iruñeko Navarro Villoslada BHI, Iruñeko Lanbide Heziketako María Inmaculada ikastetxea eta Lodosako Haur eta Lehen Hezkuntzako Ángel Martínez Baigorri ikastetxea.

##### **Ingurumen hezkuntza**

Ingurumen hezkuntzako programetako jarduerak Landa Garapen, Industria, Enplegu eta Ingurumen Departamentuaren mendeko Nafarroako Ingurumen arloko Baliabide Zentroarekin (CRANA) lankidetzan egiten dira. Horrez gain, informazioa trukatzeko kontaktuak izaten dira Iruñeko Mankomunitateko ingurumen proiektuen arduradunekin.

Ikastetxe parte-hartzaileen kopurua: 20

Jarduera nagusiak: Irakasleentzako prestakuntza mintegiak gai hauei buruz: "Uraren Foroa" eta "Ikastetxeetako energia planak". "Mugikortasun planak" ere bultzatzen dira, zenbait herritako ikastetxeetara heltzeko moduari buruz.

##### **Lankidetzeta eta Garapenerako Hezkuntza**

Garapenerako Hezkuntzaren inguruko jarduerak Nafarroako GGKEen Koordinakundearen hezkuntzako aholkularitzarekin elkarlanean egiten dira, "Elkartasunaren aldeko eskolak" izeneko mintegi-programa baten bidez. Programa hori Garapenerako Lankidetzaren Kontseiluak onartutako "Nafarroako Lankidetzeta Estrategia" delakoaren barruan dago. Gizarte Politika, Berdintasun, Kirol eta Gazteria Departamentuaren Lankidetzeta Zerbitzuak finantzatzen du.

Ikastetxe parte-hartzaileen kopurua: 3

Jarduera nagusiak: Arbizuko haur eskola "Elkartasunaren aldeko eskolak" mintegiko parte-hartzaileetako bat da eta Kanpo Arazoetako Ministerioko AECl-k (Nazioarteko Kooperazioaren Espainiako Agentzia) sortutako "Vicente Ferrer" Lankidetzaren Saria jaso du.

##### **Bestelako jarduerak**

a) Kontsumo Arduratsurako Hezkuntza: Kontsumo Zerbitzuarekin elkarnean aritzen da, kontsumo arduratsuen inguruko eskola jarduerak hedatzeko: Consumópolis, prestakuntza jarduerak...

b) Bide-hezkuntza: Bide-hezkuntzako foru planaren batzordeko bilerak. Lehendakaritza Departamentuak bide-segurtasunaren inguruan egiten dituen jarduerak ikastetxeetan zabaltzen laguntzen da.

c) "Nafarroako Parlamentua" unitate didaktikoa. Unitatea finantzatu da eta hiru prestakuntza jarduera antolatu dira unitatea irakasleei aurkezteko.

c) Informazio buletina: 14 buletin igorri dira baliabide didaktikoei, deialdiei eta abarri buruzko informazioarekin.

- d) Irakasleen prestakuntza: Ikusi Irakasleen etengabeko prestakuntzari buruzko koadroko 4.3.3. atala.

### 4.3.12.2. Bizikidetzarako Aholkularitza

#### Aholkularitza eta kasuei arreta ematea

Ikastetxeei, familiei eta ikasleei emandako aholkuak ondoko hauetan zehazten dira:

- Hiru telefono linearekin (hazterako bat doakoa).
- Helbide elektronikoarekin
- Familiakoekin, ikasleekin, irakasleekin eta beste zerbitzuetaoekin elkarrizketa zuzenak eginez. Elkarrizketa hauek taldean edo bakarka egin daitezke.
- Ikastetxeetara bisitaldiak eginez, aholkua emateko eta elkarlanean aritzeko
- Bidezkoa denean, kanpoko zerbitzuekin koordinatzea (ikastetxeak, gizarte zerbitzuak, fiskaltza, polizia, aholkularitza juridikoa...).
- Hezkuntzako Ikuskapenarekin komunikatzea eta koordinatzea.
- Kudeaketak eta haien ondoriozko txostenak egitea.

*Iturria: Aukera Berdintasunaren, Hezkuntzako Parte-hartzearen eta Irakasleentzako Arretaren Zerbitzua*

164. koadroa - Bizikidetzarako Aholkularitza: 2010/2011 ikasturtean kasuei emandako arreta						
Eskaera kopurua				Erabilitako baliabidea		
Ikasleak	Familiak	Ikastetxeak	Bestelakoak	Telefonoa	Posta elektronikoa	Presentziala
2	96	91	30	167	12	40

#### Aholkularitza zuzena ikastetxeei

Aurreko zifrei gehitu behar zaizkie ikastetxeetan bertan edo telefonoz, askotariko gaien aurrean sortutako eskarien ondorioz, egin diren 56 aholkularitza ekintza. Prestakuntzarekin edo antolaketarekin zuten zerikusia, unean uneko gatazka bat konpontzearekin baino gehiago.

#### Bizikidetzaren planak

Aholkularitzak bere gain hartu dituen eginkizunetako bat da ikastetxeetako bizikidetzaren planak eta plan horien zehaztapenak eta urteko memoriak diseinatzeari eta aplikatzeari dagokienez sustapen eta orientazio lana egitea. Prestakuntza jardueren bitartez eta irakasleei, bizikidetzaren batzordeei zein bizikidetzako arduradunei telefono eta posta elektronikoko bidez emandako aholkularitza pertsonalaren bidez burutzen da lan hori.

#### Bizikidetzaren hobetzeko kanpaina

2011ko irailean bizikidetzaren hobetzeko bosgarren kanpainaren edizioa, aurkezpena, hedapena eta banaketa bukatu zen. Aurten ikastetxeetako prestakuntza autonomorako materialak biltzen diren koaderno bat eta CD bat prestatu eta banatu dira. Ikastetxeetan bizikidetzaren ardura duten pertsonen banatu zaie.

#### Irakasleen prestakuntza

Aholkularitzaetik prestakuntza jarduerak sustatzen, diseinatzen, antolatzen eta ematen dira, Irakasleen Prestakuntza Planaren barruan. Prestakuntzan parte hartu duten profesional askok parte hartu du eta haien balorazioa ona izan da.

#### Araudia eta haren garapena

47/2010 Foru Dekretua garatu zuen 204/2010 Foru Agindua bukatu da. FA eta FD garatu eta ezartzeko materialak prestatu eta banatu dira.

### **4.3.13 Ikastetxeei zuzendutako bestelako jarduerak, proiektuak, programak eta sariketak**

#### **4.3.13.1. Eskola liburutegien programa**

Programa horren helburu nagusia ikastetxeei eta irakasleei liburutegiak eraldatzen laguntzea da, liburutegiak bihurtu daitezten baliabide digital nahiz paperezkoen leku dinamiko, arlo guztietako ikasketa eta irakaskuntza errazten duten zerbitzura modura, eta hezkuntza literariorako leku.

#### **Hezkuntza Departamentua. Hezkuntza Antolamenduaren eta Berrikuntzaren Zerbitzuko Dokumentazio Zentroa**

Garatutako jarduera nagusiak hauek izan dira:

- Funts dokumental berriak eskuratzea (450 titulu), katalogazioa eta berritasun txostenak.
- Aldizkako argitalpenetako harpidetzak mantentzea.
- Bilaketa bibliografikoko eta aholkularitza dokumentaleko zerbitzua.
- GSR Fundazioarekin elkarlanean aritzea eskola liburutegien egoeraren gaineko azterlan berria egin dezan.
- Lurralde lankidetzako programek Hezkuntza Ministerioarekin egindako bileretan parte hartzea (Hezkuntza Mahaiko eskola liburutegien batzorde teknikoa).
- Eskola liburutegietako jardunbide onen deialdi nazionalen ebaluatzaile taldean parte hartzea; 24 memoria ebaluatu dira.
- Eskola liburutegien web orria eguneratzea.
- Asteko gomendioa Hezkuntza Departamentuko buletinerako. 30 gomendio eman ziren.
- Irakurketa sustatzeko sariak eta eskola liburutegiak izeneko deialdian saritutako lanen erakusketa.
- Plaza de la Cruz BHIko Victoria Elías irakaslearen "Liburu bat, irudi bat" proiektuaren erakusketa.
- "Qué es un Rey para ti" lehiaketa nazionalaren fase autonomikoko diplomak emateko ekitaldia antolatzea. FIESek deitua. Ikasturte honetan 23 ikastetxetako 293 neska-mutilek parte hartu dute.
- Bideojokoak hezkuntza aukera modura. Iruñeko Udalak deitutako jarduera.
- Hezkidetzen mintegia irekitzeko jardunaldiak. 2010eko iraila. Irakasleendako eta ikasleendako baliabideak dituzten maletak aurkeztea.
- Irakurtzera bultzatzeko esperientziak trukatzeko II. udal jardunaldiak. Iruñeko Udala.
- ANELE 2010 II. Jardunaldi teknikoak. Irakurleak testuliburu digitalen aurrean: berrikuntza ikasgeletan.
- Leer.es II. Biltzarra: "Leer para aprender. Nuevas alfabetizaciones". Hezkuntza Ministerioa. Madril, 2010eko azaroaren 22 eta 23.

#### **Ikastetxeei zuzendutako jarduerak**

Ikastetxeentzako aholkularitza zuzena

Gero eta ikastetxe gehiago dira Hezkuntza Departamentuko Dokumentazio Zentroak eskainitako liburutegi eredua hartu dutenak. Hori dela-eta, asko dira liburutegien funtsak antolatu eta informatizatzeari buruzko kontsultak. Ikastetxeen 54 aholkularitza eskariri erantzuna eman zitzaizen lan taldeekin edo liburutegien arduradunekin. Kontsultek Abies 2 programa informatikoarekin dute zerikusia: informazioa eskuratzea eta hedatzea; espazioen eta funtsen banaketa; familientzako funtsa aukeratzea; funtsak garbitzea; liburutegi funtsen katalogaziorako nazioarteko arauen aplikazioa (SHU, sailkapen hamartar unibertsala).

Gayarre Antzokia Fundazioaren eta CORMIN elkartearen egoitzetan ere instalatu da Abies 2.0 programa, bere funtsak katalogatzeko.

#### **Familian irakurtzeko kanpainak**

“*Familia irakurzalea*” irakurtzeko zaletasuna sustatzeko kanpainak Hezkuntza Departamentuak bultzatzen ditu eta ikastetxeen irakurketa planen bitartez bideratzen dira, ikastetxeak baitira familiekin lotura. Kanpainen helburua gurasoak hausnar eginaraztea da eta laguntza ematea irakurketa ataza partekatu gisa hartu dezaten.

Haur eta Lehen Hezkuntzako ikasleen familientzako proposamena **Irakurketarako Liburuxka** izan zen. Liburutegira joan eta testuak aukeratu, irakurri eta baloratzeko proposamena da. Agendako fitxa bakoitzean hurrek dokumentuaren datu nagusiak anota ditzakete, ikasi dituzten hitz berriak idatzi eta irakurri dutena gustuko izan duten anotatu. Halaber, bada tokia liburutegiaren zigilua eta noiz itzuli den paratzeko. Agendaren bukaeran ABCDario bat dago, irakurketaren eta liburutegien gaineko hitz nagusiekin eta gai beraren inguruko ospakizunen egutegiarekin.

Orobat, María Osetek idatzitako **Zer dio Egunkariak?** eskuorria banatu zen. Kazetaritzako testu eta generoetan lagundurik, testuan egunkari bat nola irakurtzen eta nola egituratzen den argitzen da eta paperezko prentsa idatziaren eta prentsa idatzi digitalaren gainean hausnartzen da, etxe gehienetan irakurketa eskuragarri eta hurbil bati balioa ematearren.

Batez besteko puntuazioa	20,40
Desbideratze tipikoa	5,46
Nesken batez bestekoa	20,75
Mutilen batez bestekoa	20,05
1. maila (%)	15,3
2. maila (%)	12,5
3. maila (%)	58,7
3+ maila (%)	13,5

Ehunekoak mailaz maila (irudikapen grafikoa)



Gaitasun honetan erdietsitako emaitzen analititik aipagarriena:

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 32 puntu dituztenak, eta 2 puntu dituztenak.

Desbideratze tipikoa batez bestekoaren %26,8 da.

10 ikasletatik ia 7k 3. maila edo 3+ maila erdietsi dute; gai dira beraien adinari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko.

10 ikasletatik 3 ez dira irakurketa prozesuak behar bezala gauzatzeko gai edo hori egiteko zailtasunak dituzte.

Ikasleen %15,3 maila beheenean daude eta neurri bereziak behar dituzte.

- Matematikako gaitasuna.

Probak 3 estimulu izan ditu eta horietako bakoitzeko 5-9 item jarri dira. 22 itemetatik 20k puntu 1eko balioa izan dute eta 4k, 2 puntukoa. Kasu honetan puntu 1eko puntuazio partziala onartzen da.


Itemak zailtasun maila desberdinekoak dira; batzuk oso errazak gertatu dira (%85,5ek asmatu dituzte); beste batzuk, aldiz, hagitik zailak, eta ikasleen %17k baino ez dituzte asmatu.

Ikasleek zuzen erantzundako galderetatik abiatuz, jakin daiteke zer den egiten dakitena eta zer den menderatzera iritsi ez direna. Gaitasuna mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	3+ MAILA
<p>Maila honetako ikasleek oso galdera gutxi erantzuten dute zuzen. Maila honetako galderarik arruntena eta estatistikoki adierazgarriena honako hau da: irekiduraren araberrako angeluen sailkapena. Kasu hauetan, probako galderaren formatua eta ikasliburuetan izaten diren ariketena oso antzekoak dira.</p>	<p>Maila honetako ikasleak gai dira galdera xumeei erantzuteko; galdera horiek gaitasunaren garapenaren oinarritzko maila dira. Adibidez, grafiko bat egitea euskarriekin eta exenplifikazioekin, oso oinarritzko denbora-kalkuluak egitea, oso taula xumeak interpretatzea eta haietatik informazioa ateratzea, planoan simetria ulertzea. Ataza horietan guztietan ez daude inplikatuak kalkulu matematikoak (edo kalkuluak egiten badira oso oinarritzkoak dira). Maila horretan bi urrats egin beharreko problemarik ere ez dago, ezta 4. mailako ikasle batek ustez egiten jakin behar duen arazoitze matematikorik ere.</p>	<p>Maila honetako ikasleek gaitasuna menderatzen dute ikasmaila honetan menderatzea espero den moduan. Aurreko mailetak lanak ebazten jakiteaz gain, ikasle hauek gai dira testuinguru errealeko egoerak eta galderak ebazteko orduan ezagutza jakinak aplikatzeko. Egoera batez jabetzen dira eta hura ulertzen dute, egoera horrek, zenbakizko informazio askorik izan ez arren, maila honetako ikasle batek ustez jakin behar duen arazoitze logiko-matematikoa jakitea eskatzen duenean. Bi urrats egin eta egoera matematiko bat planteatu beharreko problemak ebazten dituzte. Proporzionaltasun egoerak ulertzen dituzte eta zatikizko zenbakiak erabiltzen dituzte; badakite denbora-kalkulu errealak egiten arrunt ohikoak diren egoeretatik abiatuz; gai dira irudi geometrikoak bizitza errealean identifikatzeko; txanponen balioa ezagutzen dute eta ongi moldatzen dira txanponekin, etab.</p>	<p>3. maila eta maila hau ez dira desberdinak. Maila honetan ikasleak aurrekoan baino gehiago menderatzen du gaitasuna. Maila honetan dauden ikasleek 2. eta 3. mailan sartutako atazak menderatzen dituzte. Nolanahi ere, badira azpimarratu beharreko berezitasun batzuk, hala nola, maila honetako ikasleak gai izatea arrazoi matematikoarekin egoera abstraktoagoak ebazteko.</p>

Lortutako emaitzen analisia

248. koadroa - Matematikako gaitasuna	
Kopuru osoa	6.402
Gaitasun kopurua	6.330
Neska kopurua	3.111
Mutil kopurua	3.219
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehienezko puntuazioa	26
Batez besteko puntuazioa	15,32
Desbideratze tipikoa	5,07
Nesken batez bestekoa	15,19
Mutilen batez bestekoa	15,45
1. maila (%)	15,4
2. maila (%)	18,6
3. maila (%)	55,7
3+ maila (%)	10,3



Gaitasun honetan erdietsitako emaitzen analisitik aipagarriena:

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 26 puntu dituztenak, eta puntu bakarra dutenak.

Desbideratze tipikoa batez bestekoaren %33,1 da.

100 ikasletatik 66k erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila; gai dira beraien adinari dagozkion matematika prozesuak gauzatzeko.

100 ikasletatik 34 ez dira gai matematika prozesuak behar bezala egiteko.

Ikasleen %15,4 maila beheanean daude eta neurri bereziak behar dituzte.

- Ingeleseko gaitasuna.


Probak hiru zati izan ditu: ahozkoaren ulermena edo "Listening", 8 galderarekin; idatziaren ulermena edo "Reading", 10 galderarekin, eta idazmena edo "Writing", irudi bat deskribatzeko. Hiru hizkuntza trebetasun hauek ez dira probako puntuazio osoan berdin puntuatzen; hona taula honetan puntuazio horiek:

249. koadroa - Ingelesezko gaitasuna	
Trebetasuna	Puntuazio osoaren %
Listening	%20
Reading	%60
Writing	%20

19 galderei dagozkien lanak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko prozesu desberdinekin lotuta daude. Gaitasuna mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	3+ MAILA
<p>Maila honetako ikasleak gai dira informazio agerikoa eta literala ulertzeko. Hala ere, interpretatze-maila jakina duten galderei erantzuteko zailtasunak dituzte. Ez dituzte ulertzen 2. zikloko hitz oso oinarritzkoak. Pertsonaia baten deskribapen oso labur eta oinarritzkoa idazteko soilik gai da, baina gramatikako hutsegite asko eginda.</p>	<p>Maila honetako ikasleek egoki erantzuten dituzte 1. mailako galderak, hau da, informazio literala ulertzea eskatzen dutenak. Horretaz gainera, testuaren ulermen-maila handiagoko galderak (informazioa bilatzekoak) ebatzen dituzte. Maila honetako hiztegia 1. mailakoa baino zabalagoa da. Hori hala bada ere, testuetan bildutako informazioa interpretatzerakoan zailtasunak dituzte. Ez dira inferentzia konplexuagoak egiteko gai. Pertsonaia bat deskribatzeko zailtasunak dituzte.</p>	<p>Maila honetako ikasleek zuzen erantzuten dituzte informazioa bilatzearekin zerikusia duten galderak (informazio hori literala izan edo ez). Gainera testua globalki ulertzen dute eta gai dira hitzetatik haragoko interpretazioa egiteko. Horretaz gainera, testu etendun batean edukiaren banaketa zein den ulertzen dute eta badakite berariazko informazio-mota bat non bilatu. Aurreko mailetan baino hiztegi zabalagoa ulertzen dute eta horrek aukera ematen die egoeren eta ekintzen ulermen-ingurua handitzeko. Gai dira pertsonaia baten oinarritzko ezaugarriak deskribatzeko, testuaren ulermena eragozten ez duen akatsen bat egiten badute ere.</p>	<p>Maila honetako ikasleak 3. mailari dagozkion atazak zuzen egiteko gai dira eta, horretaz gainera, ataza konplexuagoak ebatzen dituzte, hiztegiari edo testuaren egitura sintaktikoari dagozkion interpretazio-maila dela-eta konplexuagoak direnak. Gai dira 4. mailari dagokion testu koherente eta zuzen baten bitartez pertsonaia baten oinarritzko ezaugarriak deskribatzeko.</p>

250. koadroa - Gaitasuna ingelesean	
Kopuru osoa	6.391
Gaitasun kopurua	6.301
Neska kopurua	3.092
Mutil kopurua	3.209
Gutxieneko puntuazioa	0,7
Gehienezko puntuazioa	28
Batez besteko puntuazioa	15,16
Desbideratze tipikoa	5,21
Nesken batez bestekoa	15,52
Mutilen batez bestekoa	14,81
1. maila (%)	15,4
2. maila (%)	15,9
3. maila (%)	58,1
3+ maila (%)	10,6



Gaitasun honetan erdietsitako emaitzen analititik aipagarriena:

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: badira 28 puntu dituztenak, eta 0,7 puntu dituztenak.

Desbideratze tipikoa batez bestekoaren %34,4 da.

10 ikasletatik 7k erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila; gai dira beraien adinari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko.

10 ikasletatik 3 ez dira gai irakurketa prozesuak behar bezala egiteko.

Ikasleen %15,4 maila behean daude eta neurri bereziak behar dituzte.

### 5.3.1.2. Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2.eko ebaluazioa

Hezkuntzari buruzko Lege Organikoaren 29. artikulua adierazten du ikastetxe guztiek, DBHko 2. maila bukatzean, beren ikasleek lortu dituzten oinarrizko gaitasunen ebaluazio diagnostikoa eginen dutela. Ebaluazio honek ondoko ezaugarriak izan behar ditu:

Zentsala izan behar da, ikasle guztiek egin beharrekoa.

Oinarrizko gaitasunen gainekoa.

Informatiboa, ikasleendako eta familiendako.

Prestakuntzakoa, irakaskuntza-ikaskuntza prozesuan laguntzeko.

2011ko ebaluazio diagnostiko zentsalean jakin nahi izan da irakurmena nolakoa den irakaskuntzako hizkuntzetan, matematikako gaitasunean, zientzietako gaitasunean eta ingelesean.

Hala ere, maila honetako ebaluazio orokorrean, berria da ISEK indize sozioekonomikoaren gaineko informazioa ematea. Gaitasunetako bakoitzean irudikatzen da ikastetxearen batez besteko errendimenduaren eta maila sozioekonomikoaren arteko erregresio-zuzena.

2010-11 ikasturtean Derrigorrezko Bigarren Hezkuntzako 2. mailan 6.161 ikasle matrikulatu ziren. Ikasle hauei zuzendu zaie ebaluazio diagnostikoa. Ebaluazio orotan bezala, kontuan izan behar da gerta daitekeela ikasle batzuek ezintasun tekniko bat izatea probak beharrezko baldintzetan egiteko. Hori dela kausa, hiru salbuespen arrazoi ezarri ziren: *gure hezkuntza sisteman sartu berriak direlako probaren hizkuntza ezagutzen ez duten ikasleak (urtebete baino gutxiago)*; *Nafarroako Hezkuntza Bereziko Baliabide Zentroan (NHBBZ) zentsaturiko urritasun psikiko edo intelektuala duten ikasleak, edo probak egitea galaraziko duen mugimendu edo zentzumen urritasuna duten ikasleak.*

Inguruabar horiek ezartzeak berarekin ekarri zuen proba egitetik 165 ikasle salbuestea eta, azkenean, 5.996 ikaslek egin zituzten probak.

Ondoko taulan azaltzen dira izaera zentsala eta egindako ebaluazioaren munta ikusarazten duten datuak:

<b>251. koadroa - Matrikulazio eta parte-hartze datuak</b>		
	<b>Bigarren Hezkuntza: 2. kurtsoa</b>	
	<b>Kopurua</b>	<b>%</b>
Matrikula, osotara	6.161	100
Salbuetsitako ikasleak	165	2,7
Populazioa	5.996	97,3
Probak egin zituzten ikasleak	5.878	98
Probarik egin ez zuten ikasleak	118	2

Irakurmena gaztelaniaz.


Proba bost testu idatzik osatu dute, ondoko izenburuekin: “No estemos siempre a la defensiva”, “El canario”, “Una investigación científica reduce los temblores involuntarios del Parkinson”, “El tiempo” y “Un bromista “cuela” como obra de arte”. Horietako bakoitzetik 5 eta 8 item artean atera ziren. 31 itemetako bakoitzak puntu 1 balio du.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak dira; batzuk oso errazak gertatu dira (%88k asmatu dituzte); beste batzuk, aldiz, zailak, eta ikasleen %39k baino ez dituzte asmatu. Gaitasuna mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:



1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA (3+ maila barne)
<p>Maila honetako ikasleak gai dira narrazio eta azalpen testuetako informazio puntuala hitzez hitz ulertzeko, betiere informazio hori testuan erraz aurkitzeko modukoa bada. Ez dute zailtasunik testuko esaldiak eta adierazpen puntualak interpretatzeko eta zailtasunik gabe ulertzen dute horien esanahia. Testu baten ideia nagusiaz eta honen helburuaz jabetzen dira oso agerikoak direnean. Ekintzen asmoak ulertzen dituzte horiek ere agerikoak direnean.</p>	<p>Maila honetako ikasleak, 1. mailako atazak arrakastaz burutzeaz gainera, gai dira alderdi horietan harago joateko; bai informazioa bilatzea eskatzen duten lanen ulermenean (ez dute hainbeste aztarnarik behar eta gai dira ulertzeko, nahiz eta informazioa aurkitzekoa hain erraza edo hain agerikoa ez izan), bai testuaren erabateko ulermena eskatzen duten atazetan (aurreko mailan baino pixka bat inplizituagoa).</p>	<p>Maila honetako ikasleak, aurreko mailetako lanak egiteko gai izateaz gainera, gai dira testuaren zati batean ardazturik ez dagoen informazioa ebazteko (informazio hori testu horretako bi zati desberdinetan dago). Gai dira iritzi bat justifikatzeko balio duten arrazoiak bilatzeko. Zati baten edukia interpretatzen dute, kontuan izanda testuaren testuinguru zabalagoa. Testutik eratortzen diren ikuspuntu eta jarrerak ulertzen dituzte. Era berean, ulermen global ona dute eta testuaren zentzuaz eta tesiaz jabetzen dira.</p>

<b>252. koadroa - Irakurmena gaztelaniaz</b>	
Kopuru osoa	5.996
Gaitasun kopurua	5.846
Neska kopurua	2.869
Mutil kopurua	2.977
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehienezko puntuazioa	31
Batez besteko puntuazioa	21,21
Desbideratze tipikoa	4,90
Nesken batez bestekoa	21,71
Mutilen batez bestekoa	20,73
1. maila (%)	10,3
2. maila (%)	15,8
3. maila (%)	61,8
3+ maila (%)	12,1



Alderdi aipagarrienak:

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuazioarik altuena 31 izan da eta txikiena puntu bakarra.

Desbideratze tipikoa batez bestekoaren %23,1 da.

4 ikasletatik 3k 3. maila edo 3+ maila erdietsi dute; gai dira beraien adinari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko.


4 ikasletatik 1 ez da gai irakurketa prozesuak behar bezala egiteko edo hori egiteko zailtasunak ditu.

Ikasleen %10,3k neurri bereziak behar dituzte, maila beherenean daudelako.

- Irakurmena euskaraz.

Proba euskarazko hiru testutan oinarritu da. Testuetatik 32 item atera dira eta gaztelaniazko proban erabilitako gaitasun maila berak ezarri dira itemen analisirako. Lortutako estatistika orokorraren taula ondokoa da:

<b>253. koadroa - Irakurmena euskaraz</b>	
Kopuru osoa	1.459
Gaitasun kopurua	1.445
Neska kopurua	684
Mutil kopurua	761
Gutxieneko puntuazioa	3
Gehienezko puntuazioa	37
Batez besteko puntuazioa	19,66
Desbideratze tipikoa	5,55
Nesken batez bestekoa	20,86
Mutilen batez bestekoa	18,58
1. maila (%)	11,4
2. maila (%)	16,3
3. maila (%)	61,5
3+ maila (%)	10,8



Alderdi aipagarriak:

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuazioarik altuena 37 izan da eta txikiena 3.

Desbideratze tipikoa batez bestekoaren %28,2 da.

10 ikasletatik 7k 3. maila edo 3+ maila erdietsi dute; gai dira beraien adinari dagozkion irakurketa prozesuak gauzatzeko.

10 ikasletatik 3 ez dira gai irakurketa prozesuak behar bezala egiteko edo hori egiteko zailtasunak dituzte.

Ikasleen %11,4k neurri bereziak behar dituzte, maila beherenean daudelako.

- Matematikako gaitasuna.

Probak bost estimulu izan ditu eta horietako bakoitzeko 4-5 item jarri dira. 22 itemetatik 16k puntu 1eko balioa izan dute eta 6k 2 puntukoa (kasu honetan puntu 1eko puntuazio partziala onartu da).

Itemak zailtasun maila desberdinekoak gertatu dira; batzuk oso errazak gertatu dira (%96k asmatu dituzte); beste batzuk, aldiz, hagitx zailak eta ikasleen %23k baino ez dituzte asmatu.


22 itemei zegozkien atazak ebaluazio diagnostikoaren esparruan finkaturiko matematikako prozesuekin daude loturik: ebazpen matematikoa, egoeraren ulermena eta arrazoiketa matematikoa. Gaitasuna mailaka banatu da, honela:

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	3+ MAILA
Maila honetako ikasleek matematikako gaitasun-maila apala dute. Oso galdera gutxiri erantzuten diote zuzen. Gai dira jarraian bi urrats edo eragiketa sekuentziatuz problema aritmetikoak ebazteko. Plano edo grafiko batetik begien bistako informazioa atera	Maila honetako ikasleak gai dira galdera xumeei erantzuteko; galdera horiek gaitasunaren garapenaren oinarritzko maila dira. Soluzioa emateko bi urrats baino gehiago egin beharreko problema aritmetikoak planteatu eta ebazten dituzte. Gai dira oinarritzko galderak ebazteko	Maila honetako ikasleek gaitasuna menderatzen dute ikasmaila honetan menderatzea espero den moduan. Aurreko mailetak atazak ebazten jakiteaz gainera, ikasle hauek gai dira testuinguru errealei dagozkien egoerak eta galderak ebazteko orduan ezagutza jakinak aplikatzeko. Soluzioa emateko	3. maila eta maila hau ez dira desberdinak. Maila beraren barnean ikasleak aurreko baino gehiago menderatzen du gaitasuna. Maila honetan dauden ikasleek aurreko mailetan inplikaturiko lanak menderatzen dituzte. Badituzte aipatzeko modukoak diren berezitasun batzuk:

dezakete, datuak irudikatu ere. Alabaina, zailtasunak dituzte emandako egoerak geometriarekin zerikusia duenean edo zenbait datu erlazionatu behar dituztenean informazioa hain agerikoa izan gabe.	baita barra-irudikatu ere. Alabaina, zailtasunak dituzte emandako egoerak geometriarekin zerikusia duenean edo zenbait datu erlazionatu behar dituztenean informazioa hain agerikoa izan gabe.	informazioa grafikoetan edo plano batean ematen bada. Azaleraren kontzeptua zer den ulertzen badute ere, zailtasunak dituzte egoera praktikoetan zer den ulertzeko. Era berean, zatikizko zenbakietan adierazitako datuak erabiltzeko zailtasunak dituzte.	urrats batzuk egin beharreko problema aritmetikoak ebazten dituzte, azaleraren kontzeptua menderatzen dute eta azalerari buruzko problemak ebazten dituzte. Informazio grafikoa zuzen interpretatzen dute eta gai dira benetako bizitzako askotariko egoerak ebazteko. Arrazoibide matematikoa erabiltzen dute azalpenak eta argudioak emateko, dela berek prestatutako lanetan, dela alderdi orokorretan.	geometria kontzeptuetan doitasuna erakusten dute, problemarik konplexuenak ebazten dituzte informazioa grafikoetan eta tauletan emana badago, eta aritmetikako eta geometriako problema konbinatuak ebazteko beregainak dira.
---	--	--	--	---

**Lortutako emaitza orokorrak:**

<b>254. koadroa - Matematikako gaitasuna</b>	
Kopuru osoa	5.996
Gaitasun kopurua	5.855
Neska kopurua	2.869
Mutil kopurua	2.986
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehienezko puntuazioa	28
Batez besteko puntuazioa	15,80
Desbideratze tipikoa	5,56
Nesken batez bestekoa	15,61
Mutilen batez bestekoa	15,97
1. maila (%)	14,2
2. maila (%)	15,4
3. maila (%)	61,6
3+ maila (%)	8,8



Alderdi aipagarrienak:

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuazioarik altuena 28 izan da eta txikiena 1.

Desbideratze tipikoa batez bestekoaren %35,2 da.

10 ikasletatik 7k erdietsi dute 3. maila edo 3+ maila; gai dira beraien adinari dagozkion matematika prozesuak gauzatzeko.

10 ikasletatik 3 ez dira gai matematika prozesuak behar bezala egiteko edo hori egiteko zailtasunak dituzte.

Ikasleen %14,2k neurri bereziak behar dituzte, maila beheerenean daudelako.

- Zientzietako gaitasuna.

Probak bost estimulu izan ditu eta horietako bakoitzeko 5-7 item jarri dira. 28 itemetatik 26k puntu bateko balioa izan dute, eta 2k, 2 puntukoak. Kasu honetan puntu 1eko puntuazio partziala onartzen da.

Itemak zailtasun maila desberdinekoak gertatu dira; batzuk oso errazak gertatu dira (%92k asmatu dituzte); beste batzuk, aldiz, hagituz zailak eta ikasleen %21ek baino ez dituzte asmatu.


28 itemek lotura dute ebaluazio diagnostikoaren esparruan ezarritako prozesu zientifikoekin. Prozesu horietan aipagarrienak dira metodologiaren erabilera, arrazoiketa eta emaitza zientifikoak eskuratzea. Gaitasuna mailetan banatu da, ondoko esanahiarekin:

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	3+ MAILA
Maila honetako ikasleek gaitasun zientifiko baxua dute. Oso galdera gutxiri erantzuten diote zuzen. Gai dira testu batetik informazio zientifikoa ateratzeko, agerikoa bada. Zaila gertatzen zaie informazioa interpretatzea testuak taulak edo grafikoak baldin baditu. Zailtasunak dituzte esperimendu zientifiko batekin lortu nahi den helburua	Maila honetako ikasleak gai dira galdera xumeei erantzuteko; galdera horiek gaitasunaren garapenaren oinarritzko maila dira. Maila honetako ikasleak gai dira irudikapen grafikoak histogramen bitartez egiteko; testuak irakurriz ezagutza zientifikoekin zerikusia duten egoera errazez jabetzen dira; esperimendu batek	Maila honetako ikasleek gaitasuna menderatzen dute ikasmaila honetan menderatzea espero den moduan. Aurreko mailetak atazak ebazten jakiteaz gainera, ikasle hauek gai dira testuinguru errealei dagozkien egoerak eta galderak ebazteko orduan ezagutza jakinak aplikatzeko. Gai dira taulak edo grafikoak dituzten testuetatik informazioa	3. maila eta maila hau ez dira desberdinak. Maila beraren barnean ikasleak aurrekoan baino gehiago menderatzen du gaitasuna. Maila honetako ikasleek 1., 2. eta 3. mailetak atazak menderatzen dituzte. Nolanahi ere, azpimarratzekoak diren ñabardurak dituzte. Gai dira egoera konplexuetan

<p>identifikatzeko eta esperimenduaren emaitzetatik ondorioak ateratzeko. Ez dituzte emaitza kuantitatiboak lortzeko aukera ematen dieten planteamenduak eraginkortanez egiten.</p>	<p>erakusten duen egoera baten aurrean, abiapuntu egoera zein den ulertzen dute; ondorio errazak atera ditzakete, baina esperimendua bere osotasunean ulertzeko zailtasunak dituzte.</p>	<p>ateratzeko, egindako galderei erantzuteko eta herritarren interesekoak diren askotariko gaietan ondorio orokorrak prestatzeko. Maila honetako ikasleek abiaburuko egoera zein den ulertzen dute eta metodo zientifikoa oro har ulertzen dutela erakusten dute. Era berean, beregainak dira egindako galderei erantzuteko emaitza kuantitatiboak ebatzi eta lortzeko planteamenduak egiteko.</p>	<p>emaitza kuantitatiboak lortzeko, metodo zientifikotik metodoko faseen sekuentziazio zehatza ezagutzen dute eta gai dira deskribapen testu batean azaldutako emaitza esperimentaletatik ondorioak ateratzeko.</p>
---	--	--	---

Lortutako emaitza orokorrak

255. koadroa - Zientzietako gaitasuna	
Kopuru osoa	5.996
Gaitasun kopurua	5.878
Neska kopurua	2.882
Mutil kopurua	2.996
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehienezko puntuazioa	31
Batez besteko puntuazioa	18,89
Desbideratze tipikoa	5,13
Nesken batez bestekoa	18,83
Mutilen batez bestekoa	18,94
1. maila (%)	12,0
2. maila (%)	19,9
3. maila (%)	58,8
3+ maila (%)	9,3



**Alderdi aipagarrienak:**

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuazioarik altuena 31 izan da eta txikiena puntu bakarra.

Desbideratze tipikoa batez bestekoaren %27,2 da.

100 ikasletatik 60k 3. maila edo 3+ maila erdietsi dute; gai dira beraien adinari dagozkion prozesu zientifikoak gauzatzeko.

100 ikasletatik 32 ez dira gai prozesu zientifikoak behar bezala egiteko edo hori egiteko zailtasunak dituzte.

Ikasleen %12k neurri bereziak behar dituzte, maila behearean daudelako

- Hizkuntza gaitasuna ingelesez.

Probak hiru osagai zituen: "Listening" edo entzumena, 7 itemekin; "Reading" edo irakurmena, 15 itemekin; eta "Writing" edo idazmena (musika aldizkari baterako komunikazio bat idaztea).

Hizkuntza trebetasun hauek ez dira probako puntuazio osoan berdin puntuatzen; hona taula honetan puntuazio horiek:

256. koadroa - Hizkuntza gaitasuna ingelesez	
Trebetasuna	Puntuazio osoaren %
Listening	%20
Reading	%60
Writing	%20


Trebetasun horietan oinarrituriko 23 item atera ziren eta gaitasuna mailatan banatu da, ondoko esanahiarekin:

1. MAILA	2. MAILA	3. MAILA	3+ MAILA
<p>Maila honetako ikasleak gai dira narrazio eta azalpen testuetako informazio idatzia hitzez hitz ulertzeko. Hala ere, zailtasunak dituzte interpretatzea, ulermen orokorra, hausnarketa eta balorazioak eskatzen dituzten galderei erantzuteko.</p> <p>Zailtasun handiak dituzte audio mezuak ulertzeko eta gai dira planteatutako gai baten inguruko esaldi osatugaberen bat soilik idazteko.</p>	<p>Maila honetako ikasleek zuzen erantzuten diete 1. mailako galderei, hots, narrazio edo azalpen testuetako hitzez hitzeko informazioa ulertzea eskatzen duten galderei. Horretaz gainera, testuaren ulermen-maila handiagoko galderak (informazioa bilatzekoak) ebatzen dituzte.</p> <p>Hori hala izanik ere, zailtasunak dituzte ulermen orokorrerako, interpretaziorako eta testuak baloratzeko. Ez dira gai inferentzia konplexuagoak egiteko, hurrenez hurreneko bi paragrafotan dauden hiru ekintza kontatzeko edo pertsonaien arteko antzekotasunak eta desberdintasunak interpretatzeko.</p> <p>Gai dira audio mezu batzuk ulertzeko eta planteatutako gaiaren inguruko esaldiren bat idazteko.</p>	<p>Maila honetako ikasleek zuzen ebatzen dituzte informazioa bilatzearekin loturiko galderak (informazio hori literala izan edo ez). Testua globalki ulertzen dute eta gai dira istorio baten sekuentzia emandako esaldiekin berregiteko. Maila onargarria dute, edukiaren gaineko hausnarketari dagokionez. Horretaz gainera, testu etendun batean informazioaren banaketa zein den ulertzen dute eta badakite berriazko informazio-mota bat non bilatu. Gai dira testua baloratzeko eta haren gainean hausnartzeko, testuko datuak baliatuz edukiaren aplikagarritasunerako beharrezkoa den informazio esanguratsua ateratzeko.</p> <p>Gai dira audio mezuak ulertzeko eta planteatutako gaiaren inguruko testu errazak ingelesez idazteko.</p>	<p>Maila honetako ikasleek, 3. mailako atazak egoki betetzeaz gainera, konplexuagoak direnak ere ebatzen dituzte.</p> <p>Ongi ebatzen dituzte entzundako audioaren gaineko galderak eta gai dira proposatutako gai bati buruzko mezu idatzi bat modu koherente eta zuzenean idazteko.</p> <p>Laburbilduz, ebaluatutako hiru trebetasunetan gai dira.</p>



Lortutako emaitza orokorrak

257. koadroa - Hizkuntza gaitasuna ingelesez	
Kopuru osoa	5.996
Gaitasun kopurua	5820
Neska kopurua	2.872
Mutil kopurua	2.948
Gutxieneko puntuazioa	1
Gehienezko puntuazioa	36
Batez besteko puntuazioa	18,34
Desbideratze tipikoa	8,11
Nesken batez bestekoa	19,47
Mutilen batez bestekoa	17,23
1. maila (%)	12,3
2. maila (%)	20,9
3. maila (%)	59,1
3+ maila (%)	7,8



**Alderdi aipagarrienak:**

Alde handiak daude norbanakoen puntuazioen artean: puntuazioarik altuena 36 izan da eta txikiena puntu bakarra.

Desbideratze tipikoa batez bestekoaren %44,2 da.

Hiru ikasletatik bik 3. maila edo 3+ maila erdietsi dute; gai dira beraien adinari dagozkion prozesuak gauzatzeko.

Hiru ikasletatik bat ez dira prozesuak behar bezala gauzatzeko gai edo hori egiteko zailtasunak dituzte.

Ikasleen %12,3k neurri bereziak behar dituzte, maila beherenean daudelako

- Informazio sozioekonomikoa eta kulturala

Edizio honetan ikasleek aldagai soziokultural eta ekonomikoen gaineko galdera-sorta bete dute eta hartatik atera da ISEK izeneko indize sozioekonomiko eta kulturala kalkulatzeko informazioa.

#### 1. ISEK

Galdera-sortaren xede nagusia da ISEK indize sozioekonomiko eta kulturala egiteko informazioa biltzea. Indize honek kontuan hartzen ditu PISA proiektuan, Ebaluazio Institutuak autonomia erkidegoekin elkarlanean egindako diagnostiko-ebaluazio orokorretan eta Lehen Hezkuntzako 4. mailan 2010. urtean Nafarroan egindako ebaluazio diagnostiko zentsalean erabilitako aldagai berak.

Aldagai horiek honako hauek dira:

Gurasoen ikasketa-maila (gurasoetako edozeinek duen handiena hartzen da kontuan).

Gurasoek egiten duten lana (gurasoetako edozeinen lan-kategoriarik handiena hartzen da kontuan).

Etxean dituzten zenbait elementu (galdera-sortako 14. galdera).

Etxean dituzten irakurketa liburuak.

Lau aldagai horiei pisu bera eman zaie eta ikasleei esleituriko puntuazioak eraldatu egin dira, batez bestekoa 0 eta desbideratze tipikoa 1 dituen banaketa normalaren arabera eta, hartara, 0 izanen da Nafarroaren batez bestekoa. Ikastetxe bakoitzari ISEKeko balio bat esleitu zaio; hots, ikastetxe horretako ikasleen puntuazioen batez bestekoa. Ikastetxeek -1,2 eta +1,2 arteko ISEK balioak dituzte; horrek agerian uzten du ikastetxeen batez besteko baldintza sozioekonomikoak askotarikoak direla.

Ebaluazio azterlan guztietan egiaztatzen ari da ikasleek probetan duten errendimenduaren eta haien maila soziokulturalaren arteko korrelazioa moderatua dela. Txosten honetan ematen dira ikastetxeetako batez besteko puntuazioen eta batez besteko ISEK balioen arteko korrelazioak, gaitasunen arabera banatuta, eta aldagai horien arteko erregresio-grafikoak. Erregresio-grafikoak aztertu ondoren, hona hemen emaitza orokor hauek:

- Errendimenduaren eta ISEKaren korrelazio-indizeak 0,84 eta 0,44 artean daude. Horrek esan nahi du nola edo halako korrelazioan daudela ISEKa eta errendimendua; korrelazio hori handiaren eta moderatuaren artean dago, gaitasunaren arabera.
- Erregresio-zuzenak: ISEK-Errendimendua izeneko erregresio-zuzenak malda positiboa dute. Horrek esan nahi du ISEKa handitu ahala batez besteko errendimendua ere gora egiten duela. Espero izatekoa den eraginaren intentsitatea gaitasun batetik bestera aldatzen da: ISEKaren balioa igotzen den puntu bakoitzeko ikastetxeko batez besteko puntuazioa 48, 45, 52, 52, 54 eta 83 puntu igotzen da, hurrenez hurren, gaitasun hauetan: irakurmena gaztelaniaz, irakurmena euskaraz, matematika gaitasuna, zientzietako gaitasuna eta ingeleseko gaitasuna.
- ISEKak ikastetxeen batez bestekoen arteko bariantzaren edo aldean parte bat azaltzen du. Ondoko biderkadurak ematen du bariantza azaldua:  $100 R^2$ . Erregresio-zuzenetan azaltzen den bezala, biderkadura hori gaitasunaren arabera desberdina da: 50, 20, 60, eta 50 da, hurrenez hurren, gaztelaniazko irakurmenean, euskarazko irakurmenean, matematika gaitasunean, zientzietako gaitasunean eta ingeleseko gaitasunean.

Oro har, agerian gelditu da ISEKa Nafarroako hezkuntza sisteman duen eragina nazio zein nazioarte inguruko beste sistema batzuen bano txikiagoa dela. Nafarroan txikiagoak dira azaldutako bariantza eta erregresio-zuzenen malda. Horrek zerikusia du ekitate handiagorekin edo ikasleen ezaugarri sozioekonomiko eta kulturalengatik hasieran sortutako zailtasunak konpentsatzeko gaitasunarekin.

Esan behar da ISEKa ez dela errendimendua azaltzen duen aldagaia, baina aldagai iragarle modura erabiltzen dela, hau da, ikastetxeei puntuazioak eman diezazkioke eta gero ikastetxeak lortutako emaitza egindako iragarpenarekin erkatu. Ikastetxeetako txostenetan ikastetxeko puntuazioa erregresio-grafikoan irudikatu da eta, horri esker, lortutako puntuazioa ISEK balioaren arabera iragarritakoarekin erka dezakegu. 3 kasu desberdin ditugu:

Zuzena baino gorago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez beste handiagoa lortu dutenak.

Zuzena baino beherago dauden ikastetxeak: haien maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren (ISEK) arabera iragarritakoa baino batez beste txikiagoa lortu dutenak.

Zuzenean berean dauden ikastetxeak: iragarritako puntuazioa lortu dutenak.

Grafiko hauetako informazioak ikastetxeen emaitza globalak testuinguruan kokatzen ditu, ikastetxeko ikasleen batez besteko ezaugarri soziokulturalen arabera, eta haien emaitzak

Nafarroako batez bestekoarekin modu justuagoan eratzeko aukera ematen du: ISEKa 0 baino handiagoa duen ikastetxe batek batez besteko puntuazioa (500 puntu) baino puntuazio handiagoa lortu beharko luke eta ISEKa 0 baino baxuagoa duen ikastetxe batek 500 puntutik beherako batez besteko puntuazioa lortzea espero izatekoa da. Baina ikusten ari gara ez dela beti iragarpen generiko hori betetzen, eskolako errendimenduan izaten baitira beste aldagai batzuk, hala nola, norberaren lana, ikasteko estrategiak, familiako itxaropenak, irakasleen itxaropenak, lidergoa, etab.


Ikastetxe bakoitzak dituen ISEK balioa eta erregresio-zuzenarekiko kokapena gorabehera, guztietan hobetu daiteke lortutako emaitza, bi aldagai horien arteko erlazioa ez baita determinista edo funtzionala; izan badira ikasleen errendimenduan eragiten duten beste aldagai batzuk. Ondorio horretara iritsi gaitzke erregresio-grafikoetan ikusiz ISEK bera duten ikastetxeek emaitza desberdinak lortzen dituztela eta, beraz, ekitate desberdina dutela (ekitate da ikasleen maila sozioekonomiko eta kultural txikiagoagatik sortutako hasierako desabantailak konpentsatzeko gaitasuna). Ikastetxeko zer aldagaik eragiten duten modu batera edo bestera ikertzea interesgarria da ikastetxean berean hobekuntza neurriak hartzeko. Hala eginez gero, hezkuntza sistema osoa hobetuko litzateke.

2. Erregresio-zuzenak.

Ikastetxeen tamaina askotarikoa denez (1-266 ikasle), erregresio-zuzenaren koefizienteak lortu dira ondorioa probak egin dituzten ikasleen kopuruaren arabera haztatuz. Haztapan horrek grafikoetan azaldutako koefizienteak adierazgarri bihurtzen ditu.


Jarraian azaltzen dira gaitasun bakoitzerako grafikoak.

**Irakurmena gaztelaniaz**




Azaldutako bariantzaren ( $100 \cdot R^2$ ) ehunekoa (%)	%50
Gradientea	47,8 puntu/ISEK unitatea
Korrelazio-koefizientea	0,71

**Irakurmena euskaraz**




**Matematika gaitasuna**




Azaldutako bariantzaren ehunekoa ( $100 \cdot R^2$ )	%60
Gradientea	51,7 puntu/ISEK unitatea
Korrelazio-koefizientea	0,77

Zientzietako gaitasuna



Azaldutako bariantzaren %	%50
Gradientea	53,8 puntu/ISEK unitatea
Korrelazio-koefizientea	0,71

Ingeleseko gaitasuna



Azaldutako bariantzaren %	%70
Gradientea	82,5 puntu/ISEK unitatea
Korrelazio-koefizientea	0,84

5.3.2 Espainiako ebaluazio diagnostikoak. Nafarroako Foru Komunitateko emaitzen analisia

**5.3.2.1. 2010eko Ebaluazio Diagnostiko Orokorra. Bigarren Hezkuntzako 2. maila.**

Ebaluazio diagnostiko orokorraren xedea da baloratzea zein den oinarritzko gaitasunen eskuratze maila, testuingurutik kanpo ebaluatutako eduki zehatzena baino gehiago. Proba hauek erreparatzen diote, bereziki, ikasleek ikasitakoa beren mundutik hurbileko egoeretan aplikatzeko gaitasunari. Beraz, garrantzi handia ematen zaio arrazoitzeko eta egoera zehatzei konponbideak bilatzeko gaitasunari. Ebaluazio hau nazioarteko PISA eta PIRLS ebaluazioen ildo berekoa da.

Lau gaitasun hauek ebaluatu dira:

Komunikazio gaitasuna

Matematika gaitasuna

Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreaginean aritzeko gaitasuna

Gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna

Orain arte, Espainiako ebaluazioak lagin orokor batekin egiten zirenez emaitzak ezin ziren erkidegoen arabera bereizi. Baina HLO (Hezkuntzari buruzko Lege Organikoa) argitaratu zenetik, ebaluazioak erkidegoetako lagin adierazgarrien bidez egiten dira. Orain azalduko dugun ebaluazioa Bigarren Hezkuntzan era horretan egin den lehenbizikoa izan da.


Ebaluazio honen helburua ez da erkidego autonomoen arteko rankinga ezartzea, baizik eta hezkuntza sistemaren kalitatea baloratzeko informazioa ematea, bai orokorra bai erkidegoz erkidegokoa. Emaitzak interpretatzerakoan kalitatearen beste adierazle batzuk ere kontuan izan behar dira.

2009-2010 ikasturtean Bigarren Hezkuntzako 2. maila ebaluatu zen. Nafarroan 49 ikastetxetako (publikoak zein itunduak) 1.643 ikaslek egin zituzten probak.

EDO 2010		IKASTETXEA K
ERKIDEGOA	TITULARR A	
NAFARROA	Publikoa	29
	Pribatua	20
	Guztira	49
GUZTIAK OSOTARA	Publikoa	571
	Pribatua	299
	Guztira	870

**5.3.2.1.1 Nafarroako egoera, beste autonomia erkidegoekin alderatuta.**

- Hizkuntza gaitasunaren emaitzak.




**258. koadroa - Nafarroako egoera, beste autonomia erkidegoekin alderatuta**

**Hizkuntza gaitasunaren emaitzak.**

Nafarroa	531
Madril	530
Gaztela eta Leon	528
Asturias	527
Errioxa	522
Kantabria	519
Aragoi	514
Euskal Autonomia Erkidegoa	511
Murtzia	511
Gaztela-Mantxa	511
Katalunia	502
Espainia	500
Balea Uharteak	497
Valentziako Erkidegoa	490
Kanariak	488
Galizia	487
Extremadura	485
Andaluzia	482
Ceuta	437
Melilla	428

- Matematika gaitasunaren emaitzak.




**259. koadroa - Nafarroako egoera, beste autonomia erkidegoekin alderatuta**

**Matematika gaitasunaren emaitzak**

Nafarroa	546
Gaztela eta Leon	526
Errioxa	525
Euskal Autonomia Erkidegoa	525
Madril	521
Aragoi	520
Kantabria	510
Asturias	510
Galizia	502
Murtzia	500
Espainia	500
Gaztela-Mantxa	497
Balear Uharteak	494
Valentziako Erkidegoa	491
Katalunia	487
Extremadura	486
Andaluzia	486
Kanariak	468
Melilla	454
Ceuta	452

- Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasunaren emaitzak.






**260. koadroa - Nafarroako egoera, beste autonomia erkidegoekin alderatuta**

**Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasunaren emaitzak**

Nafarroa	534
Gaztela eta Leon	528
Madril	525
Errioxa	524
Kantabria	517
Asturias	514
Katalunia	513
Aragoi	511
Galizia	506
Euskal Autonomia Erkidegoa	504
Murtzia	504
Gaztela-Mantxa	504
Balear Uharteak	503
Espainia	500
Extremadura	494
Valentziako Erkidegoa	494
Andaluzia	482
Kanariak	475
Melilla	434
Ceuta	433

Gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasunaren emaitzak.



**261. koadroa - Nafarroako egoera, beste autonomia erkidegoekin alderatuta**

**Gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasunaren emaitzak**

Madril	529
Gaztela eta Leon	529
Errioxa	528
Nafarroa	519
Galizia	515
Gaztela-Mantxa	515
Asturias	511
Aragoi	510
Murtzia	508
Kantabria	507
Espainia	500
Euskal Autonomia Erkidegoa	498
Valentziako Erkidegoa	495
Katalunia	494
Balear Uharteak	491
Kanariak	489
Andaluzia	486
Extremadura	485
Melilla	446
Ceuta	445

- Errendimendu mailak.

Ondoko koadroetan ikusten da Nafarroako zenbat ikasle (ehunekotan) dauden errendimendu maila bakoitzean, Espainiako batez bestekoarekin alderatuta. Bistan denez, maila altuetan (3 eta >3) dauden ikasleen ehunekoa Nafarroan askoz handiagoa da Espainian batez beste baino, ebaluatutako gaitasun guztietan.

Errendimendu mailen analitik informazio interesgarria ateratzen da, ekitatearen eta bikaintasunaren adierazlea dena. 1. eta <1. mailan dauden ikasleen ehunekoak ekitatea adierazten du. Ehuneko hori zenbat eta txikiagoa izan, handiagoa da ekitatea. Era berean, 5. mailan dauden ikasleen ehunekoak bikaintasuna adierazten du. Maila gorenean dauden ikasleen ehunekoa zenbat eta handiagoa izan, handiagoa da bikaintasuna.

**262. koadroa - Errendimendu mailak, Nafarroan eta Espainian**

**Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna**

	Puntuazioa	<1. maila	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	5. maila
Nafarroako Foru Komunitatea	531	%2	%7	%22	%33	%25	%11
Espainia, batez beste	500	%6	%12	%26	%29	%19	%8
Ehunekoaren arteko aldea	+31	-4	-5	-4	+4	+6	+3

**Matematika gaitasuna**

	Puntuazioa	<1. maila	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	5. maila
Nafarroako Foru Komunitatea	546	%2	%7	%20	%29	%25	%17
Espainia, batez beste	500	%4	%14	%30	%28	%16	%8
Ehunekoaren arteko aldea	46	-2	-7	-10	+1	+9	+9

**Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna**

	Puntuazioa	<1. maila	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	5. maila
Nafarroako Foru Komunitatea	534	%2	%7	%22	%31	%25	%12
Espainia, batez beste	500	%5	%13	%27	%29	%18	%8
Ehunekoaren arteko aldea	34	-3	-6	-5	+2	+7	+4


**Gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna**

	Puntuazioa	<1. maila	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	5. maila
Nafarroako Foru Komunitatea	519	%3	%9	%23	%31	%23	%11
Espainia, batez beste	500	%6	%12	%24	%30	%20	%8
Ehunekoaren arteko aldea	19	-3	-3	-1	+1	+3	+3

- Maila sozioekonomikoaren eta kulturalaren eta emaitzen arteko erlazioa. Ekitatiboak ez diren sistemek ez dituzte aniztasunari erantzuteko neurriak eta ondorioz, gizarte egoera oneko familia inguruetatik datozen ikasleek emaitza onak lortu ohi dituzte eta, aldiz,


gizarte egoera ahuleko inguruetatik datozenek emaitza txarragoak izan ohi dituzte. Hezkuntza sistema ekitatiboek konpentsatu egin behar dute jatorrizko maila sozioekonomikoaren eragina. Lau gaitasun hauetan ikusten da Nafarroako ikasleak beren maila sozioekonomikoaren arabera legokien mailatik gora daudela, hots, esan liteke Nafarroako sistemak Espainiako batez bestekoak baino gehiago konpentsatzen dituela ikasleen eta familien arteko desberdintasun sozioekonomiko eta kulturalak.

### Competencia en comunicación lingüística




Hizkuntza gaitasunean Nafarroa erkidegoen batez bestekoaren gainera dago, bai errendimendu mailari bai eta maila sozioekonomiko eta kulturalari dagokienez. Gainera, erregresio-zuzena baino gorago dago, hots, Nafarroako batez besteko maila sozioekonomiko eta kulturalaren (ISEK) arabera dagokiona baino errendimendu hobea du batez beste.

Competencia matemática




Matematika gaitasunean Nafarroa erkidegoen batez bestekoaren gaitetik dago, bai errendimendu mailari bai eta maila sozioekonomiko eta kulturalari dagokienez. Gainera, erregresio-zuzena baino askoz ere gorago dago, hots, Nafarroako batez besteko maila sozioekonomiko eta kulturalaren (ISEK) arabera dagokiona baino errendimendu hobea du batez beste.

Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna



Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasunean Nafarroa erkidegoen batez bestekoaren gainerik dago, bai errendimendu mailari bai eta maila sozioekonomiko eta kulturalari dagokienez. Gainera, erregresio-zuzena baino gorago dago, hots, Nafarroako batez besteko maila sozioekonomiko eta kulturalaren (ISEK) arabera dagokiona baino errendimendu hobea du batez beste.

Gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna



Gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasunean Nafarroak errendimendu maila "ertain-altua" du eta erkidegoen batez bestekoaren gainerik dago maila sozioekonomiko eta kulturalari dagokionez. Gainera, erregresio-zuzena baino gorago dago, hots, Nafarroako batez besteko maila sozioekonomiko eta kulturalaren (ISEK) arabera dagokiona baino errendimendu hobea du batez beste.

- Ondorioak

Pedagogikoak.

1. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna:

Espainiako batez bestekoarekin eta beste autonomia erkidegoetako emaitzekin erkatuz, Nafarroak izandako emaitza orokorrak oso onak izan dira. Gogoratu behar da D ereduko ikasleek ere gaztelaniaz egin zutela proba.

Espainiako batez bestekoarekin erkatuz, irakurriaren ulermeneko atalaren eta idazmeneko atalaren artean ez dago alderik eta bietan Espainiako batez bestekoa baino nahiko emaitza hobekak lortu dira. Espainia mailan idazmena irakurriaren ulermena baino zailagoa gertatu da, eta Nafarroan ere bai.

Irakurmenean ez da desberdintasun handirik ikusten errendimendua irakurketa prozesuen arabera aztertzean.

Idazmenean, "aurkezpen eta berrikuspen" prozesuak lortu du emaitzarik apalena Espainiako batez bestekoaren aldean. Prozesu horrek testuaren irakurgarritasunarekin, garbitasunarekin, ortografia eta gramatika zuzen erabiltzearekin eta abarrekin du zerikusia. Koherentzia eta kohesioan, gainerako erkidegoetan gertatu den bezalaxe, Nafarroako puntuazioa 500 puntuko batez bestekotik behera dago.

2. Matematika gaitasuna:

Espainiako batez bestekoarekin eta beste autonomia erkidegoetako emaitzekin erkatuz, Nafarroak izandako emaitza orokorrak oso onak izan dira.

Espainiako batez bestekoaren aldean, puntuaziorik onena “berregintza” eta “lotura” prozesuetan lortu da eta txarrena, aldiz, “hausnarketarekin” loturiko prozesuetan.

Eduki multzo guztietan lortu dira Espainiako batez bestekoa baino emaitza hobekak.

3. Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna:

Espainiako batez bestekoarekin eta beste autonomia erkidegoetako emaitzekin erkatuz, Nafarroak izandako emaitza orokorrak oso onak izan dira.

Prozesu guztietan emaitzak Espainiako batez bestekoa baino aski hobekak izan dira.

Eduki multzo guztietan lortu dira Espainiako batez bestekoa baino emaitza hobekak.

4. Gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna:

Espainiako batez bestekoarekin eta beste autonomia erkidegoetako emaitzekin erkatuz, Nafarroak izandako emaitza orokorrak onak izan dira.

Espainiako batez bestekoaren aldean, puntuaziorik onena “informazioa erabiltzearekin” zerikusia duen prozesuak eskuratu du eta apalena, aldiz, “gizarteko bizikidetzarekin” loturiko prozesuak.

Espainiako batez bestekoaren aldean, emaitzarik apalenak “norbanakoarekin” eta “sistema demokratikoekin” lotutako eduki blokeetan lortu dira eta, aldiz, emaitzarik onenak “gaur egungo gizarteei” buruzko eduki multzokoa izan dira.

Hezkuntzaren kalitatearekin loturikoak.

1. *Nafarroako Bigarren Hezkuntza ekitatiboa da* (gutxienez ere ebaluatu izan den kurtsoan). Hots, konpentsatzen ditu ikasleek hezkuntzan sartzean izan ditzaketen desberdintasunak (desberdintasun ekonomikoak, kulturalak, bizitokiaren arabekoak, etab.). Ondorio horretara iritsi gara, hiru arrazoi hauengatik:

Ikasleen emaitzak batez besteko emaitzaren inguruan bilduta agertzen direlako. Eta emaitza hori, Espainiako batez bestekoa baino altuagoa da.

Nafarroako laginean ebaluaturiko ikasleen ehuneko txiki bat dagoelako eskalako beheko mailan.

Erdietsitako emaitza ikasleen eta familien maila sozioekonomiko eta kulturalaren arabera espero zitekeena baino zerbait hobea delako.

Ikastetxe batzuen eta besteen arteko errendimendu aldeak txikiagoak dira Espainiako batez bestekoa baino.

2. *Nafarroako Bigarren Hezkuntzak bikaintasuna garatzen du* (gutxienez ere ebaluatu izan den kurtsoan). Hiru arrazoi daude bikaintasunari buruz ondorio horretara iristeko:

Emaitzak Espainiako batez bestekotik dezente gorago daudelako, eskalako goiko mailetan.

Eskalako goiko mailetan ikasleen ehuneko handi bat dagoelako.

Ebaluaturiko laginean ikastetxeen kopuru handi batek emaitza onak erdiesten dituelako “maila sozioekonomikoa” aldagaiaren arabera.

3. *Nafarroako Bigarren Hezkuntza eraginkorra da, helburuak betetzen baititu* (gutxienez ere ebaluazioaren xede den kurtsoan). Txostenak ematen duen informazioan oinarriturik, ondoko ondorioetara iritsi gaitzke:

Nafarroako Bigarren Hezkuntzak behar bezala prestatzen ditu ikasleak.

Nafarroako *Bigarren Hezkuntzak* gurasoen eta, oro har, gizartearen kultura eta hezkuntza mailari erantzuten dio.

Nafarroan emaitzak bat datoz Foru Komunitatearen aberastasunarekin (biztanleko batez besteko BPGarekin).

Hezkuntza Sistemak Nafarroan ikasle immigranteen kopuru handia eskolatzen du, eta oro har, emaitza onak erdiesten ditu.

Nafarroan emaitza onak erdiesten dira eta ikasleko diru gehien gastatzen duten erkidegoetan bigarrena da (Euskal Autonomia Erkidegoa da lehena).

Nafarroa irakasleko ikasle kopuruaren ratio txikiena duten erkidego autonomoetako bat da, eta denetatik emaitzarik onenak lortu dituena da.

5.3.2.2. 2009ko Ebaluazio Diagnostiko Orokorreko emaitzak. Lehen Hezkuntzako 4. maila (Nafarroako Hezkuntza Sistemari buruzko 2009/2010 ikasturteko txostenean argitaratua).

Ebaluazio diagnostiko orokorrarekin baloratu nahi da zein den oinarrizko gaitasunen eskuratzeko maila. Probek, nazioarteko PISA eta PIRLS ebaluazioen ildoan, garrantzi handia ematen diete arrazoitze eta egoera zehatzei konponbideak bilatzeko gaitasunari, eta ikasitakoa Lehen Hezkuntzako laugarreneko ikasleen mundutik hurbilekoak diren egoera arruntetan aplikatzeko gaitasunera bideratuta daude.

Laginarekin tamainak eta ezaugarriek ahalbidetzen dute datuak autonomia erkidegokara bereiztea. Nafarroan 50 ikastetxe publiko eta itundutako 1.500 ikasleri egin zitzaizkien probak. Hala ere, emaitzak ez dira inolaz ere ranking gisa interpretatu behar, aitzitik, gure hezkuntza sistemaren funtzionamendua ulertzen lagunduko diguten beste kalitate-adierazle batzuen testuinguruan ulertu behar dira.


Lau gaitasun ebaluatu dira, hain zuzen ere, Europar Batasuneko herrialde guztiak beren hezkuntza sistemetan lantzen ari diren oinarrizko gaitasunen artekoak: Hizkuntza gaitasuna (HG), Matematika gaitasuna (MG), Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna (MFEEG) eta Gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna (GHJG).

HGko probak gaztelaniaz egin zituzten ikasle parte-hartzaile guztiek, zeinahi delarik ere haien eskolatzeko hizkuntza ereduak. MG, MFEEG eta GHJGko probak gaztelaniaz egin zituzten G/A ereduak eta euskaraz D ereduak.


Nafarroan dagoen egoera, beste autonomia erkidegoekin erkatuta.




HIZKUNTZA GAITASUNA (528 PUNTU)




MATEMATIKA GAITASUNA (537 PUNTU)



MUNDU FISIKOA EZAGUTZEKO ETA HAREKIN ELKARRERAGINEAN ARITZEKO GAITASUNA (522 PUNTU)



GIZARTEAN ETA HERRITAR GISA JARDUTEKO GAITASUNA (519 PUNTU)



Oharrak:

HG eta MGko emaitzetan, Nafarroa, errendimenduari dagokionez, goiko taldean dago (batez beste 520 eta 540 puntu artean) beste sei autonomia erkidegorekin batera. Ez dago diferentzia nabarmenik errendimendurik handiena duten sei autonomia erkidego hauen artean.

MFEEGko emaitzetan, Nafarroa 520 eta 540 puntu artean dituzten autonomia erkidegoen taldean dago. Beste hiruk 540 puntutik gorako errendimendua dute.

GHJGko emaitzetan, Nafarroa 500 eta 520 puntu artean dituzten autonomia erkidegoen taldean dago, beste sei autonomia erkidegorekin batera. Beste bostek 520 eta 540 puntu arteko errendimendua dute.

Emaitzen azterketa. Ondorio nagusiak

(“Análisis de los resultados de Navarra en la Evaluación General de Diagnóstico 2009 Educación Primaria 4º curso Gobierno de Navarra Departamento de Educación, 2010” argitalpenetik hartua)

Ondorioak bi ataletan sailkatuta azaldu dira. Batetik, izaera pedagogikoagoa dutenak; bestetik, Nafarroako Hezkuntza Sistemaren ikuspegiarekin lotuago azaltzen direnak, kalitate-adierazle gisa ebaluazio honetako emaitzak baliatuz.

Izaera pedagogikoa duten ondorioak

1. Hizkuntza-komunikaziorako gaitasuna:

Espainiako batez bestekoarekin eta beste autonomia erkidegoetako emaitzekin erkatuz, Nafarroak izandako emaitza orokorrak onak izan dira.

Ikasleek hobeki ebazten dituzte testuen ulermenarekin loturiko lanak, ekoizpen idatziarekin loturikoak baino.

Irakurketan, informazioa identifikatzearekin loturiko prozesua da puntuazio handiena eskuratu duena, Espainiako batez bestekoarekin erkatuz; aldiz, testuaren antolamenduarekin loturiko prozesua da erkatuz gero emaitzarik apalena eskuratu duena.

Idazketan, aurkezpenarekin eta berrikuspenarekin loturiko prozesuak dira puntuazio handiena eskuratu dutenak, Espainiako batez bestekoarekin erkatuz; aldiz, testuaren egokitasunarekin loturiko prozesua da erkatuz gero emaitzarik apalena eskuratu duena.

2. Matematika gaitasuna:

Espainiako batez bestekoarekin eta beste autonomia erkidegoetako emaitzekin erkatuz, Nafarroak izandako emaitza orokorrak oso onak izan dira.

Loturarekin zerikusia duen prozesua da puntuazio handiena erdietsi duena, Espainiako batez bestekoarekin erkatuz; aldiz, hausnarketarekin loturiko prozesua da erkatuz gero emaitzarik apalena eskuratu duena.

Zenbakiarekin eta eragiketekin eta informazioaren trataerarekin, ausarekin eta probabilitatearekin loturiko eduki blokeak dira puntuazio handiena erdietsi dutenak, Espainiako batez bestekoarekin erkatuz; aldiz, geometriarekin loturiko blokea da erkatuz gero emaitzarik apalena eskuratu duena.

3. Mundu fisikoa ezagutzeko eta harekin elkarreraginean aritzeko gaitasuna:

Espainiako batez bestekoarekin eta beste autonomia erkidegoetako emaitzekin erkatuz, Nafarroak eskuraturiko emaitza orokorrak espero zitekeenetik behera daude, aipatu ditugun gaitasunei dagokienez. Nolanahi ere, emaitza balekotzat jo daiteke.

Gai zientifikoen identifikazioarekin loturiko prozesua da puntuazio handiena erdietsi duena, Espainiako batez bestekoarekin erkatuz; aldiz, proba zientifikoen erabilerarekin loturiko prozesua da erkatuz gero emaitzarik apalena eskuratu duena.

Materiarekin eta energiarekin loturiko edukia da puntuazio handiena erdietsi duena, Espainiako batez bestekoarekin erkatuz; aldiz, zientziarekin, teknologiarekin eta gizartearekin eta Lurrarekin eta unibertsoarekin loturiko blokeak dira erkatuz gero emaitzarik apalena eskuratu dutenak.

4. Gizartean eta herritar gisa jarduteko gaitasuna:

Espainiako batez bestekoarekin eta beste autonomia erkidegoetako emaitzekin erkatuz, Nafarroak eskuraturiko emaitza orokorrak espero zitekeenetik behera daude, hizkuntza gaitasunaren eta matematika gaitasunaren emaitzei dagokienez. Nolanahi ere, emaitza balekotzat jo daiteke.

Bizikidetzan gizartean gaiarekin zerikusia duen prozesua da puntuazio handiena erdietsi duena, Espainiako batez bestekoarekin erkatuz; aldiz, gizarte gertaeren ulermenarekin loturiko prozesua da erkatuz gero emaitzarik apalena eskuratu duena.

Gizarte antolamenduarekin zerikusia duen prozesua da puntuazio handiena erdietsi duena, Espainiako batez bestekoarekin erkatuz; aldiz, iraganarekin loturiko prozesua da erkatuz gero emaitzarik apalena eskuratu duena.

Hezkuntzaren kalitatearekin loturiko ondorioak.

Datu partikularretatik abiatuta ondorio orokorrak ateratzekak beti dakar berarekin arriskua. Hala ere, azterturiko adierazleen artean nolabaiteko barne finkotasuna dagoenean, ondorioak atera daitezke, behar besteko zuhurtziarekin, eta kontuan izanik zeintzuk diren horien iturri kuantitatiboak.

Nafarroako emaitzak testuinguruaren, baliabideen eta emaitzen aldagaiekin lotuta aztertuz gero, ondoko lau ondorioetara iritsi gaitezke:

**1. Nafarroako Lehen Hezkuntza ekitatiboa da** (gutxienez ere ebaluatua izan den kurtsoan). Hots, ikasleak hezkuntzan sartzen direnean izan ditzaketen desberdintasunak konpentsatzen ditu (desberdintasun ekonomikoak, kulturalak, bizitokiaren arabekoak, etab.). Ondorio horretara iritsi gara, hiru arrazoi hauengatik:

Ikasleen emaitzak batez besteko emaitzaren inguruan bilduta agertzen direlako. Eta emaitza hori, Espainiako batez bestekoa baino altuagoa da.

Nafarroako laginean ebaluaturiko ikasleen ehuneko txiki bat dago eskalako beheko mailan.

Erdietsitako emaitza ikasleen eta familien maila sozioekonomiko eta kulturalaren arabera espero zitekeena baino zerbait hobea da.

Ikastetxe batzuen eta besteen arteko errendimendu aldeak Espainiako batez bestekoa baino txikiagoak dira.

**2. Nafarroako Lehen Hezkuntzak bikaintasuna garatzen du** (gutxienez ere ebaluatua izan den kurtsoan). Hiru arrazoi daude ondorio honetara iristeko:

Emaitzak Espainiako batez bestekotik dezente gorago daude, eskalako goiko mailetan.

Eskalako goiko mailetan ikasleen ehuneko handi bat dago.

Ebaluaturiko laginean ikastetxeen kopuru handi batek emaitza onak erdietsi ditu "maila sozioekonomikoa" aldagaiari dagokionez.

**3. Nafarroako Lehen Hezkuntza eraginkorra da, helburuak betetzen baititu** (gutxienez ere ebaluazioaren xede den kurtsoan). Txostenak ematen duen informazioan oinarriturik, ondoko ondorioetara iritsi gaitezke:

Nafarroako Lehen Hezkuntzak behar bezala prestatzen ditu ikasleak Bigarren Hezkuntza arrakastaz egin dezaten (ikasle gutxiak errepikatzen du 14 urtera arte).

Nafarroako Lehen Hezkuntzak gurasoen, eta oro har, ikasleen kultura eta hezkuntza mailari erantzuten dio.

Nafarroan emaitzak bat datoz Foru Komunitatearen aberastasunarekin (biztanleko batez besteko BPGarekin).

Hezkuntza Sistemak Nafarroan ikasle immigranteen kopuru handia eskolatzen du, eta oro har, emaitza onak erdiesten ditu.

**4. Nafarroako Lehen Hezkuntza eraginkorra da, gastuen eta emaitzen arteko erlazioari dagokionez** (gutxienez ere ebaluazioaren xede den kurtsoan).

Ondorio hau ateratzeko, bi arrazoi:

Ikasleko gastuaren eta emaitzaren arteko erlazioa egokia da, bi alderdien arteko proportzioa gordetzen du.

Ikasle-irakasle ratioaren eta emaitzen arteko erlazioa egokia da.

5.3.3. Nazioarteko ebaluazio diagnostikoak. PISA 2009. Nafarroako Foru Komunitateko emaitzen analisia

- PISAren ezaugarri orokorrak.

#### OINARRIZKO ALDERDIAK

Nazioarteko ebaluazio estandarizatua da. Herrialde parte-hartzaileek batera garatzen dute eta hezkuntza sisteman sartuta dauden 15 urteko ikasleei aplikatzen zaie.

Azterlan hau 2009an 65 herrialdetan egin zen eta Europako 45 komunitate edo eskualdetan egin da lagin adierazgarriarekin.

Batez beste, herrialde bakoitzeko 4.500 eta 10.000 ikasleren artean egin zituzten ebaluazio probak.

<b>EDUKIA</b>
<p>PISA 2009n <i>irakurmena, matematika gaitasuna</i> eta <i>gaitasun zientifikoa</i> ebaluatu ziren. Curriculuma menderatzeari baino gehiago begiratzen zaie helduaroan beharrezkoenak eta garrantzitsuenak diren ezagutza eta trebetasunei.</p> <p>Garrantzia ematen zaio, bereziki, prozesuak menderatzeari, kontzeptuak ulertzeari eta arlo bakoitzeko askotariko egoeretan moldatzeko gaitasunari.</p>
<b>METODOLOGIA</b>
<p>Ariketetan era desberdinetako galderak konbinatzen dira: batzuk aukera anitzekoak dira eta besteetan, berriz, ikasleak bere erantzunak landu behar ditu. Galderak unitatetan antolatzen dira, unitate bakoitza bizitza errealeko egoera bat planteatzen duten idatzizko pasarte baten ingurukoa delarik.</p> <p>Osozara 390 minutu irauten dute ebaluazio probek eta denbora horretan ikasleek hainbat ariketa konbinazio egiten dituzte. Ikasle bakoitzak 120 minutuz egiten ditu probak.</p> <p>Ikasleek testuinguruari buruzko galdetegi bat erantzuten dute, beren buruari eta familiari buruzko informazioa emanez. 30 bat minutu behar dira horretarako. Ikastetxeetako zuzendariak beren ikastetxeari buruzko 20 minutuko galdetegi bat erantzuten dute.</p>

<b>EBALUAZIOAREN ZIKLOA</b>
<p>Ebaluazioa hiru urtean behin egiten da, 2015era arte indarrean izanen den plan estrategikoaren arabera.</p> <p>Ziklo horietako bakoitzean arlo nagusi bat aztertzen da sakonean (ebaluazioaren denboraren bi heren hartzen ditu) eta gainerako arloetan trebetasunak laburbiltzen dituen profila lortzen da. 2000. urtean arlo nagusia <i>irakurmena</i> izan zen, 2003an <i>matematika gaitasuna</i>, 2006an <i>gaitasun zientifikoa</i> eta 2009an berriz ere <i>irakurmena</i>.</p>
<b>EMAITZAK</b>
<p>15 urteko gaztetxoek ezagutzen eta trebetasunen oinarritzko profila.</p> <p>Testuinguruaren adierazleak, errendimenduaren eta ikasle eta ikastetxeen arteko lotura egiteko balio dutenak.</p> <p>Joeren adierazleak, denboran zehar emaitzen bilakaera erakusten dutenak.</p> <p>Hezkuntza politiken analisirako eta ikerketarako oinarri izanen diren ezagutzak.</p>

- PISA 2009 Nafarroan.

Lagina 49 ikastetxek osatu zuten. Ikastetxe horiek hautatzeko prozedura ausazkoa eta proportzionala (1994an jaiotako ikasle kopuruarekiko) erabili zen. Ondoren, hautatutako ikastetxe bakoitzetik 35 ikasle (gehienez ere) ausaz aukeratu ziren; ikastetxe txikietan ikasle gutxiagok parte hartu zuten. Osozara 1.670 ikaslek parte hartu zuten laginean.

<b>263. koadroa - Ikastetxeen banaketa, titulartasunaren eta hizkuntza ereduaren arabera</b>						
	<b>Kop</b>	<b>%</b>			<b>Kop</b>	<b>%</b>
Ikastetxe publikoak	31	63,3		A/G eredukoak	35	71,4
Ikastetxe itunduak	18	36,7		D eredukoak	14	28,6

264. koadroa – Lagineko ikasleen banaketa kurtsoaren edo ikasketa mailaren arabera		
	Kop	%
Batxilergoko 1.a	1	0,1
DBHko 4.a	1113	74,0
DBHko 3.a	314	20,9
DBHko 2.a	76	5,0
Guztira	1504	100

265. koadroa - Ikasle kopurua eta ehunekoa sexuaren arabera		
	Kop	%
Mutilak	785	52,2
Neskak	719	47,8

266. koadroa - Ikasle kopurua eta ehunekoa hizkuntza ereduaren arabera		
	Kop	%
A/G ereduko ikasleak	1079	71,7
D ereduko ikasleak	425	28,3

267. koadroa - Ikasle kopurua eta ehunekoa ikastetxearen titulartasunaren arabera		
	Kop	%
Ikastetxe publikoetako ikasleak	954	63,4
Ikastetxe pribatuetako ikasleak	550	36,6

- EMAITZAK IRAKURMENEAN.

Herrialde bakoitzeko ikasleen errendimendu maila adierazteko batez besteko puntuazioa erabili daiteke, parte hartu duten ikasleek erdietsitako puntuazioen batez bestekoaren kalkulutik abiatuta.

Nafarroan 15 urteko ikasleek batez beste 497 puntu eskuratu zituzten irakurmenean. ELGAko herrialdeen batez bestekoa 493 puntu izan ziren. Beraz, Nafarroako ikasleek ELGAko batez bestekoa baino 4 puntu gehiago lortu zituzten. Alde hori estatistikoki ez da esanguratsua %95eko konfiantza mailarekin.


Nafarroak Espainiak baino 16 puntu gehiago eskuratu zituen (Espainiak 481 puntu); kasu honetan puntuazioen aldea bada estatistikoki esanguratsua.

268. koadroa - Batez besteko puntuazioa eta desbideratze tipikoa Nafarroan, Espainian eta ELGAN					
	Irakurmena				
	Kop	Batez bestekoa	ET	Desbideratze tipikoa	ET
Nafarroa	1504	497	(3,1)	84	(2,1)
Espainia	25887	481	(2,0)	88	(1,1)
ELGAko batez bestekoa	298454	493	(0,5)	93	(0,3)

Nafarroako desbideratze tipikoa ELGAko batez bestekoa baino txikiagoa da. Horrek esan nahi du ikasleen puntuazioak batez bestekoaren inguruan pilatzen direla edo emaitzak homogeneoagoak direla, ELGAko herrialdeen batez bestekoarekin alderatzen baditugu.


GRAFIKOA. Batez besteko puntuazioa Nafarroan, Espainian eta ELGAN

**Puntuación media en Lectura**



GRAFIKOA. Herrialde parte-hartzaile guztien batez besteko puntuazioa

**Puntuación media en lectura**





269. koadroa - Irakurmenean, gaitasun maila bakoitzean dauden ikasleen ehunekoa Nafarroan, Espainian eta ELGAko batez bestekoa.							
	Gaitasun mailak: IRAKURMENA						
	1. mailatik behera	1 eta 1b bitarteko maila	2. maila	3. maila	4. maila	5. maila	6. maila
	262 puntu baino gutxiago	262 puntu baino gehiago	407 puntu baino gehiago	480 puntu baino gehiago	553 puntu baino gehiago	626 puntu baino gehiago	698 puntu baino gehiago
Nafarroa	0,5	14,4	24,9	33,4	21,9	4,6	0,4
Espainia	1,2	18,3	26,8	32,6	17,7	3,2	0,2
ELGA	1,1	17,7	24,0	28,9	20,7	6,8	0,8

Hezkuntza sistemen ekitate maila eta bikaintasuna aztertzeko gaitasunak 6 mailatan banatzen ditu PISAK, eta begiratzen du horietako bakoitzean kokatutako ikasleen ehunekoa zein den. 2. mailara iristen ez diren ikasleak (hots, 1. mailan edo 1. mailatik behera daudenak) Nafarroan %15 baino gutxiago dira eta, aldiz, ELGAko herrialdeetan %18,8 dira batez beste. Horrek esan nahi du gure hezkuntza sistema ELGAko batez bestekoa baino ekitate *absolutu* handiagoaz aritzen dela, hots, ikasleen ehuneko handiago bati ematen diola oinarrizko irakurmena.

Erdiko mailetan (2., 3., eta 4.ean) dauden ikasleen ehunekoak dira: %80,2 Nafarroan, %77,1 Espainian eta %76,6 ELGAko batez bestekoa. Nafarroako ekitate *erlatiboa* ere ELGAko batez bestekoa baino altuagoa da.

Nafarroan ikasleen %0,4 daude kokatuta 6. mailan eta, ordea, ELGAko herrialde guztien batez bestekoaren % 0,8. Esan daiteke Nafarroak *bikaintasun ertain-baxuko* emaitzak dituela.

Nafarroako emaitzak Espainiakoen aldean hobeak dira, bai ekitate absolutuan bai bikaintasunean: 2. mailara iristen ez diren ikasleen ehunekoa 4,6 puntu txikiagoa da Nafarroan.

- Emaitzak eskolatze mailaren arabera

270. koadroa - Ehunekoak, batez besteko puntuazioak eta desbideratze tipikoa eskolatze mailaren arabera					
	IRAKURMENA				
	Biztanleriaren ehunekoa	Batez bestekoa	ET	Desbideratze tipikoa	ET
DBHko 2.a	5,3	397	(9,8)	75	(9,2)
DBHko 3.a	22,8	436	(4,1)	69	(3,3)
DBHko 4.a	71,8	524	(3,7)	72	(2,4)
Nafarroa	99,9	497	(3,1)	84	(2,1)


Espero izatekoa zen bezala, ikasleek eskuratzen duten emaitza beren eskolatze mailak baldintzatzen du.

DBHko 4.eko ikasleen batez besteko puntuazioa (524) Nafarroako batez bestekoa baino 27 puntu handiagoa da; 3.ekoek batez beste 436 puntu lortu zituzten eta DBHko 2.ekoek batez beste 397.

Beraz, batez beste, DBHko 4.ekoek baino 127 eta 88 puntu gutxiago eskuratu zituzten 2.ekoek eta 3.ekoek hurrenez hurren. Alde horiek estatistikoki esanguratsuak dira. PISAK egiten duen balorazioaren arabera 60 puntu eskolatze urte baten baliokideak dira, beraz, ondorioztatzen ahal da, 3.eko ikasleek espero izatekoa dena baino errendimendu txikiagoa dutela eta 2.ekoek, berriz, espero izatekoa den puntuazioa dutela.

1994an jaiotako 15 urteko ikasleetatik %28,1 errepikatzaileak dira.  
 GRAFIKOA. Batez besteko puntuazioak eskolatzeko mailaren arabera

**Lectura**  
**Nivel de escolarización y rendimiento académico**



- Emaitzak migrazio estatusaren arabera.

PISAn errendimendua aztertzeko erabiltzen ahal den aldagaietako bat migrazio estatusa da: kontuan hartzen da ikaslea bertakoa ala 1. edo 2. belaunaldiko etorkina den. Bertako ikasleen eta etorkinen artean 58 puntuko aldea dago, hau da, ia eskolatzeko urte oso bati dagokiona. Nafarroan 15 urteko ikasleetatik %12,7 dira etorkinak.

<b>271. koadroa - Batez besteko puntuazioak migrazio estatusaren arabera</b>			
	<b>Biztanleriaren ehunekoa</b>	<b>Batez bestekoa</b>	<b>ET</b>
Bertakoak	87,3	505	(3,3)
Etorkinak	12,7	447	(6,6)
Nafarroa	100	497	(3,1)

- Emaitzak maila sozioekonomiko eta kulturalaren arabera.

PISA ebaluazioetan, maila sozioekonomiko eta kulturala (ISEK) zein den zehazteko ikasleei informazioa eskatzen zaie, gurasoen lanbide kategoriei eta ikasketei buruz eta etxean dituzten kontsumo ondasunei buruz.

ELGA barruan ISEK indizearen batez besteko banaketa normala 0 da eta desbideratze tipikoa 1. Ikasle bakoitzak ISEK balio jakin bat du, eta horretan oinarrituta kalkulatzen ahal da herrialde eta erkidego bakoitzaren batez besteko balioa.


Ondoko taulan ikusten da Espainiako ISEK (-0,31) eta Nafarroakoa (-0,18) ELGAKoa (0) baino txikiagoak direla eta alde horiek, bietan, estatistikoki esanguratsuak dira.

272. koadroa - Ikasleen Irakurmen errendimenduaren eta maila sozioekonomiko eta kulturalaren indizearen (ISEK) arteko erlazioa PISA 2009an.						
	ISEK		Batez besteko puntuazioa Irakurmenean	OCDEko ISEK berarekin (0) espero izatekoa den batez besteko puntuazioa	Ikasleen errendimenduaren eta ISEKen arteko erlazioaren indarra (ikasleen errendimenduko azaldutako bariantza)	Gradiente sozioekonomikoaren inklinazioa (ISEK unitate bati dagokion puntuazio aldea)
	Batez bestekoa	ET				
Espainia	-0,31	(0,03)	481	491	13,6	29,0
ELGAko batez bestekoa	0,00	(0,00)	493	493	14,0	38,0
Nafarroa	-0,18	(0,04)	497	503	13,7	30,2

ISEK indizeak errendimenduan duen eragina taulako laugarren zutabean dago kuantifikatuta (*gradiente sozioekonomikoaren inklinazioa*): ISEK unitate bati batez besteko puntuazioaren 38 puntuko igoera dagokio ELGAko batez bestekoan, 29 puntukoa Espainian eta 30,2 puntukoa Nafarroan.

GRAFIKOA. ELGAko ISEK berarekin (0) espero izatekoa den batez besteko puntuazioa.

**Lectura**  
Puntuación media ajustando el efecto del ISEC



- Emaitzak ikastetxeen titulartasunaren arabera.

Ikusten da titulartasun pribatuko ikastetxeetan eskolatutako ikasleek ikastetxe publikoetakoek baino batez besteko altuagoa lortzen dutela. ELGAko herrialdeetan batez bestekoen arteko aldea 30 puntukoa da, Espainian 37 puntukoa eta Nafarroan 46 puntukoa.

<b>273. koadroa - Errendimendua eta titulartasunaren arabeko aldeak IRAKURMENean</b>								
	Irakurmeneko errendimendua eta titulartasuna							
	GUZTIRA		Ikastetxe publikoak		Ikastetxe pribatuak*		Ikastetxe publikoetako eta pribatuetoako puntuazioen arteko aldea	
	Batez bestekoa	ET	Batez bestekoa	ET	Batez bestekoa	ET	Aldea (Publikoak. – Pribatuak.)	ET
Espainia	481	(2,0)	469	(2,3)	506	(4,0)	- 37	(3,9)
ELGAko batez bestekoa	493	(0,5)	489	(0,6)	511	(2,8)	- 30	(2,6)
NAFARROA	497	(3,1)	480	(3,3)	525	(5,7)	- 46	(6,3)

\* Nafarroako kasuan "pribatuak" ulertu behar dira "itunduak" gisa.

PISAK ikastetxeen titulartasunaren aldagaia eta errendimenduan duen eragina aztertzen du, eta horretarako aintzat hartzen du ikastetxe mota desberdinetan eskolatutako ikasleen maila sozioekonomiko eta kulturala (ISEK). Ondoko taulan ISEK indizearen batez bestekoa dago jasota.


<b>274. koadroa - ISEK indizearen batez bestekoa eta titulartasunaren arabeko aldeak Espainian, ELGAN eta Nafarroan.</b>								
	ISEK eta titulartasuna							
	Nafarroa		Ikastetxe publikoak		Ikastetxe pribatuak*		Aldea (Publikoak – pribatuak)	
	Batez bestekoa	ET	Batez bestekoa	ET	Batez bestekoa	ET	Aldea	ET
Espainia	-0,31	(0,03)	-0,55	(0,03)	0,07	(0,05)	- 0,62	(0,06)
ELGAko batez bestekoa	0,00	(0,00)	-0,06	(0,01)	0,37	(0,02)	- 0,43	(0,02)
NAFARROA	-0,18	(0,03)	-0,41	(0,04)	0,21	(0,10)	- 0,62	(0,10)

\* Nafarroako kasuan "pribatuak" ulertu behar dira "itunduak" gisa.

Laburbilduz, Nafarroan ikastetxe publikoek itunduek baino 46 puntu gutxiago lortzen dituzte irakurmenean, batez beste, eta ISEK txikiagoa dute (0,62 puntu txikiagoa). Orain aztertu behar da puntuazioen arteko alde horretan zenbateraino eragin duen ikastetxeen eta ikasleen maila sozioekonomiko eta kulturalaren aldeak.

PISAK azterketa hori bi pausotan azaltzen du. Lehenengoan ikasleen ISEKak errendimenduan duen eragina kentzen da eta bigarrean, aurrekoaz gainera, ikasle bakoitzaren maila sozioekonomikoak ikastetxeko maila sozioekonomikoarekin duen elkarreraginaren efektua kentzen da.

GRAFIKOA. Ikastetxe publikoetako eta itunduetako batez besteko puntuazioen arteko aldeak




- Emaitzak sexuaren arabera.

Irakurmeneko proban neskek errendimendu hobea dute Nafarroan, Espainian eta ELGAko herrialdeen batez bestekoan.

275. koadroa - Nesken eta mutilen arteko aldea irakurmeneko errendimenduan												
	Eskala orokorra		Informazioa aurkitu eta lortzea		Integratzea eta interpretatzea		Hausnartzea eta ebaluatzea		Testu jarraia		Testu etena	
	Aldea	ET	Aldea	ET	Aldea	ET	Aldea	ET	Aldea	ET	Aldea	ET
Espainia	-28,9	(2,0)	-30,1	(2,2)	-26,6	(2,1)	-34,1	(2,2)	-30,6	(2,2)	-29,1	(2,4)
NAFARROA	-36	(5,2)	-37	(5,6)	-35	(4,7)	-39	(5,9)	-36	(5,2)	-37	(5,9)
ELGA	-39,1	(0,6)	-39,7	(0,7)	-36,0	(0,6)	-44,4	(0,7)	-41,6	(0,6)	-36,3	(0,7)

GRAFIKOA. Mailaz mailako banaketa sexuaren arabera



- EMAITZAK MATEMATIKA GAITASUNEAN.

- Errendimendu orokorra.


Nafarroan 15 urteko ikasleek batez beste 511 puntu eskuratu zituzten.

ELGAko herrialdeen batez bestekoa 496 puntu izan ziren. Beraz, Nafarroako ikasleek ELGAko batez bestekoa baino 15 puntu gehiago lortu zituzten. Alde hori estatistikoki esanguratsua da %95eko konfiantza mailarekin.

Nafarroako batez bestekoa Espainiakoa baino 28 puntu handiagoa da. Alde hori ere estatistikoki esanguratsua da.


<b>276. koadroa - Ikasle kopurua, batez bestekoa eta desbideratze tipikoa Nafarroan, Espainian eta ELGAN</b>					
	<b>Matematika</b>				
	<b>Kop</b>	<b>Batez bestekoa</b>	<b>ET</b>	<b>Desbideratze tipikoa</b>	<b>ET</b>
Nafarroa	1504	511	(3,6)	88	(2,3)
Espainia	25887	483	(2,1)	91	(1,1)
ELGAko batez bestekoa	298454	496	(0,5)	97	(0,3)

GRAFIKOA. Nafarroako, Espainiako eta ELGAko batez bestekoak



GRAFIKOA. Herrialde parte-hartzaile guztien batez besteko puntuazioa

**Puntuación media en competencia matemática**





- Errendimendua gaitasun mailen arabera.

Puntuazio tarteek gaitasun maila desberdinak definitzen dituzte eta maila horietako bakoitzarekin, alegia, ikasleek proban lortutako emaitzarekin, lotuta daude ikasleen trebetasunak eta burutzen ahal dituzten konplexutasun handiagoko edo txikiagoko atazak.

Ondoko taulan ikusi daitekeenez, Nafarroako ikasle guztietatik %15,1 daude 2. mailaren azpitik eta, aldiz, ELGAko batez bestekoan %22. Horrek esan nahi du gure hezkuntza sistemak ekitate absolutu handiagoa duela, hau da, ikasleen ehuneko handiago bati ematen diola oinarritzko gaitasuna.

Nafarroan ikasleen %2,1 daude 6. mailan eta ELGAN, berriz %3,1; bi ehunekoen arteko aldea ez da estatistikoki esanguratsua. Emaitza hori ikusita bikaintasun maila ertaina dela esaten ahal dugu.

Nafarroako emaitzak Espainiakoen aldean hobeak dira, bai ekitate absolutuan bai bikaintasunean: Nafarroan 2. mailaren azpitik dauden ikasleen ehunekoa Espainian baino 8,6 puntu txikiagoa da eta 6. mailan ikasleen ehunekoa 0,8 puntu handiagoa.

Erdiko hiru mailetan (2.ean, 3.ean, eta 4.ean) daude Nafarroako ikasleen %71,4, Espainiako %68,2 eta batez beste ELGAko %65,2.

**277. koadroa - Matematika probako gaitasun mailak (Nafarroan, Espainian eta ELGAko batez bestekoan).**

	Gaitasun mailak						
	1. mailatik behera	1. maila	2. maila	3. maila	4. maila	5. maila	6. maila
	358 puntu baino gutxiago	358tik 420 puntura.	420tik 482 puntura.	482tik 545 puntura.	545etik 607 puntura.	607tik 669 puntura.	669 puntu baino gehiago
Nafarroa	5,5	9,6	19,5	27,6	24,3	11,3	2,1
Espainia	9,1	14,6	23,9	26,6	17,7	6,7	1,3
ELGAko batez bestekoa	8,0	14,0	22,0	24,3	18,9	9,6	3,1

Errendimendua sexuaren arabera.

Nafarroan mutilek 518 puntuko batez besteko puntuazioa eskuratu dute, neskek baino 14 puntu gehiago. 14 puntuko alde hori estatistikoki esanguratsua da %95eko konfiantza mailarekin.

Ondoko taulak erakusten du Espainian eta ELGAko batez bestekoan ere mutilek neskek baino emaitza hobeak izan dituztela; aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.

**278. koadroa - Batez bestekoen arteko aldeak sexuaren arabera Nafarroan, Espainian eta ELGAko batez bestekoan**

	Ikasle guztiak				Sexuaren araberako aldeak					
	Batez bestekoa		Desbideratze tipikoa		Mutilak		Neskak		Aldeak (mutilak – neskek)	
	Batez bestekoa	ET	DT	ET	Batez bestekoa	ET	Batez bestekoa	ET	Aldea	ET
Nafarroa	511	(3,6)	88	(2,3)	518	(4,4)	504	(4,4)	14	(5,3)
Espainia	483	(2,1)	91	(1,1)	493	(2,3)	474	(2,5)	19	(2,2)
ELGAko batez bestekoa	497	(0,5)	97	(0,3)	501	(0,6)	490	(0,6)	12	(0,6)

- EMAITZAK GAITASUN ZIENTIFIKOAN.

- Errendimendu orokorra

Nafarroan 15 urteko ikasleek batez beste 509 puntu eskuratu zituzten.

ELGAko herrialdeen batez bestekoa 501 puntu izan ziren.


Beraz, Nafarroako ikasleek ELGAko batez bestekoa baino 8 puntu gehiago lortu zituzten. Alde hori estatistikoki esanguratsua da %95eko konfiantza mailarekin.

Nafarroako batez bestekoa Espainiakoa baino 21 puntu handiagoa da. Alde hori ere estatistikoki esanguratsua da.

<b>279. koadroa - Ikasle kopurua, batez bestekoa eta desbideratze tipikoa Nafarroan, Espainian eta ELGAN</b>					
	<b>Zientziak</b>				
	<b>Kop</b>	<b>Batez bestekoa</b>	<b>ET</b>	<b>Desbideratze tipikoa</b>	<b>ET</b>
Nafarroa	1504	509	(3,2)	85	(2,0)
Espainia	25887	488	(2,1)	87	(1,1)
ELGAko batez bestekoa	298454	501	(0,5)	94	(0,3)


GRAFIKOA. Gaitasun zientifikoko batez besteko puntuazioa Nafarroan, Espainian eta ELGAN.

### Competencia científica



GRAFIKOA. Herrialde parte-hartzaile guztien batez besteko puntuazioa

**Puntuación media en competencia científica**



- Errendimendua gaitasun mailen arabera.

Ondoko taulan ikusi daitekeenez, Nafarroako ikasle guztietatik %12,8 daude 2. mailaren azpitik eta, aldiz, ELGAko batez bestekoan %18,0. Horrek esan nahi du gure hezkuntza sistemak ekitate absolutu handiagoa duela, hau da, ikasleen ehuneko handiago bati ematen diola oinarritzko gaitasuna.

Nafarroan ikasleen %0,6 daude 6. mailan eta ELGAN, berriz, %1,1. Esan dezakegu bikaintasun ertaineko emaitza dela.

Nafarroako emaitzak Espainiakoen aldean hobeak dira, bai ekitate absolutuan bai bikaintasunean: Nafarroan beheko bi mailetan dauden ikasleen ehunekoa Espainian baino 5,4 puntu txikiagoa da eta 6. mailan dauden ikasleen ehunekoa 0,4 puntu handiagoa.

Erdiko hiru mailetan (2.ean, 3.ean, eta 4.ean) daude Nafarroako ikasleen %81,2, Espainiako %77,8 eta batez beste ELGAko %73,6.

<b>280. koadroa - Gaitasun zientifikoko mailak (Nafarroan, Espainian eta ELGAko batez bestekoan)</b>							
	<b>Gaitasun mailak</b>						
	<b>1. mailatik behera</b>	<b>1. maila</b>	<b>2. maila</b>	<b>3. maila</b>	<b>4. maila</b>	<b>5. maila</b>	<b>6. maila</b>
	<b>335 puntu baino gutxiago</b>	<b>335etik 409 puntura</b>	<b>409tik 484 puntura</b>	<b>484tik 559 puntura</b>	<b>559tik 633 puntura</b>	<b>633tik 708 puntura</b>	<b>708 puntu baino gehiago</b>
Nafarroa	2,6	10,2	25,3	32,4	23,5	5,4	0,6
Espainia	4,6	13,6	27,9	32,3	17,6	3,7	0,2
ELGAko batez bestekoa	5,0	13,0	24,4	28,6	20,6	7,4	1,1

- Errendimendua sexuaren arabera.

Nafarroan mutilek 513 puntuko batez besteko puntuazioa eskuratu dute, neskek baino 9 puntu gehiago. 9 puntuko alde hori ez da estatistikoki esanguratsua %95eko konfiantza mailarekin.

Ondoko taulak erakusten du Espainian ere mutilek neskek baino emaitza hobeak izan dituztela; baina Nafarroan ez bezala, aldeak estatistikoki esanguratsuak dira.

ELGAko batez bestekoan puntuazio bera lortu dute neskek eta mutilek, batez beste.

<b>281. koadroa - Batez bestekoen arteko aldeak sexuaren arabera Nafarroan, Espainian eta ELGAko batez bestekoan</b>										
	<b>Ikasle guztiak</b>				<b>Sexuaren araberako aldeak</b>					
	<b>Batez bestekoa</b>		<b>Desbideratze tipikoa</b>		<b>Mutilak</b>		<b>Neskak</b>		<b>Aldeak (mutilak - neskek)</b>	
	<b>Batez bestekoa</b>	<b>ET</b>	<b>DT</b>	<b>ET</b>	<b>Batez bestekoa</b>	<b>ET</b>	<b>Batez bestekoa</b>	<b>ET</b>	<b>Aldea</b>	<b>ET</b>
Nafarroa	509	(3,2)	85	(2,0)	513	(3,9)	504	(4,1)	9	(4,6)
Espainia	488	(2,1)	87	(1,1)	492	(2,5)	485	(2,7)	7	(2,3)
ELGAko batez bestekoa	501	(0,5)	94	(0,3)	501	(0,6)	501	(0,6)	0	(0,6)

### 5.3.4. Hezkuntza sistemaren emaitzak Estatuko testuinguruan

Jarraian emandako datuei esker Nafarroa testuinguru espainiarrean kokatzen ahal da, hezkuntza emaitzen adierazle gako batzuetan oinarrituta.

2009an Lehen Hezkuntzako laugarren kurtsoan egindako Ebaluazio Diagnostiko Orokorreko daturik azpimarragarrienak bildu dira. Era berean, aurrerakuntzen eta trantsizioen adierazleak ere sartu dira, kasurako, gaitasun tasak (derrigorrezko eskolatzear zehar ikaslearen progresioa egokia dela adierazten dute, eta beraz, bere adinari dagokion kurtsoan dagoela).

Erkatzeko datuak

282. koadroa - Gaitasun tasa Espainian, 2008/2009 ikasturtea <sup>33</sup>									
	10 urte			12 urte			15 urte		
	Mutilak	Neskak	Guztira	Mutilak	Neskak	Guztira	Mutilak	Neskak	Guztira
Guztira	87,7	90,7	89,2	80,9	86,1	83,5	53,6	64,2	58,7
Andaluzia	86,2	90,1	88,1	79,1	85,5	82,2	48,3	59,5	53,7
Aragoi	85,3	87,6	86,4	78,6	83,4	81,0	52,9	62,1	57,4
Asturias	87,2	90,6	88,8	82,0	85,6	83,8	60,4	67,2	63,6
Balear Uharteak	81,4	84,8	83,1	71,9	78,4	75,0	44,3	59,7	51,8
Kanariak	81,9	88,1	84,9	72,0	81,1	76,5	46,1	58,7	52,3
Kantabria	89,9	91,4	90,6	84,2	87,9	86,0	54,9	63,8	59,3
Gaztela eta Leon	86,3	89,5	87,9	78,0	84,9	81,4	51,9	63,9	57,8
Gaztela-Mantxa	83,5	87,8	85,6	75,5	82,0	78,6	48,6	59,9	54,1
Katalunia	92,4	93,9	93,1	89,0	91,4	90,2	64,7	74,6	69,5
Valentziako Erkidegoa	92,0	93,7	92,8	83,2	87,8	85,6	51,3	62,2	56,6
Extremadura	87,3	91,4	89,3	79,2	86,9	82,9	47,3	60,7	53,9
Galizia	88,2	91,7	89,9	81,0	87,8	84,3	52,8	67,0	59,7
Madril	87,2	89,7	88,4	80,7	84,6	82,6	55,9	63,3	59,5
Murtzia	83,7	87,4	85,5	74,6	81,2	77,8	48,0	58,5	53,1
Nafarroa	85,4	88,3	86,8	81,2	86,3	83,7	62,2	72,5	67,1
Euskal Autonomia Erkidegoa	89,8	92,6	91,1	86,4	89,8	88,1	67,0	76,8	71,7
Errioxa	89,3	90,7	90,0	84,9	87,2	86,1	52,4	63,1	57,5
Ceuta	78,8	84,9	81,7	68,5	74,4	71,3	38,3	46,1	42,0
Melilla	85,8	89,4	87,5	78,9	85,8	82,1	39,7	48,8	44,0

Iturria: Hezkuntza Ministerioa: Hezkuntzaren zifrak Espainian. Estatistikak eta Adierazleak. 2011ko argitalpena.

283. koadroa - Sarrera tasa gordina, Bigarren Hezkuntzako bigarren etapako ikasketetan eta unibertsitatekan kanpoko goi mailako ikasketetan, 2008/2009 ikasturtea												
	Batxilergoa			Lanbide Heziketako edo Arte Plastikoetako eta Diseinuko erdi mailako heziketa zikloa			HLKP			Lanbide Heziketako edo Arte Plastikoetako eta Diseinuko goi mailako heziketa zikloa		
	Mutilak	Neskak	Guztira	Mutilak	Neskak	Guztira	Mutilak	Neskak	Guztira	Mutilak	Neskak	Guztira
Guztira	51,2	65,5	58,1	32,6	31,9	32,3	17,7	9,0	13,5	25,5	29,0	27,2
Andaluzia	41,8	54,8	48,1	27,2	29,5	28,3	..	..	..	22,3	24,2	23,2
Aragoi	50,7	67,9	59,1	40,4	34,7	37,6	22,3	10,2	16,4	28,9	27,5	28,2
Asturias	67,6	77,7	72,6	39,7	37,3	38,5	11,5	5,2	8,4	34,0	40,0	36,9
Balear Uharteak	44,3	56,9	50,4	27,6	28,1	27,9	12,2	6,2	9,3	12,7	14,2	13,5
Kanariak	49,8	64,9	57,1	37,3	37,5	37,4	21,7	8,1	15,1	21,6	31,7	26,5
Kantabria	59,5	71,4	65,3	37,9	40,9	39,4	20,0	10,6	15,5	24,7	36,9	30,6
Gaztela eta Leon	57,7	73,2	65,2	35,9	35,2	35,6	23,3	13,6	18,6	26,0	31,5	28,7
Gaztela-Mantxa	47,3	66,5	56,5	28,4	29,6	29,0	17,8	10,2	14,2	17,8	20,4	19,1

<sup>33</sup> Gaitasun tasek adierazten dute: derrigorrezko eskolatzearan zehar ikasketetan behar bezala aurrera egiten duten ikasleak, hots, adinaren arabera dagokien mailan daudenak.

Katalunia	53,4	68,5	60,7	45,1	39,6	42,4	..	..	..	31,2	36,7	33,9
Valentziako Erkidegoa	44,7	62,8	53,5	32,4	35,4	33,9	..	..	..	24,4	31,8	28,0
Extremadura	48,1	67,4	57,5	24,4	27,8	26,1	18,5	10,2	14,5	18,9	20,7	19,8
Galizia	56,3	74,7	65,3	41,0	36,8	38,9	13,6	6,2	10,0	32,5	36,1	34,2
Madril	60,5	69,3	64,8	23,2	22,5	22,9	13,7	7,6	10,7	23,5	25,7	24,5
Murtzia	49,5	61,7	55,4	23,6	28,1	25,8	23,4	12,5	18,2	17,8	20,1	18,9
Nafarroa	<b>52,8</b>	<b>69,6</b>	<b>60,9</b>	<b>31,8</b>	<b>22,1</b>	<b>27,1</b>	<b>5,2</b>	<b>3,1</b>	<b>4,2</b>	<b>23,6</b>	<b>22,1</b>	<b>22,9</b>
Euskal Autonomia Erkidegoa	71,3	82,7	76,8	39,6	25,2	32,6	22,6	8,9	15,9	50,2	40,2	45,3
Errioxa	45,5	59,5	52,3	37,0	35,5	36,3	24,0	10,6	17,5	27,3	33,8	30,5
Ceuta	44,1	55,1	49,5	20,9	36,0	28,3	49,9	39,9	45,0	34,5	53,5	43,7
Melilla	58,2	62,4	60,3	32,6	37,8	33,2	20,5	15,1	17,9	19,2	35,0	26,8

Iturria: Hezkuntza Ministerioa: Hezkuntzaren zifrak Espainian. Estatistikak eta Adierazleak. 2011ko argitalpena.

**284. koadroa - Eskola garaia behar baino lehenago uztea<sup>34</sup>: 18 eta 24 urte bitarteko biztanleria, Bigarren Hezkuntzako 2. etapa gainditu ez duena eta inolako heziketa-prestakuntzarik jasotzen ari ez dena**

	GUZTIRA			GIZONAK			EMAKUMEAK		
	2000	2004	2009	2000	2004	2009	2000	2004	2009
Guztira	<b>29,1</b>	<b>32,0</b>	<b>31,2</b>	<b>35,0</b>	<b>38,7</b>	<b>37,4</b>	<b>23,2</b>	<b>25,1</b>	<b>24,7</b>
Andaluzia	35,5	39,2	37,5	41,4	45,3	44,2	29,5	32,7	30,2
Aragoi	21,9	23,5	25,1	25,7	31,3	29,8	18,0	15,3	20,3
Asturias	21,8	26,3	21,1	28,2	31,4	24,5	15,5	21,2	17,4
Balearr Uharteak	42,0	42,5	40,8	51,7	49,8	46,0	32,3	34,6	35,1
Kanariak	34,1	33,5	31,3	40,4	39,7	39,4	27,9	27,1	23,2
Kantabria	22,8	26,3	23,9	28,7	32,2	32,0	16,7	20,1	16,0
Gaztela eta Leon	21,6	23,3	27,0	29,5	29,4	32,5	13,5	16,9	21,4
Gaztela-Mantxa	35,8	37,0	34,4	42,8	45,5	42,0	28,6	27,6	26,2
Katalunia	29,1	34,0	31,9	34,7	40,5	38,0	23,3	27,1	25,6
Valentziako Erkidegoa	32,7	35,6	32,8	38,9	44,2	39,1	26,6	26,7	26,1
Extremadura	41,0	39,7	34,5	48,9	49,3	40,6	33,2	29,8	28,1
Galizia	29,2	24,3	26,0	37,3	32,4	31,7	21,1	15,7	20,1
Madril	19,6	25,4	26,3	22,9	29,9	32,8	16,2	20,6	19,6
Murtzia	39,2	42,8	37,3	46,8	50,0	41,5	31,1	34,9	32,8
<b>Nafarroa</b>	<b>16,4</b>	<b>21,2</b>	<b>19,8</b>	<b>19,8</b>	<b>30,0</b>	<b>20,7</b>	<b>12,7</b>	<b>12,3</b>	<b>18,8</b>
Euskal Autonomia Erkidegoa	14,7	13,4	16,0	19,8	18,2	20,9	9,5	8,4	11,2
Errioxa	26,1	35,0	32,7	29,4	42,7	35,8	22,6	26,4	29,3
Ceuta eta Melilla	37,5	41,3	36,0	43,2	46,5	43,1	31,3	36,1	28,5

Iturria: Hezkuntza Ministerioa: Hezkuntzaren zifrak Espainian. Estatistikak eta Adierazleak. 2011ko argitalpena.

<sup>34</sup> Datuak zuhurtziaz hartu behar dira, tamaina txikiko laginetako datuek laginketa akats handiak izan ditzakete eta. (Eurostat-ek ezarritako metodologia berriaren arabera kalkulatu da, hirulekoko datuen urteko batez bestekoetan oinarrituta).

## 5.4. Sariak eta sari bereziak

### Ikasleei zuzendutako lehiaketak eta sariak.

#### Batxilergoko sari bereziak

Urtero, ikasturtea amaitutakoan, Foru Komunitateak Batxilergoko sari bereziak deitzen ditu. Batxilergoko bi ikasturteetan batez besteko nota 8,75 puntu edo gehiagokoa lortu duten ikasleei zuzenduta dago.

1999ko abenduaren 13ko Aginduaren bidez sortu ziren Batxilergoko sari nazionalak, eta bertan ezartzen dira sarien oinarriak eta erkidego bakoitzean eman daitezkeen sariak: sari bat deialdiaren urtean batxilergoko 2. mailan matrikulatutako 1.000 ikasleko edo 500 ikaslelik gorako frakzioko. Ondorioz, Foru Erkidegoak lau sari berezi ematen ahal ditu, baina ikasketa espedientean eta probetan eskatutako maila hain da handia, batzuetan sarietako batzuk hutsik geratzen direla.

2010ean Batxilergoko sari berezia jaso duten ikasleak dira:

Marta Santiago González

Xabier Esparza Adot

Diego Galán Donlo

Sandra Gómez San Esteban

Hezkuntza Ministerioak urtero ematen ditu Batxilergoko 15 sari nazional, "Batxilergoko edozein modalitatetan ikasi duten ikasleei lortutako aprobetxamendu berezia aitortzeko", eta sari horietako bat eskuratzen ahal dute Batxilergoko sari bereziarekin saritutakoek.

#### Florencio de Ansoleaga saria

Florencio de Ansoleaga saria 1917an sortu zen, izen bereko iruindar arkitektoak (1846-1916), Iruñeko adierazgarritzat har daitezkeen hainbat eraikinen egileak, xedatutakoari jarraituz. Agindu zuen bere izena daraman fundazioaren errentetatik 200 pezetako sari bana eman ziezaietela Maisutza Eskola Normaleko (gaur egungo Nafarroako Unibertsitate Publikoko Maisu-maistra diploma) ikasketa espedienterik onena duten tituludun gizonezkoari eta emakumezkoari, eta garai hartan Iruñean zegoen institutu bakarrean (Gurutze plazakoan) Batxilergoko ikasketa espedienterik onena duen ikasleari.

Berrehun pezetako saria ez da aldatu 1917tik hona (aurten bi euro izanen dira), eta garai batean ekonomikoki garrantzitsua zen saria denborarekin sari sinboliko bilakatu da. Hori dela eta, Hezkuntza Departamentuak saria mantendu du baina 300 euroko liburu sorta batekin osatu du.

2010ean Florencio de Ansoleaga saria jaso dutenak dira:

Maialen Donamaria Indacochea (Maisu-maistren diplomako espedienterik onena)

Arantxa Bezunartea Pascual (Batxilergoko 2.eko ikasle espedienterik onena)

#### Ortografiako hispanoamerikar lehiaketa

Lehiaketa hau 2000. urtean egin zen lehenengoz; bertan parte hartzera gonbidatuta daude Hispanoamerikako herrialde guztiak. Hezkuntza, Gizarte Politika eta Kirol Ministerioak autonomia erkideko guztiak, Ceuta eta Melilla ikasle bana aukeratzera gonbidatzen ditu, maila nazionalako lehiaketa batean parte har dezaten, han izendatuko delarik nazioarteko finalean Espainiaren ordezkaria izanen dena.

Lehiaketa Batxilergoko 2. mailan matrikulatutako ikasleentzat da. Lehiaketak 3 fase izaten ditu, hurrenez hurren: ikastetxean bertan, autonomia erkidegoan eta Espainiako finalean.

Probak epaimahaiak lehiakideei emandako jarraibideen arabera egiten dira, txandaz txanda ortografiaren zailtasun maila igoz joanen delarik. Eskatutakoa egoki idazten duten lehiakideak hurrengo txandara igarotzen dira, lehenengo sailkatua erabaki arte.

Lehenengo sailkatua Nafarroako Foru Komunitatearen ordezkaria izaten da lehiaketaren Espainia mailako fasean.

Aurten irabazlea izan da:

Itziar López Mayayo

Espainiako fasean lehenengo eta bigarren tokian sailkatutakoek 1.500 eta 900 euroko saria jasoko dute, hurrenez hurren. Lehenengo sailkatua Espainiaren ordezkaria izanen da nazioarteko finalean eta egonaldi horretan herrialde antolatzaileak gonbidatuta egonen da.

### **Olinpiadak**

Nafarroako Unibertsitate Publikoak antolatzen ditu Fisikako eta Matematikako Olinpiadak. Proba hauek nolabaiteko zailtasuna duten problemak ebaztean dautza. Horretarako, ikasleek beraien ezagutzez gain asmamena ere erakutsi behar dute.

#### **Fisikako Olinpiadetako irabazleak:**

- 1.a. Nabor Jiménez Segura
- 2.a. Alberto Miranda Santafé
- 3.a. Álvaro Mozota Fraúca

#### **Matematikako Olinpiadetako irabazleak:**

- 1.a. José Sebastián Ochotorena
- 2.a. Nabor Jiménez Segura
3. a. Álvaro Mozota Fraúca

#### **Biologiako Olinpiadetako irabazleak:**

Nafarroako Unibertsitateak antolatzen du Biologiako Olinpiada. Proban test erako 75 galdera (bakoitzean bost aukera ematen ziren, eta bakarra zen zuzena) eta garatu beharreko galdera bat (berdinketa badago bakarrik zuzentzen da hau) erantzun behar izan dira. Galderak Batxilergoko lehenengo eta bigarren kurtsoetako gaiet buruzkoak dira.

- 1.a. Miguel Nuño Viguria
- 2.a. Ana Castiella García
- 3.a. Alejandro Urdiciain Ezpeleta

#### **Kimikako Olinpiadetako irabazleak:**

Kimikako Olinpiada Hezkuntza eta Zientzia Ministerioaren programa bat da, Espainiako Kimikari Elkarte Nazionalarekin eta Espainiako Kimikako Errege Elkartearekin lankidetzan egiten dena. Hemen, Aragoiko eta Nafarroako Kimikarien Elkarteak antolatzen ditu eta eta erkidego mailako faseari dagozkion probak NUPeko Kimika Aplikatuko departamentuaren laguntzarekin egiten dira.

- 1.a. Nabor Jiménez Segura
- 2.a. Alejandro Urdiciain Ezpeleta
- 3.a. Marco Ojer Andrés

#### **Geografiako Olinpiadetako irabazleak:**

Nafarroako Unibertsitateak antolatzen du Geografiako Olinpiada. Galderak Batxilergoko lehenengo eta bigarren kurtsoetako gaiet buruzkoak dira.

- 1.a. Leyre Resano Marzo
- 2.a. María Domínguez Arrizabalaga
- 3.a. Sandra Aguilera Urtea

Erkidego mailako faseetako irabazle guztiak fase nazionalera pasatzen dira. Urtero Espainiako hiri batean izaten da fase nazionala.

### **Ramón y Cajal saria**

Petilla Aragoiko Udalak diziplinarteko lehiaketa bat deitzen du urtero, herriaren historia eta bere semerik ospetsuenarena, Santiago Ramón y Cajal jaunarena alegia, ezagutzera emateko. Ikasturte honetan VIII. "Petilla Aragoi, ezagutu eta ikertu beharreko nafar enklabea" diziplinarteko lehiaketa izan da.

Lehiaketak hiru modalitate ditu:

Lan artistiko onenei sariak, Lehen Hezkuntzako hirugarren zikloko eta DBHko 1. eta 2. mailetakoko ikasleentzat. Lan artistikoen (marrazkiak, collagea, eskulturak, etab.) gaiak zerikusia izan behar du Petilla Aragoiko udalerraren edozein alderdirekin.



Sariak idatzizko lan onenei, DBHko eta Batxilergoko ikasleentzat. Idatzizko lanak originalak eta aurretik argitaratu gabeak izan behar dira; gaiak zerikusia izan behar du Petilla Aragoiko udalerriarekin (historia, artea, ingurune fisiko eta naturala, etab.) edo/eta Santiago Ramón y Cajal jaunaren bizitza eta lanarekin.

Sariak idatzizko lan onenei, erretiratuentzat eta aurretik erretiratuentzat. Idatzizko lanak originalak eta aurretik argitaratu gabeak izan behar dira; gaiak zerikusia izan behar du Petilla Aragoiko udalerriarekin (historia, artea, ingurune fisiko eta naturala, etab.) edo/eta Santiago Ramón y Cajal jaunaren bizitza eta lanarekin.

Ikastetxe bakoitzak proposatutako gaien gaineko nahi beste lan aurkezten ahal du, taldean zein banaka egindakoak; lanak irakasle batek zuzentzen eta bermatzen ahal ditu. Erretiratuek edo aurretik erretiratuek aurkeztutako lanek banaka egindakoak izan behar dute.

Modalitate bakoitzeko bi sari daude: lehenengo sarituarentzat 350 € eta diploma; bigarrenarentzat 250 € eta diploma.

Epaimahaiko kide da, besteak beste, Berrikuntza Programen Bulegoa. Sari banaketa jendaurreko ekitaldi batean egiten da Petilla Aragoi, Santiago Ramón y Cajal jaunaren museo-etxean.

2011n saritutako lanak izan dira:

Lan artistikorik onenaren saria (A modalitatea)

1.- Irene Candelas Unzué, Saioa Górriz Eguaras eta Jonatan Sandoval García

Ikastetxea: Burlatako "Amor de Dios" ikastetxea

Lana: Santiago Ramón y Cajal jaunaren gelaren maketa

Irakasleak: Verónica Coello, Irene Martínez eta Valeria Vañes

1.- Maite Elizondo Cruz, Leyre Molinares Hernández, Gorka Oroz Laurenz eta Patxi Barreneche Almandoz

Ikastetxea: Burlatako "Amor de Dios" ikastetxea

Lana: Donemiliaga elizaren maketa

Irakasleak: Verónica Coello, Irene Martínez eta Valeria Vañes

2.- Faisal Biurrun Hamarras, Alejandro Carazo Restrepo, Ainhoa de Paz Blanco, Naroa Rodríguez Chamorro

Ikastetxea: Burlatako "Amor de Dios" ikastetxea

Lana: Santiago Ramón y Cajalen koadroa.

Irakasleak: Verónica Coello, Irene Martínez eta Valeria Vañes

(4 bigarren sari eman dira, horietako 2 ex aequo hiru lanen artean).

2.- David Hernández Martín, Andrea Miguel Alemán, Elisa Ramírez Tapia.

Ikastetxea: Burlatako "Amor de Dios" ikastetxea

Lana: Petilla Aragoiri buruzko dominoa.

Irakasleak: Verónica Coello, Irene Martínez eta Valeria Vañes

2.- Teresa Jones Jones, Nicool Maza Benítez eta Yamilex Maza Benitez

Ikastetxea: Burlatako "Amor de Dios" ikastetxea

Lana: Joko kultural interaktiboa.

Irakasleak: Verónica Coello, Irene Martínez eta Valeria Vañes

2.- Patricia Aguilar Ión, Álvaro Galera López, Kevin Malla Gordillo

Ikastetxea: Burlatako "Amor de Dios" ikastetxea

Lana: Argazkientzako euskarria.

Irakasleak: Verónica Coello, Irene Martínez eta Valeria Vañes

2. saria (ex aequo): Amaia Zulet Fraile

Iruñeko Santa Teresa ikastetxea

Lana: "Ramón y Cajal" eta "Color de primavera en Petilla" margolanak.

2º. saria (ex aequo): Lara Compains Urtasun

Basoko institutua

Lana: Petillari buruzko margolana.

Idatzitako lanik onenari saria (B modalitatea)

1.- Andrea Castro Pejenaute

Ikastetxea: Santo Tomás ikastetxea

Lana: Giza loturak

(Bi bigarren sari eman dira)

Lan artistiko onenei sariak, erretiratuentzat eta aurretik erretiratuentzat (D kategoria)  
Roberto Sucunza Zabaleta  
Petillari buruzko margolana.

#### **“Qué es un Rey para ti” saria**

Fundación Institucional Española (FIES) fundazioak deitzen du, Fundación Orange elkartearen babesarekin. Lehiaketara eskulanak aurkezten ahal dira: eskulturak, muralak, marrazkiak, etab. Lehen Hezkuntzako 3., 4., 5. eta 6. mailako ikasleentzat, DBHko 1. eta 2. mailakoentzat eta Hezkuntza Bereziko 18 urte bitarteko ikasleentzat da.

Aurtengoa lehiaketaren XXIX. aldia izan da eta Nafarroako 35 ikastetxeko 215 ikaslek hartu dute parte.

Barañaingo Santa Luisa de Marillac ikastetxeko Eduardo Salcedo Puyok irabazi du Nafarroan eskola lehiaketa.

#### **Lanbide Heziketa:**

Martxoaren 4ko 79/2011 Ebazpenaren bidez, 2009-2010 ikasturteari dagozkion Nafarroako Foru Komunitateko Lanbide Heziketako eta Arte Plastikoetako eta Diseinuko Sari Bereziak banatu ziren.

Erdi mailako heziketa zikloak:

6 sari eman ziren, bakoitza diploma eta 400 eurokoa. Sarituak hauek izan ziren:

Ainara Erice García, Erizaintzako Zainketa Lagungarrietako teknikaria (Osasuna lanbide arlokoa), Iruñeko “María Inmaculada” LHIPn.

María Escudero Peñalver, Ekipo eta Instalazio Elektroteknikoetako teknikaria (Elektrizitatea eta Elektronika lanbide arlokoa) Tuterako “ETI” IIPn.

Carmen Garrido García, Administrazio Kudeaketako teknikaria (Administrazioa lanbide arlokoa) Iruñeko “Cuatrocientos ITC” LHIPn.

Oriol Gurrea Vallsmadella, Sukaldaritza eta Gastronomiako teknikaria (Ostalaritza eta Turismoa lanbide arlokoa) Burlatako “Ibaialde-Burlada” BHIn.

Mikel Oscariz Tellechea, Mekanizazioko teknikaria (Fabrikazio Mekanikoa lanbide arlokoa) Elizondoko “Lekaroz-Elizondo” BHIn.

Amelia Rubio Bellostas, Ile-apainketako teknikaria (Irudi Pertsonala lanbide arlokoa) Burlatako “Ibaialde-Burlada” BHIn.

Goi mailako heziketa zikloak:

11 sari eman ziren, bakoitza diploma eta 600 eurokoa. Sarituak hauek izan ziren:

Rubén Berreguero Rica, Informatika Aplikazioen Garapeneko goi mailako teknikaria (Informatika lanbide arlokoa) Iruñeko “María Ana Sanz” Administrazio, Merkataritza eta Informatika IIn.

Marta Beunza de Miguel, Administrazioa eta Finantzetako goi mailako teknikaria (Administrazioa eta Kudeaketa lanbide arlokoa), Iruñeko “Carlos III CT” LHIPn.

Juan Carlos Bru Martínez, Erregulazio eta Kontrol Sistema Automatikoetako goi mailako teknikaria (Elektrizitatea eta Elektronika lanbide arlokoa), Iruñeko “Salesianos” BHIPn.

Luis Crespo Hualde, Arte Plastikoak eta Diseinuko goi mailako teknikaria Grabatua eta Estanzio Tekniketan (Liburuaren Arloko Arte Aplikatuak lanbide arlokoa) Iruñeko Arte Eskolan.

Ana del Cerro Reyes, Garraioaren Kudeaketako goi mailako teknikaria (Merkataritza eta Marketina lanbide arlokoa) Iruñeko “María Ana Sanz” LHIPn.

Carmen Garraza Morentin, Elikagaien Industriako goi mailako teknikaria (Elikagaien Industriako lanbide arlokoa) San Adriango “Ega” BHIn.

Sandra Latasa Espelosín, Haur Hezkuntzako goi mailako teknikaria (Gizarte eta Kultur Zerbitzuak lanbide arlokoa), Iruñeko “Carlos III CT” LHIPn.

Francisco Javier Meoqui Iureta, Eraikuntza Proiektuen Garapena eta Aplikazioko goi mailako teknikaria (Eraikuntza eta Obra Zibila lanbide arlokoa), Iruñeko “Virgen del Camino” IIPn.

María Ángeles Sánchez Antón, Jatetxe Arloko goi mailako teknikaria (Ostalaritza eta Turismoa lanbide arlokoa) Burlatako “Ibaialde-Burlada” BHIn.

Leire Santos Piquer, Aho-hortzetako Higieneko goi mailako teknikaria (Osasuna lanbide arlokoa) Iruñeko “ESTNA - Nafarroako Lanbide Eskola Tekniko Sanitarioa” IIn.

Jennifer Sayas Beguer, Lanbide Arriskuei Aurrea Hartzeko goi mailako teknikaria (Instalazioa eta Mantentze-lana lanbide arlokoa) Tuterako "ETI" IIPn.

**Arte ikasketak.**

**Musikako lanbide ikasketen saria:**

Hezkuntzaren, Lanbide Heziketaren eta Unibertsitateen zuzendari nagusiaren azaroaren 12ko 413/2010 Ebazpenaren bidez esleitu zen interpretatzeko gaitasun onena duten ikasleendako saria, 2009/2010 ikasturteari dagokiona, Musikako lanbide ikasketen modalitatean. Iñigo Miqueleiz Berrade jaunak eskuratu zuen saria, "Akordeioa" espezialitatean. Saria izan zen diploma bat eta 500 euro. Ikasleak kontzertua eman zuen "Pablo Sarasate" musikako kontserbatorio profesionalean, saria emateko ekitaldian.



